

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **Euskarazko literatur testu itzulietako eta ez-itzulietako lexikoen konparazio-saioak**

**Isabel Etxeberria Ramírez**

Tesi-zuzendaria: **Gidor Bilbao Telletxea**

Vitoria-Gasteizen, 2024ko apirilean



# Esker ona

Lehenengo eta behin —ezin bestela izan—, tesi honetan gidari eta bidaide izan dudan pertsonari eman nahi dizkiot eskerrak. Gidor, inteligentzia handiz jakin duzu noiz estutu eta noiz itxaron, eta unean-unean behar zenaren arabera jokatu duzu: hastapenetan, galderak egiten zituen gizona zinen («eta zergatik nahi duzu hori aztertu?, eta zer uste duzu aurkituko duzula?, eta zer adierazten dizu lortu duzun datu horrek?...»); eta aurrerago, zailtasunak eta zalantzak agertu ahala, erantzunak zirt edo zart, argi eta eraginkor eskaintzen zizkidan pertsona bihurtu zinen. Infitutuki eskuzabala izan zara nirekin eta prestasun erabatekoa agertu didazu une oro, baina batez ere, eta horrek eredugarri egiten zaitu, aurrean duzuna ikasle bat soilik ez baizik eta pertsona oso bat dela aintzat hartuta tratatzea zeinen inportantea den erakutsi didazu. Eskerrik asko bihotz-bihotzez.

«Tesi hau ez zen posible izango...». Esaera ihartua ematen du, baina hemen eta orain egia da letraz letra. Tesi hau ez zen posible izango Josu Landaren laguntza gabe. Eskerrik asko, Josu. Ez bakarrik corpusetik datuak erauzteko eskatu dizudan guztietan agertu duzun eraginkortasun, ezagutza eta buru-argitasunagatik, baizik eta molestia baino gehiago dibertitzeko aukera ematen nizula helaraziz sentiarazi didazun konplizitateagatik ere. Gozamena izan da zurekin bide hau egitea. Tesi hau zurea ere bada.

Anjel Lertxundi, berak jakin gabetarik ere, tesi honen inspiratzaile intelektuala izan da. Euskal itzulpengintzari buruzko haren gogoetek zer pentsatu etengabea eman didate, eta ideia ugari piztu dizkidate. Bihoazkio hemendik nire miresmen eta esker on zintzoenak.

Miren Ibarluzea, Koldo Biguri eta David Lindemann, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko itzulpengintza adarreko lankide eta lagunak, hurbil sentitu zaituztet beti, eta nire poza zuen poza ere bazela helarazi didazue behin baino gehiagotan. Mila esker! Eta

eskerrik asko fakultateko pasilloetan tesiaz galdetu edo ez galdetu, zer ote zen hobe jakin ezinik nigana etorri eta zuen interesa eta arreta adierazi didazuen saileko lagun guztiei.

Eskerrik asko nire ikasleei, perspektiba ez galtzen eta oinak lurrean mantentzen laguntzen didazuelako egunero.

Eskerrak eman nahi dizkizuet halaber azken aspalditxo honetako nire «orain ezin dut» guztiei «ez kezkatu» lasaigarri batez erantzun didazuenei, bereziki EIZIEko lagunei eta Susako lagunei.

Asko zarete bide honetan hurbil sentitu zaituztedan lagunak. Bakoitzak bere modura eta bere lekutik, nirekin zinetela jakinarazi didazue, eta bihotzez eskertzen dizuet. Eskerrik asko, Aiora, Alazne, Amaia, Amaia, Amaia, Bego, Claudia, Eli, Garazi, Ibon, Iñigo, Irma, Joannes, Leire, Leire, Maialen, Maria, Mikel, Naroa, Saioa, Silvia eta Zuriñe.

A mis padres, mil gracias. Todo lo que de bueno pueda haber en esta tesis os lo debo a vosotros. De vosotros he recibido la curiosidad, el interés por entender la realidad y el espíritu crítico. Y vosotros me enseñasteis que puestos a hacer algo merece la pena hacerlo bien. ¡Vosotros sí que lo habéis hecho bien!

Eta etxekoei, azkenik. María Molinerrek honela idatzi zuen bere *Diccionario de uso del español*-eko dedikatorian: «A mi marido y a nuestros hijos les dedico esta obra terminada en restitución de la atención que por ella les he robado». Ez dut modu hoberik irudikatzen sentitzen dudana esateko. Honen guztiaren parterik itsusiena tokatu zaizue zuei. Listo, bukatu da. Bueltan naiz berriro.





# Aurkibidea

<b>1 Tesiaren nondik norakoak</b> .....	<b>13</b>
1.1 Sarrera: lanaren kokapena eta motibazioa.....	13
1.2 Ikerketa-helburuak eta -galderak.....	29
1.3 Lanaren egitura.....	31
<b>2 Marko teorikoa eta aurrekariak</b> .....	<b>33</b>
2.1 Mona Baker eta itzulpen-unibertsalak.....	34
2.2 Lexiko mailako dentsitatea, aniztasuna eta emankortasuna.....	37
2.2.1 Sara Laviosa eta lexiko-dentsitatea.....	37
2.2.2 Vilma Pápai eta type/token ratioa.....	39
2.2.3 Jarmo Harri Jantunen eta sinonimia.....	41
2.2.4 Maeve Olohan eta lexiko-emankortasuna.....	43
2.2.5 Richard Xiao ( <i>et al.</i> ) eta lexiko-dentsitatea.....	46
2.3 Normalizazioa (edo estandarizazioa, konbentzionalismoa, kontserbadurismoa).....	49
2.3.1 Mona Baker eta lokuzioak.....	49
2.3.2 Sampo Nevalainen eta kolokialismoak.....	50
2.3.3 Donna A. Williams eta lexiko-sorkuntza.....	53
2.3.4 Gloria Corpas Pastor eta aldaera diatopikoak.....	55
2.3.5 María Victoria Valencia Giraldo eta aldaera diatopikoak.....	56
2.3.6 Isabel Tello Fons eta erregistro mailako aldaerak.....	58
2.4 Kolokazioak.....	59
2.4.1 Dorothy Kenny.....	59
2.4.2 Pernilla Danielsson.....	60
2.4.3 Marco Baroni eta Silvia Bernardini.....	61
2.4.4 Silvia Bernardini.....	62
2.4.5 Carmen Dayrell.....	63
2.4.6 Josep Marco Borillo.....	64
2.4.7 Gloria Corpas Pastor.....	65
2.5 Hizkuntza gutxituei buruzko azterlanak: COVALT corpora.....	66
2.6 Laburbilduz.....	69

<b>3</b>	<b>Metodologia.....</b>	<b>73</b>
3.1	Corpusa.....	73
3.1.1	Corpusaren deskribapen orokorra.....	73
3.1.2	Testu itzulien sorburu-hizkuntzak.....	75
3.1.3	Idazleak eta itzultzaileak.....	76
3.1.4	Argitalpen-datak.....	78
3.1.5	Argitaratzaileak.....	80
3.1.6	Corpusaren indarguneak eta ahuleziak.....	83
3.2	Datuen hautaketa eta erauzketa.....	84
<b>4</b>	<b>Datuen analisia.....</b>	<b>89</b>
4.1	Koloreak.....	89
4.1.1	Multzoaren osaera.....	90
4.1.2	Datuen analisia.....	104
4.1.2.1	Oinarrizko kolore-izenak.....	104
4.1.2.1.1	Datu orokorrak.....	104
4.1.2.1.2	Oinarrizko koloreak azpieremu semantikoetan.....	116
4.1.2.1.2.1	Arrosaren tonuak.....	119
4.1.2.1.2.2	Beltzaren tonuak.....	120
4.1.2.1.2.3	Berdearen tonuak.....	122
4.1.2.1.2.4	Gorriaren tonuak.....	124
4.1.2.1.2.5	Horiaren tonuak.....	125
4.1.2.1.2.6	Morearen tonuak.....	126
4.1.2.1.2.7	Urdinaren tonuak.....	128
4.1.2.1.2.8	Urre eta zilarkaren tonuak.....	130
4.1.2.1.2.9	Zuriaren tonuak.....	131
4.1.2.2	[izena + <i>kolore</i> ] egituradun kolore-izenak.....	134
4.1.2.3	Kolore-konbinazioak.....	149
4.1.3	Laburbilduz.....	162
4.2	Denbora-adberbioak.....	165
4.2.1	Multzoaren osaera.....	166
4.2.2	Datuen analisia.....	173
4.2.2.1	Datu orokorrak.....	173
4.2.2.2	Denbora-adberbioak sinonimo eta parasinonimo multzoetan..	221
4.2.2.2.1	<i>Aida batean</i> eta haren sinonimoak.....	224
4.2.2.2.2	<i>Aldi oro</i> eta haren sinonimoak.....	226
4.2.2.2.3	<i>Aldian behin</i> eta haren sinonimoak.....	228
4.2.2.2.4	<i>Aldian sarri</i> eta haren sinonimoak.....	231
4.2.2.2.5	<i>Ardurenean</i> eta haren sinonimoak.....	235



4.2.2.2.6	<i>Antzina</i> eta haren sinonimoak.....	236
4.2.2.2.7	<i>Arestian</i> eta haren sinonimoak.....	237
4.2.2.2.8	<i>Aurrenean</i> eta haren sinonimoak.....	238
4.2.2.2.9	<i>Banpez</i> eta haren sinonimoak.....	240
4.2.2.2.10	<i>Belu</i> eta haren sinonimoak.....	242
4.2.2.2.11	<i>Gau beranduan</i> eta haren sinonimoak.....	243
4.2.2.2.12	<i>Harrezkero</i> eta haren sinonimoak.....	245
4.2.2.2.13	<i>Luzara</i> eta haren sinonimoak.....	247
4.2.2.2.14	<i>Oraindik</i> eta haren sinonimoak.....	249
4.2.2.2.15	<i>Santa sekula</i> eta haren sinonimoak.....	251
4.2.3	Laburbilduz.....	254
4.3	Kolokazioak: sentimenduak eta emozioak adierazteko erabili diren [izen + adjektibo] konbinazioak.....	257
4.3.1	<i>Kolokazio</i> kontzeptuaz eta terminoaz.....	259
4.3.2	Multzoaren osaera.....	261
4.3.3	Datuen analisia.....	268
4.3.4	Laburbilduz.....	285
<b>5</b>	<b>Ondorioak.....</b>	<b>289</b>
	<b>Bibliografia.....</b>	<b>303</b>
	<b>Eranskinak.....</b>	<b>319</b>
I.	eranskina. Testu ez-itzulien corpuseko liburuak eta haien oinarritzko datuak.....	321
II.	eranskina. Testu itzulien corpuseko liburuak eta haien oinarritzko datuak.....	342
III.	eranskina. Oinarritzko kolore-izenak: agerraldi eta liburu kopuruak.....	355
IV.	eranskina. [izena + <i>kolore</i> ] egituradun kolore-izenak: agerraldi eta liburu kopuruak.....	359
V.	eranskina. Kolore-konbinazioak: agerraldi eta liburu kopuruak.....	365
VI.	eranskina. Denbora-adberbioak: agerraldi eta liburu kopuruak.....	375
VII.	eranskina. Kolokazioak: agerraldi eta liburu kopuruak.....	387

# Taulen aurkibidea

3.1. taula. Testu itzulien sorburu-hizkuntzak eta hizkuntza bakoitzeko liburu kopurua....	75
3.2. taula. Testu itzulien eta ez-itzulien kopuruak urtez urte.....	78
3.3. taula. Testu itzulien azpicorpuseko sorburu-testuen sorrera-data.....	79
3.4. taula. Testu ez-itzulien azpicorpuseko liburuen argitaratzaileak.....	80
3.5. taula. Testu itzulien azpicorpuseko liburuen argitaratzaileak.....	82
4.1. taula. Koloreak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoen agerraldi kopuruaren arabera tarteetan sailkatuta.....	110
4.2. taula. Koloreak izendatzeko terminoak zenbat liburutan ageri diren testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoen agerraldi kopuruaren arabera tarteetan sailkatuta.....	110
4.3. taula. Koloreen azpiero semantikoetako guztizko agerraldi kopuruak eta ehunekoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	117
4.4. taula. Soilik testu itzulietan ageri diren [izena + <i>kolore</i> ] egituradun kolore-izenen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren.....	136
4.5. taula. Soilik testu ez-itzulietan ageri diren [izena + <i>kolore</i> ] egituradun kolore-izenen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren.....	140
4.6. taula. [izena + <i>kolore</i> ] egituren agerraldien eta liburuen guztizkoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, eta haien arteko proportzioa.....	142
4.7. taula. [izena + <i>kolore</i> ] egituren agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoak agerraldi kopuruaren arabera tarteetan sailkatuta.....	143
4.8. taula. Testu ez-itzulietan nabarmen gehiago erabiltzen diren [izena + <i>kolore</i> ] egituren agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan.....	144
4.9. taula. Testu itzulietan nabarmen gehiago erabiltzen diren [izena + <i>kolore</i> ] egituren agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan.....	146
4.10. taula. Soilik testu itzulietan ageri diren kolore-konbinazioen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren.....	151
4.11. taula. Soilik testu ez-itzulietan ageri diren kolore-konbinazioen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren.....	155
4.12. taula. Kolore-konbinazioen agerraldien eta liburuen guztizkoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, eta haien arteko proportzioa.....	159
4.13. taula. Kolore-konbinazioen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoak agerraldi kopuruaren arabera tarteetan sailkatuta.....	160
4.14. taula. Kolore-konbinazioak zenbat liburutan ageri diren testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoak agerraldi kopuruaren arabera	

tarteetan sailkatuta.....	161
4.15. taula. Bi azpicorpusetako bakar batean ere erabili ez diren denbora-adberbioak, hiztegieta jasota ageri diren eta markarik ezarri zaien adierazita.....	175
4.16. taula. Testu itzulietan soilik ageri diren denbora-adberbioen agerraldi kopuruak, hiztegieta jasota ageri diren eta markarik ezarri zaien adierazita.....	177
4.17. taula. Testu ez-itzulietan soilik ageri diren denbora-adberbioen agerraldi kopuruak, hiztegieta jasota ageri diren eta markarik ezarri zaien adierazita	178
4.18. taula. Denbora-adberbio guztien agerraldien eta liburuen guztizkoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	183
4.19. taula. Denbora-adberbioen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan, eta terminoak agerraldi kopuruaren araberako tarteetan sailkatuta.....	189
4.20. taula. Denbora-adberbioak zenbat liburutan ageri diren testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan, eta terminoen agerraldi kopuruaren araberako tarteetan sailkatuta.....	190
4.21. taula. Testu ez-itzulietan testu itzulietan baino gutxienez bi aldiz agerraldi gehiago dituzten denbora-adberbioen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan erabili diren.....	192
4.22. taula. Testu itzulietan testu ez-itzulietan baino gutxienez bi aldiz agerraldi gehiago dituzten denbora-adberbioen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan erabili diren.....	197
4.23. taula. Iparraldeko terminoen agerraldien banaketa idazleen eta itzultzaileen jatorriaren arabera, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	205
4.24. taula. Bizkaierako terminoen agerraldien banaketa idazleen eta itzultzaileen jatorriaren arabera, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	206
4.25. taula. Denbora-adberbio ez gomendatuen eta hiztegieta jasotzen ez direnen agerraldi kopuruak.....	212
4.26. taula. Denbora-adberbio ez-markatu guztien agerraldien eta liburuen guztizkoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	218
4.27. taula. Denbora-adberbio ez-markatuen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan, eta terminoak agerraldi kopuruaren araberako tarteetan sailkatuta.....	219
4.28. taula. Ondoan 5 adjektibo edo gehiago hartzen dituzten izenak eta zenbat adjektibo hartzen dituzten.....	267
4.29. taula. Kolokazio kopuruak testu ez-itzulietan eta itzulietan, agerraldi kopuruaren araberako tarteetan sailkatuta.....	274
4.30. taula. 10 agerraldi edo gutxiago dituzten kolokazioen artean zenbat kolokaziok dituzten agerraldi gehiago azpicorpus batean bestean baino.....	279

# Irudien aurkibidea

4.1. irudia. Arrosaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	120
4.2. irudia. Beltzaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	121
4.3. irudia. Beltzaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, 'beltx' eta 'baltz' kenduta.....	122
4.4. irudia. Berdearen tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	123
4.5. irudia. Gorriaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	124
4.6. irudia. Horiaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	126
4.7. irudia. Morearen tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	127
4.8. irudia. Urdinaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	129
4.9. irudia. Urre eta zilarkaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	130
4.10. irudia. Zuriaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	131
4.11. irudia. <i>Aida batean</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	224
4.12. irudia. <i>Aida batean</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>berehala</i> eta <i>aurki</i> kenduta.....	225
4.13. irudia. <i>Aldi oro</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	226
4.14. irudia. <i>Aldi oro</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>beti</i> , <i>egunero</i> eta <i>etengabe</i> kenduta.....	227
4.15. irudia. <i>Aldian behin</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	229
4.16. irudia. <i>Aldian behin</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>tarteka</i> eta <i>noizean behin</i> kenduta.....	230
4.17. irudia. <i>Aldian sarri</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	232
4.18. irudia. <i>Aldian sarri</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>behin eta berriro</i> , <i>behin eta berriz</i> , <i>maiz</i> eta <i>sarri</i> kenduta.....	233
4.19. irudia. <i>Aldian sarri</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>behin eta berriro</i> , <i>behin eta berriz</i> , <i>maiz</i> , <i>sarri</i> eta <i>sarri askotan</i> kenduta.....	234

4.20. irudia. <i>Ardurenean</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	235
4.21. irudia. <i>Antzina</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	236
4.22. irudia. <i>Antzina</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>aspaldi</i> , <i>aspaldian</i> eta <i>garai batean</i> kenduta.....	237
4.23. irudia. <i>Arestian</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	238
4.24. irudia. <i>Aurrenean</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	239
4.25. irudia. <i>Banpez</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	240
4.26. irudia. <i>Banpez</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>bat-batean</i> kenduta.....	241
4.27. irudia. <i>Belu</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan	242
4.28. irudia. <i>Belu</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>berandu</i> kenduta.....	243
4.29. irudia. <i>Gau beranduan</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	245
4.30. irudia. <i>Harrezkero</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	246
4.31. irudia. <i>Harrezkeroren</i> sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>harrezkero</i> , <i>hemendik aurrera</i> eta <i>honezkero</i> kenduta.....	247
4.32. irudia. <i>Luzara</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	248
4.33. irudia. <i>Luzara</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>luzaro</i> eta <i>luzaroan</i> kenduta.....	249
4.34. irudia. <i>Oraindik</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	250
4.35. irudia. <i>Oraindiken</i> sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>oraindik</i> kenduta.....	251
4.36. irudia. <i>Santa sekula</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.....	252
4.37. irudia. <i>Santa sekula</i> eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, <i>sekulan</i> kenduta.....	253
4.38. irudia. Guztira 50 agerraldi baino gehiago dituzten kolokazioen agerraldi kopuruak.....	276
4.39. irudia. Guztira 100 agerraldi baino gehiago dituzten kolokazioen agerraldi kopuruak.....	277
4.40. irudia. 10 agerraldi edo gutxiago dituzten kolokazio kopuruak, agerraldi kopuruaren araberrako tartetean sailkatuta.....	280



## Tesiaren nondik norakoak

---

### **1.1. Sarrera: lanaren kokapena eta motibazioa**

XX. mendearen bukaeran, Itzulpen Ikasketa Deskribatzaileak sendotzearekin eta corpus bidezko ikerketa garatzearekin batera, testu itzulietako hizkera ezaugarritzeko interesa piztu zen. Arretagune berri horren sorreran eragile funtsezkoa izan zen Mona Bakerrek (1993) plazaratutako itzulpen-unibertsalen proposamena. Bakerrek iradoki zuen testu itzuli orotan, edozein direlarik ere haien sorburu-hizkuntza eta xede-hizkuntza, badirela bereizgarri linguistiko komun batzuk, testuok itzulpen-prozesu baten ondorio izate hutsari zor zaizkionak. Zehazki, honela definitu zuen itzulpen-unibertsalaren kontzeptua: «(...) universal features of translation, that is features which typically occur in translated text rather than

original utterances and which are not the result of interference from specific linguistic systems» (Baker 1993: 243).

Garai hartan Itzulpen Ikasketak egonkortzen eta diziplina beregainaren estatusa eskuratzen ari ziren; hala, bada, erregulartasunen bilaketak beste zientziekiko parekidetasuna bermatzen lagundu zezakeelako ideiak akuilatuta (Chesterman 2004) eta corpusgintzaren une hartako garapen ikaragarria baliatuta, ugaritu egin ziren testu itzulietako hizkeraren bereizgarriak antzematea helburu zuten ikerlanak. XXI. mendearen hasiera honetan, ondorioz, hizkuntza bateko testu itzuliak eta ez-itzuliak aztertzea eta konparatzea Itzulpen Ikasketetako ikerlerro garrantzitsua bihurtu da.

Bakerrren hasierako proposamenaren erabatekotasuna ñabartuz eta doituz joan da ikerketek ebidentziak eskaini ahala eta batez ere zentzu komunak dakarren neurritasunaren ondorioz. Itzulpen-unibertsalen ideia plazaratu eta berehala, gaiak aritu diren ikertzaile gehienek *unibertsal* terminoa baztertu, eta nahiago izan dute joerez, erregulartasunez edo ezaugarri linguistiko orokorrez hitz egin. Ñabardurak ñabardura, testu itzulietako hizkera itzulpen ez diren testuetako hizkeratik nola edo hala bereizten delako ideiak liluragarria izaten jarraitzen du, eta gaur egun oraindik ere asko dira irakurleei itzulpenen bitartez iristen zaien hizkera nolakoa den deskribatu nahian egiten diren ikerketak.

Gure tesi honetan, testu itzulietako hizkera ezaugarritzeko saiakera euskarara ekarri nahi dugu. Aitortu behar dugu, nolana ere, aztergai honi heltzeko gure lehen motibazioa ez zela izan hizkuntza guztietako testu orotan ustez errepikatzen diren joera unibertsalak bilatzea edota joera orokor horiek hizkuntza gutxituetan egiaztatzea, ezpada azken urte hauetan euskal letretan batek baino gehiagok plazaratu duen iritzi bat datuen bidez egiaztatu nahi izatea: gure asmoa, hain zuzen, euskararako itzulpenak euskarari nolabaiteko ekarpena egiten ari zaizkiolako ideia ebidentziaz hornitzea zen. Izan ere, itzulpengintza berrikuntza linguistiko-estilistikoaren sarbide garrantzitsua izaten da. Itzultzaile batek, testu bat itzultzen ari den bitartean, sorburu-testuak ezartzen dizkion zailtasun eta erronkei aurre egin behar izaten die; irtenbide egoki baten bila bere xede-hizkuntzan arakatzeko lan bat egin behar izaten du batzuetan, edo sormenera jo bestetuetan. Eta itzulpen-arazoei irtenbidea eman nahian egiten dituen proposamenek bere hizkuntzaren ondarea elikatzen dute. Euskal letretan,



bada, hainbat ahotsek aldarrikatu dute euskararako itzulpengintzaren kalitateak gora egin duela azken urteotan, eta itzulpenetako euskara hizkera literarioa eraikitzen eta zabaltzen ari dela (Lertxundi 1993: 59).

Gure ikerketa hau bultzatu zuen lehen arrazoia, beraz, ez zen izan Bakerrek abiarazitako eztabaidan argi egitea; aitzitik, itzulpen-unibertsalen gaia gerora atera zitzaigun bidera, baina berehala ikusi genuen gure ikerlanerako aurrekari teoriko eta metodologiko interesgarriak eskaintzen zizkigula. Izan ere, gure helburu behinena euskarara itzultako testuetako hizkera nolakoa den eta testu ez-itzulietako hizkeratik zertan ezberdintzen den jakitea baldin bazen, testu itzuliak eta itzulpen ez diren testuak konparatu behar genituen ezinbestean, eta horixe da itzulpen-unibertsalak bilatzea edo egiaztatzea helburu duten ikerlanen prozedura ohikoena.

Gainera, itzulpenen bitartez sortzen ari den hizkera nolakoa den, testu ez-itzulietako hizkeratik zertan ezberdintzen den eta xede-hizkuntzari zer ekarpen egin diezaiokeen aztertzeak berebiziko interesa izan dezake, gure ustez, xede-hizkuntza hori hizkuntza gutxitua denean. Izan ere, itzulpena berrikuntza linguistiko-estilistikoaren sarbide inportantea izaten da berez, baina are gehiago direnak direlako arrazoiengatik idatzizko testugintzan garapen berantiarra eta inguruko hizkuntza hegemonikoena baino oparotasun gutxiagokoa izan duten hizkuntzetan. Even-Zoharren arabera (1990: 47), literatura itzuliak hiru kasutan jokatu ohi du zeregin garrantzitsua hizkuntza batean edo, Even-Zoharren beraren hitzetan esateko, hiru kasutan bete ohi du literatura itzuliak literatur sistemaren barruko erdigunea: a) literatura bat gaztea denean, b) literatura bat periferikoa edo ahula denean, eta c) literatura batean aldaketak, krisiak edo hutsuneak gertatzen direnean. Halakoetan, itzulpenak «indar berritzaileen parte funtsezkoa» izaten dira (Even-Zohar 1990: 46-47), xede-literatura horretan lehenago existitzen ez ziren zenbait ezaugarri inportatzeko sarbide diren heinean: errealitate-eredu berriak ez ezik, hizkuntza poetiko, eredu konposizional eta teknika berriak ere.

Venutik (2012) ere harreman asimetrikoak eta hierarkikoak ikusten ditu hizkuntza handiek eta txikiek kanpokoaren beren hizkuntzara ekartzeko ageri duten jarreran. Literatura handiek kultur prestigioa dute eta nagusitasun-posizioak betetzen dituzte; literatura txikiek,

aldiz, garapen urriagoa izanik, posizio periferikoa bete ohi dute, eta ondorioz, gehiago jotzen dute itzulpenera kanpoko baliabideak inportatzeko: «[...] a minority status often drives a literature to increase its resources by translating texts from its major counterparts, importing forms and practices that its writers had not previously used and transferring the prestige that accompanies texts in major traditions» (Venuti 2012: 194).

Euskal testugintza hasiera-hasieratik agertu da itzulpenari oso lotua. Datuek erakusten dutenez, euskarazko testugintza osoaren barruan testu itzuliek hartu ohi duten lekua handia izan da historian zehar. Torrealdaik (1997) 1994. urtera arte argitaratutako euskarazko liburuei buruzko datuak bildu eta aztertu zituen, eta bost arotan multzokatuta eskaini zituen. Datu horien arabera, 1545-1699 bitartean euskaraz argitaratu ziren liburu guztien artean % 16,6 bitartean itzulpenak izan ziren. Kopuru horrek gora egin zuen hurrengo urte bitartean: 1700-1875 aldiak itzulpenak euskarazko liburu guztien % 35,2 izan ziren. 1876-1935 tartean % 13,3 izan ziren itzulpenak. 1936-1975 urteen artean gora egin zuen berriro itzulpenen proportzioak: % 22,3. Eta 1976-1994 bitartean goranzko joera berretsi zen: euskaraz argitaratutako liburuen % 36,8 izan ziren itzulpenak. XX. mende bukaerako eta XXI. mende hasierako datuetan, itzulpenaren pisu handia ikusten da berriro ere. Torrealdaik (2007; 2012; 2019) % 25 eta % 40 arteko proportzioak kalkulatu ditu 1995etik aurrerako urteetan nobedadeei edo lehen argitalpenei dagokienez: 1995ean % 36,7; 1997an % 33,8; 2000n % 26,3; 2002an % 32,7; 2005ean % 26,5; 2007an % 35,1; 2010ean % 34,5; 2017an % 35,5. Eta kopuruok are esanguratsuagoak izango lirateke aitortu gabeko itzulpenak zenbatetsiko balira.

Azken hamarkada hauetan, gainera, euskararako itzulpengintza sistema gisa sendotzen ari dela baieztatu dute zenbait egilek. Lopez Gaseniren iritzian, XX. mendearen amaierarako «badirudi literatura itzuliak nolabaiteko kanonikotasun maila erdietsi duela, obra jakin batzuen bidez baino gehiago, ereduak errepertorio eta arauak sortzearen bidez» (2010: 849). 1980ko hamarkada eta handik aurrerako urteak bereziki garrantzitsutzat jotzen ditu euskal itzulpengintzari dagokionez:

Jakina denez, itzulpengintzak oro har eta bereziki literatura-itzulpengintzak bultzada handi bat jaso zuen 80ko hamarkadatik aurrera Martuteneko Itzultzaile Eskolaren, EIZIE elkartearen eta EHUko Itzulpengintza Masterraren sorrerarekin. Urte horietan, orobat, munduko egile garrantzitsuen itzulpenak argitaratzen hasi ziren: Baudelaire, Melville,

Böll, Yourcenar, Steinbeck, Faulkner, García Márquez... Laurogeita hamarreko hamarkadan, berriz, literatura-itzulpengintzak jasotako bultzada erabakigarria izan zen, inoizko egitasmorik handienaren bitartez, Literatura Unibertsala izeneko bilduma, gaur arte 147 titulu argitaratu dituena. Hainbat itzultzaile trebatzeko eta euskal literatura mundu zabaleko idazlan ugari osatzeko balio izan zuen, zalantzarik gabe.

(López Gaseni 2010: 849)

Ibarluzea (2021) euskal itzulpengintzaren eremuaren autonomizazioaz aritu zen, hain zuzen ere, bere doktorego-tesian, eta autonomizazio horren oinarritzat «itzulpengintzari lotutako hezkuntza-egiturak, profesionalen erakundeak, erreferentzia berezituak, kontsakrazio-agentziak, kanpo-harremanak, itzulpen-politikak, itzultzaileen eta idazleen eremuarekiko jarrerak, eremuaren beraren irismena» (2021: 4) jotzen ditu, besteak beste. Hala, López Gasenik aipatutakoez gain, beste faktore batzuk gehitzen ditu euskal itzulpengintzaren sendotzea azaltzean: Senez aldizkariaren sorrera, Euskal Herriko Unibertsitatean Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua ezartzea, itzulpengintzaren arloan egindako doktorego-tesiak eta bestelako ikerlanak, Literatura Unibertsalarekin batera edo ondoren sortutako beste bilduma batzuk (Pentsamenduaren Klasikoak, Urrezko Biblioteka, Munduko Poesia Kaierak), itzulpengintzan espezializatutako zenbait argialetxe eta bildumaren sorrera (Elkar, Erein eta Alberdania argialetxeek itzulpeni eskainitako atalak, Igela, Pasazaite...), itzulpengintza modalitateko literatur sariak (Euskadi saria, Jokin Zaitegi sariketa, Vitoria-Gasteiz itzulpen sariak...), euskarazko itzulpengintzari buruzko datuak biltzen dituen NordaNor datu-basea (2021: 52, 101-104), eta «literatur jaialdietan zein azoketan euskal literatur itzulpenari eskainitako mahai-inguruak, lantegiak, prentsan euskal itzulpenari egindako tokiak, itzulpen-praktikari zein itzulpenari buruzko hausnarketari eta gogoetari buruzko postak biltzen dituzten blogak» (2021: 104).

Ibarluzeak bat egiten du oro har López Gasenirekin: «... [1980ko] hamarkadaren bigarren erditik aurrera hasi zen euskal itzulpenaren eremua erakundetzen, eremuko praktikak eta eragileak profesionalizatzen, profesionalentzako hezkuntza berezitua sistemizatzen eta eremuaren erreferentzia espezifikoak eta kontsakrazio-agentziak sortzen»

(Ibarluzea 2021: 50). Euskal itzulpengintzaren autonomizazioa gaur egun erabatekoa dela baieztatzeko zenbait arazo ikusten ditu, dena dela, bereziki literatur itzulpengintzari dagokionez, eta horregatik nahiago du euskal itzulpengintzaren autonomizazio *erlatiboaz* mintzatu:

Euskal literatura itzuliaren barne-eremua erlatiboki autonomoa dela diogu: ez dago kanpo-indarretatik libre, eta ez da erabat beregaina; ez da erabat espezifiko ez eragileen ehundurari dagokionez, ez eta ehunduraren posizioari dagokionez ere. Ikusiko dugunez, euskal itzulpen-eremuan erakundetzea gertatzen ari da, bai eta itzulpen-eremuaren berezko erreferentziak ugaltzen ere; baina, literatura itzuliaren barne-eremuari dagokionez, zehazki profesionalizazioa ez da erabatekoa, ez alderdi ekonomikoari dagokionez, ez jardueraren eskusibotasunari dagokionez. Literatur itzulpenari lotutako erakundeak edo agentziak inoiz gutxitan dira soilik itzultitako literaturari dagozkionak, nahiz eta literatura ardatz nagusietako bat izaten den gehientsuenetan eta literatur itzulpena izan ospe handiena jasotzen duena, fikziozko itzultzaileen ahotan ikusi daitekeenez, esaterako. Profesionalizazioa ere ez da erabatekoa: ezagun da oraindik ere ez dagoela ia literatur itzulpenetik soilik bizibidea ateratzeko modurik duen itzultzaile profesionalik, literaturatik soilik bizi diren profesionalak ere gutxi diren modu bertsuan. Izan ere, autonomizatzen ari den eremua bada ere, euskal literatura itzuliarena autonomia erlatiboko barne-eremua da.

(Ibarluzea 2021: 40-41)

1980ko hamarkadatik aurrerako euskal itzulpengintzaren sendotze- eta erakundetze-prozesu azeleratu hori bat dator, bestalde, itzulpengintzari buruzko teorizazioaren bilakaerarekin. Jakak (2009) historian zehar euskal itzulpengintzari buruz egin diren gogoetak aztertu, eta George Steinerrek itzulpenaren historiarako proposatutako lau aroko sailkapenarekin erkatzen du. Eta ondorioztatzen du euskal itzulpenari buruzko diskurtsoaren bilakaera ez dela hizkuntza handietan gertatu dena bezalako; aitzitik, euskarazko itzulpengintzaren inguruko pentsamoldeak bat egiten du bere eboluzio hasieran motel eta ondoren azeleratuan Europako beste hizkuntza txiki eta gutxituenarekin. Steinerrek (1975), izan ere, lau arotan banatzen du Europako itzulpenaren teoria, historia eta praktika:

lehenean (K.a. I. mendetik 1804. urtera), ikuspuntu enpiriko batetik behatzen zaio itzulpenari, norberaren itzultzaile-esperientzia oinarri hartuta; bigarrenean (1790eko eta 1813ko tratatu banatatik 1946ra arte), hermeneutikak garrantzia hartu, eta itzulpenari buruzko gogoeta poetiko-filosofikoak nagusitzen dira; hirugarrenean (1940-1960), korrante modernoak sortzen dira, hizkuntzalaritzari eta aurrerapen teknologikoei oso lotuak; laugarren aroan (1960-1975), azkenik, diziplinarteko begirada nagusitzen da, eta gogoeta hermeneutikoetarako itzulera bat gertatzen da. Bada, Jakak euskal itzulpenaren historian zehar itzulpengintzaz kaleratu diren gogoetak aztertu, eta ondorioztatzen du Steinerrek adierazitako lehen aroa XX. mendearen amaiera arte luzatu dela euskararen kasuan, bitarte luze horretako hausnarketa ia guztia itzultzaileen esperientzian oinarritutako arrazoiketa enpirikoak direlako. Bigarren, hirugarren eta laugarren aroei dagokienez, frankismoaren osteko urteetan hirurak batera gertatu direla uste du Jakak. Euskal itzulpengintzan, beraz, katalanean, galegoan eta Europako beste hizkuntza gutxitu batzuetan bezala, azken hamarkada hauetan egituratzen ari da inguruko hizkuntza hegemonikoetan progresio pausatuagoan osatuz joan den teorizazioa.

Faktore askok adierazten dute euskal itzulpengintza inoiz ez bezalako momentu bat ari dela bizitzen 1980ko hamarkadatik hona. Historian zeharreko eboluzio gutxinakakoa azkartu egin da hamarkada gutxian, eta itzulpengintza sistema gisa sendotu egin da, itzulpen kopuruaren gorakadaren ondorioz ez ezik, baita itzulpenaren inguruan gertatu den erakundetzeagatik eta itzulpenari buruzko diskurtsoa sakonagoa eta aberatsagoa bihurtu delako ere. Horrek guztiak itzulpengintzak testugintzan oro har eta literaturan bereziki betetzen duen funtzioaren aitortza bat ekarri du berekin. Ibarluzeak (2021) honela esplikatzen du:

Nabarmenezkoa da azken urteetan euskal literatur itzulpenaren onespina eta balioa handitu egin dutela bai aurretik aipatzen genuen moduko ikerketek, bai itzulpen-praktikak berak, bai erdietsitako kalitateak eta kalitate hori aintzatetsi izanak. Izan ere, estatusa goratzea itzultitako literatur testuek lortutako mailari ere zor zaio; urteek aurrera egin ahala, nola itzultzaileen profesionalizazioak eta espezializazioak hala hizkuntzaren eta literaturaren bilakaerak berak ez dute aurrera alferrik egin: gaur egungo itzulpenak

asko hobetu direla egitate bat da, bai eta euskal literatur itzultzaileek ekarpen nabarmena egin dutela euskal literaturaren garapenean ere.

(Ibarluzea 2021: 103)

Euskal literatur itzulpenaren onespén hori hainbat ahotsen esanetan berretsita ikusi dugu azken aldi honetan, itzultzaileen ahotik zein idazleenetik. Onespén horren erakusgarri nabarmenetako bat Anjel Lertxundi idazlea da. Lertxundik 1993an jada aldarrikatu zuen euskararako itzulpengintza literatur hizkera garatzen laguntzen ari zela; hain zuzen ere, itzultzaileak sorburu testuak ezarritako eskakizunei zehaztasunez erantzun beharra jotzen zuen ekarpen horren oinarritzat:

Itzulpengintzan egin den ahalegina jotzen dut, batere zalantzarik gabe, azken urteotako euskal literaturan gertatu den albiste esanguratsuen. Itzulpengintza ari da hizkera literarioa eraikitzen, itzulpengintza ari da, zehaztasunaren bidetik, jokabide desberdinetarako bideak zabaltzen, zehaztasunean baizik ez baitaiteke oinarri aniztasuna. (...). Konbentzio bat osatzen ari dira itzultzaileak (literatura ere konbentzioa baita) alderdi morfosintaktikoetan, lexikoetan eta estilistikoetan. Idazleonek, bakoitza bere txoznatik, beste borroka-klase baten trazak ditu. Ez dirudi ohartu garenik zer nolako laguntza eskaintzen dion Matias Mujikak landutako *Gauaren muturrerainoko bidaia* bezalako Célinerren itzulpen batek hizkera literario horren eraikuntzari, sorkuntza-lan gehienek —*guztienek* ezin esan, besteak beste Garziaren liburua oztupo— idazlanen aldean. Beste modu batera ere formula daiteke gorabehera: inoiz esan dudanez, idazleok itzultzaile mentalak gara (euskara ez beste hizkuntzetan irakurtzen dugu batez ere); inork ez digu, ordea, pentsatzen genuen eta idazten dugunaren arteko lotura eta zehaztasuna eskatzen, inork ez baitu ezagutzen burutik pasa zitzaiguna. Tranpa egin dezakegu; eragozpena saihestu; berez korapilotsu zena, lautu; laua denarekin, alfonbra ehundu; alfonbra gainean ibiliz, dotore plantak egin... Estrategia sozio-linguistikoetarako zilegi gerta daitekeen euskara erraza (?) delakoaren atzean ezkututzen den diskurtsuak luizi espresiboa eta itsumena ezarri nahi dizkigu literaturaren aldareko meza-emaile.

(Lertxundi 1993: 59-60)

Bernardo Atxagak (2006) bat egiten du Lertxundirekin; itzultzailearen jarduna idazlearena baino exijentzia maila handiagokoa ikusten du, itzultzaileak hizkuntzari bere ohiko jarioan aurrera egiten utzi ez eta erantzun berriak bilatu behar dituenez:

Kontuan izan itzultzaileak estutu egin behar izaten duela hizkuntza, lan berriak eginarazten dizkiola —pentsa ezazue zientzia liburuekin ari direnengan—, ezin diola hizkuntzari bere kabuz, bere ohiko eran, aurrera joaten utzi; idazleak, bai, baina hark ez. Idazleak abandona dezake bere burua hizkuntzaren ur korrontean, har dezake aldi bakoitzean bihurtzerik errazena —nola egiten omen zuen Petrarca Mont Ventoux-en ibili zenean, aldapa gutxien zuen bidezidorra hartu—; baina itzultzaileak, nahita ere, ezin du. Virgiliok idatzitako kadentzia, tonua, zehaztasuna errespetatzea beste erremediorik ez dauka. Lehia horretan, itzultzaileak forma berriak jartzen ditu zirkulazioan, ez bakarrik hitzak, eta hizkuntzaren erabilpen sofistikatu eta aberatsago baterako oina ezartzen du.

(Atxaga 2006: 48)

Juan Garziak ere itzultzea idazketa lantzeko tresna egokia dela aipatu izan du. Sarriugarteri emandako elkarrizketa batean (Sarriugarte 2017), adibidez, sorburu-testuak ezartzen dituen erresistentziak gainditu beharra aipatzen du gakotzat, Lertxundik eta Atxagak bezala:

Itzulpena, berriz, desafio bat da, beste batzuek hitz gurutzatuak egiten dituzten bezalaxe egiten nuen nik. Ez duzu zalantzarik egiten jatorrizkoaz, badakizu ona dela, orduan kontua da hori euskaraz ipintzea: arazo tekniko bat da. Gustura egiten duzu literatura onarekin ari zarela, eta tarte horretan inork ez bezala irakurtzen duzulako testu hori: idazlearekin bizi zara, mundutik abstraituta. Bide batez, idazketa lantzen ari zara, bestela berezkoetik landuko ez zenukeen moduan gainera, zeren berezkoan beti bilatzen duzu erresistentzia gutxieneko ildo.

(Sarriugarte 2017)

Idazle zein itzultzaile gisa aritzen den Julen Gabiria ere (Gabiria 2013, *apud* Ibarluzea 2021) itzulpen-lanetan aritzeak idazleari dakarzkion onurez mintzo da. Literatur molde

berriak ezagutzeko ez ezik, hizkuntzazko baliabide berriez jabetzeko ere balio du itzultzeak, haren esanetan.

Edozein idazlek asko ikasiko luke gustuko duen libururen bat itzuliko balu. Eta literaturaren mekanismoak ikusteaz eta ikasteaz gain, hizkuntza nola bihurrikatu daitekeen ere ikasten da itzulpenari esker. Oso ariketa ona da horretarako: batetik, hizkuntzaren aukera ugariak erabiltzera derrigortzen zaitu; eta, bestetik, ariketa lotua denez (beste norbaitek idatzitako testuari lotua, alegia), irakasten dizu sormenean askeagoa izaten, eta itzulpenean erabiliko ez zenituzkeen hitzak sormenean erabiltzen, adibidez.

(Gabiria 2013, *apud* Ibarluzea 2021: 110)

Garazi Arrulak, zeina idazletzan zein itzulpengintzan aritzen den, zehaztasunarekin lotzen du itzulpen-praktikaren ekarpena, Lertxundiren bidetik, Ugarteri emandako elkarrizketa batean (Ugarte 2023). Itzultzen diharduenak jatorrizko testuak ezarritako ñabardurak jaso behar ditu, eta ariketa horrek begia eta eskua zolitzen eta trebatzen ditu.

[G.A.]: [Nire] lehenengo liburuarekin Harkaitz Canok esan zuen nabaritzen zela itzultzaile baten liburua zela, eta momentuan esan nuen, «bah!».

[I.U.]: Bati baino gehiagori otuko zaio agian. Nahiago duzu ez lotzea?

[G.A.]: Ez da hori. Orduan ez nuen jakin nondik hartu, baina orain ikusten dut zehaztasunerako joera egon daitekeela atzean. Azkenean, itzulpenean nahitaez jo behar duzu konkreziora. Jatorrizkoan agertzen bada «belusezko oihal iledun gorrikara», ezin duzu jarri telazkoa zela eta gorria. Begia egina duzu horretara.

(Ugarte 2023)

Itzulpenak zehaztasunaren bidetik xede-hizkuntza hornitzeko duen gaitasuna bereziki garrantzitsua da, zenbait autoreren aburuz, euskararen kasu zehatzean. Izan ere, euskararen estandarizazioan tresna baliagarria izaten ari da itzulpen-praktika, ohiko erabileretatik kanpo



bide berrietarantz bultzatzen duenez itzultzailea. Honela esplikatzen du Xabier Olarra Amagoia Gurrutxagak egindako elkarrizketa batean (Gurrutxaga 2020):

Euskararen beraren estandarizaziorako, hainbat itzulpen leku edo bide estu samar batera ekarri behar izateak, nik uste, lagundu egin du. Anduk berak askotan esaten du: idazleak bide asko ditu barnetik ateratzen zaiona lantzeko eta sortzen zaizkion problemei ihes egiteko. Itzultzaileak, berriz, bide nahiko markatutik joan behar du.

(Gurrutxaga 2020)

Naroa Zubillagak (2013), bide beretik, itzulpenak diglosia egoeran diren hizkuntzak bultzatzeko tresna garrantzitsua direla gogorarazten digu, eta euskararen kasuan ezinbestekotzat jotzen ditu:

Jakin dakigunez, Euskal Herrian ezinbestekoa izan da eta da, gaur egun ere, itzulpena: bertako literatur sistema garatu eta indartzeko, baina, era berean, ezinbestekoa izan da egoera diglosiko larrian zen hizkuntza bultzatu, normalizatu eta garatzeko.

(Zubillaga 2013: 17-18)

Kirmen Uribek (Uribe 2013, *apud* Ibarluzea 2021) bat egiten du ideia horrekin. Haren esanetan, itzulpenek euskara edertzen eta haren maila igotzen lagundu dute, itzulpenak estilo erakusgarriak bihurtzen baitira idazleentzat:

Itzultzaileak lagundu du euskara edertzen eta euskararen maila igotzen. Gure estiloan ere eragina izan du, guk askoz lakarrago idatziko genuke. Itzultzaile batek soluzio asko ematen dizkizu zuk gero idazteko. Ikasi egiten duzu, nola antolatzen dituen esaldiak, esaldi luzeak, erritmoa... Hori dena itzultzaile batek erakusten dizu. Bestela, zaila da.

(Uribe 2013, *apud* Ibarluzea 2021: 113)

Eta Harkaitz Canok (2017) ñabardura bat gehitzen du: euskararako itzulpena hizkuntzaren bilakaeran izaten ari den eragina zeharka ari zaie iristen irakurleei, idazleen testuen bitartez:

Euskarazko itzulpenek ez dakit izan duten merezi besteko garrantzia irakurleentzat, baina idazleentzat bai. Eta gure irakurleei ere, zeharka iristen zaie horren eragina.

(Cano 2017)

Atxagak (Atxaga 2013, *apud* Ibarluzea 2017), azkenik, euskal kulturarako funtsezkoa irizten dio itzulpenari, orain arteko bilakaeran ez ezik etorkizunari begira ere. Hiztunok ez gara hutsetik abiatzen; aitzitik, aurretik entzun eta irakurri dugunaren gainean eraikitzen dugu gure hizketa, itzulpenari esker. Eta gurea bezalako hizkuntza gutxituetan, itzulpena harri angeluarra bilakatzen da.

Kulturan egotea da itzulpenean egotea, horretaz ez dago zalantzarik. (...). Niretzako itzulpena gure kasuan, gurea bezalako hizkuntza batean, gurea bezalako historia batekin eta abar... Itzulpena zinez harri angeluarra da, benetako giltzarria, funtsezkoa da, eta hortik pasako da euskal kulturaren etorkizun guztia; pasako da ez bakarrik itzulpen literario delako horretatik, ezpada itzulpen orokorretik. Idazterakoan, hitz egiterakoan, aipamenak egiten ditugu, entzundakoa eta irakurritakoa darabilgu, gure hizketa aurrez egindako hizketa baten gainean egiten dugu.

(Atxaga 2013, *apud* Ibarluzea 2017: 125)

Itzulpenek xede-hizkuntzaren bilakaeran eragiten dutelako ideia aski hedatua da, beraz, euskal idazle, itzultzaile eta ikertzaileen artean. Eragin hori, gainera, onuragarritzat jotzen dute hizkera literarioari dagokionez: sorburu-testuak ezartzen dituen estutasunek xede-hizkuntza bihurrikatzen eta zehaztasunera eta sormenera bultzatzen dutenez, hizkuntza aberasten eta baliabidez hornitzen laguntzen duela aldarrikatzen dute. Gorago esan dugun bezala, Anjel Lertxundi da euskarazko itzulpenari egindako aitortzan gehien nabarmentzen den ahotssetako bat, egile garaikideen artean iritzia plazaratzen lehenetarikoa izateagatik ez

ezik (Lertxundi 1993) baita urteetan zehar behin eta berriro itzuli delako ere ideia horretara. *Itzuliz usu begiak* saiakeran luze eta zabal ari da auziaz (Lertxundi 2019: 20, 21, 42, 60, 174, 184, 185, 186, 188, 190, 195, 232, 246, 256, 273, 276, 278, 312, 334, 368, 369). Handik hartua da itzulpenaren onespina zentzuz arrazoitzen duen aipu hau:

Ez da kontu hutsala: euskarak, batasun prozesuak eraginda, sekulako aldaketa bizi izan du azken hamarkadetan, eta itzulpengintza literarioaren emaitza da, nire ustez, prozesu horretako bisturirik zorrotzena, eta, aldi berean, baita malguena ere, albo-kalte gutxien eragindakoa. Batasunaren bidea beste sektoreek baino burutsuago eta diziplinatuago jarraitetik datorkio zorrotasuna. Malgutasuna, aldiz, jatorrizko testuek erakutsitakotik: dialektoen eta argoten erabilera lantzen du; proposamen lexikoak ematen; sorkuntzalanetan sarri saihesten den hainbat arazori aurre egiten; produkzio propioak lantzen ez dituen satira eta parodia jorratzen; kalamatrika ludikoak, hitz-joko ausartak, hizkeramodu kaotikoak, era guztietako dibertsio/probokazioak euskarara ekartzen; tragedia eta komedia, zeinetan pbreak garen, euskaraz ematen; elkarrizketa filosofikoa eta alegoria sakonduz euskararen aukeren sakonera erakusten...

Hori guztia landu behar izan du itzulpengintzak. Eta landu beharko dituenak...

Literatur euskararen bidean ez baita aski sukaldeko mantala janztea. Sortu nahi duenak mantala zikindu behar du. Arriskatu. Eta, salbuespenak salbu, idazleok ez gara gehiegi ausartzen mantala zikintzera.

(Lertxundi 2019: 246)

Lertxundik bi dohain itxuraz elkarren kontrajarriak esleitzen dizkio euskarazko literatur itzulpengintzari: zorrotasuna eta malgutasuna. Zorrotasuna diziplinarekin lotzen du, batasunerako bidean ezarritako konbentzioak betetzearekin. Malgutasuna, aldiz, sorburu-testuek eskutik dakarten mundu zabalaren aukera berriekin lotzen du, dela literatur gai eta bideetan (satira, parodia, tragedia, komedia, elkarrizketa filosofikoa, alegoria...), dela hizkuntzazko baliabideetan (dialektoen eta argoten erabilera, proposamen lexiko berriak, hitz-jokoak...).

Lertxundiren hitzak inspiratzaile ez ezik bide-erakusle ere gertatu zaizkigu ikerlan honetan zehar. Izan ere, euskarazko itzulpenetako hizkera euskaraz sortutako testuetako hizkeratik bereizten ote den aztertzeko gure ahalegin honetan, zeri erreparatu beharko geniokeen erabakitzeko pistak eskaintzen dizkigu: nolakoa da testu batzuetako eta besteetako lexikoa zehaztasunari dagokionez?, zer testu motatan erabiltzen dira arlo zehatz bateko hitz ezberdin gehiago?, nola jokatzen da testu batzuetan eta besteetan arauari dagokionez?, eta zenbaterainokoa da batzuetan eta besteetan euskalkien presentzia?, zer testu motatan topatzen dugu lexiko ezohikoagoa?, eta zeinetan lexiko errotuagoa?... Galdera horiei nola edo hala erantzuten saiatuko gara ikerlan honetan.

Aintzat hartzekoa da, nolana ere, eta gure ustez hemen berariaz aipatzea komeni da, ezen Lertxundi itzulpengintzak euskararen bilakaerari dakarzkion onurez ari denean, literatur hizkeraren kalitateaz ari dela zehazki, eta espresuki adierazten duela itzulpenen gorakada kantitatezko eta kalitatezko horrek ez duela bere ustetan eragin zuzenik eguneroko hitzunen erabileran, ez euskararen indarberritzean:

Itzulpengintzak gora egin du nabarmen, bai argitalpenen kopuruan, eta, inportanteagoa da, baita hautatutako autoreen kalitatean eta itzultzaileen trebakuntzan ere. Baina emanak baikara kontzeptuak nahastera, komeni da garbi uztea: itzulpengintzaren gorakadak edo sorkuntzaren (askotan balizko) kalitateak ez du kausa-efektu zuzenik euskararen osasunarekin, erabilerarekin, indarberritzearekin, etorkizunarekin. Izatekotan ere, itzulpengintzaren eta sorkuntzaren osasunarekin du zerikusia, hau da, lan literarioarekin, obren kalitatearekin. Inportantea da behar den guztietan azpimarratzea: lan ondo eginaren harrotasuna ez da bekatu. Besterik da, ordea, hortik ateratzea itzulpengintza —literatura oro har— indartsu egoteak euskararen errealitatea islatzen duela. Horrek esan nahiko luke literaturak indarra duela euskararen errealitatean eragiteko. Sorkuntzak eta itzulpengintzak hutsaren bezperakoa du halako botererik, eta komeni da garbi esatea ez dezagun errealitatea desitxuratu: literaturak apenas eragiten dion hizkuntzaren garapenari. Hizkuntzaren beraren hobekuntza, estimua, gozamina da itzulpenen eta sorkuntzen lan-eremua.

(Lertxundi 2019: 278)

Bestalde, azken urte hauetan euskal itzulpengintza arretagune garrantzitsua bihurtu da hizkuntzaren eta literaturaren arloko ikertzaileen artean ere. Ikerketa-lerro ugari ireki dira, eta askotariko ikuspuntuetatik begiratu zaio euskal itzulpenaren fenomenoari. Ikerketa batzuek hizkuntza zehatz batetik egindako itzulpenetako euskara aztertu dute. Hala, Naroa Zubillagak (2013) eta Zuriñe Sanzek (2014) alemanetik euskaratutako haur eta gazte literatura aztertu zuten beren doktorego-tesietan, eta Iker Sanchok (2015) errusieratik euskaratutako helduentzako narratiba. Ikerketa horietan sorburu-testuak ezarri zuen aztergaia: isekak, madarikazioak eta alemanezko partikula zehatz batzuk Zubillagarenean, unitate fraseologikoak (somatismoak eta alemanezko binomioak) Sanzenean, eta errusierazko erlatibozko perpausak Sanchorenean. Izan dira, bestalde, helburu praktikoko argiekin egindako ikerketa-lanak ere. Uxoá Iñurrietak (2019) gaztelaniaren eta euskararen arteko itzultzaile automatikoen errendimendua hobetzeko asmoz, unitate fraseologikoen azterketa linguistikoa egin, eta itzultzaile automatikoen unitate hauekin egin ohi duten tratamendu konputazionala hobetzeko proposamen bat eskaini zuen.

Beste zenbait ikerketatan, itzultzaile zehatz baten itzulpen modua izan da aztergai: Aiora Jakak (2011) Joseba Sarrionandiaren itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika aztertu zituen bere doktorego-tesian. Eta badira, bestalde, testu-genero edo itzulpen-modalitate zehatz bat aztergai izan duten lanak ere. Manu Lopez Gaseni (2000) aitzindaria izan zen euskararako itzulpengintzaren azterketan: euskaratutako haur eta gazte literaturari buruzko bere ikerketaren bitartez, literatur genero horretan euskarara egindako itzulpenak katalogatu, euskal literatur sisteman bete duten funtzioa aztertu eta haietan erabili diren itzulpen-estrategia nagusiak zerrendatu zituen. Genaro Gómez Zubiak (2003) Grimm anaien ipuinetatik abiatuta egin diren euskararako askotariko itzulpenak aztertu zituen. Josu Barambonesek (2009) ikus-entzunezkoen eremuan jarri zuen begirada, eta euskarara itzulitako haur eta gazteentzako programazioa aztertu zuen bere doktorego-tesian. Josune Beldarrainek (2010) alegia klasikoaren euskararako itzulpenak aztertu zituen. Eta Claudia Torralbak (d.g.), azkenik, Eusko Legebiltzarrean egiten den interpretazioari eta enuntziatu parentetikoei buruzko tesi bat ondu berri du.

Beste marko teoriko batetik abiatuta, Miren Ibarluzeak (2017) soziologiaren eta batez ere Pierre Bourdieuren kontzeptuak eta tresnak baliatu zituen itzulpengintzak euskal

literatura garaikidean dituen errepresentazioak aztertzeko, hiru alderdiri erreparatuta: nolakoa izan den euskal itzulpengintzaren azken hamarkada hauetako autonomizazio prozesua, zer leku hartu duen itzulpengintzak euskal literaturaren historiografietan eta zer ematen digun aditzera presentzia horrek, eta nola ageri den itzulpengintza irudikatuta euskal idazle garaikideen fikziozko lanetan.

Zenbait ikertzailek, azkenik, euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak izan dituzte aztergai. Elizabete Manterolak (2011) euskaratik itzultako literatur lanen katalogo bat sortu zuen bere doktorego-tesian, eta ondoren Bernardo Atxagaren obren itzulpenak aztertu zituen, alderdi makrotestuak eta zenbait alderdi mikrotestuak (izen propioak eta koloreak) erreparatuta. Auzi linguistiko zehatz batean arreta jarrita, Koldo Bigurik (2016) euskaratik gaztelaniarako itzulpenetan erlatiboak perpausen aurrean itzultzaileek hartutako erabakiak aztertu zituen. Eta Garazi Arrulak (2018), azkenik, autoitzulpenaren auzia jorratu zuen: euskal idazleen autoitzulpenen katalogo bat sortu zuen, eta katalogo horretatik corpus bat aukeratuta itzulpen horietako kultur erreferentzien eta heterolinguisismoaren tratamendua aztertu zituen.

Argi dago euskaratik eta euskarara egindako itzulpengintza interesa pizten duen aztergaia bihurtu dela azken hogeitun urteotan, eta gero eta ugariagoak direla itzulpenaren fenomenoak ulertu nahian egiten diren hurbilpen moduak<sup>1</sup>. Ikerlan horietako hainbatetan, sorburu-hizkuntza zehatz bateko testuak eta itzultako testuak konparatu, eta sorburu-hizkuntzak ezarritako arazo edo auzi zehatz batzuen aurrean itzultzaileek zer estrategia erabili dituzten aztertu da (Manterola 2011; Zubillaga 2013; Sanz 2014; Sancho 2015; Biguri 2016; Arrula 2018). Itzulpenetako euskara itzulpen ez diren testuetako euskararekin konparatzea, ordea, oraindik jorratu gabe dagoen ikerketa-bide bat da. Beste modu batean esateko, orain arteko ikerlanetan corpus paraleloak (*parallel corpora*) erabili dira tresnatzat, hots, sorburu-testuak eta haien itzulpenak biltzen dituzten corpusak (MacEnery eta Xiao 2008; Kenning 2010). Guk, ordea, corpus konparagarriak (*comparable corpora*) erabiliko ditugu, hau da, laginketa-irizpide berberei jarraituz sortutako corpus bat: hain zuzen, hizkuntza berean (euskara) eta garai berean (2001-2019) argitaratutako mota bereko (prosazko literatur lanak)

---

1 Une hau baliatu nahi dut euskal itzulpengintzaren ikerketan aurrekari izan ditudan lagunei eskerrak emateko. Haien lanak bide-erakusgarri izan dira niretzat, eta askotariko zalantzak argitzeko eta ideiak ernarazteko eredu hurbil-hurbilak gertatu zaizkit.

testuen corpus bat, euskaraz sortutako testuak eta euskarara itzulitakoak antzeko kopuruan bilduko dituen. Eta alde horretatik, gure ikerlan honek ekarpen interesgarria egin dezakeela uste dugu.

Mona Bakerren itzulpen-unibertsalak aipatuz hasi dugu sarrera hau, baina berehala argitu dugu tesi honen xedea ez dela itzulpen orotan ustez errepikatzen diren joerak aztertzea. Gure asmoa xumeagoa da: itzulpenetako euskarak itzulia ez den euskarak ez bezalako bereizgarriak baduen ikusi nahi dugu. Tesi honen bitartez, beraz, euskarara itzulitako testuen eta euskaraz sortutako testuen bi corpus konparatuko ditugu, testu itzulien eta ez-itzulien artean alderik baden ikusteko eta, izatekotan, alde horiek zertan dautzan aztertzeko, halako moduz non euskal irakurleei azken urte hauetan itzulpenen bitartez iristen ari zaien euskara nolakoa den deskribatzen hasi ahal izango garen eta itzulpengintza euskarari ekarpen bat egiten ari ote zaion egiaztatzeko lehen pausoak eman ahal izango ditugun. Itzulpengintzak gaur egungo euskararen garapenean zer leku betetzen duen ezagutzeko helburu horretatik harago, nolana ere, itzulpenetako hizkera ezaugarritzeko ahalegina euskararen aplikatzeak ekarpen txoa egin diezaiolke, gure ustez, nazioartean garatu den itzulpen-unibertsalen —edo joeren edo ezaugarri orokorren— eztabaida orokorrari; tesi honetan euskararen azterketatik ondorioztatuko duguna ez da izango, bistan denez, itzulpen-unibertsalen auzian ezer erabakitzeak bezain garrantzitsua, baina gure interes lokal honen emaitzek, azken finean, eztabaida unibertsala nola edo hala aberastu dezaketelako uste xumea dugu.

## **1.2. Ikerketa-helburuak eta -galderak**

Gure ikerlanaren bitartez euskarara itzulitako testuetako hizkeraren eta euskaraz sortutako testuetako hizkeraren artean alderik baden konprobatzeko lehen pausoak eman nahi ditugu. Alderdi asko aztertuz egin daiteke konparazioa, hasi lexikoaren erabileratik eta konplexutasun sintaktikoraino. Dena ezin jorratu, eta tesi honetan zehazki lexikoan jarriko dugu arreta. Gure ikerketa-eremua, bestalde, prosazko literatur testuak izango dira.

Testu itzulietako eta ez-itzulietako lexikoa konparatzeko, lehenik eta behin hiru alderdi hauek aztertzea erabaki genuen:

- Aberastasuna: antzeko kontzeptuak adierazteko euskarak eskaintzen dituen aukeren artean (sinonimoak eta parasinonimoak) zein eta zenbat erabiltzen dira testu itzulietan eta ez-itzulietan? Testu mota horietakoren bat bestea baino aberatsagoa al da aldaeretan?
- Ñabardurarako eta zehaztasunerako joera: zenbaterainoko presentzia dute testu itzulietan eta ez-itzulietan kontzeptuak adierazteko izendapen orokorrek eta zenbaterainokoa ñabardurak adierazten dituztenek? Lexiko zehatzagoa edo orokorragoa erabiltzeko joerarik ikusten al da testu mota horietakoren batean?
- Berrikuntzarako/tradiziorako joera: ikusten al da testu mota horietakoren batean gehiago erabiltzen direla corpusetan presentzia handiagoa duten hitzak (eta beraz ohikoagoak edo tradizioari lotuagoak direnak)? Eta alderantziz, ikusten al da corpusetan gutxitan erabiltzen diren hitzak (eta beraz ezohikoagoak direnak) gehiagotan ageri direla testu mota batean bestean baino? Eta hitz konbinazioak erabiltzen direnean, corpusetan presentzia handia duten konbinazioak (kolokazio errotuak) erabiltzeko joera nabarmenagoa da testu mota batean bestean baino? Eta, alderantziz, tradizioan gutxitan ikusi diren konbinazioak (kolokazio ezohiko edo berritzaileak) ugariagoak al dira testu motaren batean?

Hiru galdera horiei erantzun nahian datu-erazketak egiten hasi ginenean, ordea, beste bi joeraren zantzuak hauteman genituen lehen emaitzetan. Ondorioz, aurreko hiru galderei beste bi ikerketa-galdera gehitzea erabaki genuen:

- Euskalkien erabilera. Euskalkietakotzat jotzen diren hitzak gehiagotan erabiltzen dira testu mota batean bestean baino? Alderik ikusten al da euskalkitik euskalkira?
- Erregistroaren araberrako aldaeren erabilera. Erregistro markatu batekotzat (behe-mailakoa, herri-mailakoa, jaso, lagunartekoa...) jotzen diren hitzak gehiagotan erabiltzen dira testu mota baten bestean baino? Alderik ikusten al da erregistro motaren arabera?



### 1.3. Lanaren egitura

Tesiaren lehen atal honetan, gure ikergaia aukeratzeko motibazioa justifikatu dugu, eta gaiak azken urteotan nazioartean eta Euskal Herrian garatu den ikerketarekiko harremanetan izan lezakeen interesa eta egin lezakeen ekarpena azaldu dugu. Horrekin batera, ikerlan honen helburuak eta abiapuntuko galderak aurkeztu ditugu.

Bigarren atalean, gure lana itzulpen-ikasketen barruan kokatuko dugu. Zehazki, itzulpenetako hizkera ezaugarritu nahian nazioartean egin diren ikerlanen berri emango dugu, izan ikerlan horiek itzulpen-unibertsalen ideiarene eraginpean egindakoak zein ez, gure lanaren aurrekari interesgarriak direnez gero. Halako helburuarekin egindako lanak asko eta askotarikoak dira; gure gure aztergai zehatzetik hurbilen dauden lanak aurkeztuko ditugu soilik, hots, lexikoaren aberastasunarekin/sinplifikazioarekin eta kolokazioen erabilerarekin zerikusia dutenak nagusiki.

Behin aurrekariak aurkeztuta, hirugarren atalean metodologiaz jardungo dugu. Batetik, erabili dugun corpusa aurkeztu eta haren osaerari buruzko datuak eskainiko ditugu. Bestetik, corpus horren barruko bi azpicorpusen artean (testu itzuliak eta testu ez-itzuliak) konparatu ditugun elementuak aurkeztuko ditugu: koloreak izendatzeko terminoen eremu semantikoa, denbora adierazteko adberbioen multzoa, eta sentimenduak eta emozioak adierazteko [izen + adjektibo] motako kolokazioak. Eta atala amaitzeko, termino multzo horien datu-erazketa nola egin den eta zer datu mota bilatu ditugun azalduko dugu.

Laugarren atalean, lortu ditugun datuen analisia egingo dugu. Multzoz multzo (koloreak, denbora-adberbioak, kolokazioak), gure bi azpicorpusetan termino horietako zein, zenbat eta zenbat aldiz ageri diren aztertu eta konparatuko dugu, eta kopuruon atzean ageri diren joerak interpretatuko ditugu.

Bosgarren atalean, azkenik, datuen analisitik lortu ditugun ondorio orokorrak aurkeztu, eta etorkizunerako ikerlerro berriak proposatuko ditugu.



## Marko teorikoa eta aurrekariak

---

Atal honetan, gure ikergaiaren aurrekariak eta oinarri teorikoak azalduko ditugu. Testu itzulietako hizkera ezaugarritu nahian egin diren ikerlanak asko eta askotarikoak dira, eta gehienak Bakerren (1993) itzulpen-unibertsalen proposamenak motibatuta egin dira. Hurrengo orrialdeetan, beraz, itzulpen-unibertsalen inguruko eztabaida aurkeztu eta kokatuko dugu lehenik, eta ondoren itzulpenetako hizkera itzulpen ez diren testuetako hizkerari kontrajarririk aztertu duten ikerlanetako batzuen berri emango dugu. Itzulpenetako hizkeraren ezaugarriak antzematea helburu izan duten azterlanak ugari izan dira azken bi hamarkada hauetan, eta hainbat alderdiri erreparatuta ekin diote batzuek eta besteek helburuari. Denak hona ezin ekarri, eta arloaren garapenaren hasieran mugarri izan ziren lanak aurkeztuko ditugu, batetik, eta guk gure tesian aztertu nahi ditugun alderdi zehatzekin lotura zuzena duten beste zenbait lan, bestetik.

## 2.1. Mona Baker eta itzulpen-unibertsalak

1980ko eta 1990eko hamarkadetan zehar bolumen handi eta esanguratsuko corpusak eratzek ordura artekoak ez bezalako aukerak eskaini zizkien garaiko hizkuntzalariei eta itzulpengintza arloko ikertzaileei. Mona Bakerrek (1993: 235), hain zuzen, corpusgintzak itzulpenari buruzko teorizazioan egiazko biraketa bat (*turning point*) ekarriko zuela aurrean zuen, corpusei esker inoizko eskala handiengan aztertu ahal izango baitzen zer printzipioak arautzen duten eta zer mugaren pean gertatzen den itzulpen-prozesua: «the profound effect that corpora will have on translation studies, in my view, will be a consequence of their enabling us to identify features of translated text which will help us understand what translation is and how it works» (1993: 242-243). Ordurako zenbait ikerketak erregularitasun eta joera errepikatuen zantzuak antzemanak zituzten testu itzulietako hizkeran (Blum-Kulka 1986, Baker 1992, Vanderauwera 1985, Shlesinger 1991, Toury 1991), eta Bakerrek ikerketatildoz zabaldu berri horretan sakontzea proposatu zuen, 1993 hartan *itzulpen-unibertsal* izendatu zituenak ondorioztatu ahal izango zirelakoan, hots, jatorrizko enuntziatuetan ez baizik testu itzulietan agertu ohi diren zenbait ezaugarri, hizkuntza-sistema zehatz baten interferentziaren ondorio ez direnak (Baker 1993: 243).

Proposamenaren lehen plazaratze hartan, Bakerrek itzulpenetako hizkeraren sei ezaugarri zerrendatu zituen (1993: 243-245):

- Esplizitazioa, hau da, itzulpenetan beren sorburu-testuetan eta oro har itzulpen ez diren beste edozein testutan baino gehiago zehazteko joera, informazio osagarria gehituz gehienetan.
- Anbiogutasuna ebazteko joera eta sinplifikazioa; lausoak gerta daitezkeen izenordainak forma zehatzagoekin ordeztuz edo sintaxi konplexua erraztuz, adibidez.
- Gramatikaltasunerako joera, hots, jatorrizko testuan agramatikalak diren elementuak itzulpenean zuzentzeko ahalegina.
- Jatorrizko testuko errepikapenak ezabatze joera.

- Itzulpenetako lexikoaren banaketa ezberdina izatea bai xede-hizkuntza horretan idatzitako jatorrizko testuetakoarekin konparatuta, bai itzulpenen sorburu-testuetakoarekin konparatuta.
- Xede-hizkuntzaren ezaugarri bereizgarriak esajeratzeko joera.

Corpusen bidezko ikerketan, hiru tresna nagusi bereizi zituen Bakerrek (1995: 240): corpus paraleloak (*parallel corpora*), non A hizkuntzako sorburu-testuak eta B hizkuntzara egindako haien itzulpenak biltzen diren; corpus konparagarriak (*comparable corpora*), hau da, A hizkuntzan sortutako testuak eta A hizkuntzara beste hizkuntza batzuetatik egindako itzulpenak biltzen dituzten corpusak; eta corpus eleaniztunak (*multilingual corpora*), non hizkuntza ezberdinetako bi corpus elebakar edo gehiago nahasten diren («sets of two or more monolingual corpora in different languages, built up in the same or different institutions on the same or similar design criteria», Baker 1995: 232). Hiru aukera horien artean, corpus konparagarriak lehenesten ditu Bakerrek bere helbururako. Hizkuntza batean zuzenean sortutako testuak eta hizkuntza horretara egindako itzulpenak konparatuz lortuko omen da antzematea itzulpenetako hizkeraren bereizgarriak, hots, «patterns which are either restricted to translated text or which occur with a significantly higher or lower frequency in translated text than they do in originals» (Baker 1995: 235).

Lehen proposamen hura egin eta urte gutxira, unibertsaltasunaren ideia erabatekotasuna apaldu egin zuen Bakerrek (1999):

Translated language on the whole (within a particular historical and social context) may have certain features that distinguish it from original language, but whether or not this proves to be the case it is important not to restrict ourselves to this specific issue but to try also to account for the diversity within the translation corpus itself.

(Baker 1999: 291)

Bakerrek (1999: 291) itzulpenetako hizkeran nola edo hala eragin dezaketen beste zenbait faktore zerrendatzen ditu, eta aditzera ematen du, ondorioz, ezen itzulpenetako hizkera itzulpen ez diren testuetako hizkeratik bereizten bada ere, itzulpenetako hizkeraren

barruan ere badirela aldeak itzulpen batzuen eta besteen artean. Zehazki, honako faktore hauek izan lezaketen eragina aztertzea proposatzen du Bakerrek (1999: 291):

- Itzulpen-estrategia ezberdinak erabiltzen al dituzte edo itzultzean hizkera ezberdina sortzen al dute gizonezko itzultzaileek eta emakumezko itzultzaileek?
- Alderik nabari al da itzulpenen hizkeran argitaratzailearen arabera, batzuek jariotasun eta irakurgarritasun handiagoko itzulpenak bultzatzen dituztelako, adibidez, eta beste batzuek, aldiz, xede-hizkuntzarentzat ezohikoagoa den eredu linguistiko bat lehenesten dutelako?
- Estrategia eta bereizgarri batzuk nabarmenagoak ote dira testu-genero batzuetan beste batzuetan baino?
- Nolakoa da sorburu-hizkuntzaren eragina?

Esan genezake, beraz, Bakerrek leundu egin duela bere proposamena denborak aurrera egin ahala. 1993ko lehen plazaratze hura, zeinean *unibertsal* terminoa zerabilen eta definizio zabal eta orohartzaile bat eskaintzen zuen, ñabartu egin du geroztikako argitalpenetan. Bere teoriaren muinari eutsi egiten dio, nolana ere: itzulpenetako hizkera itzulpen ez diren testuetako hizkeratik nola edo hala bereizten dela defendatzen jarraitzen du. Baina onartzen du itzultzaileen jarduneko patroia errepikatu horiek ez direla beti bat izaten testu, hizkuntza eta luma orotan, eta, aitzitik, zenbait faktoreren mende daudela.

Bakerrek abiarazitako bidea, nolana ere, oso emankorra gertatu da, eta gai honi lotutako ikerketa asko eta askotarikoak egin dira azken hamarkada hauetan. Batzuk itzulpen-unibertsal zehatzen bat frogatu nahian aritu dira (Laviosa 1997 eta 1998, Papai 2004, Xiao eta Yue 2008, Williams 2005). Beste batzuek unibertsalen proposamena egiaztatzea ezinezkoa dela aldarrikatu dute, garai eta hizkuntza guztietako testu oro aztertzea ezinezkoa den hein bertsuan (Tymoczko 1998, Pym 2008, Valencia Giraldo 2020...). Eta beste zenbait, azkenik, unibertsaltasunaren eztabaidaren gainetik hanka-puntetan pasatu, eta corpus zehatzetan testu itzuliak testu ez-itzulietatik bereizten dituen ezaugarriak baden identifikatzen saiatu dira, ezaugarri horien ustezko unibertsaltasuna demostratzeko asmorik gabe (Marco Borillo 2013, Corpas Pastor 2017, Tello Fons 2019).

Jarraian, testu itzulietako hizkeraren bereizgarriak antzemateko egin diren zenbait ikerlan aurkeztuko ditugu. Batzuk ikerketa-lerro horretan mugarri izan zirelako hautatu ditugu; beste batzuk, gure tesian landuko ditugun alderdi zehatzekin harreman zuzena dutelako. Aurrekari gertatu zaizkigun ikerlan horien errepassoak informazio interesgarria eskainiko digu gai honen inguruan interesa piztu duten auzi zehatzez, erabili diren corpus motez, baliatu diren metodologiez eta, oro har, lortu diren emaitzez.

## **2.2. Lexiko mailako dentsitatea, aniztasuna eta emankortasuna**

### **2.2.1. Sara Laviosa eta lexiko-dentsitatea**

Testu itzulietako bereizgarri linguistikoak eta testu ez-itzulietakoak arteko ezberdintasuna frogatzeko lehen ahalegin sendoetako bat Sara Laviosaren eskutik (1997, 1998, 2002) iritsi zen. Laviosak ingelesezko testuen corpus bat erabili zuen hainbat saiakuntza egiteko. Corpus hark, English Comparable Corpus (ECC) izenekoak, bi azpicorpus biltzen zituen: ingelesera itzulitako testuak (Translational English Corpus) eta ingelesez sortutako testuak (Non-Translational English Corpus). Itzulpenen azpicorpuseko testuak hainbat hizkuntzatatik itzulitakoak ziren. Bi azpicorpusetan, bi testu-genero jasotzen ziren: prentsako artikulak (*The Guardian* eta *The European* egunkarietakoak), batetik, eta narratiba (biografia eta fikzioa), bestetik. ECCk 2 milioi hitz inguru zituen guztira.

Laviosak itzulpen-unibertsalen artean *sinplifikazio* deitu izan dena egiaztatu nahian burutu zuen 1990eko hamarkadako bere ikerlana, sinplifikazioa Blum-Kulkaren eta Levenstonen definizioaren arabera ulertuta: «the process and/or result of making do with *less words*» (Blum-Kulka eta Levenston 1983, *apud* Laviosa 1997: 533). Zehazki lexiko zein sintaxi mailako sinplifikazioa ikertu nahi izan zuen. Lexikoari dagokiona elementu lexikoen (*lexical words* edo *content words*) eta elementu gramatikalen (*grammatical words*) arteko erlazioa konparatuz eta lexiko dentsitatea neurtuz aztertu zuen; sintaxiari dagokiona, aldiz, esaldien batez besteko luzera kalkulatzuz ikertu zuen. Gure tesian lexikoan jarriko dugunez

arreta, Laviosak sinplifikazio lexikoaren inguruan aztertutakoak baino ez ditugu ekarriko atal honetara, eta kanpoan utziko ditugu, beraz, sintaxiari dagozkionak.

Sinplifikazio lexikoa frogatu nahian, Laviosak (1997) prentsako artikulua aztertu zituen lehenik, eta bi alderdi konparatu zituen. Batetik, artikulua itzulietan gehien erabiltzen ziren 108 hitzen zerrenda erazi, eta artikulua ez-itzulietan gehien erabiltzen ziren hitzen zerrendarekin konparatu zuen. Bestetik, Cobuild Bank of English corpus orokor eta handiagoaren arabera ingelesezko testuetan oro har gehien erabiltzen diren 200 hitzak hautatu, eta aztergai zuen prentsako artikuluen corpusean hitz horiek zenbat agerraldi zituzten kalkulatu zuen. Konparazio horietatik, zenbait ondorio atera zituen:

- Elementu lexikoen eta elementu gramatikalen arteko erlazioari zegokionez, elementu lexikoen ehuneko txikiagoa zen artikulua itzulietan artikulua ez-itzulietan baino. Hau da, artikulua itzulietako lexiko-dentsitatea txikiagoa zen.
- Itzulpenen artean, sorburu-hizkuntza bat edo bestea izateak ez zuen eraginik lexiko-dentsitatean.
- Maiz erabilitako hitzen eta gutxi erabilitako hitzen arteko erlazioari zegokionez, maiz erabilitako hitzen ehuneko handiagoa zen artikulua itzulietan artikulua ez-itzulietan baino.
- Azpicorpus bakoitzean gehien erabiltzen ziren hitzei (*list heads*) zegokienez, hitzak gehiagotan errepikatzen ziren testu itzulietan testu ez-itzulietan baino.
- Azpicorpus batean eta bestean gehien erabiltzen ziren hitz horiek egiaz zenbat lemari zegokien zenbatuta, testu itzulietan gehien erabilitako hitzen artean lema gutxiago biltzen ziren testu ez-itzulietan baino. Hau da, gehien erabilitako hitzen artean lexiko-aniztasun handiagoa ikusten zen testu ez-itzulietan testu itzulietan baino.

Narratiba-testuekin antzera jokatu zuen Laviosak (1998), ingelesera itzulitako 14 narratiba-lan eta ingelesez idatzitako 18 narratiba-lan konparatuta, eta antzeko ondorioak lortu zituen. Hala, bada, eta laburbilduz, ingelesezko prentsa-artikuluak eta narratiba-lanak aztertuta, itzulpenetako hizkera ezaugarritzen zuten lau joera orokor nagusi bereizi zituen Laviosak:



- Elementu lexikoen eta elementu gramatikalen arteko erlazioari zegokionez, testu itzuliek elementu lexikoen ehuneko txikiagoa ageri zuten (hau da, testu itzulietako lexiko-dentsitatea txikiagoa zen) testu ez-itzuliek baino.
- Maiztasun handiz erabilitako hitzen eta maiztasun txikiz erabilitako hitzen arteko erlazioari zegokionez, testu itzuliek maiztasun handiz erabilitako hitzen ehuneko handiagoa ageri zuten testu ez-itzuliek baino.
- Testu itzulien corpus bateko hitz erabilienean corpusean hartzen zuten partea handiagoa zen testu ez-itzulien corpus batekoek hartzen zutena baino (gehien erabilitako hitzak gehiagotan erabiltzen ziren).
- Testu itzulien corpus bateko hitz erabilienean zerrendak lema gutxiago biltzen zituen bere baitan testu ez-itzulien corpus batekoak baino.

Datu horietan oinarrituta, hortaz, itzulpenetako lexiko mailako sinplifikazioa egiaztatuta geratzen zela ondorioztatu zuen Laviosak.

### **2.2.2. Vilma Pápai eta type/token ratioa**

Vilma Pápai (2004) esplizitazio izeneko itzulpen-unibertsalaz arduratu zen, hau da, testu itzulietan jatorrizko testuko adiera esplizitatzeko izaten den ustezko joeraz. Esplizitazioari buruzko lehen postulatu sendoa Blum-Kulkak (1986: 19) eskaini zuen: «an observed cohesive explicitness from SL to TL texts regardless of the increase traceable to differences between the two linguistic and textual systems involved». Eta hasieran ikertzaileak sorburu-testuak eta haien itzulpenak konparatuz frogatzen saiatu baziren ere, aurreraxeago testu itzuliak eta testu ez-itzuliak konparatuz aztertu zuten auzia, ulertuta ezen, esplizitazioa jatorrizko testuko adiera testu itzulian esplizitatzea bada, horrenbestez hizkuntza batera itzulitako testuetako hizkerak esplizituagoa behar lukeela hizkuntza horretan sortutako testu ez-itzulietakoak baino. Pápaik, hain zuzen ere, ingelesezko zenbait testu eta hungarierara egindako haien itzulpenak aztertu zituen lehen fase batean (corpus paralelo bat, alegia), eta hungarierarako testu itzuliez eta hungarierazko testu ez-itzuliez osatutako

corpus bat (corpus konparagarri bat) bigarren fasean. Testuak narratibakoak eta zientifiko-teknikoak ziren. Pápaik nagusiki esaldien luzeran, puntuazioan eta lokailu kopuruan jarri zuen arreta esplizitazioa frogatu nahian, eta oro har testu itzulietan ez-itzulietan baino hizkera esplizitazaleagoa erabiltzen zela ondorioztatu zuen lortutako datuetatik. Datu horiek kontrastatu nahian, nolana ere, type/token ratioa ere aztertu zuen, eta hain zuzen ere azken aztergai horrengatik dakargu Pápairen ikerlana lerro hauetara. Type/token ratioa lexiko-aniztasuna zenbatesteko erabili izan da behin baino gehiagotan. Pápairen lana type/token ratioa aurkezteko baliabide egokia da, baina neurketa-tresna horren erabilerari eta mugei buruzko zalantzak pizteko ere balio du.

Token terminoak corpus batean guztira zenbat hitz dauden esan nahi du; type terminoak, aldiz, corpusean zenbat hitz desberdin dauden adierazten du. Eta beraz, type/token ratioak hitz ezberdinen eta hitz guztien arteko erlazioa aditzera ematen du; hots, zenbat hitz ezberdin dauden corpuseko hitz guztiekiko. Zenbat eta handiagoa izan hitz ezberdinen proportzioa, orduan eta handiagoa izango da lexiko-aniztasuna. Bada, Pápaik aztertutako hungarierazko testu itzulien eta ez-itzulien corpusean, type/token ratioa edo hitz ezberdinen proportzioa txikiagoa zen testu itzulietan ez-itzulietan baino; hau da, lexiko-aniztasuna txikiagoa zen itzulpenetan. Gainera, testu literarioen eta ez-literarioen artean aldea zegoen: lexiko-aniztasuna txikiagoa zen testu tekniko-zientifikoetan literarioetan baino. Eta bi testu-generoen arteko aldea are handiagoa zen testu itzulien azpicorpusean: bi testu-generoen arteko aldea % 5 zen testu ez-itzulietan, eta % 7 testu itzulietan. Datu horien aurrean Pápaik zera ondorioztatzen zuen: itzultzaileek oro har lexiko errepikakorragoa edo bateratuagoa erabiltzeko joera dutela beren itzulpenetan, eta lexikoa homogeneousatzeko joera hori are nabarmenagoa dela testu teknikoetan, ziurrenik testu ez-literarioetan ahalegin handiagoa egiten dutelako itzultzaileek sorburu-testuko informazioa ahalik eta argien eta fidelen helarazteko eta horretarako esplizitazio-estrategiak erabiltzen dituztelako (besteak beste, errepikapen lexikalen bitartez) (Pápai 2004: 159).

Pápairen lanean ikusten denez, beraz, type/token ratioa interesgarria izan daiteke lehen datu orokor gisa, baina argi geratzen da era berean ratio hori bestelako faktoreen arabera —testu-generoa, kasurako— aldakorra izan daitekeela eta beraz tentuz hartu beharreko datua dela.

### 2.2.3. Jarmo Harri Jantunen eta sinonimia

Jarmo Harri Jantunenek (2001, 2004) lexiko mailako aniztasunean jarri zuen arreta, eta horretarako sinonimia aztertu zuen. Haren abiapuntua, Laviosaren (1997, 1998) ikerlanean bezala, sinplifikazioa deritzon itzulpen-unibertsala zen: Jantunenek ikertu nahi zuen ea aniztasun lexikala txikiagoa ote zen testu itzulietan, itzulpen-prozesuan ustez gertatzen den sinplifikazioaren ondorioz.

Horretarako, Corpus of Translated Finnish izeneko corpusaren zati bat erabili zuen. Corpus of Translated Finnish corpus konparagarri bat da, finlandierazko testu itzuliak eta ez-itzuliak biltzen dituena. Jantunenek bere ikerketarako aukeratu zuen zatian testu itzuliak ingelesetik itzuliak ziren, eta testu-generoari zegokionez fikziozko prosa eta testu akademikoak jasotzen ziren. Corpusak guztira 2,4 milioi hitz zituen. Jantunenek testu itzulien eta ez-itzulien bi azpicorpusetan gehien erabiltzen ziren 20 adjektibo graduagarriak aukeratu zituen (adjektiboen artean, graduatu edo mailakatu daitezkeenak, alegia), eta ondoren 20 adjektibo horien ondoan ageri ziren maila-adberbio guztien zerrenda erauzi zuen. Guztira, 17 anplifikatzaile edo maila-adberbioko zerrenda bat lortu zuen. 17 anplifikatzaile horiek 730 aldiz ageri ziren guztira. Jantunenek neurtu zuen graduatzaile horietako zenbat erabiltzen ziren testu itzulien azpicorpusean eta zenbat testu ez-itzulien azpicorpusean, eta zenbat aldiz ageri zen bakoitza. Datuen analisitik ondorioztatu zuen azpicorpus batean eta bestean erabiltzen ziren graduatzaile kopuruen artean ez zela alde nabarmenik, eta beraz ezin zela ondorioztatu testu itzulietan baliatutako sinonimo-aukera murriztagoa zenik. Ondoren, graduatzaile guztien artean gehien erabiltzen ziren hirurak aukeratu zituen, eta haien agerraldiek graduatzaile guztien agerraldi guztien artean zer ehuneko osatzen zuten kalkulatu zuen. Horrela aztertu nahi zuen ea aukeran ziren sinonimoen artean erabileren sinonimo gutxi batzuetan kontzentratzeko joera nabari ote zen bi azpicorpusetako batean. Jantunenen datuen arabera, hiru sinonimo erabiliaren agerraldien proportzioak antzekoak ziren bi azpicorpusetan, edo are zertxobait baxuagoa testu itzulienean testu-genero zehatz batzuetan. Hau da, ezin zen ondorioztatu itzulpenetan guztizko agerraldiak sinonimo gutxi batzuen erabileran kontzentratzen zirenik.

Jantunenek, horrela, zalantzan jarri zuen testu itzulietan sinplifikazio lexikalerako joera dagoenik: sinonimiaren azterketaren bitartez ondorioztatu zuen, batetik, sinonimo kopuru antzekoak erabiltzen zirela testu itzulietan eta ez-itzulietan, eta, bestetik, sinonimo horien artean erabilerak ere antzekoak zirela bi azpicorpusetan eta beraz itzultzaileek ez zutela modu errekurtsiboagoan sinonimo gutxi batzuen erabilerara jotzen.

Aurreragoko lan batean, Jantunenek (2004) sinonimiaren azterketari hitzen patroï lexiko-gramatikalen (*lexico-grammatical patterning*) azterketa gehitu zion. Hau da, testu itzulietan eta ez-itzulietan zenbat sinonimo eta zenbat aldiz ageri ziren konparatzeaz gain, sinonimo horiek zer beste hitzen ondoan eta zer lotura gramatikalen bitartez elkarturik ageri ziren konparatu zuen. Haren helburua zen testu itzulietan testu ez-itzulietan ez bezalako patroï lexiko-gramatikalak ikusten ote ziren egiaztatzea edo, haren hitzetan, itzulpenetakoak patroï ez-tipikoak (*untypical patterns in translations*) ote ziren aztertzea.

Oraingo honetan, Corpus of Translated Finnish delakotik hiru azpicorpus hautatu zituen: finlandieraz sortutako testuek osatua bata, hainbat hizkuntzatatik finlandierara itzulitako testuek osatua bigarrena, eta ingelesetik finlandierara itzulitako testuena hirugarrena. Testu guztiak fikziozko prosakoak ziren, eta azpicorpus bakoitzak 0,8-1 milioi hitz artean zituen; aztergai izan zuen corpus osoa, beraz, 2,9 milioi hitzez osatuta zegoen guztira. Testu itzulien artean bi azpicorpus bereizteak (ingelesetik bakarrik itzulitako testuak, alde batetik, eta beste zenbait hizkuntzatatik itzulitakoak, beste alde batetik) eta bi azpicorpusen arteko konparazioa egiteak helburu argia zuen: sorburu-hizkuntza zehatz batek izan lezakeen eragina aztertu nahi zuen Jantunenek. Hala, bada, testu itzuliak testu ez-itzulietatik bereizten dituzten ezaugarriak identifikatzeaz gain, Jantunenek testu itzuli orokorren artean sorburu-hizkuntza zehatz batek ezar litzakeen ezberdintasunak ere hauteman nahi zituen. Azterketa hiru fasetan egin zuen. Lehenengo, testu ez-itzuliak eta hainbat hizkuntzatatik itzulitako testuak konparatu zituen. Bigarrenik, testu ez-itzuliak eta ingelesetik itzulitako testuak konparatu zituen, halako moduz non lehen fasean alderik hauteman bazen alde hori testu itzuliei oro har ala sorburu-hizkuntza zehatz bati egoztekoa zen ikusi ahal izango zen. Hirugarren fasean, hainbat hizkuntzatatik itzulitako testuak eta ingelesetik itzulitako testuak konparatu zituen, hizkuntza zehatz batetik itzulitako testuak testu itzuli orokorretatik aldentzen ote ziren egiaztatzeko asmoz.

2004ko lan honetan, bere aurreko lanean aztergai izan zituen hiru maila-graduatzailerik zeren ondoan ageri ziren aztertu zuen edo, bestela esanda, zein ziren graduatzaile haiek osatzen zituzten kolokazio ohikoenak. Lortutako konbinazio guztien artean idazle/itzultzaile baten testuetan bakarrik ageri zirenak bazter utzi zituen (egile zehatz baten erabilera idiosinkratikoak zirelakoan), baita 5 agerraldi baino gutxiago zituzten bikoteak ere (kopurua behar bezain esanguratsua ez zelako). Eta datuek erakutsi zioten hiru maila-graduatzailerik haiek osatzen zituzten kolokazio ohikoenak ez zetozeela bat hiru azpicorpusetan, hau da, hiru graduatzaile horiek ondoan gehien hartzen zituzten hitzak ezberdinak zirela testu ez-itzulietan, hainbat hizkuntzatatik itzulitakoetan eta ingelesetik itzulitakoetan. Emaitzek ez zuten erakutsi, hala, testu itzuli orori egoztekoa zen patroia lexiko-gramatikal ez-tipikorik. Egia bazen ere testu itzulietan ageri ziren patroiak testu ez-itzulietakoak ez bezalakoak zirela, ingelesetik itzulitako testutakoak ere testu itzuli orokorretakoak ez bezalakoak ziren. Eta beraz, ezin zen ondorioztatu ez-tipikotasun hori unibertetsala zenik. Aitzitik, sorburu-hizkuntza bata edo bestea izateak banaketa edo patroia lexiko-gramatikal ezberdinak sorrarazten zituela ematen zuten aditzera datuek (Jantunen 2004: 121).

#### **2.2.4. Maeve Olohan eta lexiko-emankortasuna**

Maeve Olohanek (2003, 2004) testu itzulietako ustezko normalizaziorako edo estandarizaziorako joera izan zuen aztergai. Normalizazioa, Bakerrek (1996: 176-177) bere itzulpen-unibertetsalen proposamenaren definitu bezala, xede-hizkuntzan tipikoak diren moldeak eta praktikak erabiltzeko eta are esajeratzeko joera da. Olohanek, normalizazioaren adiera zabalduz, xede-hizkuntzaren forma estandarrak eta arauaren araberrakoak hobesteko joerarekin lotu zuen.

Lerro hauetan mintzagai izango dugun lehen lanean (Olohan 2003), ingelesaren kontrakzioen erabilera neurtu eta konparatu nahi izan zuen testu itzulietan eta ez-itzulietan. Izan ere, lehenagoko lan batean (Olohan eta Baker 2000) aukerako *that* partikularen erabilera konparatua zuen, eta ondorioztatu ezen *say* eta *tell* aditzen ondoan *that* aukerakoa esplizitatzeko joera askoz nabarmenagoa zela itzulpenetan. *That* ez esplizitatzeko erregistro informalei lotua dela aintzat hartuta, eta informaltasun horren beste erakusgarri bat

kontrakzioak (*it's, couldn't, actu'ly...*) erabiltzea denez, bi ezaugarriak batera jazotzen ote ziren konprobatu nahi izan zuen 2003ko bere ikerlanean.

Horretarako, bi azpicorpus erabili zituen: batetik, Translational Corpus of English delakoaren parte bat, hainbat hizkuntzatatik ingelesera itzultako fikziozko prosazko testuak biltzen zituena, ia 5 milioi hitzez osatua, eta bestetik, British National Corpus delakoaren parte bat, ingelesez idatzitako fikziozko prosazko testuak biltzen zituena, tamaina berekoa. Bi azpicorpus horietan, zenbat kontrakzio erabiltzen ziren neurtu eta konparatu zuen, baita kontrakzio bakoitza zenbat aldiz ageri zen ere. Datuen arabera, testu ez-itzulien corpora gailendu egiten zen bai kontrakzio kopuruari dagokionez, bai kontrakzio horien agerraldi kopuruari dagokionez. Kontrakzio zehatz batzuen kasuan, testu ez-itzulietako agerraldi kopuruak testu itzulietakoak baino bi aldiz handiagoak ziren. Are gehiago, zenbait kasutan (*is* aditz forma, esate baterako) testu ez-itzulietan kontrakzio bidezko formak (*it's, that's, he's...*) ugariagoak ziren kontrakzio gabekoak baino (*it is, that is, he is...*); itzulpenetan, aldiz, ugariagoak ziren kontrakzio gabekoak kontrakzio bidezkoak baino. *Not* partikularen kasuan bi azpicorpusetan kontrakzioa erabiltzeko joera nagusitzen bazen ere, kontrakzio bidezko formen proportzioa txikiagoa zen itzulpenen azpicorpusetan. Ahozko hizkeraren bereizgarri diren kontrakzioak (*actu'ly, gen'rous, fuck'em*) bai eta arrazoi dialektalei eta soziolektalei zor zaizkienak ere (*be'aviour, does'na, e's*), azkenik, nabarmen ugariagoak ziren testu ez-itzulien azpicorpusetan.

Datuek, beraz, testu itzulietan forma luzeak lehenesteko joera argia zegoela erakutsi zuten. Olohanek itzulpenetako esplizitatzeko joerarekin lotu zituen emaitzak bere ondorioetan, baina horrez gain itzulpenetan hizkuntzaren forma estandarragoa erabiltzen zela ere baieztatzeko balio izan zioten datuek: «The TEC [Translational English Corpus] appears to contain a more standard variant of the English language, with fewer dialectal or sociolectal markers» (Olohan 2004: 104).

Aurreragoko lan batean, testu itzuliek testu ez-itzuliek baino hizkuntzaren forma estandarragoak erabiltzen dituztelako hipotesia hartu zuen berriro abiapuntutzat Olohanek (2004: 108), eta oraingoan lexiko-emankortasunarekin eta -sormenarekin lotu nahi izan zuen. *-ish* atzikiaren erabilera aztertuz, testu itzulien eta ez-itzulien bi azpicorpusetan *-ish* bidezko zenbat hitz erabiltzen ziren neurtu eta konparatu nahi izan zuen. Hasierako hipotesi gisa,

Olohanek *-ish* atzizkidun hitz gutxiago espero zituen testu itzulietan, itzulpenetan lexiko-emankortasuna txikiagoa izango zelakoan. Hau da, Olohanek sormen gutxiagoko hizkera bat espero zuen itzulpenetan, estandarretik hurbilagoa, kontserbadoreagoa.

Lehenik kuantitatiboki aztertu zituen datuak: zenbat *-ish* atzizkidun hitz ageri ziren testu itzulietan eta zenbat testu ez-itzulietan, eta zenbat aldiz erabiltzen zen bakoitza. Bigarrenik, datuen irakurketa kualitatibo bat egin zuen, ageri ziren *-ish* atzizkidun hitzak nolakoak ziren deskribatuz eta sailkatuz, haien sormen- edo originaltasun-maila neurtu nahian (Olohan 2004: 108-117).

Bi azpicorpusetan *-ish* atzizkidun hitz guztiak erauzi, eta kopuruak konparatu zituen. Azterketa kuantitatibo horrek erakutsi zuen *-ish* atzizkidun hitz gehiago erabiltzen zirela testu itzulietan ez-itzulietan baino. Datu horrek, beraz, kontra egiten zion hasierako hipotesiari: *-ish* atzizkidun hitzen kopuruak lexiko-emankortasun handiagoa erakusten zuen itzulpenetan ingelesez sortutako testuetan baino. Olohanek, nolahi ere, hitzok izaerari erreparatu zion ondoren, azterketa kualitatiboago bat egin nahian, eta ikusi zuen testu itzulietan nabarmen gehiago zirela *-ish* bidez sortutako kolore-izenak (*greenish, yellowish*) eta zertxobait gehiago hiztegietan jadanik jasota ageri diren izen-oinarridun eratorpen lexikalizatuak (*foolish, peckish*); testu ez-itzulien azpicorpusetan, aldiz, adjektibo-oinarridun eratorpen lexikalak (*tallish, roundish*) eta sormenezko formak (*eyebrowish, James Deanish*) gailentzen ziren. Abiapuntuko hipotesiaren kontra, beraz, *-ish* atzizkidun hitzak kopuru absolutuetan ez ziren ugariagoak testu ez-itzulietan itzulietan baino, baina itzulpenen azpicorpusetako gailentasuna kolore-izenen kopuruari egoztekoa zen argi eta garbi, eta *-ish* bidezko kolore-izenak itzulpenetan ugariagoak izatea hizkuntzen eta kulturen arteko aldeei zor zitzaie Olohanen interpretazioan: sorburu-hizkuntzako kolore-izenek ingeleseko kolore-sisteman ordain zuzenik ez zutenean jotzen zuten ziurrenik itzultzaileek *-ish* formara. Sormenari dagokionez, aitzitik, testu ez-itzulietan emankortasun eta originaltasun handiagoa nabari zen, batez ere oso ezohiko formetan (izen bereziak oinarri hartuta sortutakoetan, kasurako).

Azterketa horren ondorioz eta aintzat hartuta koloreak izendatzeko *-ish* atzizkidun hitzek kopuru nabarmen handiagoak ageri zituztela testu itzulietan, Olohanek koloreen eremu semantikoaren bitartez lexiko-aniztasuna aztertzeari ekin zion hurrengo pauso batean (2004: 117-122). Itzultzaileek beren testuetan koloreak izendatzeko *-ish* atzizkidun hitzak

nabarmen gehiago erabiltzen zituztela ikusita, aurreikusi zuen testu ez-itzulietan koloreak izendatzeko ingelesez aukeran diren beste sinonimoetatik gehiago erabiliko zirela, eta beraz koloreen eremu semantikoari dagokionez lexiko-aniztasun handiagoa topatuko zuela testu ez-itzulietan.

Bigarren fase honetan, Olohanek oinarrizko kolore-izenen zerrenda bat osatu (*black, blue, brown, green, grey, gray, orange, pink, purple, red, white, yellow*), eta haietako bakoitzaren agerraldiak zenbatu eta konparatu zituen. Datuek oso antzeko erabilera erakutsi zuten bi azpicorpusetan. Ondoren, oinarrizko hiru kolore-izen hautatu (*brown, blue, red*), thesaurus baten laguntzaz haien sinonimoen zerrendak osatu, eta sinonimo horietako bakoitzaren agerraldiak zenbatu eta konparatu zituen bi azpicorpusetan. Emaitzek erakutsi zuten, aukeran ziren sinonimoen artean gehiago erabiltzen ziren testu ez-itzulietan testu itzulietan baino, aldea oso handia ez bazen ere. Agerraldi kopuruari dagokionez, kopuru nabarmen handiagoak ageri zituzten testu ez-itzuliek itzuliek baino. Hau da, hiru kolore haien ñabardurak adierazteko sinonimoak nabarmen gehiagotan erabiltzen ziren testu ez-itzulietan testu itzulietan baino. Laburbilduz, Olohanek ikusi zuen sinonimo gehiago erabiltzen zirela testu ez-itzulietan (aldea txikia bazen ere) eta gainera sinonimo horiek gehiagotan erabiltzen zirela (alde nabarmenez).

## **2.2.5. Richard Xiao (*et al.*) eta lexiko-dentsitatea**

Itzulpenetako hizkera ezaugarritzeko lehen ahaleginak Europako hizkuntzak aztertuz egin ziren, baina gai honen inguruko interesa munduko beste hizkuntza batzuetan ere nabarmena izan da. Txinerara itzultako testuetako hizkeraren azterketak, adibidez, lan asko ekarri ditu XXI. mendeko lehen bi hamarraldietan. Ikerlan horietako gehienek sintaxi arloko alderdiak jorratu dituzte (Chen 2006, Wang eta Qin 2010). Lexiko arloan, Xiaok beste zenbait kiderekin batera (Xiao eta Yue 2008; Xiao, He eta Yue 2010, Xiao eta Hu 2015) egindako ikerlanak dira aipagarriak.

Xiaok eta kideek metodologiari dagokionez pauso berririk eman ez bazuten ere — European proposatutako azterbideak beren horretan txinerara aplikatuz egin zituzten beren azterlanak, ikusiko dugunez—, argi zuten «hizkuntza ez-euoparretatik» datuak biltzea



garrantzitsua zela, argudiatuta ezen, ordura arte antzemandako itzulpenetako hizkeraren ezaugarriak orokortu eta unibertsaltzat jo behar baziren, «ingeleza eta haren hurbileko hizkuntzak» ez beste hizkuntza batzuk ere aztertu behar zirela (Xiao eta Yue 2008: 252).

Hala, bada, Xiaok eta kideek bi corpus diseinatu eta sortu zituzten, hainbat egiaztapen egiteko probaleku gisa: ZJU Corpus of Translational Chinese (ZCTC) eta Lancaster Corpus of Mandarin Chinese (LCMC). Lehenengoa txinerara itzulitako testuen corpus bat zen, nagusiki ingelesetik egindako itzulpenak baina baita beste zenbait hizkuntzatatik itzulitakoak ere biltzen zituen. Bigarren corpora txineraz sortutako testuek osatzen zuten. Biek ala biek milioi bat hitz inguru zituzten (bi milioi hitz inguru bien artean), eta hamabost kategoriatako testu motak biltzen zituzten, gehienak fikziozko prosaren, testu akademikoen eta kazetaritza arloaren barruan koka zitezkeenak. Bi corpus horiek konparatuta, txinerara itzulitako testuen bereizgarri sintaktikoak eta lexikoak aztertu zituzten. Guk lexikoari dagozkion alderdiak bakarrik aipatuko ditugu lerrootan.

Laviosari (1997, 1998) jarraituz, Xiaok, Hek eta Yuek (2010) lexiko-dentsitatea konparatu nahi izan zuten txinerazko testu itzulien eta ez-itzulien artean. Horretarako bi neurketa mota erabili zituzten. Lehenengo, corpuseko elementu lexikoen (*content words* edo *lexical words*) eta hitz guztien arteko ratioa kalkulatu zuten, Laviosak (1997, 1998) egin bezala. Bigarrenik, type/token ratioa kalkulatu zuten, hots, corpuseko hitz ezberdinen eta hitz kopuru osoaren arteko ratioa. Elementu lexikoek hitz guztiekiko betetzen duten proportzioari dagokionez, datuak argiak ziren: ratioa oro har handiagoa zen testu ez-itzulien corpusean testu itzulienean baino, eta aldea estatistikoki esanguratsua zen; hots, lexiko-dentsitatea handiagoa zen testu ez-itzulietan. Horrez gain, egileek bereziak zituzten hamabost testu motetan errepikatzen zen joera hori: testu mota guztietan zen handiagoa lexiko-dentsitatea testu ez-itzulietan, eta guztietan zen aldea estatistikoki esanguratsua. Type/token ratioa kalkulatu lortu zituzten datuek ere testu ez-itzulietako lexiko-dentsitatea handiagoa zela erakutsi zuten, nahiz eta alde estatistikoa oraingoan esanguratsua ez izan.

Lexiko-dentsitatea neurtzeko bi irizpide horiei hirugarren datu bat gehitu zieten Xiaok, Hek eta Yuek (2010: 22): elementu lexikoen eta elementu gramatikalen arteko ratioa kalkulatu zuten. Aurreko bi neurketetan bezala, oraingo honetan ere ratioa handiagoa zen testu ez-itzulietan oro har, eta handiagoa zen orobat testu mota guztietarako. Azkenik,

Laviosari (1997, 1998) jarraituz berriro ere, maiztasun handieneko hitzen zerrenda erauzi zuten, eta haien agerraldien inguruko datuak aztertu. Horretarako, corpuseko hitz edo token guztien artean % 0,10eko pisua zuten hitzak erauzi zituzten testu itzulien corpusean zein testu ez-itzulienean. Testu itzulien corpusean 114 hitzek betetzen zuten baldintza hori, eta testu ez-itzulienean 108k. Horrez gain, gehien erabilitako hitz horien agerraldien ehuneko metatua handiagoa zen itzulpenetan (% 40,47) testu ez-itzulietan baino (% 35,70), baita haien errepikapen-tasa ere (3.154,37 testu itzulietan eta 2.870,37 testu ez-itzulietan).

Txinerarako Xiaok eta kideek lortutako datuek, beraz, berretsi egiten zituzten Laviosaren ondorioak: lexiko-dentsitatea handiagoa zen txinerazko testu ez-itzulietan txinerara itzulitako testuetan baino, edozein zelarik ere neurketa egiteko erabilitako irizpidea.

Aurreragoko lan batean Xiaok (2015) esamolde edo lokuzioen erabilera ere aztertu zuen, aurretik Bakerrek (2004, 2007) esamoldeen arloan abiatutako ikerlerroari txineraren bitartez ebidentziak eskaini nahian (Bakerrek lokuzioen inguruan egindako lana geroxeago aurkeztuko dugu guk, normalizazio izeneko itzulpen-unibertsalari lotuta). Hala, bada, Xiaok txinerazko esamoldeen agerraldiak konparatu zituen aurreko bere lanetako bi corpusetan, kopuru handietan aztertu ere, ondorio orokortzaileak atera ahal izateko moduan. Xiaok gramatika-kategoriaren arabera sailkatu zituen txinerazko esamoldeak, bost multzotan: izen-lokuzioak, aditz-lokuzioak, adjektibo-lokuzioak, adberbio-lokuzioak eta izen-modifikatzaile gisako lokuzioak. Esamolde horien agerraldiak testu itzulien eta ez-itzulien bere bi corpusetako hamabost testu-generoetan zenbatu, eta ondorioztatu ahal izan zuen esamoldeak gehiagotan erabiltzen zirela txinerazko testu ez-itzulietan testu itzulietan baino. Guztizko kopurua handiagoa zen testu ez-itzulietan, baina gainera testu-generotik testu-generorako azterketan ere joera berretsita ageri zen: hamabost testu-generotatik hamabitan, esamoldeak ugariagoak ziren testu ez-itzulietan itzulietan baino. Itzultzaileak esamoldeak erabiltzeko uzkurrago ageri ziren, beraz, txinerazko testuetan.

## 2.3. Normalizazioa (edo estandarizazioa, konbentzionalismoa, kontserbadurismoa)

### 2.3.1. Mona Baker eta lokuzioak

2004ko eta 2007ko lan banatan Mona Baker, «itzulpen-unibertsal» terminoa jada atzean utzita, testu itzulietako normalizaziorako ustezko joeraz arduratu zen:

The ways in which translations are claimed to be different [...] include, for example, the assumption that translators are more conservative in their use of language; that they tend to prefer more standard forms of the language; that there tends to be a raising of the level of formality in translation; that translated text is 'sanitized' (in terms of translators avoiding certain features such as regionalisms and irregular spelling); and that translators tend to produce more 'uniform' texts.

(Baker 2004: 172)

Eta normalizaziorako joera horri lotuta, zehazki, oso interesgarria iritzi zion esamoldeen edo lokuzioen erabilera aztertzeari. Bakerrek, izan ere, aldeko zein aurkako arrazoiak aurreikusten zituen esamoldeak testu itzulietan testu ez-itzulietan baino ugariago erabiltzeko. Alde batetik, xede-hizkuntzako esamolde errotuak erabiltzeak itzulpenari naturaltasuna erdiesten laguntzen diola onartuz gero, zentzuzkoa zirudien pentsatzeak itzultzaileek ugari erabiliko zituztela xede-hizkuntzako esamoldeak edo lokuzioak beren itzulpenetan (2007: 14). Baina esamoldeen izaerak berak konplexuagoa bihurtzen zuen auzia Bakerren begietan sei arrazoiengatik (2007: 14-16):

Lehenengo eta behin, esamoldeak finkoak izateak manipulaziorako aukera irekita uzten du, eta hain zuzen ere finkatutako esamoldeak irudimentsuki manipulatu egiten dira askotan, besteak beste, umorea sortzeko. Bakerrek zalantza egiten zuen itzulpenetan, sorburu-testuak halakorik eskatzen ez duenetan, esamoldeak manipulatzeko tentaziorik izango ote zuten itzultzaileek.

Bigarrenik, esamoldeek xede-hizkuntzaren naturaltasuna areagotzen badute ere, batzuek karga kultural handia izaten dute, eta beraz beste kultura batean jaiotako sorburu-testu batek nekez sorraraziko du itzulpenean halakoak erabiltzeko beharra.

Hirugarrenik, hainbat esamolde erregistro informalarik lotuak izaten dira. Zenbait ikerketak (Olohan eta Baker 2000, Olohan 2003) itzulpenek testu ez-itzuliek baino formaltasun maila handiagoa izaten dutela frogatu dute. Pentsatzekoa da, beraz, itzultzaileek ez dituztela erregistro informaleko esamolde asko erabiliko zuzentasunerantz lerratzen diren beren itzulpenetan.

Laugarrenik, esamolde batzuk gramatikalki irregularrak dira. Itzulpenetako zuzentasunerako joera aintzat hartuta, halako esamoldeak testu itzulietan ez-itzulietan baino urriagoak izango direla pentsa liteke.

Bosgarrenik, esamoldeak erabiltzea oro har oso hedatuta dagoen fenomeno bat bada ere, esamolde bakoitzaren erabilera-maiztasunak oso baxuak izaten dira eta zaila da kopuru baxuetatik alde baterako edo besterako ondorio argirik ateratzea.

Azkenik, zenbait esamolde hitzez hitz interpretatuta ere erabil daitezke, berariaz umore-efektua sortzeko zein hitzez-hitzeko esanahiak zentzua duelako. Horrek zaildu egiten du datuen irakurketa.

Bakerrek ikerketa pilotu gisa aurkeztu zuen bere lana, eta esamolde gutxi batzuk baino ez zituen aztertu proba gisa. Ikerlana bera ez da emaitzei dagokienez aintzat hartzekoa, kopuruak oso txikiak izanik ondorio orokortzailerik ateratzeko bezain esanguratsuak ez zirelako. Baina, itzulpen-unibertsalen gaia plazaratu zuenean bezala, ikerlerro berri bat iradoki eta ireki zuen Bakerrek beste testu honen bitartez —testu itzulietako ustezko estandarizaziorako edo konbentzionalismorako joerari buruzkoa, hain zuzen—, eta ekarpen horregatik aipatu nahi izan dugu guk lerro hauetan.

### **2.3.2. Sampo Nevalainen eta kolokialismoak**

Itzulpenetan hizkera normalizatzeko ustez dagoen joera horri lotuta, Sampo Nevalainenek (2004) finlandierara itzultitako eta finlandieraz sortutako literatur testuetako

kolokialismoak konparatu zituen. Gaia aztertzeko motibazioa beste ikerketa batean sortu zitzaien. Finlandierazko literatur testuen corpus batean, pertsona-izenordainak testu ez-itzulietan testu itzulietan baino askoz gutxiago zirela ikusi zuen. Laster konturatu zen arrazoia izenordainon idazkera estandarri lotuta zegoela: corpuseko lematizatzaileak ez zituen ezagutu eta sailkatu finlandiera estandarerako aholkatua den idazkeran ez beste idazkera batean ageri ziren formak. Izenordain kopuruak egiaz antzekoak izango ziren ziurrenik bi azpicorpusetan, baina testu ez-itzulietan idazkera estandarrekin bat ez zetozen forma gehiago erabili ziren eta lematizatzaileak ez zituen aintzat hartu. Bazirudien, beraz, testu itzulietan estandarrekin bat ez zetozen formak bazter uzteko joera zegoela, eta Nevalainenek joera hori beste alderdi batzuetara orokortu zitekeen egiaztatu nahi izan zuen. Testu itzulietako hizkeran, itzulpen-unibertsalei buruzko eztabaidan kontserbadurismo deitu izan denaren aztarnak bilatu nahi izan zituen, alegia:

One of those [universal features of translation], called *conservativeness*, states that translations tend to prefer usual ways of expression and neutral, general language vocabulary – or inversely, to avoid the use of rare or somehow marked constructions and words such as idiosyncrasies, neologisms, and colloquialisms.

(Nevalainen 2004: 68)

Eta horretarako, finlandierazko beste zenbait kolokialismoren erabilerak konparatu zituen. *Kolokialismo* terminoarekin hizkuntza idatzi estandar eta formaleko konbentzio, gomendio eta arauetatik desbideratzen den hizkuntzaren erabilera oro izendatu nahi izan zuen, eta ohartarazi zuen *kolokial* eta *dialektal* terminoak ia sinonimotzat har zitezkeela, ondorioz, bere ikerlanean (2004: 69). Erabilitako corpusa finlandierazko fikziozko narratibalanek osatua zen: finlandierara itzulitako 64 obra eta finlandieraz idatzitako 60; guztira 5,6 milioi hitz.

Nevalainenek zehazki finlandiera kolokialaren alderdi fonologiko eta lexikoetan jarri zuen arreta. Lehenik, bi azpicorpusetan gehien erabilitako hitzen zerrenda erazi, eta zerrenda hartan forma kolokialak bilatu zituen, honako irizpide hauen arabera: hautagaiak ohikoak izan behar ziren (maiztasun gutxieneko bat izan behar zuten corpusean) eta egile baten baino gehiagoren eskutik iritsi behar ziren corpusera (liburu batean baino gehiagotan

agertu behar ziren). Azterketa horren ondorioz, 14 hitz edo kolokialismo multzo hautatu zituen: pertsona-izenordainen aldaera kolokialak eta dialektalak, adizki zehatz batzuen idazkera ez-estandarra, zenbaki ordinalen ahoskera kolokiala eta abar. Hitz multzo horietatik azpicorpus batean eta bestean zenbat agertzen ziren kalkulatu zuen lehenik. Emaitzen arabera, oro har multzo gehiago ageri ziren testu ez-itzulietan testu itzulietan baino. Hau da, kolokialismo mota gehiago erabiltzen ziren finlandieraz sortutako narratiba-lanetan: erabilitako kolokialismo moten batezbestekoa 8 zen testu ez-itzulietan, eta 5 itzulpenetan.

Ondoren, hitz horietako bakoitzaren erabilera-maiztasuna neurtu zuen: batetik, hitz bakoitza bi azpicorpusetako zenbat liburutan erabiltzen zen kalkulatu zuen, eta, bestetik, hitz horien agerraldi-maiztasun erlatiboa (mila hitzeko zenbat agerraldi zituzten). Datuek erakutsi zutenaren arabera, kolokialismo mota horien adibide zehatzak ugariagoak ziren testu ez-itzulietan testu itzulietan baino, eta testu ez-itzulien aldeko diferentzia are handiagoa zen desbideratze fonologiko edo ortografikoei zegokienez.

Nevalainen azterketaren arabera, beraz, forma kolokialak ugariagoak ziren oro har testu ez-itzulietan, hots, agerraldi gehiago zituzten oro har itzulpen ez ziren testuetan. Eta kolokialismo horiek sailkatzeko erabili zituen mota edo multzoei dagokienez ere, kolokialismo mota gehiago erabiltzen ziren liburu gehiagotan testu ez-itzulietan testu itzulietan baino. Bestela esanda, kolokialismoak testu ez-itzulietan ugariagoak ez ezik, askotarikoagoak ere baziren. Nevalainen ustez, itzultzaileek kolokialismo aukera murriztuz batera jotzeak aditzera ematen zuen estilo-efektu zehatz bat sorrarazteko asmoz egindako hautu bat zela; itzultzaileek berariaz egindako erabilera bat, alegia, mota zehatz batzuen artean hautaketa eginda. Finlandierazko idazleen testuetan, aitzitik, kolokialismoak askotarikoagoak izatea espontaneotasunarekin lotu zuen Nevalainenek. Idazleek kolokialismoak inkontzienteki erabiltzen zituztelako seinaleztat hartu zuen: multzo zehatz batzuen artean aukeratu gabe, ahora etorri ahala erabiltzen bide zituzten mota batekoak edo bestekoak, iragazirik gabe (2004: 81).

Bestalde, forma kolokialen artean irainei eta madarikazioei zegozkienak testu ez-itzulietan ugariagoak ez ezik gogorragoak edo gordinagoak ere bazirela hauteman zuen Nevalainek (2004: 82). Datu hori itzulpenetako kontserbadurismorako joerarekin lotu zuen, itzultzaileek halakoak erabiltzea errezelo handiz hausnartutako erabaki baten ondorio

zelakoan, nahiz eta onartu zuen itzulpenen jatorrizko testuen izaerari ere zor zekiokeela ezberdintasun hura.

### 2.3.3. Donna A. Williams eta lexiko-sorkuntza

Donna A. Williamsek (2005) itzulpen-unibertsalei buruzko ikerketa ebidentzia gehiagoren bitartez aberastu nahi izan zuen bere doktorego-tesian, argudiatuta ezen, hizkuntza eta testu-genero ezberdinetako datuak metatuz, itzulpenetako hizkera testu ez-itzulietakotik zertan ezberdintzen den zehaztu ahalko dela eta ondorioz itzulpenaren fenomenoaren zertan den ulertzera iritsi ahalko garela noizbait:

It is hoped that over time, and with repeated corpus-based studies in many different languages, we can begin to understand how (or indeed whether) translated texts differ from non-translated texts. [...] by exploring the differences between translation and other forms of writing [...] we hope to add to the store of knowledge of what translation actually is.

(Williams 2005, 2)

Horretarako, Europatik kanpoko itzulpengintzan kokatu zuen bere azterlana (Kanadako bi hizkuntza ofizialetara, ingelesera eta frantsesera, egindako itzulpenak aztertu zituen) eta ordura arte bereiziak ziren lau itzulpen-unibertsal nagusietan jarri zuen arreta: normalizazioa, esplizitazioa, sinplifikazioa eta berdintzea (*levelling out*). Lerro hauetara Williamsek lexiko mailan egindako ekarpenak ekarriko ditugu soilik; gure tesiko ikergaiarekin harreman zuzena dutenak, alegia. Eta, beraz, Williamsek normalizazioaren eta sinplifikazioaren inguruan landutakoa baino ez dugu ahotan hartuko jarraian.

Williamsek, esan bezala, bi hizkuntzatarako datuez aberastu nahi izan zuen testu itzulietako hizkerari buruzko ikerketa: ingelesa eta frantsesa. Eta ordura arteko ikerlanetan nagusi izan ziren literatur testuak bazter utzita, Kanadako Gobernuaren web orriko testuak aztertzea erabaki zuen. Hala, bada, bere ikerketan lau corpus elkarren independente erabili zituen: ingelesez sortutako testuen corpus bat, ingelesera itzulitakoen beste bat, frantsesez

sortutako testuen corpus bat eta frantsesera itzulitako testuen beste corpus bat. Corpusetako bakoitzak 60.000 hitz inguru zituen.

Normalizazioa frogatu nahian —«a theoretically exaggerated adherence to norms, to the detriment of any kind of creativity, such as the attempts to coin words» (2005: 16)—, hitz asmatuak edo sorkari berriak (*coinages*) aztertu zituen Williamsek (2005: 95-106). Kennyk (2001) lehenagoko ikerlan batean alemanetik ingeleserako literatur itzulpenetan probatutako metodologia egokituz, Williamsek bere lau corpusetan agerpen-maiztasun txikieneko hitzen zerrenda erazi zuen. Zerrenda horretan, Microsoft Office Word programako zuzentzailea erabiliz, hiztegietan jasota ez zeuden hitzak aukeratu zituen. Ondoren, eskuzko garbiketa bat eginez, izen bereziak kendu zituen, baita beste zenbait baldintza betetzen zituzten beste elementu batzuk ere, hala nola mekanografia-akatsak, siglak, atzerriko hitzak eta laburdurak. Guztira 77 hitzeko zerrenda bat geratu zitzaion, egiazko *coinage*tzat edo asmatutako hitz berritzat hartzeko modukoak. Horietatik 55 ingelesezko testuetan aurkitu zituen: 35 testu ez-itzulietan eta 20 testu itzulietan. Frantsesezko testuetan, aldiz, 22 sorkari berri edo *coinage* identifikatu zituen: 14 testu ez-itzulietan eta 8 testu itzulietan. Datuek erakutsi zuten, sorkari berri haiek ugariagoak ziren oro har testu ez-itzulietan, bai frantsesez sortutako testuen corpusean, bai ingelesez sortutakoenean. Bi hizkuntzetan kopuru absolutuetan aldea bazegoen ere, proportzioan antzeko egoera ikusten zen: frantsesezko zein ingelesezko testu itzulietan sorkari berriak testu ez-itzulietan baino % 30 gutxiago ziren. Bi hizkuntzetan itzulpenetako hitz berrien kopurua testu ez-itzulietakoa baino nabarmen baxuagoa izatea, Williamsen hitzetan, itzulpenetan oro har joera kontserbadore bat izaten delako zantzutzat har zitekeen. Era berean, halako hitzak ingelesezko testuetan frantsesezkoetan baino ugariagoak izatea hizkuntza eta kultura bakoitzaren barne onargarritasunarekin lotu zuen: ingelesak jarrera irekiagoa erakusten zuen, datuen arabera, hitz berriak sortzeari eta onartzeari dagokionez.

Testu itzulietako ustezko sinplifikaziorako joera frogatu nahian, Laviosaren (1997, 1998) metodologiari jarraitu zion Williamsek (2005: 137-145). Hiru neurketa mota erabili zituen: type/token ratioa edo corpuseko hitz guztien eta hitz ezberdinen arteko erlazioa; lexikodentsitatea edo elementu lexikalen eta elementu gramatikalen arteko erlazioa; eta esaldien batez besteko luzera. Laviosari buruzko atalean bezala, lexikoari lotutako bi irizpideak



bakarrik hartuko ditugu ahotan lerro hauetan, hau da, type/token ratioa eta lexiko-dentsitatea.

Type/token ratioari dagokionez, Williamsek emaitza ezberdinak lortu zituen ingeleserako eta frantseserako. Ingeleseko corpusean type/token ratioa txikiagoa zen testu itzulietan, hau da, ingelesera itzulitako testuetan hitz ezberdin gutxiago zeuden proportzioan testu ez-itzulietan baino, edo, beste modu batean esanda, aniztasun lexikal gutxiago zegoen itzulpenetan. Frantsesezko testuetan, aldiz, alderantziz gertatzen zen: type/token ratioa handiagoa zen itzulpenetan, hots, hitz ezberdin gehiago zeuden testu itzulietan eta beraz aniztasun lexikala handiagoa zen. Lexiko-dentsitatea neurtzeko irizpideak (elementu lexikalen eta gramatikalen arteko erlazioak, alegia) antzeko joera baten berri ematen zuen. Ingeleseko testuen artean, lexiko-dentsitatearen ratioa baxuagoa zen itzulpenetan testu ez-itzulietan baino; frantsesezkoetan, aldiz, ratioa handiagoa zen itzulpenetan.

Williamsek lortutako datuek ez zuten bat egiten Laviosak lortutakoekin. Ingeleserako antzeko joera hauteman zuten bi ikerlariak: itzulpenetan lexiko-aniztasun eta -densitate txikiagoa zegoen testu ez-itzulietan baino. Baina frantsesezko corpusek kontrako joera ageri zuten. Williamsek hizkuntza bakoitzaren izaerari egotzi zion aldea, eta ez horrenbeste testuak itzuliak izateari edo ez izateari. Eta horri lotuta, aintzat hartzeko moduko faktoretzat jo zuen, orobat, frantsesera itzulitako testuak ingelesetik itzuliak zirela, eta ingelesera itzulitako testuak, berriz, frantsesetik. Williamsek, sinplifikazioa frogatzeko bere ahaleginean tinko, beste irizpide metodologiko batzuk bilatzeko premia aldarrikatu zuen: «These results suggest that if simplification is indeed a feature of translation, it is not seen only in impoverishment of vocabulary, reduced information loads, or simple sentence construction. Other measures may need to be explored» (Williams 2005: 144).

### **2.3.4. Gloria Corpas Pastor eta aldaera diatopikoak**

Corpas Pastorrek (2015, 2017, 2018) itzulpenetako ustezko estandarizaziorako joera gogoan hartu zuen, Nevalainenek (2004) bezalaxe, bere ikerlanetan. Baina estandarizazioa erregistroari lotuta aztertu beharrean, aldaera diatopiko edo geografikoetan arreta jarrita jorratu zuen. Corpas Pastorrek Iberiar penintsulako eta Amerikako espainolaren askotariko

aldaeren presentzia neurtu nahi izan zuen testu itzulietan eta ez-itzulietan, eta horretarako, besteak beste, ingelesezko lokuzio zehatz batez eta espainolezko haren balizko itzulpenez baliatu zen (2018): *laughing one head's off*.

Lehenik eta behin, azpituluen ingelesezko eta gaztelaniazko corpus paralelo batean ingelesezko jatorrizko *laughing one head's off* lokuzioa espainolera zer modutan itzuli zen aztertu zuen (2018: 38-42). Ondoren, hiztegien eta batez ere espainolezko beste corpus batzuen laguntzaz, ingelesezko lokuzio hori espainolez adierazteko beste hainbat modu bilatu eta zerrendatu zituen. Hala, bada, hiztegiek iradokitako *partirse de risa*, *desternillarse de risa* eta *troncharse de (la) risa* ordainen bidetik, espainolezko zenbait corpusetan [aditza + *de risa*] multzoak bilatu zituen, adibidez. Lortutako balizko ordain horiek guztiak Iberiar penintsulako espainolezko testuen corpus batean bilatu zituen, lehenik, eta Amerikako askotariko espainolaren aldaerak biltzen dituen beste corpus batean, ondoren, halako moduz non espainolezko lokuzio horietako bakoitza espainolaren zer aldaera diatopikori lotzen zitzaion zehaztu ahal izan zuen. Lokuzioetako bakoitza zer espainol motatan den ohikoen zehaztu eta gero, espainolera itzultako azpituluen corpusean haietatik zein agertzen ziren begiratu zuen. Datuek erakutsi zutenaren arabera, itzultako azpituluetan espainol estandarreko lokuzioak ageri ziren gehienbat, eta oso urriak ziren espainolaren aldaera diatopikoetako lokuzioak. Corpas Pastorrek, beraz, ondorioztatu zuen filmen espainolerako azpitulazioan lokuzioak eta aldaera diatopikoak normalizatzeko eta estandarizatzeko joera sendo bat nabari zela (Corpas Pastor 2018: 59).

### **2.3.5. María Victoria Valencia Giraldo eta aldaera diatopikoak**

Estandarizaziorako ustezko joeran interesa agertu duen beste ikertzaile bat Valencia Giraldo (2020) da. Bere lanaren oinarri teoriko gisa, Touryren (1995) estandarizazioaren legea (*law of growing standardisation*) hartu zuen gogoan, zeinaren arabera sorburu-testuko testemak (*textemes*) xede-testuko errepertoremak (*repertoremes*) bihurtu ohi diren: «The complicated textual relations established in the source text are replaced in the target text by more common ones in the target discursive-textual community. Thus, translated texts tend

to be more conventional and standardised than non-translated texts» (Valencia Giraldo 2020: 179). Corpas Pastorrek (2015, 2017, 2018) espainolerako azpitolazioaren alorrean egindako ikerketa gidari hartuta, Valencia Giraldek literatur testuetara ekarri zuen auzia. Hala, bada, Valencia Giraldek espainolera itzultako literatur testuetan aldaera diatopikoak ezabatzeko edo apaltzeko joerarik baden aztertu nahi izan zuen.

Horretarako, Oscar Wilderen *The Picture of Dorian Grey* nobelaren bi itzulpenez baliatu zen: espainol penintsularrera egindakoa bata, eta Kolonbiako espainolera egindakoa bestea. Eta zehazki, itzulpen haietan ageri ziren [aditza + izena (objektua)] kolokazioak espainolezko testu ez-itzulietakoekin alderatu zituen. Hala, bada, Wilderen jatorrizko nobelako lehen bi kapituluak aukeratu, eta haietan ageri ziren ingelesezko [aditza + izena (objektua)] multzo guztiak erauzi zituen eskuz. Ondoren, kolokazio haiek espainolezko bi itzulpenetan nola itzuli ziren begiratu, eta zerrenda banatan bildu zituen: espainol penintsularrera itzultako testuko kolokazioak, batetik, eta Kolonbiako espainolera itzultako testukoak, bestetik. Lortutako kolokazioak espainolezko bi corpusetako datuekin gurutzatu zituen. Corpusetako bat Corpus Diacrónico del Español (CORDE) zen. CORDE corpus historiko bat da, espainolaren jaiotzatik eta 1974ra arteko testuz osatua. Espainol penintsularreko eta Ameriketako 22 aldaeretakoko testuak biltzen ditu, askotariko testu-generoetakoak. Beste corpusa Corpus Diacrónico y Diatópico del Español de América (CORDIAM) zen, eta aurrekoaren osaera bertsua du: lau mendetako espainolezko testuak, askotariko generoetakoak, denak Ameriketako aldaeretan idatziak. Valencia Giralderen helburua zen egiaztatzea Wilderen bi itzulpenetan identifikatutako kolokazioek zenbateko presentzia zuten bi corpus haietako Kolonbiako espainolezko, espainol penintsularreko eta espainol estandarreko testuetan.

Bada, datuek erakutsi zuten Kolonbiako espainolera itzultako Wilderen nobelako kolokazioetatik gehienak corpusetako espainol estandarreko eta espainol penintsularreko testuetan ere ageri zirela, eta beraz Wilderen nobelaren Kolonbiako itzulpenak ez zuela ia Kolonbiako espainolaren bereizgarrikerik ageri. Kolonbiako espainolera egindako itzulpena, beraz, hurbilago zegoen espainol estandarretik Kolonbiako aldaera diatopikotik baino.

### 2.3.6. Isabel Tello Fons eta erregistro mailako aldaerak

Hizkuntza estandarren eta aldaeren arteko hautuetan arreta jarri duten ikertzaileek aldaera diatopikoak ez ezik erregistro mailako bariazioa ere izan dute aztergai. Tello Fonsek (2019) formaltasun maila ezberdineko hitzen erabilera konparatu zuen gaztelaniara itzultako eta gaztelaniaz sortutako testuen bi corpusetan. Haren helburua formaltasuna markatzen duen tonuaren aurrean itzultzaileek nola jokatzeko duten ikertzea zen, eta hipotesi gisa zera proposatu zuen: testu itzulietan tonu markatuko termino gutxiago erabiliko zirela testu ez-itzulietan baino.

Hala, bada, COVALT (Corpus Valencià de Literatura Traduïda) corpuseko bi atal hautatu zituen corpus konparagarri bat sortzeko: frantsesetik eta ingelesetik gaztelaniara itzultako narratiba-lanak, batetik, eta gaztelaniaz sortutako narratiba-lanak, bestetik. Ondoren, formaltasun maila ezberdineko 105 termino hautatu zituen *ad hoc* DIRAE (Diccionario Inverso del Diccionario de la Real Academia Española) hiztegitik. Zehazki, honako markadun terminoak jaso zituen: zaharkitua (*desusado*), poetikoa (*poético*), kultua (*culto*), gutxi erabilia (*poco usado*), lagunartekoa (*coloquial*), gordinkeria (*malsonante*), peioratiboa (*peyorativo*), arrunkeria (*vulgar*) eta jargoia (*jergal*). Terminoak hautatzeko ezarri zuen baldintza zen gaztelaniaz sortutako testuen corpusean agertu behar zirela. Behin erregistro ezberdinetako terminoen zerrenda osatuta, haietako bakoitzaren agerpen-maiztasuna kalkulatu zuen. Bi azpicorpusak tamaina ezberdinetakoak zirenez, maiztasun erlatiboa konparatu zuen, hau da, 1.000.000 hitzeko zenbat aldiz agertzen zen termino bakoitza.

Emaitzek erakutsi zuten lemetako gehienetan agerraldiak gehiago zirela testu ez-itzulietan itzulietan baino. Gainera, testu itzulien artean ez zen alde nabarmenik ikusten frantsesetik itzultako testuen eta ingelesetik itzultakoen artean, eta, beraz, ezin zen ondorioztatu sorburu-hizkuntzak interferentziarik sorrarazten zuenik. Datuek, beraz, Tello Fonsen hipotesia berretsi zuten: itzultzaileen testuetan tonu markatuko hitzak saihesteko joera zegoen.

## 2.4. Kolokazioak

Itzulpenetako hizkera ezaugarritzen saiatu diren ikertzaileen beste arretagune garrantzitsu bat kolokazioen gaia izan da. Ikerketatik ikerketara kolokazioa ulertzeko eta definitzeko moduan aldeak badira ere, jarraian aipagai izango ditugun azterlan guztiak bat datoz kolokazioa mugatzeko gutxieneko baldintzan, zeina baieztapen honetan laburbildu baitaiteke: «the tendency of certain words to co-occur regularly in a given language» (Baker 1992: 47). Kolokazioak aztertzeak, hain zuzen ere, testuetako aberastasun lexikoa ez ezik testugileen beste zenbait joera hautemateko aukera eskaini die ikertzaileei: zenbateraino eragiten duen sorburu-hizkuntzak testu itzulietako hizkeran, xede-hizkuntzaren eguneroko erabileran ohikoak ez diren hitz-konbinazioak sorraraziz; edo ea jatorrizko testuetako berrikuntzen aurrean iragazkorak diren testuak egin ohi dituzten itzultzaileek edo, kontrara, ondo errotutako hitz multzoak erabiltzeko joera nabarmenagoa izan ohi duten hiperzuzenketak hartaratuta.

Gaira hurbiltzeko moduak askotarikoak izan dira, eta zailtasun metodologikoak ugariak. Batzuek hiztegieta kolokazio gisa identifikatutako adibide zehatz baten edo batzuen erabilera neurtu nahi izan dute, eta beste batzuek corpusetatik kolokazioak bilatu eta erauzteko proposamenak egin dituzte.

### 2.4.1. Dorothy Kenny

Lehen multzoan koka genezake Dorothy Kennynen lana (2001). Kennyk *sanitization* deritzon ustezko itzulpen-unibertsala aztertu nahi izan zuen bere ikerlanean. *Sanitization* edo saneatzea guk gorago normalizazio, estandarizazio edo kontserbadurismo izendatu duguna adierazteko beste termino bat da (Zanettin 2013: 23), eta xede-testuan xede-hizkuntzaren bereizgarriak esajeratzeko joera adierazten du. Itzulpenetan halako saneatze edo estandarizatzeko bat gertatu ohi dela defendatzen dutenen arabera, beraz, itzultzaileek joera kontserbadoreagoak erakutsi ohi dituzte eta beren testuak xede-hizkuntzaren erabilera estandar eta ondo errotutara hurbildu ohi dituzte. Bere ikerlanean, Kennyk alemanezko jatorrizko testuen corpus batean sortzailatzat edo berrizailatzat jo litezkeen zenbait hitz

konbinazio identifikatu, eta ingelesera egindako itzulpenetan itzultzaileek nola eman zituzten aztertu zuen. Horretarako, nodo zehatz bat aukeratu zuen (alemanezko *auge*, 'begi'), abiapuntuko alemanezko corpusean zer beste hitzen ondoan agertzen zen zerrendatu, eta agerpen-maiztasun gutxieneko konbinazio edo kolokazioak erauzi zituen. Ondoren, kolokazio ezohiko edo sormen handiko horiek ingeleserako itzulpenetan nola geratu ziren aztertu zuen, itzulpen prozesuan normalizaziorako ala berrikuntzarako joerarik ba ote zen ikusi nahian. Kennyk normatibizazio-zantzuak topatu zituen. Nolanahi ere, ondorioei dagokien atalean oso zuhur agertu zen. Alde batetik, normalizazio- eta estandarizazio-joera hori ez zela orokorra ohartarazi zuen: itzultzaile batzuek beste batzuek baino joera handiagoa ageri zuten kolokazio ezohikoak neutralizatzeko edo normalizatzeko, eta argi ikusten zuen itzultzaileen arabera zela jokaera konbentzionalagoa edo berritzaileagoa izatea. Bestetik, erabilitako datu kopurua behar baino txikiagoa zela iritzita, corpus handiagoekin eta kolokazio gehiagorekin azterketa xeheagoak egiteko beharra azpimarratu zuen.

## 2.4.2. Pernilla Danielsson

Danielssonen (2003) abiapuntua bestelakoa izan zen. Haren helburua hitzetik haragoko esanahi-unitateak (eta horien adibide gisa, kolokazioak) mugatzeko eta bereizteko automatismo bat garatzea zen. Izan ere, Danielssonek zalantzan jartzen du hizkuntz analisirako oinarria hitzak izan behar duenik; haren ustez, esanahi-unitatea hartu beharko luke oinarritzat hizkuntzaren azterketak, eta unitate hori hitz batez edo gehiagoz osatuta egon liteke. Esanahi batasuna duten hitz multzoak aztertu beharko lirakeela defendatzen du. Hori dela eta, corpus batean nolabaiteko esanahi batasuna duten hitz multzoak erauzteko metodo bat probatu nahi izan zuen bere ikerlanean. Abiapuntu gisa ingelesezko testuen corpus ezagun eta oso zabal bat erabili zuen, British National Corpus delakoa, eta han aurkitutakoak suedieraz idatzi eta ingelesera itzultitako lau eleberriren corpus paralelo txiki batean kontrastatu zituen. Danielssonek agerpen-maiztasunean oinarritu zuen bere prozedura: hitz gako edo nodo bat aukeratu zuen (*stroke*), eta nodo horren inguruan corpus osoan bost aldiz edo gehiagotan agertzen ziren hitzak zerrendatu zituen. Nodoaren ondoko elementu edo kolokatu posible horiek guztiak bi multzotan banatu zituen: batetik, Sinclairrek

(1991) *upward collocate* edo goi kolokatuak izendatu zituenak, hau da, *stroke* nodoak corpus osoan duen maiztasun-indizea baino goragoko maiztasun-indizeak dituzten hitzak (*the, a...*), eta bestetik, *downward collocate* edo behe kolokatuak, hots, corpus osoan *stroke* hitza baino gutxiagotan agertzen diren hitzak (*genius, swim, paddle...*). Hala, bada, lehenik behe kolokatuak erauzi zituen; lortutako konbinazioak goi kolokatuekin konbinatuta erauzi zituen ondoren; eta azkenik kokalekuaren irizpidea aplikatu zuen. Emaitzak, esan bezala, suedierazko eta ingelesezko corpus paralelo txiki batean testatu zituen ondoren. *Stroke* hitza corpus horretan zer beste hitzen ondoan ageri zen aztertu zuen, eta jatorriz ingelesez sortutako testuetan eta ingelesera itzulitakoetan kolokazioen erabilera oso antzekoa zela ondorioztatu zuen. Jatorrizko testuen eta itzulpenen arteko konparazioan oso kopuru txikiak erabili zituen Danielssonek esku artean, eta bere ondorioetan ez zion arreta handirik eskaini jatorrizko ingelesaren eta ingeles itzuliaren arteko erkaketari, bere helburua beste bat izaki. Baina kolokazio posibleak erauzteko haren proposamena aurrekari inportantea izan zen, eta gerora itzulpenetako kolokazioak aztertu nahi izan dituzten ikertzaile askorentzat oso kontuan hartzeko abiapuntua izan da Danielssonena.

### **2.4.3. Marco Baroni eta Silvia Bernardini**

Garaitsu hartan, Marco Baronik eta Silvia Bernardinik (2003) testu itzulien eta ez-itzulien corpus konparagarri batean kolokazioak automatikoki erauzteko eta haien erabilera konparatzeko proposamen interesgarri bat aurkeztu zuten. Beren ikerlanerako, geopolitikari buruzko italierazko aldizkari bateko artikuluek osatutako corpus bat erabili zuten: artikuluetako batzuk italieraz sortuak ziren, eta besteak italierara itzuliak. Jatorrizko testuen corpora bost azpicorpusetan banatu zuten modu aleatorio batez, eta berdin jokatu zuten testu itzulien corpusarekin. Ondoren, kolokazioak izateko hautagaiak erauzteari ekin zioten. Horretarako, honako baldintza hauek betetzen zituzten bigramak zerrendatu zituzten: azpicorpus guztietan gutxienez bi aldiz ageri ziren hitzez osatuak egotea eta azpicorpusetako batean gutxienez hiru aldiz agertzea. Behin zerrenda lortuta, bigrama horien agerraldiak konparatu zituzten testu itzulien eta ez-itzulien corpusetan. Emaitzetan, Baronik eta Bernardinik konbinazio finko gehiago antzeman zituzten itzulpenetan jatorrizko testuetan

baino. Ondoren, datuak modu kualitatiboago batean aztertzeari ekin zioten. Horretarako, zerrendatutako bigramen artean bi azpicorpusetako bakoitzean gehien errepikatzen zirenak aukeratu zituzten eta haien erabilera eta nolakotasuna konparatu zituzten. Bigarren pauso hartan ondorioztatu zuten itzulpenetan patroiz errepikatu gehiago erabiltzen baziren ere, itzulpenetan gehien errepikatzen ziren konbinazioak *topic-dependent sequences* edo gaiak baldintzatutakoak zirela (adibidez, *lega nord* edo *lingua russa*), eta testu ez-itzulietan, aldiz, *topic-independent sequences* edo gaiari lotuta ez zeuden konbinazioek (*breve periodo*, *scorso anno*) agerraldi gehiago zituztela itzulpenetan baino.

#### **2.4.4. Silvia Bernardini**

Bernardinik gaiari sakontzen jarraitu zuen, eta 2007an italierazko kolokazioei buruzko beste ikerlan bat argitaratu zuen. Oraingo honetan, bi corpus paralelo erabili zituen: corpusetako batek ingelesez sortutako testuak eta italierara egindako haien itzulpenak biltzen zituen, eta besteak italieraz sortutako testuak eta ingelesera egindako haien itzulpenak. Bi corpus paralelo horiek, beraz, bi corpus konparagarri osatzen zituzten aldi berean: ingelesez idatzitako eta italieratik ingelesera itzultitako testuen corpusa, batetik, eta italieraz idatzitako eta ingelesetik italierara itzultitako testuen corpusa, bestetik. Horiez gain, bi erreferentzia corpus erabili zituen kontrasterako: British National Corpus (BNC) delakoa ingeleserako eta Repubblica corpusa italierarako.

Haren hurbilpen modua maiztasunaren arabera izan zen, eta ez fraseologiaren arabera (Bernardini 2007: 2). Hau da, haren helburua ez zen kolokazioa zer den teorikoki definitzea ezta hitz multzo bat kolokaziotzat jotzeko irizpideak mugatzea, baizik eta agerraldi-maiztasun handiak izate hutsagatik analisirako interesgarriak izan litezkeen bi hitzeko multzoak aztertzea. Kolokazioak erazterakoan, eta datuen erabilerraztasuna bermatzeko helburuz, zenbait muga jartzea erabaki zuen: bi hitz lexikalek osatutako konbinazioak soilik hautatzea, bi hitz horiek elkarren ondo-ondokoak edo gehienez ere bi funtzio-hitzek bereiziak izanik. Testu itzulietan bi baldintza horiek betetzen zituzten bigramen zerrenda atera, eta agerraldi-maiztasunaren arabera ordenatu zuen; ondoren, gauza bera egin zuen testu ez-itzuliekin. Bateko eta besteko emaitzak konparatuta, Bernardinik ondorioztatu zuen



italierazko itzultzaileek italierazko idazleek baino gehiagotan jotzen zutela segida mota zehatz bat [izena + konj./prep. + izena] erabiltzera. Lehen emaitza hori kontrastatzeko asmoz, corpus paraleloetara jo zuen. Hala, jatorrizko ingelesezko testuak eta haien italierarako itzulpenak lerroz lerro konparatuta, aipatutako [izena + konj./prep. + izena] segida ageri zen kasuetako askotan itzulpen-aldaketa (*translation shift*) bat gertatua zela ikusi zuen; hau da, sorburu-testuan ez zen kolokaziorik ageri, eta italierazko kolokazioa itzultzaileak sorrarazia zen itzulpen-aldaketa edo -estrategia baten ondorioz. Laburbilduz, Bernardinik egiaztatu zuen italierazko kolokazio mota zehatz bat ugariagoa zela testu itzulietan testu ez-itzulietan baino, eta italierazko testu itzulietan kolokazio patroia hori ugariagoa izatea itzulpen-prozesuaren ondorio zela eta ez sorburu-testuak sorrarazia. Italierarako itzultzaileek, beraz, beren itzulpenetako hizkera italieraren ohiko kolokazioetara hurbilazteko ahalegina egiten zuten, lortutako datuen arabera.

#### 2.4.5. Carmen Dayrell

Garai bertsuan, Dayrellek (2004, 2007) corpus batetik kolokazioak erauzteko metodologia-proposamen bat garatu zuen, kolokazioen erabilera testu itzulietan eta ez-itzulietan konparatzeko eta itzulpenetan aniztasun gutxiagokoa ote zen egiaztatze asmoz. Horretarako bi corpus txiki erabili zituen: bata Brasileko portugesez idatzitako 8 nobelaz osatua, eta bestea Brasileko portugesez ingelesez itzultitako 5 nobelaz osatua. Kolokazioak erauzteko, lehenik eta behin nodoak aukeratzea erabaki zuen («the word that is being studied», Sinclair 1991: 115 *apud* Dayrell 2004: 73), eta ondoren haien ondoan ageri ziren kolokatuak aztertu zituen («any word that occurs in the specified environment of the node», Sinclair 1991: 115 *apud* Dayrell 2004: 73). Nodoak aukeratzeko, honako hiru irizpide hauek hartu zituen aintzat: dena delako hitzak agerraldi kopuru gutxienerako bat izatea bi corpusetan (corpusetako bakoitzean gutxienez 100 aldiz agertzea), agerpen-maiztasuna antzekoa izatea bi corpusetan (corpusetako bakoitzaren agerraldi kopuruak oso ezberdinak balira prozedura estatistiko konplexuak erabili beharko zituzkeelako kopuruak orekatu eta konparagarriak bihurtzeko), eta kategoria gramatikalari dagokionez izena edo adjektiboa izatea (aditzak portugesez forma ugari dituztelako baztertu zituen, eta adberbioak elementu lexikalen eta

funtzio-elementuen arteko mugan kokatuta egoteagatik). Lortutako balizko nodo guztien artean, bost izen aukeratu zituen. Ondoren, bost izen horien ezkerrean zein eskuinera gehienez ere lau hitzeko distantziara ageri ziren hitzak zerrendatu eta zenbatu zituen. Lehenik, kuantitatiboki aztertu zituen datuak: corpus bakoitzean bost nodoen ondoan zenbat hitz ezberdin ageri ziren konparatu zuen. Bost izenetatik lautan, nodoa hitz ezberdin gehiagoren ondoan ageri zen testu ez-itzulietan itzulietan baino. Hau da, itzulpenetan bost nodo horiek ondoan hartzen zituzten hitzen aukera murriztagoa zen. Bestalde, itzulpenetan oro har nodoek ondoan hitz edo kolokatu gutxiago hartzen bazituzten ere, kolokatu gutxiago horiek gehiagotan erabiltzen ziren oro har itzulpenetan. Eta datu horretatik Dayrellek interpretatu zuen kolokazioak errepikakorragoak edo kontzentratuagoak zirela itzulpenetan testu ez-itzulietan baino.

#### **2.4.6. Josep Marco Borillo**

2013an Josep Marco Borillok ikuspuntu aldaketa bat ekarri zuen testu itzulietako kolokazioen azterketara. Arreta kolokazio ohiko edo finkatuenetan jarri beharrean, kolokazio ezohiko eta berritzaileak aztertu nahi izan zituen. Espero izatekoak diren erabileretatik desbideratzen diren erabilerak aztertu nahi izan zituen, alegia. Bere ikerlanaren bitartez, bi helburu lortu nahi zituen: literatur testu itzulietan kolokazio markatuen (hots, kolokazio ezohiko edo atipikoen) erabilera aztertzea, batetik, eta behatutako joerak itzulpenetako hizkerari egotzi izan zaizkion ezaugarriekin erlazionatuta esplikatzea, bestetik. Horretarako, COVALT (Corpus Valencià de Literatura Traduïda) corpusaren parte bat erabili zuen: ingelesezko 23 eleberri eta katalanera egindako eleberri horien itzulpenak. Horrez gain, katalanezko itzulpenen argitalpen-tarte berean kaleratutako katalanezko 17 narratiba-lan ere bildu zituen. Lan-tresna izan zuen corpusa, beraz, paraleloa (ingelesezko 23 testuak eta katalanerako haien 23 itzulpenak) eta konparagarria (katalanerako 23 itzulpenak eta katalanez sortutako 17 narratiba-testuak) zen aldi berean. Kolokazioen erauzketa egiteko, hiru irizpideri jarraitu zien, Dayrellen (2007) proposamenari jarraituz: hautagaiak gutxieneko maiztasun bat izatea bi azpicorpusetan, maiztasuna antzekoa izatea bi azicorpusetan, eta gramatika-kategoria. Behin hautagai guztien zerrenda eskuratuta, azpicorpusetako bietan

maiztasun handiena ageri zuten lehen hamar izenak aukeratu zituen. Jarraian, izen horiek ardatz hartuta, bi azpicorpusetan gutxienez hiru aldiz errepikatzen ziren hiru osagaiko konbinazio guztiak erauzi zituen. Zerrenda murriztago hau oinarri hartuta, analisi kuantitatiboari ekin zion. Lehenik kalkulatu zuen ardatz gisa hartutako izen bakoitza zenbat konbinazio ezberdinetan ageri zen testu itzulien corpusean eta zenbatetan testu ez-itzulienean. Bigarrenik, nodo edo izen horietako bakoitzaren konbinazio guztien batez besteko agerpen-maiztasunak zein ziren azpicorpus batean eta bestean. Bai lehen bai bigarren pausoan, lortutako datuak ez ziren esanguratsuak izan. Nodoetako batzuk konbinazio gehiagotan ageri ziren azpicorpus batean eta beste batzuk beste azpicorpusean, modu nahiko orekatuan eta alde nabarmenik gabe. Bestetik, agerpen-maiztasunen batezbestekoei buruzko datuak oso antzekoak ziren bi azpicorpusetan, eta estatistikoki esanguratasun gutxikoak. Hala, bada, Marcok analisi kualitatiboa egitea erabaki zuen: konbinazio guztien zerrenda eskuz garbituta, bi azpicorpusen artean maiztasun-alde nabarmenak ageri zituztenak hautatu eta aztertu zituen. Kolokazio markatutzat jo zitezkeen horiek, gainera, ingelesezko jatorrizko testuekin konparatu zituen, azkenik, hitz multzoaren ezohikotasuna jatorrizko ingelesaren interferentziatzat jo ote zitezkeen argitzeko asmoz. Katalanezko testu itzulietan identifikatu zituen 25 konbinazio markatuetatik 9 ingelesezko jatorrizko testuetan konbinazio ez markatuak edo ohikoak ziren, kontrasterako erabili zuen BNC (British National Corpus) corpusak baieztatu zuenez. Gainontzeko 16ak konbinazio markatuak ziren ingelesezko jatorrizko testuetan ere, ziurrenik haien izaera literarioaren ondorio. Emaitza erabatekoak lortu ez bazituen ere, Marcoren ikerlanak jatorrizko hizkuntzak kolokazio markatuetan izan lezakeen eragina frogatu ahal izan zuen neurri batean, eta kolokazioen gaiari heltzeko proposamen metodologiko oso baliagarri bat eskaini zuen.

### **2.4.7. Gloria Corpus Pastor**

Corpus Pastorrek (2017) espainolezko testu itzulietako eta ez-itzulietako kolokazioen erabilera konparatu zuen, baina alderdi berri baten azterketa gehitu zion auziari: kolokazioen erabileran aldaera diatopikoek edo geografikoek zer presentzia duten neurtu nahi izan zuen,

eta horretarako Iberiar penintsulako eta Amerikako testu itzulien eta ez-itzulien arteko aldeetan jarri zuen arreta.

Kennyk (2001) egin bezala, *Corpas Pastorrek* ere lehenik nodoa aukeratu eta ondoren nodo horren gainean zer kolokazio sortzen ziren aztertu zuen. Baina Kennyk ez bezala, *Corpas Pastorrek* ez zuen sorburu-hizkuntzako nodo bat aukeratu (alemanezko *auge* 'begi' nodoaren gainean sortutako kolokazioak ingelesera nola itzuli ziren aztertu zuen Kennyk), xede-hizkuntzako baizik. *Corpas Pastorrek* [aditza + *de miedo*] kolokazioak erauzi eta aztertu zituen espainolezko zazpi corpusetan. Corpus horietako sei espainolez sortutako testuek osatuak ziren, Iberiar penintsulako espainolezkoek zein Amerikakoek, eta beste corpusetako bat ingelesetik espainolera itzultako azpituluen corpus bat zen. Aurreratu dugun bezala, *Corpas Pastorren* helburua itzulpenetako hizkera kolokazioei dagokienez ezberdina ote zen ikertzea ez ezik, kolokazioen auzia aldaera diatopikoekiko harremanetan aztertzea ere bazen; hain zuzen ere, ikus-entzunezkoetako azpitulazioan espainolezko aldaeren artean zer joera nagusitzen zen aztertu nahi zuen.

Hala, bada, *Corpas Pastorrek* [aditza + *de miedo*] egituraren bitartez sortzen diren espainolezko zortzi kolokazio hautatu zituen (*morirse, cagarse, descomponerse, encogerse* eta *temblar de miedo*, batetik, eta *estar, pasar[se][lo]*, eta *sentar [a alg.] de miedo*, bestetik) eta haietako bakoitza corpus bakoitzean zenbat aldiz erabiltzen zen eta zer maiztasun erlatiborekin (agerraldi kopurua mila hitzeko) ageri zen kalkulatu zuen. Datuek erakutsi zuten Iberiar penintsulako espainolaren eta Ameriketakoaren artean erabilera-ezberdintasunak zaudela, espero izatekoa zen bezala; baina, gainera, azpituluen corpuseko erabilera espainol penintsularretik hurbilago zegoela ere agerian geratu zen. Testu itzulietan, beraz, aldaera diatopikoak ezabatzeko joera zegoen.

## **2.5. Hizkuntza gutxituei buruzko azterlanak: COVALT corpora**

Atal hau amaitzeko, leku berezia eskaini nahi diegu valentzierari buruz eta COVALT corpusaren bitartez egin diren zenbait ikerketari. COVALT corpora (*Corpus Valencià de Literatura Traduïda*) XXI. mende hasieran sortu zen Castelló de la Planako Jaume I

unibertsitatearen abaroan, eta harrezkero ezin konta ahala ikerlan egiteko abiapuntu eta tresna bihurtu da izen bereko ikerketa-taldearen eskutik. Corpusak alemanetik, ingelesetik eta frantsesetik valentzierara eta gaztelaniara itzulitako narratiba-lanak biltzen ditu, baita valentzieraz eta gaztelaniaz sortutako testuak ere. Corpus hori eta hartan oinarrituta valentzierari buruz egin diren ikerketak oso interesgarriak zaizkigu gure tesi honen gaiari lotuta. Izan ere, haiek ere hizkuntza gutxitu (Council of Europe 2023) baten ikuspuntutik begiratzen diote itzulpenaren fenomenoari. Hizkuntza ahaltsuetatik hizkuntza gutxitu batera egindako itzulpenak dira aztergai dituztenak, eta pentsatzekoa da sorburu-hizkuntzaren eta xede-hizkuntzaren arteko desoreka horrek nola edo hala eragiten duela itzulpenetako hizkeran, batetik, eta itzulpenetako hizkera horren eta jatorriz hizkuntza gutxituan idatzitako testuetako hizkeraren arteko distantzian, bestetik. Izan ere, itzulpengintzaren funtzioa eta eragina hizkuntza ahaltsuetan ez bezalakoa izaten da hizkuntza gutxituetan (Even Zohar 1990, Toury 1995, Venuti 1998, Cronin 2003).

COVALT ikerketa-taldeak askotariko azterlanak egin ditu: corpus paraleloen zein konparagarrien bidezkoak; valentziera zein gaztelania aztertzeoak; itzulpen-unibertsalei edo joerei dagokienez, esplizitazioaz (Marco Borillo 2018), elementu eskusibo edo *unique item* direlakoez (Martínez Llenas 2009, Martínez Vilinsky 2012 eta 2016) eta indar grabitazionalaren hipotesiaz (Marco Borillo 2021, Marco Borillo eta Bracho Lapiedra 2023) jardun dute, besteak beste.

Guk, hemen, itzulpenetan erabilitako hizkuntza-ereduari buruzko ikerlan sorta bat aipatuko dugu, Molés-Casesek eta Oltra Ripollek (2019) editatutako liburu batean bildutakoa. Ikerlan horietan bi helburu zituzten: batetik, katalanera itzuli eta Valentzian argitaratutako narratiba-lanetako hizkuntza-eredua katalan estandarrarekiko harremanean nolakoa den aztertu, eta, bestetik, hizkuntza-eredu horri dagokionez testu itzulien eta ez-itzulien artean alderik baden zehaztu. Ikergaia, beraz, gorago normalizazioaz edo estandarizazioaz hitz egitean aipatu ditugun aldaera diatopikoei buruzko lanekin lotzen da, baina oraingo honetan aldaera zehatz bat (valentziera) aldaera estandarrarekiko (katalan estandarra) nola erlazionatzen den aztertzea da xedea.

Horretarako, COVALT corpusaren barruan bi azpicorpus konparagarri aukeratu zituzten: bata 1990-2000 bitartean ingelesetik, alemanetik eta frantsesetik katalanera itzuli eta

Valentzian argitaratutako literatur lanek osatua, eta bestea garai eta leku berean argitaratutako katalanezko jatorrizko literatur lanek osatua. Testu itzulien corpusak 2,5 milioi hitz inguru zituen, eta testu ez-itzulienak 1,5 milioi inguru. Testu guztiak narratibakoak ziren, helduen literaturakoak zein haur eta gazteentzakoak.

Corpus hori oinarri hartuta, askotariko alderdi linguistikoei erreparatu zieten: ortografikoak, morfologikoak zein lexikoak. Eta lortutako datuen argitan, aztergai zituzten testuetako hizkuntza-eredua Lacreuk (2002: 247-248 *apud* Bracho Lapiedra, Marco Borillo, Oltra Ripoll eta Peña Martínez 2019) proposatutako gradazio edo eskalaren arabera sailkatzen saiatu ziren. Lacreuk lau hizkuntza-eredu proposatu zituen valentzierarako:

- Eredu partikularista, zeinean valentzieraren bereizgarri morfosintaktiko eta lexikoak lehenesten diren.
- Eredu konbergentea, zeinak valentziera katalanaren beste dialektoen maila berean jartzea bilatzen duen.
- Eredu integrazionista, zeinaren helburu nagusia letra katalanetan erabat integratzea den, valentzieraren bereizgarri behinenak bazter utzita.
- Eredu sezesionista, zeinak valentziera katalanetik aparteko hizkuntza gisa eraikitzea bilatzen duen, ahalik eta bereizgarri gehien erabiltzearen ondorioz.

Beren corpusean azkenaren aztarnarik topatuko ez zutelakoan, itzulpenetako hizkera beste hiruren artean zeinetan kokatzen zen deskribatzen saiatu ziren (Bracho Lapiedra, Marco Borillo, Oltra Ripoll eta Peña Martínez 2019).

Hala, bada, Bracho Lapiedrak eta Peña Martínezek (2019: 13-36) zenbait alderdi ortografiko, lexiko eta morfologiko izan zituzten aztergai: ortografian azentuazio irekia ala itxia, lexikoan sinonimo bikoteak, morfologian erakusleen formak... Emaitez erakutsi zuten bai testu itzulietan bai ez-itzulietan valentzieraren erabilera diatopiko gehiago erabiltzen zirela katalaneko beste eskualde batzuetakoak baino. Baina joera hori nabarmenagoa zen testu itzulietan. Lacreuren banaketari zegokionez, egileek eredu partikularistan kokatu zuten oro har itzulpenetako hizkera, baina lexikoari zegokionez eredu konbergentera hurbiltzen zela antzeman zuten.

Marco Borillok (2019: 37-56) aditzaren morfologia aztertu zuen, eta lortu zituen datuek antzeko joera baten berri eman zuten: itzulpenetan valentzierako formak nagusitzen ziren katalan zentralen eta beste dialekto batzuetako gainetik; testu ez-itzulietan, aldiz, oreka handiagoa zegoen valentzierako formen eta katalan zentralen artean. Horrenbestez, Marco Borillok ondorioztatu zuen itzultzaileen testuek nagusiki partikularizazioaren alde egiten zutela, eta testu ez-itzuliak eredu konbergentearen alde lerratzen zirela.

Oltra Ripollek (2019: 57-82), azkenik, alderdi morfosintaktiko zehatz batzuek jardun zuen, hala nola partizipioaren konkordantziak, gerundioaren erabilera zehatz batez eta zenbatzaileez. Eta datuek ildo bereko ondorioak aterarazi zizkieten: partikularizazioarako joera erlatibo bat antzeman zuen (2019: 81), argiagoa testu itzulietan ez-itzulietan baino.

Laburbilduz, askotariko ezaugarri linguistikoei erreparatuta ere, azterlan guztietako emaitzak bat zetozen (Bracho Lapiedra, Marco Borillo, Oltra Ripoll eta Peña Martínez 2019: 83-87). Itzulpenetan partikularizazioarako joera nagusitzen zen, hau da, valentzierako ezaugarriak katalan zentralarenei gailentzen zitzaizkien, eta joera hori are nabarmenagoa zen alderdi morfosintaktikoetan lexikoetan baino (2019: 83). Testu ez-itzulietako hizkuntza-eredua, aldiz, Lacreuren eredu konbergenteantza hurbiltzen zen. Egileek politika editorialari egozten zioten testu ez-itzulietako joera hori, argialetxeek idazleak katalan zentrala edo estandarra erabiltzera bultzatzen dituztela susmatuta, baina baita egileen borondateari ere (2019: 83), gehienak (% 85) valentziarrak baziren ere.

## **2.6. Laburbilduz**

Itzulpenetako hizkera ezaugarritzeko egin diren azterlanen gainbegiratu honetan ikusten denez, orain arte lortutako ondorioak ez dira erabatekoak. Lexiko-aniztasunari eta aberastasunari dagokionez, datu kopuru oso handiak eta gordinak erabili direnean itzulpenetan aberastasun lexikal txikiagoa dagoela ondorioztatu da oro har. Hala, bada, bai elementu lexikalen eta gramatikalen arteko ratioak, bai type/token ratioak aztertu direnean, testu ez-itzulietan karga lexikoa handiagoa dela ikusi da. Hala egiaztatu da ingeleserako

(Laviosa 1997, 1998 eta 2002) eta txinerarako (Xiao, He eta Yue 2010). Ez da ahaztu behar, nolahi ere, Williamsek (2005) joera bera ikusi zuela ingeleserako, baina ez, ordea, frantseserako, azken hizkuntza horretan aberastasun lexiko handiagoa antzeman baitzuen itzulpenetan. Kopuru gordinak bazter utzi eta fokua hurbilduta datu multzo txikiago baina xeheagoak aztertu izan direnean, ordea, ondorioak bestelakoak izan dira. Jantunenek (2001 eta 2004) sinonimo multzo zehatzak aztertu zituenean ez zuen pobrezia lexikorik antzeman testu itzulietan. Olohanek (2003 eta 2004), bestalde, aberastasun handiagoa topatu zuen testu ez-itzulietan koloreen eremu semantikoa aztertzean, baina kontrako joera *-ish* atzizkiaren bidez sortutako adjektiboetan.

Lexiko-emankortasunari eta -sorkuntzari dagokionez, datuak sendoagoak dira, eta testu ez-itzulietan sormen handiagoa dagoela ematen dute aditzera oro har. *-ish* atzizkiaren bidez sortutako adjektiboetan, ezohikoak edo sortzaileagoak ziren proposamen gehiago topatu zituen Olohanek (2003 eta 2004) testu ez-itzulietan itzulietan baino. *Coinage* edo hitz asmatuei buruzko bere ikerlanean antzeko ondorio batera iritsi zen Williams (2005) ere: lexiko-sormena handiagoa zen testu ez-itzulietan. Kolokazioak ere lexiko-sorkuntzaz eta joera kontserbadoreez mintzo zaizkigu, beren tipikotasunaren bitartez. Eta testu itzulietan kolokazio tipikoak (edo ohikoak edo errotuak) ugariago erabiltzeko joera antzeman dute oro har Bernardinik (2007) eta Dayrellek (2004 eta 2007). Marco Borillok (2013), azkenik, beste bide bat hartuta, itzulpenetako ezohiko kolokazioen sorburuaz ikertu nahi izan zuen, eta sorburu-testuen interferentziek ez ezik itzultzaileen normalizaziorako joera ere aintzat hartzeko faktorea zela ondorioztatu zuen.

Adostasuna are nabarmenagoa da hizkuntza-bariazioari dagokionez. Itzulpenetako ustezko normalizaziorako edo estandarizaziorako joera aztergai izan duten ikertzaileak bat datoz beren emaitzetan: testu itzulietan estandarretik urruntzen diren aldaerei leku gutxiago egiten zaie testu ez-itzulietan baino. Hala, itzulpenetan aldaera diatopiko gutxiago topatu dituzte Olohanek (2004) ingeleserako, baita Corpas Pastorrek (2015, 2017 eta 2018) eta Valencia Giraldek (2020) gaztelaniarako ere. Erregistro mailako bariazioari dagokionez, behe mailako erregistroko kontrakzio gutxiago aurkitu ditu itzulpenetan Olohanek (2004), kolokialismo gutxiago Nevalainenek (2004), eta tonuari lotutako forma markatu gutxiago Tello Fonsek (2019). Aparteko interpretazioa merezi dute COVALT corpusaren inguruan



egindako ikerketek (Molés-Cases eta Oltra Ripoll 2019). Hizkuntza gutxitu baten inguruko azterketa da ikerketa-talde horrek burututakoa, katalanaren ingurukoa, hain zuzen, eta haren barruko aldaera diatopiko batek —valentzierak— katalan zentral edo estandarrekiko duen harremana aztertzea du helburu. Ikerlanean bildutako datuek erakutsi zutenaren arabera, aldaera estandarretik urrundu eta aldaera diatopikoaren bereizgarrii eusteko ahalegin handiagoa (eredu partikularista) nabari zen testu itzulietan ez-itzulietan baino. Hizkuntza gutxitu baten barruko aldaera batez ari garelarik, estatu-hizkuntzetan (Olohanen ingelesa, Nevalainen finlandiera, eta Corpas Pastor eta Valencia Giralderen espainola) ez bezalako motibazioak egon litezke portaera horren atzean, norberaren identitatea indartu nahi izatearekin lotutakoak.

Hain zuzen ere, euskara hizkuntza gutxitua izanik, itzulpenak euskal gizartean, kulturen eta hizkuntzaren garapenean duen funtzioa hizkuntza handietakoa ez bezalakoa da, eta beraz gure hipotesia da itzulpenetan erabiltzen den euskararen eta testu ez-itzulietan erabiltzen denaren arteko harremanak zenbait berezitasun izango dituela, hizkuntza ahaltsuagoetan ez bezala. Alde horretatik, uste dugu euskarazko itzulpenetako hizkeraren azterketa euskararentzat ez ezik, itzulpenaren fenomenoaren ulermen orokorragoarentzat ere ekarpen interesgarria izan daitekeela.



---

# 3

## Metodologia

---

Atal honetan, gure azterlanean erabili dugun corpora aurkeztuko dugu lehenik: zer eta zenbat lan biltzen dituen, zer hizkuntzatatik itzuliak, nork idatziak eta itzuliak, noizkoak eta non argitaratuak diren azalduko dugu. Ondoren, zer datu mota erauzi ditugun eta datu horiek nola tratatu ditugun esplikatuko dugu labur.

### **3.1. Corpora**

#### **3.1.1. Corpusaren deskribapen orokorra**

Ikerlan honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak sortutako Egungo Testuen Corpusaren (Euskara Institutua UPV/EHU 2021) parte bat erabili dugu. Egungo

Testuen Corpora corpus ireki eta doako bat da, elebakarra, euskaraz sortutako testuak eta euskarara itzulitakoak biltzen dituena. Corpuseko testu guztiak 2001. eta 2019. urteen bitartean argitaratutakoak dira, hainbat generotakoak: literatur testuak, kazetaritzakoak, zuzenbide-arlokoak, zientzia-dibulgaziokoak, Wikipediako artikulak eta telebistako gidoiak. Corpora 2013an sortu zen, eta aldiro elikatu eta eguneratzen da; tesia idazten ari garen une honetan, 2021eko otsailaren 15ekoa da egin den azken eguneraketa. Eguneraketa horren ostean, corpora 355,4 milioi hitzek osaturik geratu zen (3.081.228 hitz ezberdin).

Esan bezala, tesi honetan Egungo Testuen Corpusaren parte bat erabili dugu; zehazki, corpusean «Literatura» atal gisa etiketatzen dena, ia bere osotasunean. Literatur testuak erabiltzeko arrazoi nagusia da atal horrek eskaintzen duela corpus konparagarri orekatu bat sortzeko aukera onena. Egungo Testuen Corpuseko beste atal batzuetan testu itzulien eta ez-itzulien bolumenak ez dira berdintsuak (zuzenbide arloko atalean, adibidez, testu itzulien azpicorpora askoz handiagoa da ez-itzuliena baino), edo besterik gabe zaila da testuak itzuliak edo zuzenean euskaraz sortuak diren ebatzea (wikipediako testuetan, adibidez). Jakitun gara literatur testuak erabiltzeak badituela bere mugak. Gure kasuan, muga nabarmenena testuen sorrera-data da. Testu guztiak, bai itzulpenak, bai itzulpen ez direnak, garai berean idatziak/itzuliak eta argitaratuak diren arren, itzulpenen sorburu-testuen sorrera-datak askotarikoak dira. Izan ere, mundu osoko eta historia osoko literatur lanen artean euskarara itzuliak izateko aukeratu diren testuek osatzen dute testu itzulien azpicorpora. Testu ez-itzulien azpicorpora, aldiz, urte bitarte berean euskal idazleek argitaratutako (eta ziurrenik idatzitako) testuek osatzen dute. Testu itzulien azpicorpusean, beraz, jatorrian hizkuntza, garai, kultura eta literatur korrante oso ezberdinak dituzten testuak biltzen dira, eta horrek eragina du, noski, testu horien idazmoldean. Testu ez-itzuliak, aldiz, eremu geografiko, denborazko eta kultural murrizagoan sortuak dira, eta beraz idazkerari dagokionez homogeneotasun handixeagoa espero liteke haien artean. Nolanahi ere, gure ikerlan honen helburu behinena da deskribatzea nolakoa den gaur egungo euskal irakurleen begietara itzulpenen bitartez eta euskal idazleen testuen bitartez iristen ari den euskara, eta ez horrenbeste sorburu-testuek testu itzulietan sor litzaketan interferentziak azaltzea.

Gure corpora, beraz, 2001. eta 2019. urteen bitartean argitaratutako 1.134 narratibalanek (nagusiki eleberriek, saiakerek eta ipuin-liburuek) osatzen dute. 1.134 liburu horietatik 698 testu ez-itzuliak dira; euskaraz sortutako testuak, alegia. Gainontzeko 436 liburuak euskarara hainbat hizkuntzatatik egindako itzulpenak dira. Corpora osatzen duten liburu guztien datuak I. eta II. eranskinetan jasota daude.

Testu ez-itzulien corpora 26,4 milioi hitzez edo tokenez osatuta dago, eta testu itzulienean 22,4 milioi hitzez edo tokenez. Guztira, beraz, 48,8 milioi hitz ditu corpusak. 48,8 milioi hitz horien artean 60.215 lema ezberdin edo type daude. Testu ez-itzulien azpicorpusean lemak 52.423 dira, eta testu itzulienean 43.736.

### 3.1.2. Testu itzulien sorburu-hizkuntzak

Itzulpenen sorburu-testuak 26 hizkuntzatan sortuak dira. Badira, gainera, 3 liburu askotariko hizkuntzetatik itzuliak izan direnak. 3.1. taulan sorburu-hizkuntzen eta liburu kopuruen banaketa jaso dugu:

**3.1. taula. Testu itzulien sorburu-hizkuntzak eta hizkuntza bakoitzeko liburu kopurua.**

Sorburu-hizkuntza	Liburu kopurua
Ingelesa	148
Frantsesa	98
Alemana	41
Italiera	30
Gaztelania	27
Latina	16
Greziera	12
Errusiera	9
Arabiera	8
Katalana	7
Galegoa	6

Portuges	6
Hungaria	4
Japonia	3
Hebreer	3
Turkia	2
Islandia	2
Serbia	2
Txekia	2
Suedia	1
Errumania	1
Korea	1
Kroazia	1
Polonia	1
Txinera	1
Serbokroazia	1
Askotarik	3
<b>Guztira</b>	<b>436</b>

### 3.1.3. Idazleak eta itzultzaileak

Testu ez-itzulien azpicorpusa osatzen duten 698 liburuetatik 688 liburu 303 euskal idazle sortutakoak dira. Gainontzeko 10 liburuak taldean idatzitakoak dira. Horrek esan nahi idazle izendun bakoitza 2,27 libururen egilea dela batez beste. Corpusean liburu gehien dituen idazleak 14 liburu ditu (Xabier Mendiguren Elizegi); bi idazleak 12 lan dituzte (Anjel Lertxundi eta Jon Arretxe); beste bi idazleak, 11 (Itxaro Borda eta Iñaki Irasizabal); hiru idazleak, 10 (Alberto Ladron Arana, Xabier Montoia eta Iban Zaldua); lau idazleak, 9 (Joxe Azurmendi, Edorta Jimenez, Karlos Linazasoro, Pablo Sastre); hiru idazleak, 8 (Iñigo Aranbarri, Xipri Arbelbide, Joan Mari Irigoien); hiru idazleak, 7 (Joxean Agirre, Koldo Izagirre, Patziku Perurena); 10 idazleak, 6; 9 idazleak, 5; 15 idazleak, 4; 27 idazleak, 3; 55 idazleak, 2; eta gainontzeko 169 idazleek lan bat dute.

Itzulpenetan, 436 liburuetakoko 434ren atzean 186 itzultzaile izendun daude. Horrez gain 2 liburuk izenik zehaztu gabeko itzultzaile kolektiboa dute. Itzultzaile izendun bakoitzak, beraz, 2,33 liburu itzuli ditu batez beste. Corpusean itzulpen gehien dituen itzultzailea Josu Zabaleta da: 19 lan. Fernando Reyk 16 itzulpen ditu; Koro Navarrok, 15; eta Xabier Olarrak, 12. Bi itzultzailek 8 lan dituzte (Joxan Elozegi eta Ibon Uribarri); beste bik, 7 (Oskar Arana eta Gerardo Markuleta); hiru itzultzailek, 6 (Anton Garikano, Aritz Gorrotxategi eta Karlos Zabala); zortzi itzultzailek, 5; 14 itzultzailek, 4; 17 itzultzailek, 3; 33 itzultzailek, 2; eta gainontzeko 103 itzultzaileek lan bana dute.

Itzulpenen azpicorpusean, bestalde, 436 testu itzulietako 431ren sorburu-testuak 328 idazlerenak dira. Badira, gainera, egiletza kolektiboa edo anonimoa duten 5 lan.

Idazleen eta itzultzaileen generoari dagokionez, emakumezko baino gizonezko gehiago biltzen ditu corpusak oro har. Testu ez-itzulien corpuseko 555 lan gizonek idatziak dira: 544 liburu gizon bakar batek idatziak dira, eta beste 11 liburu bi edo hiru gizonen artean idatziak. Emakumeek idatzitako liburuak, aldiz, 132 dira: emakume bakar batek idatziak dira 128 liburu, eta 4 bi emakumeren artean idatziak. Gainontzeko 11 liburuak talde mistoan edo idazle ezezagunek idatziak dira. Bestela esanda, testu ez-itzulien azpicorpuseko liburu guztien % 79,51 gizonek idatziak dira, % 18,91 emakumeek idatziak, eta gainontzeko % 1,58a talde misto edo ezezagun batek idatzia.

Testuetako zenbat diren genero batek edo besteak eginak begiratu beharrean idazleetakozko zenbat diren gizonak eta zenbat diren emakumeak aztertzen badugu, ikusiko dugu testu ez-itzuliek idazten aritu diren euskal idazle guztien artean 223 gizonezkoak direla (213 gizon bakarrik aritu dira idazletzan, eta 10 lau eskutara), eta, 80 aldiz, emakumezkoak (72 emakume bakarrik aritu dira, eta 8 lau eskutara). Hau da, generoa ezagutzen diegun idazle guztien artean % 73,60 gizonak dira (eta lan guztien % 79,51 idatzi dituzte), eta % 26,40 emakumeak dira (eta lan guztien % 18,91 idatzi dituzte).

Testu itzulien artean, 436 itzulpenetakoko 99 liburu emakumeek itzuliak dira: 94 testu emakume bakar batek itzuliak dira, eta beste bostak bi edo lau emakumeren artean itzuliak. Beste 321 liburu gizonek itzuliak dira: 307 gizon bakar batek itzuliak, eta 14 bi edo hiru gizonen artean itzuliak. Geratzen diren 16 liburuek itzulpen-talde misto edo ezezaguna izan

dute. Hortaz, testu itzulietako % 73,62 gizonak itzuli dituzte, % 22,71 emakumeek, eta % 3,67 talde mistoek edo ezezagunek.

Testuok itzultzen aritu direnen artean 129 dira gizonetzkoak (horietako 114k bakarrik sinatu dituzte beren itzulpenak eta 15ek itzulpen kolektiboetan), eta 57, berriz, emakumezkoak (46 emakume bakarrik aritu dira, eta 11 lau eskutara). Hau da, generoa ezagutzen diegun itzulzaileen % 69,35 gizonak dira (eta itzulpen guztien % 73,62 sinatzen dituzte), eta % 30,65 emakumeak (eta itzulpen guztien % 22,71 sinatzen dituzte).

### 3.1.4. Argitalpen-datak

Argitalpen-urteari erreparatzen badiogu, urtez urteko lanen banaketa gorabehera handirik gabekoa dela ikusiko dugu. 3.2. taulak testu itzulien eta ez-itzulien urtez urteko kopuruak jasotzen ditu:

**3.2. taula. Testu itzulien eta ez-itzulien kopuruak urtez urte.**

Argitalpen-urtea	Testu ez-itzuliak	Testu itzuliak
2001	27	20
2002	24	24
2003	33	26
2004	41	31
2005	41	23
2006	36	31
2007	35	28
2008	39	36
2009	34	34
2010	31	23
2011	35	22
2012	37	14
2013	33	23



2014	35	19
2015	39	21
2016	47	13
2017	56	21
2018	35	16
2019	40	11
<b>Guztira</b>	<b>698</b>	<b>436</b>

Homogeneotasun horrek badu azalpenik. Izan ere, gure ikerlanerako abiapuntutzat hartu dugun Egungo Testuen Corpora erreferentziazko corpus bat da, corpusaren webgunean bertan zehazten denez: «XXI. mendeko ereduazko prosa» (Euskara Institutua UPV/EHU 2021). Hau da, corpusean ez dira jasotzen urteetako bakoitzean euskaraz argitaratu diren narratibako lan guztiak. Aitzitik, corpusaren egileek ereduazko prosa erakutsi nahian beren-beregi aukeratutako testuak soilik biltzen ditu, eta jokabide horren ondorio da urtekako kopuruak antzekoak izatea.

Itzulpenen sorburu-testuei dagokienez, K.a. IV. mendean hasi eta XXI. mendera arteko jatorrizko testuak dira itzulitakoak. Sorburu-testu gehienak, nolana ere, XX. eta XXI. mendeetakoak dira: % 78,21, zehazki. 3.3. taulan testu itzulien azpicorpuseko sorburu-testuen sorrera-data jaso dugu.

### 3.3. taula. Testu itzulien azpicorpuseko sorburu-testuen sorrera-data.

Mendea	Liburu kopurua
XXI	103
XX	238
XIX	32
XVIII	18
XVII	10
XVI	6
XIV	2

XIII	2
XII	2
V	1
II	1
I	4
K.a. I	2
K.a. IV	8
Askotarik edo ezezaguna	7
<b>Guztira</b>	<b>436</b>

### 3.1.5. Argitaratzaileak

Liburuok argitaratu dituzten argitaletxeei dagokienez, testu ez-itzulien azpicorpuseko liburuak plazaratzen 31 argitaletxek jardun dute; horrez gain, liburuetako bat egilearen autoedizioa da. Liburu guztien ia erdia Elkar eta Susa argitaletxeenak dira; Elkarrek 276 libururen edizioan parte hartu du (268 liburutan berak bakarrik eta 8tan beste argitaletxeren batekin elkarlanean) eta Susak gure corpuseko 103 liburu editatu ditu. 20 liburutik gora editatu dituzte, bestalde, Alberdania, Erein, Txalaparta, Pamiela eta Maiatz argitaletxeek. Eta 17 dira liburu bakar bat edo bi argitaratu dituzten argitaletxeak. 3.4. taulan testu ez-itzulien argitaletxeen banaketa jaso dugu.

#### 3.4. taula. Testu ez-itzulien azpicorpuseko liburuen argitaratzaileak.

Argitaratzailea	Liburu kopurua
Elkar	268
Susa	103
Alberdania	74
Erein	69
Txalaparta	62

Pamiela	46
Maiatz	24
Jakin-Berria-Elkar	6
Jakin-UPV/EHU	4
Soinuaren liburutegia	4
Euskaltzaindia-BBK	3
Jakin	3
Utriusque Vasconiae	3
Auspoa	2
Denonartean	2
Elkar-Berria-Jakin	2
Euskaltzaindia	2
Gaumin	2
Lanku	2
UEU	2
Alberdania-Berria	1
Algaida	1
Argia	1
Bertsozale Elkartea	1
Beta	1
Egan	1
Gaiak	1
Hariadna	1
Ibaizabal	1
Labayru	1
Metaziri	1
Salbera	1
Sü Azia	1
UPV/EHU	1
Egilea editore	1
<b>Guztira</b>	<b>698</b>

Testu itzuliei dagokienez, 21 argitaletxe aritu dira 436 liburuak plazaratzen. Testu ez-itzulietan ez bezala, euskararako itzulpenetan gutxi dira testu bakar bat edo bi baino argitaratzen ez dituztenak. Argitalpen gehien dituen argitaletxea Igela da (78 liburu berak bakarrik editatuak, eta beste 17 izenburu beste argitaletxeren batekin elkarlanean); ondoren datoz Alberdania (35 bakarrik eta 39 elkarlanean), Pentsamenduaren Klasikoak (68), Elkar (37 bakarrik eta 27 elkarlanean), Erein (23 bakarrik eta 20 elkarlanean), Txalaparta (31), UPV/EHU (23) eta Jakin (17 bakarrik eta 5 elkarlanean). 3.5. taulan jaso dugu testu itzulien argitaratzaileei buruzko informazioa.

### 3.5. taula. Testu itzulien azpicorpuseko liburuen argitaratzaileak.

Argitaratzailea	Liburu kopurua
Igela	78
Pentsamenduaren Klasikoak	68
Elkar	37
Alberdania	35
Alberdania-Elkar	32
Txalaparta	31
Erein	23
UPV/EHU	23
Jakin	17
Meettok	15
Erein-Igela	13
Ibaizabal	12
Pasazaite	12
Katakarak	8
Denonartean	7
Elkar-Jakin	5
Alberdania-Erein-Igela	4
Alberdania-Erein	3

Elhuyar	3
Pamiela	3
Sans Soleil	2
Arantzazu	1
Atlantica	1
edo!	1
Maiatz	1
Susa	1
<b>Guztira</b>	<b>436</b>

### 3.1.6. Corpusaren indarguneak eta ahuleziak

Aztergai dugun corpusaren argazki honetatik ondorioztatzen denez, corpusak oinarrizko homogeneotasun-irizpideak betetzen ditu testu-generoari, kronologiari eta bolumenari dagokienez. Horrez gain, testu itzulien sorburu-hizkuntzak asko eta askotarikoak izateak bermatu egiten digu hizkuntza zehatz batek sor litzakeen interferentziak neutralizatuta edo gutxienez ahulduta geratzen direla. Gauza bera esan liteke idazlumen aniztasuna dela-eta: corpuseko testuen egileak 303 euskal idazle eta 186 euskal itzultzaile izateak erabilera oso pertsonalen eta idiosinkratikoen pisua arintzen laguntzen du.

Corpusaren balizko alderdi negatiboez gorago mintzatu gara jada: itzulpenen jatorrizko testuen sorrera-daten tartea oso zabala da, eta horrek testu horien idazkeran eragina du. Nolanahi ere, lehen aipatu bezala, emaitza da guri interesatzen zaiguna, hau da, nolakoa den gaur egungo euskal irakurleek testu batzuen eta besteen bitartez eskuratzen duten euskara mota, hizkera hori motibatu duen iturburua dena dela.

## 3.2. Datuen hautaketa eta erauzketa

Tesiaren nondik norakoei buruzko atalean azaldu dugun bezala, ikerlan honetan testu itzulietako eta ez-itzulietako hizkerak konparatzeko ahaleginean, lexikoan jarriko dugu arreta; zehazki, lexiko-aberastasuna, ñabardurarako joera eta lexiko-sorkuntzarako joera izango ditugu aztergai. Horretarako, hiru bitartekoz baliatuko gara:

- Koloreen eremu semantikoa: hiztegien eta bestelako kontsulta-materialen arabera euskaraz koloreak adierazteko eskura dauden terminoen zerrenda osatu, eta haien erabilera aztertuko dugu, baita hiztegietan agertu gabe ere gure corpuseko testuetan egiaz erabiltzen direnena ere. Multzo honen bitartez, lexiko-aberastasuna, ñabardurarako joera eta lexiko-sorkuntzarako joera testatu ahal izango ditugu, eta, aurrerago ikusiko dugunez, aldaera diatopikoei eta arauarekiko jarrerari buruzko informazio esanguratsua ere ondorioztatu ahal izango dugu.
- Denbora-adberbioak: hiztegien eta gramatiken arabera euskaraz denbora adierazteko erabil daitezkeen adberbioak izango ditugu aztergai. Multzo honen bitartez, lexiko-aberastasuna eta aldaera diatopikoei eta arauarekiko jarrerari buruzko informazioa lortuko dugu.
- Kolokazioak: emozioak eta sentimenduak adierazteko izenek eta haien ondoan maiztasun gutxieneko batez ageri diren izenondoek sortutako bigramak aztertuko ditugu. Multzo honi esker, lexiko-aniztasunaz gain lexiko-sorkuntzan azpicorpus batean eta bestean joera kontserbadoreak ala berritzaileak gailentzen diren aztertu ahal izango dugu.

Multzo bakoitzean aztergai izango ditugun terminoak modu induktiboan zein deduktiboan eskuratu ditugu (datuen analisiari buruzko kapituluan, multzo bakoitzari dagokion atalean, xeheago azalduko dugu nola osatu ditugun zerrendak). Bestela esanda, gure azterlanean erabili dugun metodologia *corpus-driven* erakoa zein *corpus-based* erakoa izan da, kasuan kasu (Douglas 2015). Hau da, zenbaitetan geuk osatu ditugu aztertu beharreko terminoen zerrendak, hiztegietatik, gramatiketatik eta bestelako kontsulta-liburuetatik terminoak erauzita, eta termino horien erabilera testatzera jo dugu ondoren

corpusera (*corpus-based* motako azterketa). Beste batzuetan, aldiz, corpusak berak eskaini digu azpicorpus batean eta bestean konparatu beharreko terminoen zerrenda (*corpus-driven* motako azterketa). *Corpus-based* motako metodologiaz baliatu gara, adibidez, koloreak izendatzeko oinarritzko terminoen zerrenda edo denbora adierazteko adberbioen zerrenda osatu dugunean, hiztegiak arakatuta lortu baititugu halako terminoak. Hiztegietak termino horiez gain corpusean egiaz ageri diren beste zenbait termino ere bilatu nahi izan ditugu, ordea, eta horretarako, esate baterako, gure corpusean ageri diren [izena + *kolore*] segida guztiak erauzi ditugu, oinarritzko kolore-izenez gain fruitu, jaki, mineral eta abarretan oinarrituta sortzen diren kolore-izenak biltzeko (*abrikot kolore, kafe kolore, kobre kolore, teila kolore...*). Kasu horretan, beraz, corpusak berak eskaini digu aztertu beharreko terminoen zerrenda (*corpus-driven*). Eta berdin jokatu dugu kolokazioei buruzko atalean ere, non gure corpusetik maiztasun gutxieneko bat duten [izen + izenondo] binomio guztiak erauzita, emozioak eta sentimenduak adierazten dituzten izenak aukeratu baititugu eskuz, eta haien ondoan ageri diren izenondoekin harremanetan aztertu baititugu.

Behin azpicorpus batean eta bestean konparatu beharreko terminoen zerrendak osatuta, terminook gure bi azpicorpusetan zenbatetan erabiltzen diren neurtu dugu. Egungo Testuen Corpusaren interfazeaz ohikoa den bezala, bi datu mota erauzi ditugu: batetik, agerraldi kopurua edo zenbat aldiz ageri den guztira termino bakoitza azpicorpus batean eta bestean, eta bestetik, liburu kopurua edo zenbat liburutan ageri den termino bakoitza azpicorpus batean edo bestean<sup>2</sup>. Agerraldi kopuruari buruzko informazioari liburu kopuruarena gehitu ahal izatea oso baliagarria da idazle edo itzultzaile zehatzen erabilerari idiosinkratikoak hauteman ahal izateko. Izan ere, termino baten agerraldi kopuru handi bat luma askoren edo luma gutxiaren emaitza den aztertzeak termino horren erabileraren egiazko hedaduraren berri zehatzagoa ematen digu.

Erauzitako datuak eskuz garbitu ditugu ondoren, polisemiak eta bestelako arazoiek sorrarazitako agerraldi faltsuak ezabatzeko (datuen analisiari buruzko atalean emango dugu garbitu edo kendu behar izan ditugun adibideen berri zehatzagoa, multzoz multzo).

---

2 Datu hauen guztien erauzketa Egungo Testuen Corpusaren arduradun teknikoak, Josu Landa Ijurkok, egin du. Bihoakio hemendik gure esker onik zintzoena eta corpusgintzan egiten duen lanaren aitortza irmoa.

Behin datu faltsuak garbituta, honako alderdi hauek aztertu ditugu oro har hiru multzoetan:

- Multzoa osatzen duten termino guztien agerraldi kopuru guztizkoak kalkulatu ditugu azpicorpus batean eta bestean.
- Multzoa edo zerrenda osatzen duten terminoetatik azpicorpus batean eta bestean zein eta zenbat ageri diren aztertu dugu.
- Multzoa osatzen duten terminoetatik zenbat erabiltzen diren gehiagotan azpicorpus batean eta zenbat bestean kalkulatu dugu, edo bestela esanda, terminoetako zenbatek dituzten agerraldi gehiago azpicorpus batean eta zenbatek bestean.
- Koloreen eta denbora-adberbioen multzoetan, sinonimo eta parasinonimoen azpimultzoak osatu, eta azpimultzo horietako termino bakoitzaren agerraldi kopuruak kalkulatu ditugu.
- Koloreen eta denbora-adberbioen multzoetan, agerraldi kopuru nabarmen handiak dituzten terminoak bazter utzi, eta agerraldi gutxiago dituzten eta ondorioz ezohikoagoak diren terminoen azpimultzo bat osatu dugu. Termino ezohikoago horien agerraldiak aztertuta, ñabardurarako joeraz hausnartu ahal izan dugu.

Corpusetan oinarritutako ikerlanetan elementu baten agerraldiak neurtu eta formulatzeko orduan bi bide erabili ohi dira: kopuru absolutuak ematea edo maiztasun erlatiboa kalkulatzeko. Maiztasun erlatiboan, dena delako elementua hitz kopuru zehatz bakoitzeko zenbat aldiz ageri den kalkulatu ohi da; gehienetan, 1.000 hitzeko edo 1.000.000 hitzeko zenbat aldiz ageri den (McEnery eta Hardy 2012). Maiztasun erlatiboa oso baliabide egokia da konparagai diren bi corpusak tamaina oso ezberdinekoak direnean. Gure kasuan, bi azpicorpusak nahiko orekatuak dira hitz kopuruari dagokionez: 26,4 milioi hitzez edo tokenez osatuta dago testu ez-itzulien corpusa, eta 22,4 hitzez edo tokenez testu itzuliena. Beraz, terminoen agerraldi-datu zehatzak eta ez erlatiboak eskaintzeak egiazko erabilera hobeto irudikatzen lagunduko duelakoan, gure ikerlan honetan agerraldi kopuru absolutuak aipatuko ditugu, eta ez maiztasun erlatiboa. Bi azpicorpusen artean dagoen tamaina-alde txikia konpentsatzeko, nolana ere, faktore zuzentzaile bat erabiliko dugu: testu itzulien



azpicorpuseko datuak 1,17 zenbakiaz biderkatuko ditugu agerraldi kopuruaz ari garenean (26.400.000/22.400.000 egitearen ondorio), eta 1,6 zenbakiaz liburu kopuruaz ari garenean (698/436 egitearen ondorio)<sup>3</sup>.

Datuen analisi kuantitatiboari datuen irakurketa kualitatibo bat ere gehituko diogu zenbaitetan. Itzulpengintza arloan corpus bidezko ikerlanak egiten hasi zirenetik ia, agerraldien eta maiztasunen datuak egoki interpretatuko badira datu horien nolakotasuna ere behatu behar dela azpimarratu izan da. Honela esplikatzeko Olohanek:

Corpus studies are criticized for focusing excessively on quantitative analysis. (...) the simple measure of frequency can produce interesting findings when comparing two corpora, when those corpora are considered comparable, or indeed when comparing two individuals' use of language. More often than not, quantitative data form the basis from which qualitative analysis, for example the study of concordance lines or of wider co-text, is deemed interesting, useful or indispensable. Thus, a combination of quantitative and qualitative analysis is, in most cases, desirable, particularly if fuller descriptions of linguistic and translational phenomena are to be given and reasons suggested for their occurrence.

(Olohan 2004: 86)

Hala, bada, gure ikerlanean datuen agerraldi kopuruak konparatzeaz gain, datu esanguratsuenen irakurketa kualitatiboa ere egingo dugu: nagusiki, bi azpicorpusen arteko aldeak nabarmenak diren kasuetan termino horien bereizgarriari erreparatuko diegu, haien artean loturarik ba ote duten ikusteko eta alde horien arrazoia ondorioztatzeko.

---

3 Tesiaren amaiera aldera, gure corpusean 13 liburu gaizki sailkatuta zeudela konturatu gara. Testu itzuli gisa ageri ziren, eta egiaz testu ez-itzuliak dira. 13 liburuak Jakin argitaletxeko Jakin Irakurgaiak bildumakoak dira, filosofia arlokoak, eta filosofo zehatz baten pentsamenduaren iruzkina jasotzen dute, baina ez filosofo horren testuaren itzulpenik. Okerraz jabetu garenerako datuen erauzketa eta analisisa egin genuen. Nolanahi ere, oker sailkatutako hitz bolumena oso txikia denez, zera erabaki dugu: corpusari buruzko datuak eguneratu egin ditugu —gure corpusean 449 ziren hasieran testu itzuliak, eta ez 436—; agerraldi kopuruak eta liburu kopuruak kalkulatzeko faktore zuzentzailea eguneratu egin dugu —1,14 zen hasieran agerraldietarako (eta ez 1,17), eta 1,55 liburuetarako (eta ez 1,6)—; eta erauzketa lortutako datu guztiak faktore zuzentzaile berriaren arabera birkalkulatu ditugu. Ez dugu erauzketa berria egin, eskuzko garbiketaren fasea errepikatzea gehiegizko lana izango zela eta emaitzak ez zirela era esanguratsuan aldatuko iritzita.



## Datuen analisisia

---

### 4.1. Koloreak

Lexiko-aberastasuna eta ñabardurarako joera ikertzen hasteko, koloreak izendatzeko terminoen eremu semantikoa aztertzea aukeratu dugu. Batetik, literatur testuetan aise topa ditzakegun terminoak direla aurreikusten dugu. Tamaina esanguratsuko multzoa ere bada (guztira 600 termino baino gehiagoren erabilera aztertzeko aukera eskaintzen digu, laster azalduko dugunez), eta horrek atera genitzakeen ondorioak sendo samarrak izango direla ziurtatzen digu. Bestalde, koloreen multzoak ñabardura semantikoak aztertzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu, aldaera kromatikoak izendatzeko erabiltzen diren terminoak azpieroemua semantikoetan aztertuta. Azkenik, koloreen eremu semantikoa lexiko-sorkuntzari oso lotuta dago; izan ere, hiztunok gure inguruneko errealitateko terminoak baliatzen ditugu

askotan koloreak izendatzeko. Horri esker, lexiko-sormenaz eta lexikoari lotutako jarrera berritzaileez eta kontserbadoreez gogoeta egin ahal izango dugu.

Ohartzen gara, noski, koloreen eremu semantikoa oso aztergai berezia dela. Koloreak hautemateko, sailkatzeko eta izendatzeko sistema asko aldatzen da hizkuntza eta kultura batetik bestera. Nolanahi ere, kontuan hartu behar dugu gure ikerlanean interesatzen zaiguna ez dela ebaztea ea errealitate zehatz bat kolore batez edo beste batez izendatzen den testua itzulia izatearen edo ez izatearen ondorioz, ezpada koloreak izendatzeko euskaraz eskura dauden terminoen artetik zein eta zenbat erabiltzen diren testu itzulietan eta ez-itzulietan. Jakin nahi dugu, alegia, zein kolore-adierazpen iristen diren irakurleen begietara euskal idazleen testuen bitartez eta zein itzultzaileen bitartez.

### 4.1.1. Multzoaren osaera

Koloreen eremu semantikoa aztertzeko, hiru termino-zerrenda osatu ditugu:

- oinarrizko kolore-izenak
- [izena + *kolore*] egiturak
- kolore-konbinazioak

Lehen multzorako, koloreak euskaraz izendatzeko baliabideei buruzko bibliografia arakatu dugu. Zehazki, Patziku Perurenaren *Koloreak euskal usarioan* (1992), Txema Preciadoreen *Euskarak erakutsi koloreak ikusten* (2009), UPV/EHUko Euskara Zerbitzuaren *EHULKUren aholkuak: Koloreak euskaraz (I)* (2018) eta *EHULKUren aholkuak: Koloreak euskaraz (II)* (2019) onlineko dokumentuak, eta Wikipediako *kolore* sarrera kontsultatu ditugu. Testu horietan topatu ditugun kolore-izenak zenbait hiztegitan egindako bilaketekin osatu ditugu. Horrela, Adorez (Bostak bat Kultur Elkarte d.g.), Euskaltzaindia (Euskaltzaindia d.g.), Elhuyar (Elhuyar Fundazioa d.g.) eta Labayru (Labayru Fundazioa d.g.) hiztegietan oinarrizko kolore-izenen ñabardurak (*gorriska, gorrista, gorrixka, gorrixta...*) adierazten

dituzten ahalik eta hitz gehien biltzen saiatu gara hiztegiotako bilatzaileen [\*] ikurra erabilia<sup>4</sup>. Bestetik, Adorezen (Bostak bat Kultur Elkartea d.g.) eta UZEIren (UZEI d.g.) sinonimoen hiztegietan lehen zerrendako terminoen sinonimoak bilatu ditugu. Bilaketa horien guztien emaitza 120 kolore-izeneko zerrenda bat izan da. Hona hemen, alfabetikoki ordenatuta:

1. anbar	41. eskarlata	81. marroi
2. anil	42. esmeralda	82. morantz
3. arre	43. fukusia	83. more
4. arrexka	44. fuxia	84. morexka
5. arrosa txikle	45. gaztainkara	85. nabar
6. arrosa/arroxa	46. gorrail	86. nabarkara
7. arrosakara	47. garrantz	87. okre
8. arrosaxka	48. gorrasta	88. oliba berde / berde oliban / ferde oliba
9. azul	49. gorrats	89. orlegi
10. baltx	50. gorri	90. oztin
11. baltz	51. gorrikara	91. pikart
12. baltzaran	52. gorrimin /gorri min	92. pinto
13. beilegi	53. gorrindol	93. pintto
14. beilexka	54. gorriño	94. purpura
15. beix	55. gorriska	95. sagar berde
16. beltx	56. gorrista	96. sepia
17. beltzexka	57. gorrixka	97. turkesa
18. beltz	58. gorrixta	
19. beltzaran		
20. beltzaxka		

---

4 Terminoen bilaketa hau Egungo Euskararen Hiztegia osorik argitaratu baino lehen egin zen, eta beraz ezin izan genuen aintzat hartu.

21.	beltzezka	59.	gorrizta	98.	txuri
22.	beltzixka	60.	granate	99.	ubel
23.	beltzurdin	61.	gris	100.	urdin
24.	belxko	62.	grisaxka	101.	urdin elektrikoa
25.	belzkara	63.	horail	102.	urdinantz
26.	belztaka	64.	horasta	103.	urdinarre
27.	berdail	65.	hori	104.	urdinkara
28.	berdats	66.	horiaire	105.	urdinska
29.	berdaxka	67.	horikara	106.	urdinskara
30.	berde	68.	horixka	107.	urdinxka
31.	berdekara	69.	horizta	108.	urrekara
32.	berdetsu	70.	itsas urdin	109.	urretsu
33.	berdexka	71.	kaki	110.	urreztatu
34.	berdotz	72.	kaoba	111.	xuri
35.	bermiloi	73.	karmin	112.	zeru urdin
36.	bioleta	74.	laranja	113.	zian
37.	blu	75.	laranjakara	114.	zilarkara
38.	bolikara	76.	laranjatu	115.	zilarreztatu
39.	botila berde/berde botila	77.	laru	116.	zuri
		78.	lila	117.	zurikail
40.	briolet	79.	magenta	118.	zuriska
		80.	malba	119.	zurixka
				120.	zurizta

Lehen zerrenda horretan bildu ditugunak, beraz, kolore gisa jasota ageri dira hiztegiaren batean edo bestean. Baina eguneroko hizkeran koloreak izendatzeko beste hamaika hitz

badira, jatorriz koloreak izan gabe hedaturaz koloreak adierazteko baliatzen direnak: *ardo, haragi, krema, pistatxo, teila*.... Bereziki interesgarria iruditu zaigu aztertzea horietako zein eta zenbat erabiltzen diren testu itzulietan eta ez-itzulietan, informazio jakingarria eskainiko digulakoan lexiko-aniztasunaz ez ezik lexiko-sorkuntzarako joerez ere. Bigarren zerrenda hau osatzerakoan, koloreei buruzko bibliografian aipatzen direnak adibideak baino ez direla iritzita, gure corpusean egiaz erabiltzen diren ahalik eta kolore-izen gehien bilatu nahi izan dugu. Horretarako, gure corpusean [izen kategoria (hitz gisa) + *kolore* (lema gisa)] egiturarekin bat datozen hitz konbinazio guztiak erauzi eta zerrendatu ditugu. Hau da, edozein izen mugagabean eta ondotik *kolore* lema gisa biltzen dituzten konbinazio guztiak bilatu ditugu, halako moldez non gure bi azpicorpusetan erabili diren *X kolore, Y koloreko, Z kolorez*... guztiak aurkitu eta zerrendatu ahal izan ditugun. Erauzketa horren lehen emaitza 246 osagaiko zerrenda bat izan da. Lehen zerrenda hori eskuz garbitu behar izan dugu, hala ere, konbinazioetako asko ez zirelako egiaz guk biltzen ditugunak. Adibidez, [*zizare* (hitz gisa) + *kolore* (lema gisa)] konbinazioa ageri da erauzketan, baina konbinazio horren testuingurua «Zizare koloretsu lodi bat bezala irristatu zen» (Ozick 2017, 1)<sup>5</sup> esaldia da; edo [*zigarreta* (hitz gisa) + *kolore* (lema gisa)] konbinazioaren testuingurua, beste hau: «Errusiar zigarreta kolore-ilunen pakete bat mahaitik aterata, bere onizezko ahokoan sartu zuen bat» (Leon 2010, 161).

Bestalde, erauzketa honetan agertu diren emaitzetako batzuk bagenituen jada lehen multzoan zerrendatuak, hiztegieta kolore adieran jasota baitaude: *anbar, anil, lila, magenta, malba, orlegi*... Eta beraz, bigarren zerrenda honetan ez ditugu berriro kontuan hartu.

Eskuzko garbiketa eginda, azken emaitza 184 terminoko zerrenda bat izan da. Honako hau, hain zuzen:

1.	abrikot kolore	63.	harea kolore	125.	marmelada kolore
2.	adar kolore	64.	harri kolore	126.	marmol kolore

5 Corpusa osatzen duten liburuak ez ditugu bibliografia atalean jaso, I. eta II. eranskinetan baizik. Hemendik aurrera, corpuseko liburuetako adibideak zitzatu behar ditugunean ohiko moduan adieraziko dugu erreferentzia (egilearen abizena + argitalpen-urtea + orrialde zenbakia), baina I. eta II. eranskinetara jo beharko du irakurleak iturriari buruzko informazio osoa aurkitzeko.

3.	adreilu kolore	65.	hausterre kolore	127.	marrubi kolore
4.	agata kolore	66.	hauts kolore	128.	masusta kolore
5.	ahuakate kolore	67.	herdoil kolore	129.	mate kolore
6.	alberjinia kolore	68.	hezur kolore	130.	melokotoi kolore
7.	almendra kolore	69.	hiazinto kolore	131.	menda kolore
8.	altzairu kolore	70.	hilotz kolore	132.	mertxika kolore
9.	aluminio kolore	71.	hondar kolore	133.	metal kolore
10.	amaranto kolore	72.	hurritz kolore	134.	mineral kolore
11.	anhilina kolore	73.	ikatz kolore	135.	mingrana kolore
12.	antrazita kolore	74.	ilar kolore	136.	mitxoleta kolore
13.	aran kolore	75.	ilargi kolore	137.	mostaza kolore
14.	arbel kolore	76.	ilunabar kolore	138.	mugurdi kolore
15.	arbeltx kolore	77.	indigo kolore	139.	musker kolore
16.	ardo/ardao/arno kolore	78.	infernu kolore	140.	neoi kolore
17.	argizagi kolore	79.	intxaur kolore	141.	odol kolore
18.	argizari kolore	80.	itsaso kolore	142.	olio kolore
19.	arrats kolore	81.	izokin kolore	143.	opalo kolore
20.	artile kolore	82.	izotz kolore	144.	ortzi kolore
21.	arto kolore	83.	izpiliku kolore	145.	oskol kolore
22.	azafrai/azafran kolore	84.	iztupa kolore	146.	ostra kolore
23.	azenario kolore	85.	jade kolore	147.	oxido kolore
24.	bainila/banilla kolore	86.	kafe kolore	148.	pastel kolore
25.	banana kolore	87.	kafesne kolore	149.	perla kolore
26.	batata kolore	88.	kaka kolore	150.	plastiko kolore
27.	behazun kolore	89.	kakalardo kolore	151.	platino kolore
		90.	kakao kolore	152.	plomu kolore



28. belar kolore	91. kaleidoskopio kolore	153. porlan kolore
29. berina kolore	92. kamuflaje kolore	154. primula kolore
30. berun kolore	93. kanabera kolore	155. sable kolore
31. boli kolore	94. kanario kolore	156. sagu kolore
32. borgoina kolore	95. kanela kolore	157. saltxitxa kolore
33. brontze kolore	96. karamelu kolore	158. su kolore
34. burdina kolore	97. kardantxilo kolore	159. sufre kolore
35. buztin kolore	98. ke kolore	160. sugus kolore
36. confetti kolore	99. kedar kolore	161. sulfuro kolore
37. diamante kolore	100. kiwi kolore	162. tabako kolore
38. ebano kolore	101. klarion kolore	163. teila kolore
39. egur kolore	102. kloro kolore	164. tinta kolore
40. elur kolore	103. kobalto kolore	165. topazio kolore
41. errauts kolore	104. kobre kolore	166. txatar kolore
42. erregaliz kolore	105. koral kolore	167. txilar kolore
43. errubi kolore	106. kornalina kolore	168. txingar kolore
44. esne kolore	107. krabelin kolore	169. txokolate kolore
45. euri kolore	108. krema kolore	170. udaberri kolore
46. ezko kolore	109. kromo kolore	171. uger kolore
47. ezpain kolore	110. kuia kolore	172. ur kolore
48. eztainu kolore	111. labanda kolore	173. urre kolore
49. ezti kolore	112. lasto kolore	174. urregorri kolore
50. fluor kolore	113. lapis lazuli kolore	175. whisky kolore
51. fruta kolore	114. lili kolore	176. xanpain kolore
52. gar kolore	115. lima kolore	177. zafiro kolore
53. gari kolore	116. limoi kolore	178. lore-zelai kolore

54. gatz kolore	117. lizun kolore	179. zementu kolore
55. gaztain/gaztaina kolore	118. lohi kolore	180. zero kolore
56. gerezi kolore	119. lokatz kolore	181. ziape kolore
57. goma kolore	120. lur kolore	182. zilar kolore
58. goroldio kolore	121. mahats kolore	183. zorne kolore
59. gorringo kolore	122. marengo kolore	184. zur kolore
60. gurin kolore	123. marfil kolore	
61. habano kolore	124. marihuana kolore	
62. haragi kolore		

Azkenik, hirugarren erauzketa bat ere egin dugu, bi kolore-izenen elkarketak bilatzeko; hau da, bi koloreen konbinazioa adierazten dituzten elkarketak (*zuri-beltz, gorri-urdin, berde-hori...*) zein kolore baten ñabardura adierazten dutenak (*urdin ubel, arre grisaxka, arrosa gorrixka, gorri laranja...*). Horretarako, lehen zerrendako oinarritzko 120 kolore-izenetako bakoitza zerrenda horretako zer beste kolore-izenen ondoan ageri den bilatu dugu. 10.000tik gorako konbinazio posible guztien artean, 430 bikote atera dira erauzketan. Eraitza horiek eskuz garbitu behar izan ditugu: batzuk kolore-izenak ez zirelako utzi ditugu kanpoan (*berde hori, non hori erakuslea den*), eta beste batzuk, kolore-konbinazioak edo -ñabardurak ez baizik eta errepikapen indargarriak zirelako (*urdin-urdin*). Behin eskuzko garbiketa eginda, elkarketa bidezko 323 terminoko zerrenda bat lortu dugu; honako hau, hain zuzen:

1. anbar more	109. gorri horixka	217. more beltz
2. arre belzkara	110. gorri kaoba	218. more gorri
3. arre berde	111. gorri karmin	219. more gorritzta
4. arre berdexka	112. gorri laranja	220. more horail

5.	arre gorri	113.	gorri laranjakara	221.	more ubel
6.	arre gorrixka	114.	gorri laru	222.	more urdin
7.	arre gorrizta	115.	gorri magenta	223.	nabar arre
8.	arre grisaxka	116.	gorri marroi	224.	nabar gorrixka
9.	arre horail	117.	gorri marroixka	225.	nabar pikart
10.	arre horixka	118.	gorri more	226.	okre gorri
11.	arre nabar	119.	gorri morexka	227.	okre gorrixka
12.	arre ubel	120.	gorri nabar	228.	okre hori
13.	arre xurixka	121.	gorri orlegi	229.	okre horixka
14.	arrosa beilegi	122.	gorri purpura	230.	orlegi hori
15.	arrosa beix	123.	gorri ubel	231.	orlegi urdin
16.	arrosa beltz	124.	gorri urdin	232.	pintto beltz
17.	arrosa berdekara	125.	gorri urrekara	233.	purpura gorri
18.	arrosa bioleta	126.	gorri zuri	234.	purpura gorrimin
19.	arrosa fuchsia	127.	gorrixka hori	235.	purpura more
20.	arrosa gorri	128.	gorrizta berde	236.	txuri arrosa
21.	arrosa gris	129.	granate more	237.	txuri beltz
22.	arrosa grisaxka	130.	gris arre	238.	txuri gorri
23.	arrosa horail	131.	gris arrosa	239.	txuri hori
24.	arrosa horixka	132.	gris azul	240.	txuri horixka
25.	arrosa marroi	133.	gris beltz	241.	txuri urdin
26.	arrosa marroikara	134.	gris berdaxka	242.	ubel beltzaran
27.	arrosa purpura	135.	gris berde	243.	ubel gaztain
28.	arrosa ubel	136.	gris berdekara	244.	ubel gorri
29.	arrosa urdin	137.	gris berdeska	245.	ubel gorrikara
30.	arrosa zuri	138.	gris berdexka	246.	ubel urdin

31.	arrosa zurixka	139.	gris berdotz	247.	ubel zuri
32.	azul gris	140.	gris gorri	248.	urdin anil
33.	beilegi beltz	141.	gris gorrizta	249.	urdin arre
34.	beltz gorri	142.	gris horail	250.	urdin arrosa
35.	beltz arre	143.	gris hori	251.	urdin beltz
36.	beltz arrexka	144.	gris horixka	252.	urdin belzkara
37.	beltz berde	145.	gris marroi	253.	urdin berdaxka
38.	beltz berdexka	146.	gris marroixka	254.	urdin berde
39.	beltz berdotz	147.	gris nabar	255.	urdin berdekara
40.	beltz fuchsia	148.	gris pikart	256.	urdin berdeska
41.	beltz gorri	149.	gris txuri	257.	urdin berdetsu
42.	beltz gorrista	150.	gris ubel	258.	urdin berdexka
43.	beltz gorrixka	151.	gris urdin	259.	urdin bioleta
44.	beltz gris	152.	gris urdinkara	260.	urdin esmeralda
45.	beltz grisaxka	153.	gris urdinxka	261.	urdin gorri
46.	beltz hori	154.	gris zilarkara	262.	urdin gorrimin
47.	beltz more	155.	gris zuri	263.	urdin gorriska
48.	beltz nabar	156.	gris zuriska	264.	urdin gorrixta
49.	beltz orlegi	157.	gris zurixka	265.	urdin gris
50.	beltz txuri	158.	hori arre	266.	urdin grisaxka
51.	beltz ubel	159.	hori arrosa	267.	urdin hori
52.	beltz urdin	160.	hori beilegi	268.	urdin laranja
53.	beltz urdinkara	161.	hori beix	269.	urdin laru
54.	beltz urdinxka	162.	hori beltz	270.	urdin marroi
55.	beltz urreztatatu	163.	hori beltz	271.	urdin more
56.	beltz xuri	164.	hori berdats	272.	urdin morexka

57.	beltz zuri	165.	hori berde	273.	urdin nabar
58.	beltzaran urrekara	166.	hori berdexka	274.	urdin orlegi
59.	berde anbar	167.	hori gorrail	275.	urdin purpura
60.	berde arre	168.	hori gorri	276.	urdin ubel
61.	berde arrosa	169.	hori gorriska	277.	urdin urreztatatu
62.	berde beltz	170.	hori gorrixka	278.	urdin xuri
63.	berde beltzaran	171.	hori gorrizta	279.	urdin zilarkara
64.	berde blu	172.	hori granate	280.	urdin zilarreztatatu
65.	berde gorri	173.	hori gris	281.	urdin zuri
66.	berde gorriska	174.	hori grisaxka	282.	urdin zuriska
67.	berde gorrixka	175.	hori laranja	283.	urdin zurixka
68.	berde gorrizta	176.	hori marroi	284.	urdinkara zuri
69.	berde gris	177.	hori marroixka	285.	xuri beltz
70.	berde grisaxka	178.	hori nabar	286.	xuri beltz
71.	berde hori	179.	hori orlegi	287.	xuri beltzaran
72.	berde horixka	180.	hori purpura	288.	xuri gorri
73.	berde laranja	181.	hori ubel	289.	xuri hori
74.	berde marroi	182.	hori urdin	290.	xuri urdin
75.	berde marroixka	183.	hori urrekara	291.	xuri urdinkara
76.	berde more	184.	hori zuri	292.	zilarkara beltz
77.	berde nabar	185.	hori zurixka	293.	zuri arre
78.	berde pikart	186.	hori zurizta	294.	zuri arrosa
79.	berde purpura	187.	horiska ubel	295.	zuri beltz
80.	berde ubel	188.	horixka hori	296.	zuri beltzaran
81.	berde urdin	189.	horixka laranja	297.	zuri berde
82.	berde urdinkara	190.	horixka marroixka	298.	zuri berdekara

83.	berde urdinxka	191.	horizta gris	299.	zuri berdexka
84.	berde urrekara	192.	kaoba gorrixka	300.	zuri gorri
85.	berde zilarkara	193.	laranja arrosakara	301.	zuri gorrikara
86.	berde zuri	194.	laranja gorrikara	302.	zuri gorrixka
87.	berde zurixka	195.	laranja horail	303.	zuri gorrizta
88.	berdexka horixka	196.	laranja hori	304.	zuri gris
89.	bioleta purpura	197.	laranja horixka	305.	zuri grisaxka
90.	bioleta urdin	198.	laranja marroixka	306.	zuri horail
91.	bioleta zuri	199.	laranja urdin	307.	zuri hori
92.	blu arrosa	200.	marroi arrosakara	308.	zuri horikara
93.	blu gris	201.	marroi beltz	309.	zuri horixka
94.	eskarlata gorrimin	202.	marroi berde	310.	zuri horizta
95.	gaztain gorrikara	203.	marroi gorri	311.	zuri marroi
96.	gaztain gorrixka	204.	marroi gorrixka	312.	zuri more
97.	gaztain gorrizta	205.	marroi gorrizta	313.	zuri nabar
98.	gaztain gris	206.	marroi gris	314.	zuri orlegi
99.	gorri arrosa	207.	marroi grisaxka	315.	zuri pinto
100.	gorri baltzaran	208.	marroi horikara	316.	zuri ubel
101.	gorri beltz	209.	marroi horixka	317.	zuri urdin
102.	gorri baltzaran	210.	marroi horizta	318.	zuri urdinkara
103.	gorri berde	211.	marroi kaoba	319.	zuri urdinxka
104.	gorri granate	212.	marroi laranja	320.	zuri urrekara
105.	gorri gris	213.	marroi okre	321.	zuri zilarkara
106.	gorri horail	214.	marroi urrekara	322.	zurixka hori
107.	gorri hori	215.	marroi urreztatatu	323.	zurixka horixka
108.	gorri horikara	216.	marroi zuri		

Hiru multzoetako bakoitzerako —oinarrizko 120 kolore-izen, [izena + *kolore*] gisako 184 egitura eta 323 kolore-konbinazio—, bi motatako datuak erauzi ditugu: zenbat esalditan erabiltzen diren elementuok bi azpicorpusetako bakoitzean, eta zenbat liburutan ageri diren.

Oinarrizko 120 kolore-izenen artean, badira zenbait polisemikoak direnak. Hala, *hori* hitza kolorea zein erakuslea izan daiteke, eta *zuri* kolorea zein bigarren pertsonako izenordainaren datiboa izan daiteke. Bi kasuotan agerraldi bakoitza testuinguruaren bitartez koloreari dagokion edo ez ebaztea erraza bada ere, agerraldi kopuruak hain dira handiak (*horik* lema gisa 481.391 agerraldi ditu guztira gure corpusean, eta *zurik* 27.459) non eskuzko garbiketa egitea lan handiegia eta batez ere alferrikakoa litzatekeen. Izan ere, gure helburua lexiko mailako aberastasuna eta aniztasuna neurtzea izanik, ez zaigu bereziki esanguratsua iruditzen argitzea zenbat aldiz gehiago erabiltzen den *hori* kolorea testu itzulietan ez-itzulietan baino edo alderantziz, ezpada jakitea euskaraz koloreak adierazteko aukeran diren askotariko hitzetatik zenbat eta zein iristen zaizkien irakurleei testu itzulien bitartez eta zenbat eta zein testu ez-itzulien bitartez.

Antzeko zailtasuna topatu dugu *beltz* eta *gorri* hitzetan ere, izenondo gisa erabilia ere hedaduraz beste adiera batzuk hartu eta anbiguotasun-arazoak sortzen baitituzte: *beltz* hitzak «gutziz tristea, negargarria, zorigaiztokoa» zein «doilorra» (Euskaltzaindia d.g.) adierazi dezake, eta *gorri* hitza «oso larria, handia edo gogorra, eramateko nekeza» zein «soila, biluzia» (Euskaltzaindia d.g.) izan daiteke. Bi kolore-izen horietan aurkitutako agerraldi kopuruak ia ezinezkoa egiten du datuak eskuz garbitzea, haietako bakoitzak 10.000 eta 15.000 agerraldi bitartean baitituzte azpicorpusetako bakoitzean.

Beste oinarrizko kolore batzuek ere bestelako polisemia-arazo batzuk sortzen dituzte. *Arrosa* hitzak lema gisa 3.536 agerraldi ditu guztira, eta horietako bakoitza testuinguruan begiratu beharko litzateke noiz den kolorea eta noiz lorea ebazteko. Gauza bera gertatzen da *laranja* hitzarekin: 1.646 agerralditan ebatzi beharko litzateke noiz den kolorea eta noiz fruitua. *Karmin* hitzaren kasuan, agerraldi kopuruak ez dira han handiak: 76 aldiz erabiltzen da testu ez-itzulietan eta 22 aldiz testu itzulietan. Baina testuinguruak askotan ez du biderik ematen ebazteko ezpainetakoaren kolorea ala ezpainetako bera aditzera eman nahi duen:

«Emakumeari begiratu zion, ezpain zimurtuen karmin inperfektuari» (Garro 2010), «Eta karmina karminaren aurka ipini du» (Agirre 2018)...

Gauzak horrela, *hori, zuri, beltz, gorri, arrosa, laranja* eta *karmin* kolore-izenen datuak bazter utzi beharko genituela aurreikusita, antzeko agerraldi kopuru handiak dituzten beste kolore-izenak ere bazter uztea erabaki dugu, aztergai izango ditugun datuen arteko harremana orekatuagoa izan dadin. Hala, bada, gure bi azpicorpusetako batean 1.000 agerralditik gora dituzten kolore-izen guztiak gure analisitik kanpo uztea erabaki dugu, baita *karmin* hitza ere. Hamaika dira, beraz, aintzat hartuko ez ditugun kolore-izenak: *arrosa, beltz, beltzaran, berde, gorri, gris, hori, karmin, laranja, urdin* eta *zuri*<sup>6</sup>. Hortaz, goian lehen multzoan zerrendatu ditugun oinarrizko 120 kolore-izenetatik 109ren datuak aztertuko ditugu egiaz. Azken batean, arestian azaldu dugun bezala, gure ikerlanaren helburua testu itzuliek eta ez-itzuliek kolorea adierazteko darabilten aniztasun eta aberastasun lexikoa neurtzea eta konparatzea izanik, ez zaigu horrenbeste interesatzen *gorri* hitza azpicorpus batean eta bestean zenbat aldiz erabiltzen den jakitea, gorriaren tonalitateak adierazten dituzten hitzetako zenbat eta zenbat aldiz erabiltzen diren konparatzea baino.

Behin lehen garbiketa handi hori eginda, ETCren bilatzaileak eskaini dizkigun datuak eskuz garbitu behar izan ditugu, zenbait emaitza oker bazter uzteko. Hauek dira topatu ditugun emaitza faltsu esanguratsuenak:

- Izen berezi gisa erabiltzen diren kolore-izenak:
  - Pertsona-izenak: Bioleta (Zapiain 2002 eta 2015), Esmeralda (Ansorena 2010, Ladron Arana 2011, Larrion 2016...) eta Lila (Borda 2005, Ferrante 2015, Ferrante 2016a, Ferrante 2016b, Ferrante 2016c, Sastre 2002, Urruspil 2015, Zapiain 2007...).
  - Pertsonen goitizenak: Pinto (Elizondo 2004, Maia 2005), Pintto (Arrieta 2008), Txuri (Mutiozabal 2019, Urretabizkaia 2010), Xuri (Morillo 2010), Baltza (Amuriza 2018, Mendiguren 2001 eta 2008), Beltxa (Peruarena 2009, Taberna 2013, Trounaday 2008), Gorraile (Thikoipe 2008) eta Kaki (Goienetxea 2018, Irazu 2017).

---

6 *Zuri-beltz, beltz-hori, gorri-urdin* eta antzeko kolore-izen elkartuen multzoan, dena den, aintzat hartu ditugu hamar kolore-izen horiek. Agerraldi kopuruak txikiagoak direnez, aise samar egin ahal izan dugu eskuzko garbiketa, *beltz + hori* konbinazioetan, adibidez, *hori* erakuslea duten kasu faltsuak kentzeko.



- Animalien izenak (txakurrak eta asto bat): Baltza (Basterretxea 2016, Txillardeggi 2005), Beltxa (Izagirre 2005), Pinto (Urrutia «Capeau» 2018), Pintto (Arretxe 2003, Garate 2002, Olaizola «Txiliku» 2011, Saizarbitoria 2015, Zapiain 2007) eta Txuri (Garate 2002).
- Kolore bati izena eman dioten elementuen kasuan, jatorrizko adieran ageri direnak:
  - Loreak: *bioleta* (Irigoien 2009, Iturbide 2013, Rodoreda 2013, Sastre 2015, Zola 2004...), *fukusia* (Perutz 2003 eta 2019, Proust 2010, Urretabizkaia 2010), *lila* (Cano 2018, Elorrieta 2018, Munro 2018, Nemirovski 2011...) eta *malba* (Olaizola «Txiliku» 2011, Pinter 2006, Sastre 2015...).
  - Harribitxiak: *esmeralda* (Coelho 2001, Irigoien 2008, Joyce 2015, Urrutia «Capeau» 2018...) eta *turkesa* (Kipling 2015, Martinez de Lezea 2015...).
  - *Anbar* erretxina gisa (Garde 2015, Joyce 2015, Lévi-Strauss 2009, Saizarbitoria 2012...).
  - *Kaoba* egur edo zuhaitz gisa (Christie 2008, Fuentes 2002, Iturralde 2019, Saizarbitoria 2012...).
  - *Kaki* fruitu gisa (Arkotxa 2009, Iñurrieta 2004, Xukri 2010...).
- Bestelako polisemia kasu batzuk:
  - *Sepia* animalia gisa (Alonso 2015, Jaio 2012...).
- Batez ere [izena + izenondoa] egitura duten koloreen kasuan, elkarketa ez baizik eta beste egitura morfosintaktiko bat dutenak:
  - *Zeru urdin*: «ez da hegazkinik ageri zero urdinean» (Zurutuza 2002)...
  - *Sagar berde*: «lehen, sagasti bat zegoen, beheko aldean sagar berdeak eta goiko aldean sagar gorriak ematen zituena» (Alberdi 2002)...
  - *Botila berde*: «esan zuen kristalezko botila berdea altxatuz» (Irasizabal 2009)...

- *Oliba berde*: «Oliba berde eta garratza zurrupatu, eta basora bota du hezurra» (Wood 2016)...
- Bestelakoak:
  - *Arre*: *arreta* inesibo singularrean (Ansorena 2010, Esteban 2017...), *ar* inesibo pluralean (Butler 2018, Dawkins 2008...) eta *arre ala so, ez arre ez so, arre egin* esamoldeetan (Irigoién 2013, Joyce 2015, O'Connor 2009, Zabaleta 2013...).
  - *Azul*: euskarazko testuan txertatutako gaztelaniazko esaldi zatiak. Adibidez, *División Azul* izen berezian (Alonso 2003, Uribe 2016).
  - *Blu*: «nora gabe doana nora ezean, eta bli, eta bla, eta blu» (Altonaga 2018), «roses are re-e-ed, violets are blu-u-ue...» (Garro 2010), «apalategi batzuk zeuden Blu-ray diskoz beteta» (Ladron Arana 2018)...
  - *Kaki*: Kakitzat musika taldearen izena (Askoren artean 2006, Elizondo 2011) eta *kakitzat* esamoldea (Cain 2003, Igerabide 2012, Montoia 2003, Urretabizkaia 2014...).
  - *Nabar*: euskarazko testuan txertatutako gaztelaniazko pasarteetan *Nabarra* hitza (Perurena 2017, Sudupe 2018).
  - *Xuri gorri*: Daniel Landarten *Xuri gorriak eta...* antzezlanaren (1973) izenburuaren aipamenak, bai Landarten beraren beste lan batean (Landart 2013) bai beste egile batzuenan (Lantziri 2016 eta Luku 2014).

## 4.1.2. Datuen analisia

### 4.1.2.1. Oinarrizko kolore-izenak

#### 4.1.2.1.1. Datu orokorrak

Aurreratu dugun bezala, aztergai ditugun terminoak bi azpicorpusetan nola erabiltzen diren kuantifikatzeko orduan, bi datu mota kontuan hartuko ditugu. Batetik, terminoetako

bakoitzaren agerraldiak zenbatuko ditugu, hau da, terminoetako bakoitza zenbat aldiz erabili den azpicorpus bakoitzean. Bestetik, terminoetako bakoitza azpicorpusetako zenbat liburutan erabili den aztertuko dugu; hau da, agerraldi horiek guztiak zenbat liburutan sakabanatuta ageri diren. Tesi osoan zehar gehienetan lehen datuan, hots, agerraldi kopuruan, oinarrituko dugu gure analisia. Baina liburu kopuruaren datua ere eskura izango dugu beti, baita agerraldi horiek zehazki zer liburutan jasotzen diren ere, kontrasterako irizpide oso egokia izango baita, laster ikusiko dugunez. Izan ere, ez dira berdin interpretatzekoak, adibidez, termino baten dozenaka agerraldi liburu bakar batean —edo egile bakar baten zenbait liburutan— biltzea eta dozenaka egileren liburuetan sakabanatuta aurkitzea.

Bi datu horiek —agerraldi kopurua eta liburu kopurua— zenbatuta, zenbait galderari erantzungo diegu:

- Lehenik eta behin, aztertuko dugu koloreak izendatzeko zerrendatu ditugun 109 hitzen artetik zenbat erabiltzen diren azpicorpus batean eta zenbat bestean, edo, bestela esanda, zenbat diren azpicorpus batean eta bestean 0 agerraldi dituzten kolore-izenak.
- Bigarrenik, kolore-izen bakoitzaren agerraldi kopuruak konparatuko ditugu.
  - Lehenik, kolore guztien agerraldi guztien baturak kalkulatu, eta bi azpicorpusetan konparatuko ditugu. Gauza bera egingo dugu kolore horiek aipatzen dituzten liburu kopuruaren baturekin.
  - Ondoren, agerraldi kopuruaren arabera multzokatuko ditugu kolore-izenak: 1.000 agerralditik behera dituztenak, 100 agerralditik behera dituztenak, 50etik beherakoak eta 30etik beherakoak. Eta tarte edo multzo horietako agerraldien baturak konparatuko ditugu bi azpicorpusetan. Horrela, kolore-izen ohikoen edo erabilienen (hots, gure corpusen agerraldi gehien dituztenak) eta ezohikoen edo gutxien erabilitakoen artean (agerraldi kopuru txikiak dituztenak) joera aldaketarik ba ote den ikusi ahal izango dugu.
  - Azkenik, kalkulatu dugu zenbat kolore-izenetan den agerraldi kopurua handiagoa azpicorpus batean bestean baino, eta alderantziz. Hau da, testu ez-

itzulien azpicorpusean testu itzulienean baino agerraldi gehiago dituzten kolore-izenak zein eta zenbat diren kalkulatu dugu, eta alderantziz.

- Azpicorpus batean bestean baino gehiago erabiltzen diren terminoak zein diren identifikatuta, bi azpicorpusen artean alde nabarmenena duten kasuetan jarriko dugu arreta, eta termino horien nolakotasunari erreparatuko diogu, errepikatzen den patroirik ba ote den argitzeko.
- Hirugarrenik, kolore-izenak bederatzi azpierrezu semantikotan bilduko ditugu: arrosaren tonalitateak, beltzarenak, berdearenak, horiarenak, gorriarenak, morearenak, urdinarenak, urrekarak eta zilarkarak, eta zuriarenak.
  - Azpierrezu semantiko horietako bakoitzean, guztizko agerraldiak konparatuko ditugu bi azpicorpusetan.
  - Ondoren, aztertuko dugu multzo bakoitza osatzen duten terminoetatik zenbat erabiltzen diren azpicorpus batean eta zenbat bestean. Eta erabiltzen ez diren koloreen izaerari erreparatuko diogu, haiek ez erabiltzeko arrazoia zein izan daitekeen ulertu nahian.
  - Azkenik multzo bakoitzaren barruan terminoetako bakoitza zenbat aldiz erabiltzen den aztertuko dugu.

Has gaitzen, bada, koloreak izendatzeko zerrendatu ditugun hitz guztietatik azpicorpus bakoitzean zein eta zenbat erabiltzen diren aztertuz. Testu ez-itzulien azpicorpusean, 109 terminoetatik 91 erabiltzen dira. Erabiltzen ez diren 18 terminoetatik 8 itzulpenen azpicorpusean ere ez dira erabiltzen: *gorrats*, *gorriño*, *urdinantz*, *oztin*, *belztaka*, *horiaire*, *morantz* eta *urretsu*. Gainontzeko 10 terminoak testu ez-itzulietan ez baina itzulpenetan erabiltzen dira: *gorrindol*, *bermiloi*, *botila berde / berde botila*, *sagar berde*, *beltzexka*, *beltzezka*, *arrosa txikle*, *laranjakara*, *laranjatu* eta *bolikara*.

Itzulpenen azpicorpusean, aztertu ditugun 109 terminoetatik 89 erabiltzen dira. Ez azpicorpus batean ez bestean erabiltzen ez diren 8 terminoez gain, honako 12 hauek itzulpenetan ez baina testu ez-itzulietan erabiltzen dira: *urdinarre*, *urdinskara*, *blu*, *zian*, *berdail*, *baltx*, *baltzaran*, *belxko*, *horasta*, *beilexka*, *arrosaxka* eta *nabarkara*.

Azpicorpus batean eta bestean erabiltzen diren kolore-izenei dagokienez, beraz, ez dago alde handirik: 91 erabiltzen dira testu ez-itzulien azpicorpusean, eta 89 testu itzulienean. Azpicorpus batean eta bestean erabiltzen ez diren kolore-izenen nolakotasunari erreparatzen badiogu, ordea, informazio esanguratsua ondoriozta dezakegu. Testu ez-itzulietan ez baina itzulpenetan erabiltzen diren 10 terminoen artean denetarik ikusten dugu: 3 kalko moderno samarrak dira (*botila berde / berde botila, sagar berde* eta *arrosa txikle*), bat euskalki markarekin jasota dago hiztegietan (*gorrindol* terminoak Iparraldeko marka du Elhuyar hiztegian), eta beste bi hiztegietan ez erabiltzeko gomendioarekin jasotzen diren edota zuzenean jasotzen ez diren aldaera ortografikoak dira (*beltxexka* eta *beltzezka*, idazkera estandarerako gomendatzen den *beltzaxka* formaren aldaerak). Testu itzulietan ez baina ez-itzulietan erabiltzen diren 12 terminoen artean 6 euskalki-markarekin jasota daude hiztegietan edo arautik desbideratzen diren aldaera fonetiko-ortografikoak dira: *urdinskara, blu, baltx, baltzaran, belxko* eta *beilexka*. Hizkera estandarerako araututakotik desbideratzen diren aldaerez berriro hitz egingo dugu aurrerago, haien erabilera esanguratsua baita, ikusiko dugunez.

109 koloreetako zein erabiltzen diren ikusita, azter dezagun orain zenbat aldiz erabiltzen diren terminoak. Guztizkoei erreparatuta, ikusten dugu 109 koloreak 7.216 aldiz erabiltzen direla guztira testu ez-itzulietan, eta 6.610 aldiz testu itzulietan. 109 termino horietako bakoitza zenbat liburutan erabiltzen den kalkulatu, eta liburuei dagozkien datuak batzen baditugu, liburu kopuruen guztizkoa 3.273 da testu ez-itzulietarako eta 2.758 testu itzulietarako.

Gorago metodologiari buruzko atalean azaldu dugun bezala, bi azpicorpusen arteko tamainak ezberdinak dira: testu ez-itzulien azpicorpusa 26,4 milioi hitzek osatzen dute, eta hitzok 698 liburutan banatuta daude; testu itzulien azpicorpusa 22,4 milioi hitzek osatzen dute, eta hitzok 436 liburutan banatuta daude. Tamaina ezberdintasun hori orekatzeko, faktore zuzentzaile bat aplikatuko dugu gure bilaketa-emitza guztietan: 1,17 agerraldi kopurueterako eta 1,6 liburu kopurueterako. Faktore zuzentzaile horiek agerraldi guztien eta liburu guztien baturei aplikatuta, agerraldi guztien batura 7.216 da testu ez-itzulien azpicorpusean eta 7.733,7 itzulpenenean. Liburuei dagokienez, 109 koloreak 3.273 liburutan erabili dira orotara testu ez-itzulien azpicorpusean, eta 4.412,8 liburutan itzulpenenean.

Koloreak izendatzeko oinarrizko terminoak, beraz, gehiagotan erabili dira orotara euskarara itzulitako testuetan euskaraz sortutakoetan baino, eta gainera agerraldi horiek guztiak liburu gehiagotan barreiatuta ageri dira testu itzulien azpicorpusean ez-itzulienean baino. Zehazki, agerraldi guztien % 48,27 testu ez-itzuliei dagozkie, eta % 51,73 testu itzuliei; liburuei dagokienez, % 42,59 euskaraz sortutakoak dira, eta % 57,41 itzulpenak.

Beraz, orain arteko datuetan oinarrituta zera ondoriozta dezakegu: euskal idazleek eta itzultzaileek eskura dituzten kolore-izenen artean egiaz erabiltzen dituztenei dagokienez alde handirik ez badago ere (109 aukera posibleetatik 91 erabiltzen dira testu ez-itzulietan eta 89 itzulietan), erabiltzen diren kolore-izen horiek orokortuago daude testu itzulietan ez-itzulietan baino, orotara agerraldi gehiago dituztelako ez ezik (agerraldi guztien % 48,27 testu ez-itzuliei dagozkie, eta % 51,73 testu itzuliei) liburu gehiagotan erabiltzen direlako ere bai (agerraldi horiek biltzen dituzten liburuen % 42,59 euskaraz sortutakoak dira, eta % 57,41 itzulpenak).

Atal honen helburua testu itzulietan eta ez-itzulietan koloreak izendatzean zer-nolako aberastasun eta aniztasun lexikoa dagoen konparatzea izanik, interesgarria iruditu zaigu aztertzea ea bi azpicorpusetako erabileren arteko harremanean aldaketaren bat gertatzen den koloreak ohikoagoak edo ezohikoagoak direnean. Hau da, ea bi azpicorpusetan antzeko erabilerak ikusten diren agerraldi kopuru handienak izateagatik ohikoenak eta erabilienak diren kolore-izenetan, eta gutxiago erabiliak eta beraz ezohikoagoak diren koloreetan bi azpicorpusetako bateko erabilera bestearnari gailentzen zaion; edo, alderantziz, ea bi azpicorpusen arteko oreka nabariagoa den gutxi erabiltzen diren koloreetan, eta kolore erabiliagoetan, aldiz, azpicorpusetako bat gailentzen den. Horretarako, sortatan aztertuko ditugu 109 terminoak, arian-arian erabilera handieneko terminoak bazter utzita. Jadanik aztertu dugun 1.000 agerralditik beherako kolore-izenen multzoaren ondoren, bi azpicorpusetako batean 100 agerraldi baino gehiago dituzten koloreak bazter utziko ditugu. Hala, bigarren sorta honetan 25 termino geratuko zaizkigu kanpoan, eta beraz 84 terminoko zerrenda bat geratuko zaigu. Hauek dira bazter utzi ditugun terminoak:

- arre
- horail
- txuri
- azul
- horixka
- ubel

- beilegi
- beltz
- berdexka
- gorrimin
- gorrixka
- gorritzta
- grisaxka
- lila
- malba
- marroi
- more
- nabar
- orlegi
- purpura
- urdinxka
- urrekara
- urreztatu
- xuri
- zurixka

Ondoren, 50 agerraldi baino gehiago dituzten terminoak kenduko ditugu. Guztira 16 termino dira kentzekoak, eta beraz 68 terminoko zerrenda bat geratuko zaigu. Honako hauek dira bazter utziko ditugun 50 agerralditik gorako terminoak:

- arrosakara
- baltz
- beix
- bioleta
- blu
- eskarlata
- esmeralda
- gaztainkara
- granate
- gorrikara
- kaki
- laru
- okre
- urdinkara
- zilarkara
- zilarreztatu

Azkenik, 30 agerraldi baino gehiago dituzten 5 termino kenduko ditugu, eta ondorioz 63 koloreko zerrenda bat geratuko zaigu. Hona hemen bazter utziko ditugun terminoak:

- anbar
- gorrail
- horizta
- sepia
- turkesa

Lortutako datuak bi taulatan jaso ditugu. 4.1. taulan, testu ez-itzulietako eta testu itzulietako agerraldi kopuruak jaso ditugu tarteetan antolatuta: 1.000 agerralditik beherako

terminoena, 100 agerralditik beherakoena, 50 agerralditik beherakoena eta 30 agerralditik beherakoena, ehunekotan konparatuta. 4.2. taulan berdin jokatu dugu, baina liburuei dagozkien datuak jasota. Hona hemen bi taulak:

**4.1. taula. Koloreak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoen agerraldi kopuruaren araberrako tartetetan sailkatuta.**

<b>Agerraldiak</b>				
	<b>1.000 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>100 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>50 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>30 agerralditik beherako terminoak</b>
<b>Testu ez-itzuliak</b>	% 48,27	% 48,12	% 47,64	% 46,01
<b>Testu itzuliak</b>	% 51,73	% 51,88	% 52,36	% 53,99

**4.2. taula. Koloreak izendatzeko terminoak zenbat liburutan ageri diren testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoen agerraldi kopuruaren araberrako tartetetan sailkatuta.**

<b>Liburuak</b>				
	<b>1.000 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>100 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>50 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>30 agerralditik beherako terminoak</b>
<b>Testu ez-itzuliak</b>	% 42,59	% 39,07	% 39,31	% 37,65
<b>Testu itzuliak</b>	% 57,41	% 60,93	% 60,69	% 62,35



Datuon arabera, zenbat eta txikiagoa izan erabilera (hots, zenbat eta agerraldi gutxiago izan terminoek) hainbat eta handiagoa da bi azpicorpusen arteko desoreka, testu itzulien azpicorpusaren aldera. Bestela esanda, zenbat eta ezohikoagoak izan aztertutako koloreak, orduan eta pisu handiagoa dute testu itzulietan eta txikiagoa testu ez-itzulietan. Alde hori are handiagoa da agerraldi horiek zenbat liburutan gertatzen diren aztertzen badugu. Testu ez-itzulietan gutxiago erabiltzen diren kolore ezohiko horiek euskal idazleek sortutako liburu are gutxiagotan topatzen ditugu. Testu itzulien azpicorpusean, aldiz, termino ezohiko edo atipikoen maiztasun handiagoa itzulpen kopuru are handiagoan barreiatuta gertatzen da. Datu esanguratsua da azken hori, adierazten baitugu atipikoak diren terminoak itzulpenetan gehiago erabiltzea ez zaiola zor itzultzaile gutxi batzuen erabilera pertsonalari, termino horiek ez direnez luma gutxi batzuen lanetan kontzentratzen.

Koloreak izendatzeko terminoen agerraldi kopuruak aztertzen bukatzeko, ikusiko dugu zenbat terminotan den handiagoa agerraldi kopurua testu ez-itzulietan testu itzulietan baino, eta alderantziz. 1.000 agerralditik beherako terminoen zerrenda oinarri hartuta, zera ikusten dugu: 109 terminoetatik 44tan agerraldi kopurua handiagoa dela testu ez-itzulietan testu itzulietan baino. Oraingoz, zerrendatu baino ez ditugu egingo; aurrerago termino horien nolakotasunari erreparatuko diogu. Hona hemen, beraz, testu ez-itzulietan itzulpenetan baino agerraldi gehiago dituzten 44 koloreak:

- arrosaxka
- azul
- baltx
- baltz
- baltzaran
- beilegi
- beilexka
- beix
- beltx
- belxko
- fukusia
- gaztainkara
- gorrail
- gorrantz
- gorrasta
- gorrikara
- gorriska
- gorrista
- gorrixta
- granate
- nabar
- nabarkara
- okre
- orlegi
- pintto
- sepia
- txuri
- ubel
- urdin elektriko
- urdinarre

- berdail
- berdaxka
- berdetsu
- berdotz
- blu
- horasta
- horizta
- kaoba
- laru
- lila
- urdinskara
- xuri
- zian
- zurikail

Kontrara, testu itzulietan testu ez-itzulietan baino agerraldi gehiago dituzten terminoak 57 dira. Honako hauek:

- anbar
- anil
- arre
- arrexka
- arrosa txikle
- arrosakara
- beltzexka
- beltzaxka
- beltzezka
- beltzixka
- beltzurdin
- belzkara
- berdats
- berdekara
- berdexka
- bermiloi
- bioleta
- briolet
- eskarlata
- esmeralda
- fuxia
- gorrimin
- gorrindol
- gorrixka
- gorrizta
- grisaxka
- horail
- horikara
- horixka
- itsas urdin
- kaki
- laranjakara
- laranjatu
- more
- morexka
- oliba berde
- pikart
- pinto
- purpura
- sagar berde
- turkesa
- urdinkara
- urdinska
- urdinxka
- urrekara
- urreztatu
- zeru urdin
- zilarkara
- zilarreztatu

- bolikara
- botila berde
- magenta
- malba
- marroi
- zuriska
- zurixka
- zurizta

Gainontzeko 8 terminoak, gorago aipatu bezala, ez dira erabiltzen ez azpicorpus batean ez bestean: *belztaka, gorrats, gorriño, horiaire, morantz, oztin, urdinantz* eta *urretsua*.

Jar dezagun orain arreta azpicorpus batean bestean baino erabilera nabarmen handiagoa ageri duten terminoetan, eta azter dezagun ea termino horien artean ba ote den errepikatzen den ezaugarririk, idazleen eta itzultzaileen hautuen artean joera orokorren bat ondorioztatu ahal izateko.

Horretarako, termino batek bi azpicorpusetan dituen agerraldi guztiak batu, eta identifikatu egingo dugu zer kasutan den azpicorpusetako bateko agerraldi kopurua guztizko horren % 60 edo handiagoa. Lehenengo eta behin, testu ez-itzulietan testu itzulietan baino nabarmen gehiago erabiltzen diren terminoetan jarriko dugu arreta, eta gero alderantziz. Hona hemen, beraz, testu ez-itzulietako agerraldi kopurua guztizkoaren % 60 edo gehiago duten terminoen zerrenda (beltzez nabarmendu ditugunak kasu agerikoenak dira, non ehunekoak 75etik gorakoa den): *arrosaxka, azul, baltx, baltz, baltzaran, beilegi, beilexka, beltx, belxko, berdail, berdaxka, berdotz, blu, fuksia, gorrail, gorrantz, gorrasta, gorrikara, gorriska, gorrixta, granate, horasta, kaoba, laru, nabarkara, orlegi, pintto, sepia, txuri, urdin elektriko, urdinarre, urdinskara, xuri, zian* eta *zurikail*.

35 termino horiei buruz hiztegietan zer-nolako informazio linguistikoa eskaintzen zaigun —baldin eta hiztegietan jasota badaude— aztertzen badugu, horietako hainbatek ezaugarri komunak dituztela ikusiko dugu. *Azul, beilegi, blu, gorrail, laru* eta *xuri* terminoak euskalkiren baten markarekin ageri dira Euskaltzaindiaren Hiztegia: bizkaierarenarekin *beilegi* eta *laru*, iparraldekoarekin *blu* eta *xuri*, hegoaldekoarekin *azul*, eta iparralde eta nafarrerakoarekin *xuri*. Badira, bestalde, beste termino baten aldera fonetiko-ortografikoa izanik Euskaltzaindiaren Hiztegia jasotzen ez diren hainbat forma ere: *arrosaxka, baltx, baltz, baltzaran, beilexka, beltx, berdaxka, gorriska, gorrixta, nabarkara, pintto, txuri,*

*urdinskara*. Batzuk aldaera adierazkorrek dira, beste batzuk aldaera diatopikoak<sup>7</sup>, eta beste batzuk, besterik gabe, hiztegietan jasotzen ez diren idazkera pertsonalak. Badirudi, beraz, euskal idazleek euskal itzultzaileek baino nabarmen gehiago erabiltzen dituzten kolore-izenen artean hizkera estandarretik nola edo hala urruntzen diren formak nagusi direla: dela euskalkietako aldaerak direlako, dela hiztegietan jasotzen ez diren aldaera fonetiko-ortografikoak direlako.

Azter dezagun orain zein eta nolakoak diren itzulpenetan nabarmen gehiago ageri diren terminoak. Agerraldi guztien % 60 edo gehiago testu itzulietakoak diren kasuak 40 dira. Hona hemen (% 75etik gorakoak beltzez nabarmenduta ageri dira): ***anbar, arrexka, arrosa txikle, arrosakara, beltzexka, beltzaxka, beltzezka, beltzixka, belzkara, berdekara, bermiloi, bioleta, bolikara, botila berde, eskarlata, esmeralda, fuxia, gorrimin, gorrindol, gorrixka, grisaxka, horikara, kaki, laranjakara, laranjatu, malba, marroi, more, morexka, pikart, pinto, purpura, sagar berde, urdinska, urdinxka, urrekara, urreztatu, zeru urdin, zilarkara, zilarreztatu***. Testu ez-itzulietan nagusitzen diren terminoekin konparatuta, testu itzulietan gailentzen diren formen artean gutxiago dira hiztegietan jasotzen ez diren idazkerak (*beltzexka, beltzezka, beltzixka, fuxia, urdinska*) eta bakarra euskalki baten markarekin jasotzen dena (*pikart*, iparraldekoa). Gailentzen diren gainontzekoen artean, ohargarria da haietako asko *antza, itxura, hurbil egotea* adierazten duten *-xka* eta *-kara* atzizkien bitartez osatutakoak direla: *arrexka, beltzaxka, berdekara, arrosakara, gorrixka, grisaxka, horikara, laranjakara, morexka, urdinxka, urrekara, zilarkara*. Beste asko kolore-izen *moderno* samarrak dira, mailegu eta kalko bidez iritsitakoak, eta zenbaitetan lore, fruitu zein bestelako objektuen izenak hartuz sortutakoak: *anbar, arrosa txikle, bermiloi, bioleta, bolikara, botila berde, eskarlata, esmeralda, kaki, malba, purpura, sagar berde, zeru urdin*.

Euskal idazleen testuetan arautik desbideratzeko ikusten genuen joera ez da ageri itzulpenetan. Aitzitik, itzultzaileen testuetan aniztasun lexikoa areagotzen duten bi baliabide nagusi identifikatu ditugu: oinarrizko kolore bat atzizki baten bitartez ñabartzea (*-xka, -kara*), eta mailegu eta kalkoen bitartez euskal pantonea elikatzea. Maileguak eta kalkoak itzulpenetan gehiago erabiltzea ulergarria da, pentsa baitaiteke haietako askok ez dutela

---

7 *Baltz, baltx* eta *baltzaran* ez dira hiztegietan jasotzen, baina mendebaleko euskarari dagozkiola baieztatu dezakegu duda handirik gabe.

oraindik posizio gailen bat lortu euskal hiztunen eguneroko hizkeran, euskarara berrikiago iritsi direnez. Itzulpenetan, ordea, sorburu-testuak behartzen ditu itzultzaileak koloreak izendatzeko eskura dituzten aukera guztien artean modernoagoak diren horiek erabiltzera.

Aurrera egin aurretik, laburbildu dezagun orain arteko datuetatik ondorioztatu dugun informazioa:

- Idazleek eta itzultzaileek koloreak izendatzeko eskura dituzten 109 terminoetatik azpicorpus batean eta bestean zenbat erabiltzen diren aztertuta, kopuruak oso antzekoak direla ikusi dugu: testu ez-itzulietan termino horietatik 91 ageri dira, eta testu itzulietan 89.
- Termino horien agerraldiak gehiago dira guztira itzulpenetan, eta liburu gehiagotan erabiltzen dira. Beraz, termino kopuru antzekoa erabiltzen da bietan, baina termino horiek gehiagotan erabiltzen dira itzulpenetan. Horren arrazoiak bi azpicorpusen osaerarekin izango du zerikusia ziurrenik. Testu ez-itzuliek euskal idazleek denboratarte oso mugatu batean idatzitakoak dira; testu itzulien sorburu-testuak, aldiz, literaturaren historiako garai eta korrante gehiagori dagozkie, eta baliteke literatur korranteen ugaritasun horrek deskribapenatarako (eta ondorioz koloreak aipatzeko) joera handiagoa ekartzea berekin.
- Gehien erabiltzen diren terminoak eta gutxien erabiltzen direnak aztertuta, ikusten da bi azpicorpusen arteko aldea txikiagoa dela termino erabilienetan, eta handiagoa gutxiago erabiltzen diren terminoetan, itzulpenen azpicorpusen gehiagotan ageri baitira maiztasun txikieneko terminoak. Hau da, itzulpenetan ezohikoak diren terminoak oparago erabiltzen dira testu ez-itzulietan baino. Testu ez-itzulietan, berriz, ohikoenak diren terminoetan kontzentratzen da erabilera.
- Bi azpicorpusen arteko konparazioan alde handiena ageri duten terminoei dagokienez, azkenik, testu ez-itzulietan gailentzen diren terminoetako asko estandarretik desbideratzen diren terminoak dira: aldaera dialektalak eta arauarekin bat ez datozen idazkerak. Itzulpenetan gailentzen diren terminoak, aldiz, mailegu eta

kalko modernoak dira, baita ñabardura adierazteko atzizki bidez sortutako formak ere.

#### 4.1.2.1.2. Oinarrizko kolore-izenak azpieroemu semantikoetan

Koloreak izendatzeko oinarrizko formen atal hau bukatzeko, interesgarria iruditu zaigu koloreak izendatzeko oinarrizko 109 terminoak azpieroemu semantikoetan biltzea, multzo horietako bakoitzaren barruko banaketa aztertzeko eta bi azpicorpusetan konparatzeko. Hala, bada, kolore bat eta haren ñabardura eta tonuak adierazten dituzten terminoak multzoetan sailkatu ditugu: arrosaren azpieroemu semantikoa, beltzarena, berdearena, gorriarena, horiarena, morearena, urdinarena, urre eta zilarrarena, eta zuriarena. Horri esker, xeheago aztertu ahal izango dugu zer aukera egiten duten idazleek eta itzultzaileek sorta murrizagoetan, eta 109 terminoko multzo handian ikusi ditugun joerak berresten diren edo ez egiaztatu ahal izango dugu.

Esan bezala, 9 azpieroemu semantiko sortu ditugu:

- arrosarena: *arrosa txikle, arrosakara, arrosaxka, fuchsia, fuxia*.
- beltzarena: *baltx, baltz, baltzaran, beltz, beltzaxka, beltzaxka, beltzaxka, beltzaxka, beltzaxka, belxko, belzkara, belztaka*.
- berdearena: *berdail, berdats, berdaxka, berdekara, berdetsu, berdexka, berdotz, botila berde, esmeralda, kaki, oliba berde, orlegi, sagar berde*.
- gorriarena: *bermiloj, eskarlata, gorrail, gorrantz, gorrasta, gorrats, gorrikara, gorrimin, gorrindol, gorriño, gorriska, gorrista, gorrixka, gorrixta, gorrizta, granate, kaoba, purpura*.
- horiarena: *beilegi, beilexka, horail, horasta, horiaire, horikara, horixka, horizta, laru*.
- morearena: *bioleta, briolet, lila, malba, morantz, more, morexka, ubel*.
- urdinarena: *anil, azul, blu, itsas urdin, oztin, turkesa, urdin elektriko, urdinantz, urdinarre, urdinkara, urdinska, urdinskara, urdinxka, zeru urdin, zian*.

- urre eta zilarrarena: *urrekara, urretsu, urreztatu, zilarkara, zilarreztatu.*
- zuriarena: *txuri, xuri, zurikail, zuriska, zurixka, zurizta.*

Lehenengo eta behin, agerraldien guztizkoei erreparatzen badiegu ikusiko dugu 9 azpieroemuetatik 6tan termino guztien agerraldien batura handiagoa dela itzulpenen azpicorpusean testu ez-itzulienean baino; zehazki, arrosaren, berdearen, gorriaren, horiaren, morearen eta urre eta zilarraren azpieroemuetan. 3 azpieroemutan kontrakoa gertatzen da: beltzaren, urdinaren eta zuriaren azpieroemuetan termino guztien agerraldien guztizkoa handiagoa da testu ez-itzulietan testu itzulietan baino. Ikus ditzagun datuak, 4.3. taulan jasota:

**4.3. taula. Koloreen azpieroemu semantikoetako guztizko agerraldi kopuruak eta ehunekoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

	Testu ez- itzuliak	%	Testu itzuliak (*1,17)	%	Guztira
<b>Arrosak</b>	36	% 32,81	73,71	% 67,19	109,71
<b>Beltzak</b>	290	% 70,64	120,51	% 29,36	410,51
<b>Berdeak</b>	344	% 47,34	382,59	% 52,66	726,59
<b>Horiak</b>	664	% 47,63	730,08	% 52,37	1.394,08
<b>Gorriak</b>	775	% 38,86	1.219,14	% 61,14	1.994,14
<b>Moreak</b>	971	% 40,29	1.439,1	% 59,71	2.410,10
<b>Urdinak</b>	459	% 54,92	376,74	% 45,08	835,74
<b>Urre eta zilarrak</b>	167	% 25,36	491,40	% 74,64	658,4

<b>Zuriak</b>	1845	% 69,04	827,19	% 30,96	2.672,19
---------------	------	---------	--------	---------	----------

Guztizko agerraldiak testu ez-itzulietan itzulpenetan baino handiagoak diren hiru multzo horietan, aurrerago xeheago azalduko dugunez, hizkera estandarretik urruntzen diren termino zehatz batzuei zor zaie testu ez-itzulien azpicorpusaren aldeko desoreka, dela euskalkiren bateko aldaerak direlako (*xuri, txuri, baltz*), dela hiztegieta herri mailakotzat jotzen diren aldaerak direlako (*blu, azul*) edo aldaera adierazkorak direlako (*beltx*).

Gogoan izan behar dugu 1.000 agerralditik beherako terminoak ditugula hemen hizpide, eta azpiero semantiko hauetatik kanpo utzi ditugula, beraz, oinarrizko koloreak izendatzen dituzten forma ia guztiak: *arrosa, beltz, berde, gorri, hori, urdin* eta *zuri*. Hori horrela izanik, eta oinarrizko termino horiek zenbat agerraldi dituzten ezin jakin badezakegu ere, esanguratsua iruditzen zaigu oinarrizko koloreen aldaeren eta ñabardurak adierazten dituzten beste terminoen guztizkoak handiagoak izatea testu itzulietan bederatzi azpiero semantikotatik seitan.

Hau da, *gorri* bazter utzita, adibidez, gorriaren tonuak eta ñabardurak adierazten dituzten beste aldaera guztien (*bermilo, eskarlata, gorrail, gorrantz* eta abarren) erabilera handiagoa da oro har testu itzulietan ez-itzulietan baino. Eta gauza bera gertatzen da berezi ditugun bederatzi azpieroetatik beste bostetan. Esan bezala, ez dugu oinarrizko koloreen erabilerari buruzko daturik, eta beraz ezin dugu konparatu kolore zehatz bat adierazteko orduan zein den oinarrizko terminoaren eta tonu/ñabardurak adierazten dituztenen arteko erlazioa azpicorpus batean eta bestean (zenbat aldiz jotzen duten idazleek eta itzultzaileek *gorri* erabiltzera eta zenbat aldiz beste edozein ñabardura adieraztera, alegia). Ñabardurak adierazten dituzten terminoak testu itzulietan gehiago erabiltzeak ez du ezinbestean esan nahi idazleek oinarrizko terminoak erabiltzera eta itzultzaileek ñabardurak erabiltzera jotzen dutela gehiago. Beharbada koloreak orotara gutxiagotan aipatzen dira, besterik gabe, testu ez-itzulien azpicorpusean itzulienetan baino, izan kolore-adierazpide hori oinarrizkoa zein tonalitate bat. Nolanahi ere dela, datuok egiaztatuta uzten dute kolore-ñabardurak




adierazten dituzten terminoak gehiagotan iristen zaizkiela euskal irakurleei itzulpenen bitartez jatorriz euskaraz sortutako testuen bitartez baino.

Jarraian, azpieroemu semantiko horiek banan-banan aztertuko ditugu. Azpieroemu bakoitzerako, lehenengo eta behin, multzoa osatzen duten terminoetatik azpicorpusetako bakoitzean zenbat erabiltzen diren ikusiko dugu. Ondoren, erabiltzen diren termino horiek zenbat aldiz agertzen diren aztertuko dugu. Horretarako, grafiko batean bilduko ditugu multzoko termino guztien agerraldi kopuruak, zenbaki absolutuetan eta, itzulpenen kasuan, faktore zuzentzailea aplikatuta. Multzo barruko terminoak guztizko agerraldi kopuruaren arabera ordenatuta eskainiko ditugu, guztira agerraldi gehien dituen terminotik hasita eta agerraldi kopuru txikiena duen terminoarekin amaituz. Grafikoaren barruan terminoak agerraldi kopuru handienetik txikienera ordenatzeak aukera emango digu ikusteko ea terminoak erabilienak izatetik ezohikoenak izatera pasatu ahala joera aldaketaren bat gertatzen den bi azpicorpusen arteko erlazioan; hau da, ea terminoak oso erabiliak direnean bi azpicorpusen arteko aldea txikia den eta formak ezohikoagoak direnean bi azpicorpusetako bat nabarmentzen den, adibidez, edo alderantziz.

#### **4.1.2.1.2.1. Arrosaren tonuak: *arrosa txikle*, *arrosakara*, *arrosaxka*, *fukxia*, *fuxia***

Bost terminok osatzen dute azpieroemua, eta bostetatik lau erabiltzen dira azpicorpus batean eta bestean. Testu ez-itzulietan *arrosa txikle* ez da behin ere erabiltzen, eta itzulpenetan ageri ez dena *arrosaxka* da. Bi terminoek presentzia oso txikia dute, nolana ere, bakoitza agertzen den azpicorpusean: *arrosa txikle* behin baino ez da ageri testu itzulietan, eta *arrosaxka* ere behin baino ez testu ez-itzulietan.

Agerraldi kopuruei dagokienez, ez da joera argirik nabari. Ikus dezagun 4.1. irudiaren bitartez:



**4.1. irudia. Arrosaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**


*Arrosakara* terminoa askoz gehiago erabiltzen da testu itzulietan ez-itzulietan baino, eta *fuchsia* gehiagotan ageri da ez-itzulietan itzulietan baino, alde ez hain nabarmenez. Gainontzeko terminoetan erabilera oso murrizta da bi azpicorpusetan, eta ez dute datu esanguratsurik eskaintzen. Lehen multzo honetan, *arrosakara* terminoaren itzulpenetako gailentzeaz aparte ezin da bestelako informazio interesgarrikerik ondorioztatu.

#### **4.1.2.1.2.2. Beltzaren tonuak: *baltx, baltz, baltzaran, beltz, beltzexka, beltzaxka, beltzezka, beltzixka, belxko, belzkara, belztaka***

Beltzaren azpierenua 11 terminok osatzen dute. Horietatik 8 erabiltzen dira testu ez-itzulien azpicorpusean eta 7 itzulienean: *belztaka* ez da erabiltzen ez azpicorpus batean ez bestean; *beltzexka* eta *beltzezka* ez dira agertzen testu ez-itzulietan, eta *baltzaran, baltx* eta *belzko* ez dira erabiltzen itzulpenetan. Aukeran diren terminoetatik zenbat erabiltzen diren aztertuta, beraz, aberastasun zertxobait handiagoa topatzen dugu testu ez-itzulien azpicorpusean, baina aldea oso txikia da. Bestalde, aipagarria da ez azpicorpus batean ez bestean erabiltzen ez den *belztaka* forma ez dela hiztegiatan jasotzen (OEHn ez bada).


Idazkera estandarerako gomendatzen denetik urruntzen den forma bat da, hortaz. Antzeko zerbait gertatzen da testu itzulietan bai baina testu ez-itzulietan erabiltzen ez diren *beltxexka* eta *beltzezka* formekin, zeinak *beltzaxka* onartuaren aldaeratzat jo daitezkeen. Itzulpenetan ageri ez den *belzko* ere mota bereko beste kasu bat da: hiztegieta jasotzen den *belxko* formaren idazkera ez onartua dirudi. Eta itzulpenetan erabiltzen ez diren *baltzaran* eta *baltx*, azkenik, mendebaleko euskarako erabilerak dira, hiztegieta jasotzen ez badira ere.

Agerraldi kopuruari dagokionez, hauxe dugu, lehen aurreratu dugun bezala, agerraldien guztizkoa testu ez-itzulietan handiagoa duten hiru azpieremuetako bat. Ikus ditzagun datuak 4.2. irudian:



**4.2. irudia. Beltzaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

Datuok erakusten dutenez, testu ez-itzulien gailentzea *beltz* eta *baltz* terminoei zor zaie nagusiki. Ohargarria da *beltz* terminoa forma adierazkor gisa jasota ageri dela hiztegieta, eta *baltz* mendebaleko euskarako aldaera dela. Bi termino horiek grafikotik aterako ditugu orain 4.3. irudian, gainontzekoen arteko erlazioa xeheago ikusi ahal izateko:



**4.3. irudia. Beltzaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, 'beltx' eta 'baltz' kenduta.**


Kopuruak txikiak dira eta ez oso esanguratsuak, ondorioz, baina joera argi samar bat ikusten da: mendebaleko euskarako *baltzaran* eta *baltz* formetan eta *belxko* forman izan ezik, gainontzeko terminoetan testu itzulietako erabilera gailentzen da.

Laburbilduz, beltzaren azpieroemu semantikoan testu ez-itzuliek gailentzen dira, eta nabarmentze hori estandarretik urruntzen diren formei dagokie nagusiki: *beltx*, *baltz*, *baltzaran* eta *baltx*.

**4.1.2.1.2.3. Berdearen tonuak: *berdail*, *berdats*, *berdaxka*, *berdekara*, *berdetsu*, *berdexka*, *berdotz*, *botila berde*, *esmeralda*, *kaki*, *oliba berde*, *orlegi*, *sagar berde***

Azpieroemu hau osatzen duten 13 terminoetatik 11 erabiltzen dira testu ez-itzulien azpicorpusean, eta 12 itzulpenenean. Testu ez-itzulietan behin ere erabiltzen ez diren bi terminoak kalko berri samarrak dira: *botila berde* eta *sagar berde*. Itzulpenetan erabiltzen ez den terminoa *berdail* da.

Agerraldi kopuruei dagokienez, termino ia guztietan agerraldi kopuru handiagoak ikusten ditugu itzulpenen azpicorpusean testu ez-itzulienean baino. Hona hemen datuak, 4.4. irudian bilduta:



#### 4.4. irudia. Berdearen tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.


Guztira agerraldi kopuru handienak dituzten terminoetan (*berdexka, kaki, esmeralda, berdekara*) itzulpenen azpicorpusea gailentzen da, termino batean izan ezik: *orlegi* neologismoa. Erabilera txikiagotu ahala, bi azpicorpusean arteko erlazioa gorabeheratsuagoa da: *berdotz, berdaxka, berdetsu* eta *berdail* terminoetan testu ez-itzuliak gailentzen dira; eta *oliba berde, berdats, botila berde* eta *sagar berde* terminoetan, itzuliak. Baina aldeak txikiak dira oro har.

Multzo honetan, beraz, erabilera sistematikoki altuagoa dugu, oro har, itzulpenetan. Salbuespen esanguratsu bakarra forma berezi bat da: *orlegi*, tradizio laburreko aranismo bat eta, beraz, nola edo hala markatutzat jo genezakeena.

**4.1.2.1.2.4. Gorriaren tonuak: *bermiloi, eskarlata, gorrail, gorrantz, gorrasta, gorrats, gorrikara, gorrimin, gorrindol, gorriño, gorriska, gorrista, gorrixka, gorrixta, gorritzta, granate, kaoba, purpura***

Gorriarena da azpieremurik handiena: 18 terminok osatzen dute. Horietatik 14 erabiltzen dira testu ez-itzulien azpicorpusean, eta 16 testu itzulienean. *Gorriño* eta *gorrats* ez dira ez azpicorpus batean ez bestean erabiltzen, eta testu ez-itzulietan, gainera, *gorrindol* eta *bermiloi* formak ere ez dira ageri. *Gorriño* eta *gorrindol* iparraldeko markarekin jasotzen dira hiztegi batzuetan; *gorrats* ez da hiztegietan jasotzen; eta *bermiloi* mailegu berri samarra da, Elhuyarren ageri bada ere Euskaltzaindiaren Hiztegian oraindik jasotzen ez dena.

Agerraldi kopuruei erreparatuta, erabilera handiagoa ikusten da oro har testu itzulietan. Ikus ditzagun datuak 4.5. irudian:



**4.5. irudia. Gorriaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**


Ikusten denez, oro har erabilienak diren formetan (*gorrixka, gorritzta, purpura, gorrimin* eta *eskarlata*) testu itzulietako erabilera handiagoa da. Salbuespen bakarra dago: *granate*.

Guztizko erabilerak behera egiten duenean, ordea, testu ez-itzulietako agerraldi kopuruak gailentzen hasten dira: *gorrikara, gorrail, kaoba, gorriska, gorrasta, gorrixta, garrantz* eta *gorrista*. Berdearen multzoan ikusi dugunaren antzeko datuak dira, beraz. Bi ondorio nagusi atera ditzakegu datuotatik. Batetik, itzultzaileek idazleek baino nabarmen gehiagotan erabiltzen dituzte ñabardurak eta tonalitateak adierazteko terminoak. Bestetik, idazleek, gutxiagotan erabiltzen badituzte ere, modu orekatuagoan jotzen dute termino batera edo bestera; hau da, agerraldi guztien banaketa homogeneoagoa da aukeran diren terminoen artean. Itzultzaileek, aldiz, aukeretako batzuen alde egiten dute nabarmenago.

#### **4.1.2.1.2.5. Horiaren tonuak: *beilegi, beilexka, horail, horasta, horiaire, horikara, horixka, horizta, laru***

9 terminok osatzen dute horiaren azpieremu semantikoa. Horietako 8 erabiltzen dira testu ez-itzulietan, eta 6 itzulietan. *Horiaire* ez da ez azpicorpus batean ez bestean erabiltzen. Eta testu itzulietan ez dira ageri, bestalde, *horasta* eta *beilexka*. Ohargarria da berriro ere itzulpenetan ez eta testu ez-itzulietan bai erabiltzen diren bi terminoak nola edo hala markatuak direla: *horasta* sarrerek *gutxi erabilia* marka darama Euskaltzaindiaren Hiztegian, eta ez da jasotzen Elhuyarren; *beilexka* forma bizkaierakotzat jotzen da Elhuyarren eta ez da jasotzen Euskaltzaindiaren Hiztegian.

Agerraldi kopuruak aztertuta, orain arteko joera ikusten dugu berriro ere: erabilerak oro har handiagoak dira testu itzulietan ez-itzulietan baino. Ikus ditzagun datuak 4.6. irudian:



#### 4.6. irudia. Horiaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.

Esan bezala, agerraldi kopuruak handiagoak dira testu itzulietan ez-itzulietan baino, termino oso erabiliak direnean (*horixka* eta *horail*). Bi azpicorpusen arteko erlazioa irauli egiten da, ordea, handik aurrera. Eta berriro ere esanguratsua da testu ez-itzulietako erabilera markatutzat jo daitezkeen bi terminotan gailentzen dela: hiztegieta bizkaierakotzat jotzen diren *beilegi* eta *laru* formetan, hain zuzen.


Laburbilduz, multzo honetan guztizko agerraldi kopuru handiagoak ikusten ditugu itzulpenetan, eta salbuespen nabarmenenak estandarretik urruntzen diren forma markatuei dagozkie.

##### 4.1.2.1.2.6. Morearen tonuak: *bioleta*, *briolet*, *lila*, *malba*, *morantz*, *more*, *morexka*, *ubel*

Morearen azpieren semantikoan 8 termino jaso ditugu. Bada, horietatik 7 erabiltzen dira bi azpicorpusetan. Bai testu ez-itzulietan bai itzulietan termino bera da behin ere erabiltzen ez dena: *morantz*.



Agerraldi kopuruek ez digute informazio esanguratsurik eskaintzen oraingoan. Hona hemen agerraldi kopuruak biltzen dituen 4.7. irudia:



**4.7. irudia. Morearen tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**


Ikusten denez, *more* terminoa da erabiliena bi azpicorpusetan, baina agerraldi nabarmen gehiago ditu testu itzulien azpicorpusean. Hurrengo bi termino erabilienean, *ubel* eta *lila*, agerraldi kopuru zertxobait altuagoak ageri dituzte testu ez-itzulietan; baina aldea oso txikia da bi kasuetan. Eta handik aurrera testu itzulietako erabilera gailentzen da berriro ere: *malba*, *bioleta*, *morexka* eta *briolet*.

Arestian esan bezala, multzo honetatik ez dugu informazio adierazgarririk ondorioztatu.

#### **4.1.2.1.2.7. Urdinaren tonuak: *anil, azul, blu, itsas urdin, oztin, turkesa, urdin elektriko, urdinantz, urdinarre, urdinkara, urdinska, urdinskara, urdinxka, zero urdin, zian***

Urdinarena multzo handienetako bat dugu: 15 terminok osatzen dute. Aukeran diren 15 termino horietatik egiaz zenbat erabiltzen diren aztertuta, orain arte ez bezalako desoreka ikusten dugu multzo honetan. Testu ez-itzulien azpicorpusean 13 termino erabiltzen dira 15etik: *oztin* eta *urdinantz* ez dira erabiltzen. Testu itzulietan, aldiz, 9 termino baino ez dira erabiltzen. Honako sei forma hauek ez dira behin ere ageri itzulpenetan: testu ez-itzulietan ere erabiltzen ez diren *oztin* eta *urdinantz* formez gain, *blu, urdinarre, urdinskara* eta *zian*. Ez azpicorpus batean ez bestean erabiltzen ez diren bi terminoei dagokienez, *oztin* formaz gutxi erabilia dela adierazten du Euskaltzaindiaren Hiztegiak, eta *urdinantz* forma ez da hiztegiatan jasotzen. *Blu* iparraldeko eta herri mailakotzat jotzen du Euskaltzaindiaren Hiztegiak; *urdinskara* ez da hiztegiatan jasotzen; eta *zian* mailegu berri samarra da, Elhuyarren bai baina Euskaltzaindiaren Hiztegiaren oraindik jasotzen ez dena. *Urdinarre* formak, azkenik, ez du berezitasunik ageri. Ikusten denez, beraz, itzultzaileek eta neurri txikiagoan idazleek erabiltzen ez dituzten forma ia guztiak nola edo hala markatuak dira. Eta ohargarria da forma horien aurrean uzkurrago ageri direla itzultzaileak idazleak baino: itzulpenetan ageri ez diren forma horietako batzuk bai erabiltzen dira euskal idazleen testuetan: *blu, urdinskara* eta *zian*.

Agerraldi kopuruei buruzko datuek ere informazio interesgarria dakarkigute. Termino gehienetan, gorabeherak gorabehera, oreka nagusi bada ere, badira nabarmentzeko moduko zenbait termino. Bestalde, haxe dugu, beltzarenarekin eta aurrerago aztertuko dugun zuriarenarekin batera, testu ez-itzulietan guztizko agerraldi kopuru handiagoa duten hiru azpieremuetako bat. Eta testu ez-itzulien azpicorpuseko guztizko agerraldi kopuru handiago hori, berehala egiaztatuko dugunez, bi termino zehatzi zor zaie. Ikus dezagun, lehenik, datuak biltzen dituen 4.8. irudia:



#### 4.8. irudia. Urdinaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.


Esan bezala, termino askotan azpicorpusen arteko aldea oso txikia da: *urdinkara*, *turkesa*, *anil*, *itsas urdin* eta *urdinska* formetan itzulpenetako erabilera gailentzen da, eta *urdin elektriko* formarenean testu ez-itzulietakoa; baina agerraldi kopuruak oso antzekoak dira bi azpicorpusetan. Askoz interesgarriagoak dira desorekak. Agerraldi gehien dituen forma (*urdinxka*) nabarmen gehiago erabiltzen da testu itzulietan ez-itzulietan baino. Eta hori baino are esanguratsuagoa: testu ez-itzulietan alde handiz nabarmentzen diren bi formak markadunak dira Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera. *Azul* hegoaldekoa eta herri mailakoa da, eta *blu* iparraldekoa eta herri mailakoa.

Multzo honetan, beraz, argi ikusten dugu euskara estandarretik eta araututakotik urruntzen diren formek presentzia handiagoa dutela testu ez-itzulietan itzulietan baino, dela itzulpenetan ez eta testu ez-itzulietan bai erabiltzen diren terminoei dagokienez, dela bi azpicorpusetan erabiltzen diren horrelako forma markatuak gehiagotan erabiltzen direlako testu ez-itzulien azpicorpusean.

#### 4.1.2.1.2.8. Urre eta zilarkaren tonuak: *urrekara, urretsu, urreztatu, zilarkara, zilarreztatu*

Multzo txikienetako bat da hau. Bost terminok osatzen dute, eta horietatik lau erabiltzen dira bai azpicorpus batean bai bestean. Bi azpicorpusetan berbera da behin ere ageri ez den terminoa: *urretsu*. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren Hiztegiak gutxi erabilitako termino jasotzat etiketatzen du.

Agerraldi kopuruek datu oso homogeneous eskaintzen dizkigute. Termino guztiak gehiago erabiltzen dira testu itzulietan euskaraz sortutakoetan baino, eta bi azpicorpusen arteko erlazioa antzekoa da termino guztietan. 4.9. irudian jaso ditugu datuak:




#### 4.9. irudia. Urre eta zilarkaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.

Multzo txiki honek, bere informazio urri baina sistematikoarekin, berretsi egiten du koloreak adierazteko terminoen erabilera askotarikoagoa dela oro har testu itzulietan ez-itzulietan baino.

#### 4.1.2.1.2.9. Zuriaren tonuak: *txuri*, *xuri*, *zurikail*, *zuriska*, *zurixka*, *zurizta*

Azpieremu semantiko hau osatzen duten sei terminoetatik guztiak erabiltzen dira bi azpicorpusetan.

Multzo hau da, beltzarenarekin eta urdinarenarekin batera, testu ez-itzulien azpicorpusean guztizko agerraldi kopuru handiagoa ageri duten multzoetako bat. Eta agerraldi kopuru handiago horren arrazoia beltzaren eta urdinaren azpierzuetako bera da, jarraian ikusiko dugun bezala: forma markatuen pisua. Ikus ditzagun datuak 4.10. irudian:



**4.10. irudia. Zuriaren tonuak izendatzeko terminoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

Erabilienak diren bi formek agerraldi nabarmen gehiago dituzte testu ez-itzulietan itzulietan baino. Bi forma *zuri* oinarritzko terminoaren forma adierazkorrak dira, eta funtsean aldaera fonetiko eta diatopikoak: iparralde eta nafarrerako *xuri* eta gipuzkerako *txuri*. Kolorearen ñabardurak adierazten dituzten gainontzeko formak (*zurixka*, *zuriska*, *zurizta*, *zurikail*), ordea, oso antzera erabiltzen dira bi azpicorpusetan.

Multzo honetan, beraz, forma markatuak erabiltzeko joera nasaiagoa ikusten dugu berriro ere idazleen artean itzultzaileen artean baino.

Jarraian, azpieroem semantikoei buruzko atal honetan atera ditugun ondorio nagusiak laburbilduko ditugu. Lehenengo eta behin, ez dugu alde handirik ikusi multzo bakoitzean eskura diren terminoen artean azpicorpus batean eta bestean egiaz hautatzen dituzten termino kopuruei dagokienez. Ez da ikusten, alegia, azpicorpus batean bestean baino termino gehiago edo gutxiago erabiltzen denik nabarmen. Bederatzi azpieroem semantikoetatik lautan, termino kopuru bera ageri da bi azpicorpusetan: arrosarenean launa termino erabiltzen dira bi azpicorpusetan aukeran diren bostetatik, morearenean zazpina zortzitik, urre eta zilarrarenean launa bostetik, eta zuriarenean seina seitik. Hiru azpieroem semantikotan aukeran diren terminoetako gehiago ageri dira testu ez-itzulietan itzulietan baino: beltzarenean eskura diren 11 terminoetatik 8 ageri dira testu ez-itzulietan eta 7 itzulietan; horiarenean 9tik 8 ez-itzulietan eta 6 itzulietan; eta urdinarenean 15etik 13 ez-itzulietan eta 9 itzulietan. Eta bi azpieroem semantikotan, azkenik, aukeran diren terminoetako gehiago erabiltzen dira testu itzulietan ez-itzulietan baino: berdearenean aukeran diren 13etatik 11 erabiltzen dira testu ez-itzulietan eta 12 itzulietan, eta gorriarenean aukeran diren 18etatik 14 erabiltzen dira ez-itzulietan eta 16 itzulietan. Ezin ondorioztatu daiteke, beraz, azpicorpusetako bat bestea baino aberatsagoa denik termino kopuruan.

Erabili gabe geratzen diren terminoen izaerari erreparatzen badiogu, behin ere ageri ez diren kolore-izenak hiru mota nagusitan bil daitezkeela ikusten dugu:

- Haietako asko ez dira hiztegietan jasotzen, eta beraz idazkera estandar edo arautuaren desbideraketatzat jo daitezke: *beltxexka*, *beltzezka*, *belzko*, *belztaka*, *gorrats*, *urdinantz*, *urdinskara*... Bada, halakoak bai testu ez-itzulien azpicorpusetan bai itzulpenenean falta dira. Hau da, idazleek zein itzultzaileek maila bertsuan uzten dituzte erabili gabe koloreei buruzko bibliografian zerrendatu bai baina hiztegietan jasotzen ez diren idazkera-forma ez arautuak.

- Beste batzuk hiztegieta eta dialektologiari buruzko bibliografian euskalkietako formatzat jotzen dira: *azul*, *baltx*, *baltzaran*, *beilexka* eta *blu*. Halakoak baztertzen diren kasu ia guztiak itzulpenen azpicorpusari dagozkio; salbuespen bakarra *gorrindol* da, iparraldekoa, itzulpenen azpicorpusean bai eta testu ez-itzulienean ageri ez dena. Itzultzaileek gehiagotan uko egiten diote euskalkietakotzat jotzen diren formak erabiltzeari, idazleen aldean.
- Behin ere erabiltzen ez diren terminoetako batzuk, azkenik, erdaretako mailegu edo kalkoak dira. Halakoak testu ez-itzulien azpicorpusean falta dira kasurik gehienetan: *bermilo*, *botila berde* eta *sagar berde* ez dira erabili idazleen testuetan.

Badirudi, beraz, idazleen artean ohikoagoa dela euskalkietako terminoetara jotzea itzultzaileen artean baino, eta itzultzaileen testuetan aiseago topatzen direla erdaretatik iritsitako mailegu eta kalkoak. Idazkera arautu gabeei dagokienez, antzeko hautuak egiten dituzte idazleek zein itzultzaileek.

Joera horiek, nolana ere, aukeran diren terminoetatik batzuek eta besteek zein hautatu dituzten aztertuta atera ditugu. Bada, terminoen agerraldi kopuruari begiratuta, joerok are markatuagoak dira. Hau da, idazleek euskalkietako termino gehiago erabiltzen dituzte itzultzaileek baino; baina, gainera, euskalkietako terminoak gehiagotan erabiltzen dituzte. Testu itzulietan aurkitzen ez ditugun *azul*, *baltx*, *baltzaran*, *beilexka* eta *blu* formak erabiltzeaz gain, itzulpenetan erabili erabiltzen diren beste zenbait forma askoz gehiago ageri dira testu ez-itzulietan: *baltz*, *beilegi*, *laru*, *txuri* eta *xuri* formak bi azpicorpusetan erabiltzen dira, baina agerraldi askoz gehiago dituzte testu ez-itzulietan.

Mailegu eta kalkoei dagokienez, beste horrenbeste gertatzen da, baina alderantziz. Testu ez-itzulietan ageri ez diren *bermilo*, *botila berde* eta *sagar berde* formez gain, bi azpicorpusetan erabiltzen diren mailegu eta kalkoak nabarmen gehiagotan erabiltzen dira testu itzulietan ez-itzulietan baino, hala nola *anil*, *eskarlata*, *esmeralda*, *kaki*, *purpura* eta *zeru urdin*.

Arautu gabeko idazkeradun formak, azkenik, zertxobait gehiago erabiltzen dira testu ez-itzulien azpicorpusean itzulienean baino, baina aldea ez da bereziki nabarmena. *Beltx*,

*berdaxka, gorriska, gorrixta* eta *gorrizta*, adibidez, gehiagotan erabiltzen dira testu ez-itzulietan itzulpenetan baino; baina, *beltzixka, fuxia* eta *urdinska* gehiago erabiltzen dira testu itzulietan.

Ez dugu ahaztu behar, azkenik, 9 azpieremu semantiko hauetatik 6tan azpieremua osatzen duten termino guztien agerraldien baturak handiagoak direla testu itzulien azpicorpusean ez-itzulienean baino. Hau da, multzoetan bildu ditugun termino hauek guztiak gehiagotan erabiltzen dira oro har euskal itzultzaileen testuetan euskal idazleenetan baino. Gogoan izan behar dugu ez ditugula *beltz, berde, gorri, hori* eta beste oinarrizko kolore-izenen agerraldi kopuruak ezagutzen, eta beraz ezin dugula jakin nola banatzen diren idazleen eta itzultzaileen hautuak oinarrizko termino horien eta azpieremu semantikoetan bildu ditugun ñabarduradun beste terminoen artean. Baina eztaba daezina da ñabardurak aditzera ematen dituzten terminoak oro har gehiagotan iristen direla euskal irakurleen begietara testu itzulien bitartez ez-itzulien bitartez baino.

#### **4.1.2.2. [izena + kolore] egituradun kolore-izenak**

Bigarren multzo honetan, gorago aurkeztu dugun bezala, [izena + kolore] egiturari jarraituz sortzen diren kolore-izenak aztertu ditugu: *abrikot kolore, adreilu kolore, adar kolore...* Guztira, 184 terminok osatzen dute zerrenda. Oinarrizko kolore-izenekin egin bezala, terminoetako bakoitzaren agerraldi kopuruak zenbatu eta konparatuko ditugu bi azpicorpusetan, eta baita termino horietako bakoitza zenbat liburutan erabili den ere.

Agerraldi kopuruak eta liburu kopuruak zenbatuta, honako galdera hauei erantzungo diegu:

- Lehenik eta behin, aztertuko dugu zerrendatu ditugun 184 [izena + kolore] egituretatik zenbat erabiltzen diren azpicorpus batean eta zenbat bestean, edo, bestela esanda, zenbat diren azpicorpus batean eta bestean 0 agerraldi dituztenak.
- Bigarrenik, termino bakoitzaren agerraldi kopuruak konparatuko ditugu.



- Lehenik, termino guztien agerraldi guztien baturak kalkulatu, eta bi azpicorpusetan konparatuko ditugu. Gauza bera egingo dugu kolore horiek aipatzen dituzten liburu kopuruaren baturekin.
- Ondoren, agerraldi kopuruaren arabera multzokatuko ditugu kolore-izenak: 1.000 agerralditik behera dituztenak, 100 agerralditik behera dituztenak, 50etik beherakoak eta 30etik beherakoak. Eta tarte edo multzo horietako agerraldien baturak konparatuko ditugu bi azpicorpusetan. Horrela, kolore-izen ohikoen edo erabilienean (hots, gure corpusean agerraldi gehien dituztenak) eta ezohikoen edo gutxien erabilitakoen artean (agerraldi kopuru txikiak dituztenak) joera aldaketarik ba ote den ikusi ahal izango dugu.
- Azkenik, kalkulatu dugu zenbat terminotan den agerraldi kopurua handiagoa azpicorpus batean bestean baino, eta alderantziz. Hau da, testu ez-itzulien azpicorpusetan testu itzulienean baino agerraldi gehiago dituzten kolore-izenak zein eta zenbat diren kalkulatu dugu, eta alderantziz.
- Azpicorpus batean bestean baino gehiago erabiltzen diren terminoak zein diren identifikatuta, bi azpicorpusen artean alde nabarmenena duten kasuetan jarriko dugu arreta, eta termino horien nolakotasunari erreparatu diogu, errepikatzen den patroirik ba ote den argitzeko.

Koloreei buruzko atal honen hasieran azaldu bezala, gure corpusean ageri diren [izena + *kolore*] binomio guztiak erauzi eta ondoren eskuzko garbiketa eginda osatu dugu koloreak izendatzeko moduen bigarren multzo handi hau. Bada, garbiketa egin ondoren geratu zaizkigun 184 formatatik 89 bi azpicorpusetan erabiltzen dira. Testu ez-itzulietan guztira 120 forma erabiltzen dira, eta itzulietan 153. Hau da, testu ez-itzulietan ez eta itzulpenetan bai erabiltzen diren formak 64 dira, eta testu itzulietan ez eta ez-itzulietan bai erabiltzen diren formak 31 dira.

Azter dezagun orain zein eta nolakoak diren azpicorpus batean eta bestean erabiltzen ez diren kolore-izenak. 4.4 taulan, testu ez-itzulien azpicorpusetan ez eta itzulienean bai erabiltzen diren 64 formak jaso ditugu. Terminook zerrendatzeaz gain, testu itzulien

azpicorpusean zenbat aldiz erabiltzen diren jaso dugu, eta baita zenbat liburutan erabili diren ere, interesgarria iruditzen baitzaigu jakitea koloreak izendatzeko moduok liburu zehatz eta bakar bateko erabilerak diren ala hedatuagoak dauden.

**4.4. taula. Soilik testu itzulietan ageri diren [izena + kolore] egituradun kolore-izenen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren.**

	Testu itzuliak	
	Agerraldiak	Liburuak
<b>burdina kolore</b>	10	9
<b>mertxika kolore</b>	10	6
<b>adreilu kolore</b>	9	8
<b>kedar kolore</b>	7	7
<b>ilar kolore</b>	7	5
<b>lima kolore</b>	5	5
<b>amaranto kolore</b>	5	3
<b>arbeltx kolore</b>	4	4
<b>izpiliku kolore</b>	4	4
<b>koral kolore</b>	4	4
<b>opalo kolore</b>	4	4
<b>platino kolore</b>	4	4
<b>sufre kolore</b>	4	4
<b>zafiro kolore</b>	4	4

<b>eztainu kolore</b>	4	2
<b>indigo kolore</b>	4	2
<b>primula kolore</b>	4	1
<b>alberjina kolore</b>	3	3
<b>kanario kolore</b>	3	3
<b>ostra kolore</b>	3	3
<b>tinta kolore</b>	3	3
<b>ortzi kolore</b>	3	1
<b>agata kolore</b>	2	2
<b>arto kolore</b>	2	2
<b>behazun kolore</b>	2	2
<b>confetti kolore</b>	2	2
<b>izotz kolore</b>	2	2
<b>jade kolore</b>	2	2
<b>kuia kolore</b>	2	2
<b>marmol kolore</b>	2	2
<b>mingrana kolore</b>	2	2
<b>sulfuro kolore</b>	2	2
<b>uger kolore</b>	2	2
<b>gar kolore</b>	2	1
<b>kanabera kolore</b>	2	1

<b>kardantxilo kolore</b>	2	1
<b>plomu kolore</b>	2	1
<b>adar kolore</b>	1	1
<b>anhilina kolore</b>	1	1
<b>argizagi kolore</b>	1	1
<b>banana kolore</b>	1	1
<b>batata kolore</b>	1	1
<b>berina kolore</b>	1	1
<b>ezko kolore</b>	1	1
<b>fruta kolore</b>	1	1
<b>habano kolore</b>	1	1
<b>hiazinto kolore</b>	1	1
<b>ilunabar kolore</b>	1	1
<b>kakalardo kolore</b>	1	1
<b>kakao kolore</b>	1	1
<b>kaleidoskopio kolore</b>	1	1
<b>klarion kolore</b>	1	1
<b>kloro kolore</b>	1	1
<b>kornalina kolore</b>	1	1
<b>kromo kolore</b>	1	1
<b>lizun kolore</b>	1	1

<b>marmelada kolore</b>	1	1
<b>mate kolore</b>	1	1
<b>melokotoi kolore</b>	1	1
<b>neoi kolore</b>	1	1
<b>oskol kolore</b>	1	1
<b>saltxitxa kolore</b>	1	1
<b>topazio kolore</b>	1	1
<b>txingar kolore</b>	1	1

Ikusten denez, testu ez-itzulietan inoiz erabiltzen ez diren terminoetako askok agerraldi bakarra dute testu itzulien azpicorpusean. Hau da, egile zehatz batek liburu zehatz baterako behin asmatutako kolore-izenak dira. Taulan jaso ditugun 64 formatatik 33, hain zuzen, liburu bakar batean baino ez dira ageri testu itzulien azpicorpusean. Kontuan izan behar dugu literatur lanek osatutako corpus bat aztertzen ari garela, eta beraz espero izatekoa da euskal eta erdal egileen erabilera idiosinkratikoak topatzea. Baina, gainontzeko 31 kolore-izenak liburu batean baino gehiagotan erabili dira, eta haietako batzuk nahikotxotan gainera: *adreilu kolore*, *burdina kolore*, *ilar kolore*, *izpiliku kolore*, *kedar kolore*, *korral kolore*, *lima kolore*, *mertxika kolore*, *opalo kolore*, *platino kolore*, *sufre kolore* eta *zafiro kolore* gutxienez lau liburu ezberdinetan ageri dira. Ohargarria da haietako askok naturan topa ditzakegun elementuak hartzen dituztela oinarri (elementu kimikoak eta mineralak, eta lore, landare eta fruituak, nagusiki) eta aski ezagunak direla gehienak mundu osoan, baita euskaldunen artean ere. Horrekin zera esan nahi dugu: termino horiek itzulpenetan euskal idazleen testuetan baino presentzia handiagoa izatea ezin dela esplikatu esanez gure artean existitzen ez diren edo ezezagunak diren elementuak direla. Exotismo handirik gabeko zerrenda bat da, bestela esanda.

Itzulpenetan ez eta testu ez-itzulietan bai erabiltzen diren [izena + *kolore*] egiturak, esan bezala, 31 dira. 4.5. taulan egitura horiek, haien agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren jaso dugu:

**4.5. taula. Soilik testu ez-itzulietan ageri diren [izena + *kolore*] egituradun kolore-izenen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren.**

	Testu ez-itzuliak	
	Agerraldiak	Liburuak
<b>ba(i)nila/banilla kolore</b>	12	5
<b>marihuana kolore</b>	9	1
<b>harri kolore</b>	8	6
<b>teila kolore</b>	6	6
<b>musker kolore</b>	6	5
<b>krabelin kolore</b>	6	2
<b>egur kolore</b>	4	4
<b>borgoina kolore</b>	2	2
<b>erregaliz kolore</b>	2	2
<b>infernu kolore</b>	2	2
<b>kiwi kolore</b>	2	2
<b>marengo kolore</b>	2	2
<b>fluor kolore</b>	2	1
<b>sugus kolore</b>	2	1

<b>ahuakate kolore</b>	1	1
<b>arrats kolore</b>	1	1
<b>diamante kolore</b>	1	1
<b>auri kolore</b>	1	1
<b>ezpain kolore</b>	1	1
<b>gatz kolore</b>	1	1
<b>goma kolore</b>	1	1
<b>hilotz kolore</b>	1	1
<b>hurritz kolore</b>	1	1
<b>iztupa kolore</b>	1	1
<b>lapis lazuli kolore</b>	1	1
<b>lili kolore</b>	1	1
<b>lore-zelai kolore</b>	1	1
<b>oxido kolore</b>	1	1
<b>plastiko kolore</b>	1	1
<b>txatar kolore</b>	1	1
<b>whisky kolore</b>	1	1

Testu ez-itzulietan bakarrik erabiltzen diren terminoak gutxiago izateaz gain (31 dira euskal idazleek bakarrik erabiltzen dituzten formak), horietatik 20k agerraldi bakarra dute testu ez-itzulien azpicorpusean. Hau da, 11 egitura dira testu ez-itzuli batean baino gehiagotan erabiltzen direnak, eta horietatik kopuru esanguratsuetan erabiltzen direnak 5 dira: *bainila/banilla kolore, egur kolore, harri kolore, musker kolore eta teila kolore.*

Badirudi, beraz, [izena + *kolore*] egitura honen bitartez sortzen diren kolore-izenetan aberatsagoak direla testu itzuliak. Ez soilik egile bakar bati une zehatz batean burura dakioken asmakizunei dagokienez (halako 33 aurkitu ditugu itzulpenetan, eta 20 jatorriz euskaraz idatzitakoetan); egile baten baino gehiagoren luman erabiltzen diren formak ere ugariagoak dira itzulpenetan testu ez-itzulietan baino. Esan liteke, beraz, erdaretan euskaraz baino ohikoagoak edo hedatuagoak diren zenbait kolore-izen itzulpenen bitartez iristen ari direla euskarazko testuetara.

Azpicorpus bakoitzean [izena + *kolore*] egituretako zein erabiltzen diren aztertuta, ikus dezagun orain zenbat aldiz erabiltzen diren egiturek. Guztizkoei erreparatuta, testu ez-itzulien azpicorpusean erabiltzen diren 120 egiturak 1.017 aldiz erabiltzen dira guztira 756 liburutan, eta itzulpenen azpicorpusean erabiltzen diren 153 egiturak 2.089,62 aldiz 1.702,4 liburutan. 4.6. taulan guztizkoei buruzko informazioa jaso dugu: azpicorpus bakoitzean [izena + *kolore*] egituretako zenbat erabiltzen diren, egitura horien agerraldien guztizkoak eta erabiltzen diren liburuen guztizkoak, baita datu mota bakoitzerako bi azpicorpusen arteko erlazioa ere.

**4.6. taula. [izena + *kolore*] egituren agerraldien eta liburuen guztizkoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, eta haien arteko proportzioa.**

	Testu ez-itzuliak	Testu itzuliak	Erlazioa (testu itzuliak / testu ez-itzuliak)
<b>Termino kopurua</b>	120	153	1,27
<b>Agerraldiak guztira</b>	1017	2089,62	2,05
<b>Liburuak guztira</b>	756	1702,4	2,25



Ikusten denez, itzulpenetan mota honetako kolore-izendapen gehiago erabiltzeaz gain, formok proportzionalki aldi gehiagotan eta liburu are gehiagotan erabiltzen dira.

Aurretik oinarritzko kolore-izenekin egin dugun bezala, orain ere [izena + *kolore*] egiturak zenbat eta ezohikoagoak edo gutxiago erabiliak izan joera aldaketarik gertatzen ote den aztertuko dugu. Horretarako, beraz, agerraldi kopuru handienak progresiboki bazter utzi, eta gainontzekoak multzokatuta haien agerraldien guztizkoak kalkulatu ditugu: 1.000 agerralditik beherakoak multzo batean (identifikatu ditugun [izena + *kolore*] egitura guztiak sartzen dira multzo honetan, denek baitituzte 1.000 agerralditik behera), 100 agerralditik beherakoak beste batean, 50etik beherakoak beste batean, eta, azkenik, 30etik beherakoak beste batean. 4.7. taulan jaso ditugu datuok, ehunekotan adierazita.

**4.7. taula. [izena + *kolore*] egituren agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoak agerraldi kopuruaren arabera sailkatuta.**

	<b>1.000 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>100 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>50 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>30 agerralditik beherako terminoak</b>
<b>Testu ez-itzuliak</b>	% 32,74	% 35,87	% 36,39	% 35,55
<b>Testu itzuliak</b>	% 67,26	% 64,13	% 63,61	% 64,45

Ikusten denez, bi azpicorpusen arteko aldea zertxobait txikitu egiten da agerraldi gutxiagoko formak aintzat hartu ahala. Hau da, forma guztiak kontuan hartzen ditugunean (1.000 agerralditik gorakoak) testu itzulien eta ez-itzulien arteko aldea handiagoa da agerraldi gutxi dituzten formak soilik kontuan hartzen ditugunean baino. Agerraldi gutxiko formetan eta ondorioz ezohikotzat (edo egileen apetatzat) jo daitezkeen horietan bi azpicorpusen arteko aldea zertxobait txikiagoa da. Baina itzulpenetako erabilera nabarmen handiagoa da, nolana ere, multzo guztietan.

Azkenik, aztertzen badugu 184 [izena + *kolore*] formatatik zenbatetan den agerraldi kopurua handiagoa testu ez-itzulien azpicorpusean testu itzulienean baino eta alderantziz, ikusiko dugu 55 kasutan gehiago direla agerraldiak testu ez-itzulietan itzulietan baino, eta gainontzeko 129etan gehiago direla agerraldiak itzulpenetan testu ez-itzulietan baino. Berrito ere berretsita geratzen da, beraz, testu itzulietan forma horien artetik gehiago erabiltzeaz gain, gehiagotan erabiltzen direla.

Ikus dezagun, bukatzeko, nolakoak diren azpicorpus batean bestean baino nabarmen gehiago erabiltzen diren formak. 4.8. taulan testu ez-itzulien azpicorpusean agerraldi nabarmen gehiago dituzten formak jaso ditugu, eta 4.9. taulan itzulpenen azpicorpusean agerraldi nabarmen gehiago dituztenak. Aldearen nabarmentasuna zedarritzeko, bi irizpide hauei jarraitu diegu: bi azpicorpusetako bateko agerraldiak agerraldi guztien % 60tik gorakoak izatea, batetik, eta dena delako formak 5 agerraldi izatea gutxienez bi azpicorpusetako batean. Agerraldiok zenbat liburutan banatzen diren ere jaso dugu, luma bakar edo gutxi batzuen erabilera ala, aitzitik, hainbat egilerena den jakiteko. Hona hemen, bada, 4.8. taulan jasota, testu ez-itzulietan nabarmen gehiago erabiltzen diren formak:

**4.8. taula. Testu ez-itzulietan nabarmen gehiago erabiltzen diren [izena + *kolore*] egituren agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan.**

	Testu ez-itzuliak			Testu itzuliak			Agerraldiak guztira
	Agerrald.	%	Libur.	Agerrald.	%	Libur.	
<b>almendra kolore</b>	8	% 87,24	5	1,17	% 12,76	1 <sup>8</sup>	9,17
<b>aluminio kolore</b>	6	% 63,09	4	3,51	% 36,91	3	9,51
<b>bainil(l)a kolore</b>	12	% 100	5	0	% 0	0	12

8 Liburuei buruzko datuak faktore zuzentzailea aplikatu gabe jaso ditugu taula honetan. Izan ere, datu hori taula honetan jasotzeko helburua ez da liburu kopuruak bi azpicorpusen artean konparatzea, ezpada agerraldi kopuruak zenbat idazleri dagozkien jakitea.

<b>goroldio kolore</b>	6	% 83,68	5	1,17	% 16,32	1	7,17
<b>harri kolore</b>	8	% 100	6	0	% 0	0	8
<b>izokin kolore</b>	30	% 64,68	15	16,38	% 35,32	14	46,38
<b>kafesne kolore</b>	10	% 68,12	10	4,68	% 31,88	3	14,68
<b>kobalto kolore</b>	5	% 81,04	5	1,17	% 18,96	1	6,17
<b>krabelin kolore</b>	6	% 100	2	0	% 0	0	6
<b>lokatz kolore</b>	5	% 81,04	4	1,17	% 18,96	1	6,17
<b>marihuana kolore</b>	9	% 100	1	0	% 0	0	9
<b>musker kolore</b>	6	% 100	5	0	% 0	0	6
<b>olio kolore</b>	8	% 87,24	2	1,17	% 12,76	1	9,17
<b>teila kolore</b>	6	% 100	6	0	% 0	0	6
<b>ur kolore</b>	5	% 68,12	5	2,34	% 31,88	2	7,34

Ikusten denez, naturako elementuak dira denak: lore, landare eta fruituak (*almendra, bainila, goroldio, krabelin*), lur eta harriak (*harri, lokatz, teila*), animaliak (*izokin, musker*) eta elementu kimikoak (*aluminio, kobalto*) nagusiki. Horrez gain, euskal paisaian eta oro har iruditeria kolektiboan ohikoak direla esan genezake. Agerraldien banaketari dagokionez, taulan jaso ditugun forma gehien-gehienak uniformeki hedatuta daude idazle ezberdinen liburuen artean. Bi salbuespen daude: *marihuana kolore* formaren agerraldi guztiak Ugaitz Agirreren *Tximeletak bizkarrean* (2018) nobelako pertsonaia baten begiak deskribatzeko erabili dira, eta *olio kolore* formaren 8 agerraldietatik 7 Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* (2003) nobelako pertsonaia baten begiak deskribatzeko.

Ikus dezagun orain, 4.9. taulan, zein eta nolakoak diren itzulpenetan nabarmen gehiago erabiltzen diren kolore-izenak.

**4.9. taula. Testu itzulietan nabarmen gehiago erabiltzen diren [izena + kolore] egituren agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan.**

	Testu ez-itzuliak			Testu itzuliak			Agerrald. guztira
	Agerrald.	%	Libur.	Agerrald.	%	Libur.	
<b>adreilu kolore</b>	0	% 0	0	10,53	% 100	8	10,53
<b>altzairu kolore</b>	4	% 36,30	3	7,02	% 63,70	5	11,02
<b>amaranto kolore</b>	0	% 0	0	5,85	% 100	3	5,85
<b>arbel kolore</b>	1	% 12,47	1	7,02	% 87,53	5	8,02
<b>argizari kolore</b>	3	% 26,81	3	8,19	% 73,19	7	11,19
<b>artile kolore</b>	1	% 12,47	1	7,02	% 87,53	3	8,02
<b>azafrai/n kolore</b>	3	% 18,90	3	12,87	% 81,10	10	15,87
<b>berun kolore</b>	2	% 10,23	2	17,55	% 89,77	13	19,55
<b>boli kolore</b>	1	% 4,53	1	21,06	% 95,47	14	22,06
<b>brontze kolore</b>	3	% 20,41	2	11,7	% 79,59	9	14,7
<b>burdina kolore</b>	0	% 0	0	11,7	% 100	9	11,7
<b>errauts kolore</b>	15	% 21,08	12	56,16	% 78,92	36	71,16
<b>errubi kolore</b>	1	% 7,87	1	11,7	% 92,13	8	12,7

<b>esne kolore</b>	14	% 35,23	12	25,74	% 64,77	20	39,74
<b>gaztain(a) kolore</b>	91	% 31,14	69	201,24	% 68,86	98	292,24
<b>gerezi kolore</b>	9	% 25,06	6	26,91	% 74,94	19	35,91
<b>harea kolore</b>	4	% 22,17	4	14,04	% 77,83	7	18,04
<b>hauts kolore</b>	10	% 25,48	7	29,25	% 74,52	14	39,25
<b>ikatz kolore</b>	10	% 23,39	7	32,76	% 76,61	7	42,76
<b>kafe kolore</b>	14	% 37,43	12	23,4	% 62,57	12	37,4
<b>karamelu kolore</b>	5	% 26,26	4	14,04	% 73,74	9	19,04
<b>ke kolore</b>	1	% 14,60	1	5,85	% 85,40	5	6,85
<b>kedar kolore</b>	0	% 0	0	8,19	% 100	7	8,19
<b>kobre kolore</b>	12	% 22,66	10	40,95	% 77,34	21	52,95
<b>krema kolore</b>	49	% 37,77	33	80,73	% 62,23	47	129,73
<b>lima kolore</b>	0	0%	0	5,85	% 100	5	5,85
<b>limoi kolore</b>	2	% 22,17	2	7,02	% 77,83	4	9,02
<b>mertxika kolore</b>	0	% 0	0	11,7	% 100	6	11,7
<b>metal kolore</b>	3	% 20,41	3	11,7	% 79,59	4	14,7
<b>odol kolore</b>	22	% 32,53	17	45,63	% 67,47	35	67,63
<b>perla kolore</b>	4	% 16,74	3	19,89	% 83,26	14	23,89

<b>su kolore</b>	2	% 8,25	2	22,23	% 91,75	16	24,23
<b>tabako kolore</b>	2	% 19,63	2	8,19	% 80,37	6	10,19
<b>txokolate kolore</b>	6	% 28,29	6	15,21	% 71,71	10	21,21
<b>urre kolore</b>	229	% 28,54	144	573,3	% 71,46	147	802,3
<b>zeru kolore</b>	12	% 29,94	11	28,08	% 70,06	20	40,08
<b>ziape kolore</b>	1	% 12,47	1	7,02	% 87,53	4	8,02
<b>zilar kolore</b>	74	% 26,89	60	201,24	% 73,11	69	275,24

Ohargarria den lehen gauza da testu itzulietan ez-itzulietan baino nabarmen gehiago erabiltzen diren formak ugariagoak direla alderantziz baino. Testu ez-itzulietan nabarmen gehiago erabiltzen diren formak 15 dira; itzulpenetan nabarmen gehiago erabiltzen diren formak, aldiz, 38. Kolore-izen hauen nolakotasunari erreparatzen badiogu, ordea, ez dugu ezberdintasun handirik ikusten. Testu ez-itzulietan nabarmentzen diren formak bezalaxe, itzulpenetan nabarmentzen diren formak ere naturari lotutakoak dira, eta erabilera arrunt samarrekoak. Testu itzuliek beste hizkuntza eta kultura batzuetako munduak ekartzen dizkiguten neurrian, pentsa genezake euskal hiztunaren egunerokoan ohikoak ez diren elementuak topatuko genituela zerrenda honetan, baina ez da hala. Itzulpenetan nabarmenki gehiago erabiltzen diren formak elementu kimikoak (*altzairu, berun, brontze, burdina, ikatz, kobre, metal, urre, zilar*), lore, landare eta fruituak (*amaranto, azafrai, gaztaina, gerezi, lima, limoi, mertxika*), jakiak (*esne, kafe, karamelu, krema, txokolate, ziape*), lur eta harriak (*adreilu, arbel, harea, hauts*), eta harribitxiak eta bestelako apaingarriak (*boli, errubi, perla*) dira nagusiki. Agerraldi hauek guztiak, bestalde, liburu askotan banatuta ageri dira. Testu ez-itzulien azpicorpusean ez bezala, ez da ikusten egile zehatz baten erabilera idiosinkratikorik. Itzulpenetan nabarmentzen diren formak, beraz, erabilera unibertsal edo orokortu samarrak direla esan daiteke, askotariko jatorrietakoak direnez gero.

Laburbildu dezagun, bada, [izena + *kolore*] egituradun kolore-adierazpideen inguruan lortu dugun informazioa. Ikusi dugunaren arabera, itzulpenetan oro har gehiago jotzen da mota honetako egituretara testu ez-itzulietan baino. Alde batetik, halako egitura gehiago erauzi ditugu testu itzulien azpicorpusetik ez-itzulienetik baino. Bestetik, egitura ugariago horiek gehiagotan erabiltzen dira oro har itzulpenetan; agerraldi gehiago dituzte, alegia. Eta agerraldi horiek liburu gehiagotan barreiatuta ikusten dira testu itzulietan. Testu ez-itzulietan, hain zuzen ere, idazle zehatzen erabilera pertsonalen ondorio izaten dira itzulpenetan baino maizago.

### 4.1.2.3. Kolore-konbinazioak

Azkenik, hirugarren multzo honetan, bi kolore-izenen elkarketak aztertu eta konparatuko ditugu. Gorago azaldu dugun bezala, lehen multzoko 120 kolore-izenetako bakoitza gure corpusean beste 119etako zeinen ondoan ageri den bilatu dugu. Lehen bilaketan lortu ditugun 430 emaitzak eskuz garbitu ondoren —«Zer duk gauza berde hori?» (Cano 2015) bezalakoak kentzeko, adibidez—, 323 bikoteko zerrenda bat geratu zaigu. Bikote bakoitzaren agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren kalkulatu, eta honako galdera hauei erantzungo diegu:

- Lehenik eta behin, aztertuko dugu zerrendatu ditugun 323 kolore-konbinazioetatik zenbat erabiltzen diren azpicorpus batean eta zenbat bestean, edo bestela esanda, zenbat diren azpicorpus batean eta bestean 0 agerraldi dutenak.
- Bigarrenik, kolore-konbinazio bakoitzaren agerraldi kopuruak konparatuko ditugu.
  - Lehenik, konbinazio guztien agerraldi guztien baturak kalkulatu, eta bi azpicorpusetan konparatuko ditugu. Gauza bera egingo dugu kolore horiek aipatzen dituzten liburu kopuruaren baturekin.
  - Ondoren, agerraldi kopuruaren arabera multzokatuko ditugu kolore-izenak: 1.000 agerralditik behera dituztenak, 100 agerralditik behera dituztenak, 50etik

beherakoak eta 30etik beherakoak. Eta tarte edo multzo horietako agerraldien baturak konparatuko ditugu bi azpicorpusetan, halako moduz non kolore-konbinazio erabilienean eta gutxien erabiltzen direnen artean alderik baden egiaztatu ahal izango dugun.

- Bestalde, agerraldi kopurua azpicorpus batean bestean baino handiagoa duten terminoak zenbat diren kalkulatuko dugu. Hau da, testu ez-itzulien azpicorpusean testu itzulienean baino agerraldi gehiago dituzten kolore-konbinazioak zein eta zenbat diren kalkulatuko dugu, eta alderantziz.
- Azkenik, behin azpicorpus batean bestean baino gehiago erabiltzen diren terminoak zerrendatuta, bi azpicorpusen artean alde nabarmenena duten kasuei erreparatu diegu; hala, bada, termino horien nolakotasuna aztertuko dugu, patroi errepikaturen bat hauteman nahian.

Hasteko, beraz, ikus dezagun bi azpicorpusetatik erauzi ditugun kolore-konbinazio guztien artean zenbat dagozkien testu ez-itzulien azpicorpusari eta zenbat testu itzulienari. Gure corpusean aurkitu ditugun 323 kolore-konbinazioetatik 127 ez dira behin ere erabiltzen testu ez-itzulietan eta bai itzulietan; kontrara, testu ez-itzulietan erabiltzen diren 92 konbinazio ez dira erabiltzen itzulpenetan. Kolore-konbinazioen aniztasunari dagokionez, beraz, halakoak erabiltzeko joera handiagoa ikusten dugu testu itzulietan ez-itzulietan baino: testu itzulietan 231 kolore-konbinazio ezberdin erabiltzen dira guztira, eta testu ez-itzulietan 196.

Ikus dezagun orain zein diren azpicorpus batean eta bestean behin ere erabiltzen ez diren terminoak. 4.10. taulan, testu ez-itzulien azpicorpusean behin ere erabiltzen ez diren terminoak jaso ditugu. Agerraldi kopuruez gain, liburu kopuruak ere jaso ditugu, itzulpenetan erabiltzen direnean egile bakar baten lumatik ala gehiagorenetik iristen zaizkigun konprobatzeko.



**4.10. taula. Soilik testu itzulietan ageri diren kolore-konbinazioen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren.**

	Testu itzuliak	
	Agerraldiak	Liburuak
gris marroi	9	5
gris berdexka	7	7
gorri zuri	6	6
arre ubel	4	3
hori marroi	4	3
berde zuri	3	3
gris arrosa	3	3
marroi horixka	3	3
urdin zilarkara	3	3
urdin zurixka	3	3
arre nabar	3	2
gris nabar	3	2
marroi urrekara	3	2
hori berdats	3	1
more ubel	3	1
arrosa grisaxka	2	2
arrosa zuri	2	2
berde gorritzta	2	2
berde urrekara	2	2
bioleta purpura	2	2
gorri marroixka	2	2
gris berdekara	2	2
gris zilarkara	2	2
hori arrosa	2	2
hori gorrixka	2	2
hori purpura	2	2

marroi arrosakara	2	2
marroi grisaxka	2	2
purpura gorri	2	2
arre belzkara	2	1
arre berde	2	1
arrosa beix	2	1
arrosa gris	2	1
gorri marroi	2	1
ubel beltzaran	2	1
anbar more	1	1
arre gorrixka	1	1
arre gorrizta	1	1
arre horail	1	1
arre horixka	1	1
arre xurixka	1	1
arrosa beilegi	1	1
arrosa beltz	1	1
arrosa berdekara	1	1
arrosa bioleta	1	1
arrosa marroi	1	1
arrosa marroikara	1	1
arrosa purpura	1	1
arrosa urdin	1	1
arrosa zurixka	1	1
beilegi beltz	1	1
beltz arrexka	1	1
beltz berdotz	1	1
beltz grisaxka	1	1
beltz more	1	1
beltz ubel	1	1
beltz urreztatu	1	1
beltzaran urrekara	1	1

berde anbar	1	1
berde gorriska	1	1
berde pikart	1	1
berde purpura	1	1
berde ubel	1	1
berde zilarkara	1	1
bioleta urdin	1	1
bioleta zuri	1	1
eskarlata gorrimin	1	1
gaztain gorrikara	1	1
gaztain gorrixka	1	1
gaztain gris	1	1
gorri laranjakara	1	1
gorri morexka	1	1
gorri purpura	1	1
gorri urrekara	1	1
gorrixka hori	1	1
gorrizta berde	1	1
gris berdeska	1	1
gris gorrizta	1	1
gris marroixka	1	1
gris pikart	1	1
hori granate	1	1
hori gris	1	1
hori grisaxka	1	1
hori urrekara	1	1
hori zurixka	1	1
hori zurizta	1	1
horiska ubel	1	1
horixka laranja	1	1
horixka marroixka	1	1
horizta gris	1	1

laranja arrosakara	1	1
laranja gorrikara	1	1
laranja horail	1	1
laranja hori	1	1
laranja marroixka	1	1
laranja urdin	1	1
marroi gorri	1	1
marroi horikara	1	1
marroi horizta	1	1
marroi urreztatu	1	1
marroi zuri	1	1
nabar pikart	1	1
okre hori	1	1
okre horixka	1	1
orlegi hori	1	1
orlegi urdin	1	1
txuri arrosa	1	1
ubel gorrikara	1	1
ubel urdin	1	1
urdin belzkara	1	1
urdin berdeska	1	1
urdin bioleta	1	1
urdin gorrimin	1	1
urdin gorriska	1	1
urdin gorrixta	1	1
urdin zuriska	1	1
urdinkara zuri	1	1
xuri hori	1	1
zilarkara beltz	1	1
zuri arre	1	1
zuri berdekara	1	1
zuri horizta	1	1

<b>zuri orlegi</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>zuri urrekara</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>zuri zilarkara</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>zurixka hori</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>zurixka horixka</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

Testu itzulietan soilik erabiltzen diren 127 konbinazioetako 100 erabilera oso pertsonaltzat jo daitezke: liburu bakar batean baino ez dira erabiltzen. Gainontzeko 27 konbinazioen artean, 17 bi liburutan erabiltzen dira, eta 10 hiru liburu edo gehiagotan. Hau da, egile bakar baten erabilera ez diren konbinazioak testu itzulietan soilik erabiltzen diren konbinazio guztien % 21,26 dira.

Testu ez-itzulietan soilik ageri diren konbinazioak gutxiago dira, esan bezala: 92. Haien banaketa 4.11. taulan jaso dugu.

**4.11. taula. Soilik testu ez-itzulietan ageri diren kolore-konbinazioen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan ageri diren.**

	<b>Testu ez-itzuliak</b>	
	<b>Agerraldiak</b>	<b>Liburuak</b>
<b>urdin arre</b>	<b>6</b>	<b>3</b>
<b>urdin laranja</b>	<b>4</b>	<b>4</b>
<b>urdin ubel</b>	<b>4</b>	<b>4</b>
<b>xuri beltz</b>	<b>4</b>	<b>2</b>
<b>berde more</b>	<b>3</b>	<b>3</b>
<b>berde urdinkara</b>	<b>3</b>	<b>3</b>
<b>xuri urdin</b>	<b>3</b>	<b>3</b>
<b>zuri horail</b>	<b>3</b>	<b>3</b>
<b>hori gorriska</b>	<b>3</b>	<b>2</b>
<b>arre gorri</b>	<b>2</b>	<b>2</b>

<b>beltx gorri</b>	<b>2</b>	<b>2</b>
<b>beltz zuri</b>	<b>2</b>	<b>2</b>
<b>gorri karmin</b>	<b>2</b>	<b>2</b>
<b>gris arre</b>	<b>2</b>	<b>2</b>
<b>gris azul</b>	<b>2</b>	<b>2</b>
<b>gris horail</b>	<b>2</b>	<b>2</b>
<b>xuri beltz</b>	<b>2</b>	<b>2</b>
<b>arre berdexka</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
<b>berde blu</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
<b>blu gris</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
<b>gorri baltzaran</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
<b>arre grisaxka</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>arrosa horail</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>arrosa horixka</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>arrosa ubel</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>azul gris</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>beltz arre</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>beltz fuchsia</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>beltz gorrusta</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>beltz orlegi</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>beltz txuri</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>beltz xuri</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>berde beltzaran</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>berde gorrixka</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>berde laranja</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>berde zurixka</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>berdexka horixka</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>blu arrosa</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>gaztain gorritzta</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>gorri granate</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>gorri horikara</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>gorri kaoba</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

gorri laru	1	1
gorri magenta	1	1
granate more	1	1
gris berdaxka	1	1
gris berdotz	1	1
gris txuri	1	1
gris ubel	1	1
gris zuriska	1	1
hori arre	1	1
hori beilegi	1	1
hori beix	1	1
hori beltz	1	1
hori gorrail	1	1
hori nabar	1	1
hori orlegi	1	1
horixka hori	1	1
kaoba gorrixka	1	1
marroi kaoba	1	1
marroi laranja	1	1
marroi okre	1	1
more gorri	1	1
more gorritzta	1	1
more horail	1	1
more urdin	1	1
nabar arre	1	1
pintto beltz	1	1
purpura gorrimin	1	1
purpura more	1	1
ubel gaztain	1	1
ubel gorri	1	1
ubel zuri	1	1
urdin anil	1	1

<b>urdin arrosa</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin berdaxka</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin berdetsu</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin esmeralda</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin laru</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin marroi</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin morexka</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin orlegi</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin purpura</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin urrez tatu</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>urdin zilarrez tatu</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>xuri beltzaran</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>xuri urdinkara</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>zuri gorrikara</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>zuri gorrizta</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>zuri horikara</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>zuri pinto</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>zuri ubel</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

Testu ez-itzulietan soilik erabiltzen diren 92 konbinazioetatik 75 egile bakar bati zor zaizkio. Bi liburutan ageri direnak 10 dira, eta hiru liburutan edo gehiagotan ageri direnak 7. Hortaz, egile bakar baten erabilera pertsonala ez direnak testu itzulietan soilik ageri diren konbinazio guztien % 18,48 dira.

Ikusten denez, beraz, testu itzulien azpicorpusean kolore-konbinazio gehiago erabiltzen dira testu ez-itzulietan baino, eta konbinazio horiek zertxobait hedatuagoak daude luma ezberdinen artean. Testu ez-itzulietan aniztasun gutxiago ikusten dugu kolore-konbinazioei dagokienez, eta gainera konbinazio horiek idazle bakanen erabilera pertsonalak dira proportzio handiagoan itzulpenetan baino.

Gure corpusean aurkitu ditugun kolore-konbinazioen kopurua handia bada ere, haietako gehienek oso agerraldi gutxi dituzte corpusean. 323 konbinazioetatik 24 soilik



erabiltzen dira 10 aldiz edo gehiagotan bi azpicorpusetako batean. Honako hauek, hain zuzen: *berde beltz, berde gris, gorri beltz, gorri berde, gorri hori, gorri urdin, gris berde, gris marroi, gris urdin, hori berde, hori gorri, txuri beltz, txuri gorri, txuri urdin, urdin beltz, urdin berde, urdin gris, xuri gorri, zuri arrosa, zuri beltz, zuri berde, zuri gorri, zuri gris, zuri urdin*.

Agerraldi kopuru guztizkoei erreparatzen badiogu, ikusiko dugu testu ez-itzulien azpicorpusean erabiltzen diren 196 kolore-konbinazioek 1333 agerraldi batzen dituztela guztira, 838 liburutan. Itzulpenen azpicorpusean konbinazio gehiago aurkitu baditugu ere (231 kolore-konbinazio guztira) agerraldi gutxiago dituzte guztira, baina liburu gehiagotan ageri dira: 1006,2 aldiz erabili dira guztira 1078,4 liburutan<sup>9</sup>. 4.12 taulan, kolore-konbinazioen agerraldien eta liburuen guztizkoak bildu ditugu.

**4.12. taula. Kolore-konbinazioen agerraldien eta liburuen guztizkoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, eta haien arteko proportzioa.**

	Testu ez-itzuliak	Testu itzuliak	Erlazioa (testu itzuliak / testu ez-itzuliak)
<b>Termino kopurua</b>	196	231	1,18
<b>Agerraldiak guztira</b>	1333	1006,2	0,75
<b>Liburuak guztira</b>	838	1078,4	1,29

Datuek erakusten digutenez, testu itzulietan termino gehiago erabiltzen dira eta liburu gehiagotan sakabanatuta ageri dira, baina agerraldi kopurua handiagoa da testu ez-itzulietan.

<sup>9</sup> Itxuraz kontraesankorra dirudien datu horrek badu azalpenik. Faktore zuzentzailea aplikatu aurretik, kolore-konbinazioek testu itzulietan guztira dituzten agerraldiak 860 dira, eta 674 liburutan jaso dira. Faktore zuzentzailea 1,17 da agerraldietarako (bi azpicorpusetako hitz kopuru guztizkoen arteko erlazioa), eta 1,6 liburueterako (bi azpicorpusetako liburu kopuru guztizkoen arteko erlazioa). Horrek esplikatzen du datu itxuraz ezinezkoa. Nolanahi ere, testu itzulietako agerraldi kopuruaren eta testu ez-itzulietakoaren arteko erlazioa da guri interesatzen zaiguna, eta gauza bera liburu kopuruei dagokienez.

Lehen itxura batean, beraz, balirudike ezen testu ez-itzulietan konbinazio mota horietatik gutxiago erabiltzen badira ere erabiltzen direnak nabarmen gehiago erabiltzen direla itzulpenetan baino; konbinazio bakoitzaren datuei erreparatuz gero, ordea, testu ez-itzulietako agerraldietako kopuru handi bat konbinazio zehatz bati dagokiola: *zuri beltz* konbinazioak 493 agerraldi ditu testu ez-itzulietan; guztizko 1333 agerraldietatik % 36,98 konbinazio bakar horri dagokio, beraz. *Zuri beltz* terminoari dagozkion agerraldiak kenduta (493 testu ez-itzulietan eta 166,14 testu itzulietan), guztizko agerraldi kopuruak parekatuta geratzen dira bi azpicorpusetan: 840 testu ez-itzulietarako eta 840,06 testu itzulietarako. Laburbilduz, halako kolore-konbinazioen aniztasunari dagokionez testu itzuliak oparagoak dira eta haien erabilera uniformekiago hedatuta dago luma ezberdinen artean. Testu ez-itzuliak zertxobait pobregoa dira kolore-adierazmoldeak sortzeko baliabide honen ahalmenari dagokionez, eta azpicorpus horretako agerraldien parte handi bat konbinazio zehatz batzuetan biltzen da.

Ondorio horiek berretsita geratzen dira kolore-konbinazioen agerraldiak maiztasunaren arabera tartetean aztertzen baditugu. Gorago beste bi multzoetan egin bezala, oraingo honetan ere agerraldi kopuru handieneko terminoak bazter utziko ditugu arian-arian, termino erabilienean eta ezohikoen artean alderik ba ote den ikusteko. 4.13. taulan, bi azpicorpusetako agerraldien guztizkoak jaso ditugu, erabilera-tartetean sailkatuta eta ehunekotan.

**4.13. taula. Kolore-konbinazioen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoak agerraldi kopuruaren arabera tartetean sailkatuta.**

	<b>1.000 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>100 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>50 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>30 agerralditik beherako terminoak</b>
<b>Testu ez-itzuliak</b>	% 56,99	% 48,68	% 40,83	% 40,41
<b>Testu itzuliak</b>	% 43,01	% 51,32	% 59,17	% 59,59

Agerraldi gehien dituzten terminoak barne hartzen dituen tartean, hots, 1.000 agerraldira arteko terminoak aintzat hartzen ditugunean, agerraldi kopurua handiagoa da testu ez-itzulietan itzulietan baino. Baina agerraldi gehien dituzten terminoak bazter utzi ahala, testu itzulien azpicorpusa gailentzen da progresiboki. Hain zuzen ere, ez da kasualitatea agerraldi gehien dituzten konbinazioen artean bi euskal futbol talderen kolore-konbinazioak agertzea: *zuri-gorri* (102 agerraldi testu ez-itzulietan eta 62,01 itzulietan), *txuri-gorri* (70 agerraldi ez-itzulietan eta 1,17 itzulietan), *txuri-urdin* (68 agerraldi ez-itzulietan eta 7,02 itzulietan) eta *zuri-urdin* (55 agerraldi ez-itzulietan eta 30,42 itzulietan). Konbinazio horiek analisitik desagertzen diren momentuan, testu itzulien azpicorpuseko agerraldien gutzizkoak gailentzen dira. Eta hain zuzen ere, agerraldi kopuruei ez ezik liburu kopuruen gutzizkoei erreparatzen badiegu, testu itzulietako datuak hasieratik nagusitzen direla ikusiko dugu. *Zuri-gorri* eta *txuri-urdin* futbolistikoaren parte handi bat euskal idazleen testu gutxi batzuetan kontzentraturik ageri da, eta horregatik da nabarmen handiagoa bi azpicorpusen arteko aldea liburu kopuruari dagokionean agerraldi kopuruari dagokionean baino. 4.14. taulan, kolore-konbinazioak zenbat liburutan ageri diren jaso dugu, ehunekotan eta erabileraren araberrako tartetan sailkatuta.

**4.14. taula. Kolore-konbinazioak zenbat liburutan ageri diren testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, ehunekotan eta terminoak agerraldi kopuruaren araberrako tartetan sailkatuta.**

	<b>1.000 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>100 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>50 agerralditik beherako terminoak</b>	<b>30 agerralditik beherako terminoak</b>
<b>Testu ez-itzuliak</b>	% 43,73	% 37,23	% 34,15	% 33,33
<b>Testu itzuliak</b>	% 56,27	% 62,77	% 65,85	% 66,67

Azkenik, 323 kolore-konbinazioetatik 122 dira testu ez-itzulietan itzulietan baino gehiagotan erabiltzen direnak, eta kontrara, 201 dira itzulpenetan testu ez-itzulietan baino gehiagotan agertzen diren terminoak. Itzulpenetan konbinazio gehiago eta gehiagotan erabiltzen direla berretsita geratzen da beste behin. Badira, hala ere, konbinazio zehatz batzuk zeinetan bi azpicorpusen arteko aldea besteetan baino nabarmenagoa den. Testu ez-itzulien azpicorpusen erabilera nabarmen handiagoa ageri dute *gorri beltz*, *txuri gorri*, *txuri urdin*, *xuri gorri* eta *zuri beltz* terminoek. Arestian aipatu bezala, futbolari lotutakoak dira haietako batzuk. Eta aurreko multzoetan ikusi dugun bezala, idazkera estandarretik desbideratzen diren formak dira bostetik hiru: *txuri gorri*, *txuri urdin* eta *xuri gorri*. Testu itzulietan ez-itzulietan baino nabarmen gehiago erabiltzen diren kolore-konbinazioak, berriz, hiru dira: *gris berde*, *gris marroi* eta *gris urdin*. Hirurak *gris* terminoaren gainean eraikiak direla aparte utzita, ez dugu haien artean ezaugarri komun eta esanguratsurik topatu.

Laburbilduz, kolore-konbinazioen multzoan aniztasun handiagoa ikusten da itzulpenetan: testu itzulietan konbinazio ezberdin gehiago aurkitu ditugu testu ez-itzulietan baino. Agerraldi kopuruen guztizkoek eskaintzen dizkiguten datuen arabera termino mota hauek testu ez-itzulietan oro har gehiagotan erabiltzen direla balirudike ere, testu ez-itzulietako agerraldien gailentasuna termino zehatz batzuei zor zaie. Termino zehatz horiek kenduta, testu itzulietan kolore-konbinazioak askotarikoagoak ez ezik gehiagotan erabiliak direla ere ikusten da. Eta terminook liburu kopuruan duten banaketa hedatuagoa edo orokortuagoa da testu itzulietan ez-itzulietan baino. Kolore-konbinazioak, beraz, gehiago dira, gehiagotan erabiltzen dira eta liburu gehiagotan sakabanatuta ageri dira testu itzulietan ez-itzulietan baino.

### **4.1.3. Laburbilduz**

Atal honetan koloreen eremu semantikoa baliatu dugu testu itzulien eta ez-itzulien artean aniztasun lexikalari eta ñabardurarako joerari dagokienez alderik baden ikusteko. Horretarako, hiru multzo erabili ditugu: oinarrizko kolore-izenak, [izena + *kolore*] egituraren

bitartez sortutako kolore-izendapenak, eta oinarrizko bi kolore-izen elkartzuz sortzen diren konbinazioak. Bada, aztertu ditugun adierazle ia guztiek testu itzulietan lexiko-aniztasun handiagoa dagoela erakutsi dute: kolore-izendapen gehiago topatu ditugu testu itzulietan ez-itzulietan baino, bai [izena + *kolore*] egituren multzoan, bai kolore-konbinazioenean, eta termino kopuruak parekoak dira oinarrizko kolore-izenetan; termino horien guztien agerraldi kopuru guztizkoak handiagoak dira oro har testu itzulietan; testu itzulietan soilik erabiltzen diren terminoak gehiago dira testu ez-itzulietan soilik erabiltzen direnak baino; eta testu itzulietan ez-itzulietan baino maizago erabiltzen diren terminoak gehiago dira alderantziz baino.

Termino horien guztien banaketa, bestalde, homogeenagoa da testu itzulietan ez-itzulietan baino. Hau da, testu ez-itzulietan termino erabilienean pisu handiagoa hartzen dute agerraldi kopuruari dagokionez termino ezohikoagoek baino. Bestela esanda, testu ez-itzulietan termino gutxiago erabiltzen dira itzulpenetan baino, eta gainera erabiltzen diren terminoen artean agerraldiak termino gutxiago batzuetan kontzentratzen dira. Itzulpenetan, aldiz, erabilera gutxieneko eta gehieneko terminoen arteko aldea ez da hain markatua; oreka handiagoxea ikusten da kolore-izendapenen erabileren artean, beraz. Eta terminoek liburuetan duten banaketari dagokionez ere, banaketa orekatu eta orokortuagoa nabari da itzulpenetan: gutxi erabiltzen diren terminoak luma gehiagotan banatuta ageri dira testu itzulietan ez-itzulietan baino.

Ñabardura kromatikoak biltzen dituzten azpierreu semantikoaren azterketak erakutsi digu, bestalde, ñabardurak jasotzen dituzten terminoak gehiago iristen direla irakurleen begietara testu itzulien bitartez testu ez-itzulien bitartez baino. [Izena + *kolore*] egiturak itzulpenetan ugariagoak izatea ere modu berean interpreta liteke: egitura hori ñabardura kromatikoak adierazteko baliabidea den heinean, gehiagotan jotzen da hura erabiltzera itzulpenetan testu ez-itzulietan baino. Itzulpenetan *-ska*, *-xka*, *-kara* eta ñabardurak adierazteko bestelako atzizki bidez sortutako terminoak itzulpenetan ugariagoak izateak ere ñabardurarako joera hori berresten du.

Lexiko-sorkuntzari dagokionez, sormen handiagoa nabari da testu itzulietan. Hala erakusten dute ingurunekeko elementu baten izena baliatuz sortzen diren kolore-izendapenen

datuek, ugariagoak baitira itzulpenetan. Gorago aurreratu dugun bezala, ondorio hau erraz esplika daiteke itzulpenen atzean diren sorburu-testuen jatorri geografiko, kultural eta denborazko ugariagoei esker. Itzulpenak, beraz, lexiko berrirako sarbide garrantzitsua dira koloreen eremu semantikoari dagokionez.

Bestalde, kolore-izen berrienen pisu handiagoa nabari da testu itzulietan. Izan ere, maileguen edo kalkoen bidez iritsitako terminoak itzulpenetan ugariagoak direlako zantzuak aurkitu ditugu. Balirudike sorburu-testuek euskarazko espektroan denbora gutxi daramaten terminoak erabiltzera bultzatzen dituztela itzultzaileak, eta idazleak, aldiz, halakoak erabiltzeko zuhurrago ageri direla edo, besterik gabe, gutxiagotan bururatzen zaiela halakoetara jotzea.

Azkenik, euskalkietakotzat jotzen diren terminoak testu ez-itzulietan nabarmen ugariagoak eta erabiliagoak direla ikusi dugu, baita idazkera estandarrekin bat ez datozen aldaerak ere (hiztegietan ez erabiltzeko gomendioarekin jasotzen direnak zein hiztegietan jaso ere egiten ez direnak). Badira zantzuak pentsatzeko, beraz, euskal itzultzaileek arauari lotuago jokatzen dutela oro har euskal idazleek baino.

## 4.2. Denbora-adberbioak

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, ohartzen gara koloreena eremu semantiko oso berezia dela, karga kultural handikoa, eta arlo horretan ondorioztatuko joerak, esanguratsuak izanik ere, tentuz orokortzekoak direla testu mota guztietara. Koloreak izendatzeko moduari dagokionez euskarara itzultitako testuen eta euskal idazleek sortutako testuen arteko aldeak aise samar esplikatuz litezke testu batzuen eta besteen sorburu-hizkuntzari, sortze-datari, testuinguru kulturalari eta korrante literarioari erreparatuta, besteak beste. Gorago aipatu dugun bezala, ez da beharbada oso orekatua konparatzea, adibidez, XIX. mendeko naturalismoko eta errealismoko hainbat nobela biltzen dituen testu itzulien azpicorpusa XXI. mende hasieran idatzitako euskal narratibarekin.

Hori dela eta, eremu semantiko *neutroago* edo kulturalki ez hain markatu bat aztertzea pentsatu dugu, koloreen eremu semantikoan identifikatu ditugun joerak testatzeko. Bigarren saialdi honetarako, bada, denbora adierazteko adberbioak aztertzea erabaki dugu. Lehenik eta behin, osagai kopuru nahiko handia biltzeko aukera emango digun eremu bat da. Bestetik, beren eduki semantiko abstraktuarengatik —koloreak baino abstraktuagoa, uler bedi— eta beren funtzionalitate zirkunstantzialagatik, kultur testuingurutik askeagoak direlakoan gaude. Beste modu batean esanda, iruditzen zaigu testu batean *bermi*loj, *kaki* edo *arrosa txikle* hitzak gehiago edo gutxiago erabiltzea lotuago dagoela testu hori sortu den garaia, kulturari, korronteari edo gustu literarioari, *noizean behin*, *luzaro gabe* edo *maizenik* hitzak erabiltzea baino. Bestetik, salbuespenen bat gorabehera, erdara gehienetan ordain zuzenak dituzten hitz eta esamoldeak dira, eta, hortaz, itzulpenen sorburu-hizkuntzek eragindako interferentzia gutxi aurkitzea aurreikusten dugu<sup>10</sup>. Horrez gain, sinonimo multzo zabalak osatzeko modua eskainiko digun eremua da. Azkenik, euskalkietako aldaera asko testatzeko aukera emango digula aurreikusten dugu.

### 4.2.1. Multzoaren osaera

Corpusean bilaketak errazte aldera, hiztegietan adberbio gisa lexikalizaturik jasotzen diren formak baino ez ditugu erabili (*etzi*, *noiznahi*, *lantzean-lantzean*, *ordu txikitan*, *aurrekoan*...), eta bazter utzi ditugu, beraz, postposizio sintagmen bitartez sor litezkeen ezin konta ahala formak (*aurreko egunean*, *aurreko arratsaldean*, *aurreko bileran*, *arratsalde hartan*, *azken orduan*...). Gure hautagaien zerrenda osatzeko, beraz, lehenik eta behin euskararen bi gramatikatar jo dugu: Euskaltzaindiaren EGLU I (1991) eta EHUko Euskara Institutuaren Sareko Euskal Gramatika (d.g.)<sup>11</sup>. Bi testu horietan lortu ditugun terminoak lau hiztegitan kontsultatu ditugu, sinonimo bila; zehazki, Adorez (Bostak bat Kultur Elkarte d.g.), Elhuyar (Elhuyar Fundazioa d.g.), Euskaltzaindiaren Hiztegia (Euskaltzaindia d.g.) eta UZEIren

---

10 Bada salbuespenen bat. *Etzidamu* eta *etzikaramu* terminoek, adibidez, ez dute ordain zuzenik, ezpada perifrastikoa, inguruko erdara nagusietan ('el día siguiente a pasado mañana', 'in three days time', 'après après-demain'... lehenengorako, eta 'dos días después de pasado mañana', 'in four days time', 'dans quatre jours'... bigarrenerako). Beraz, pentsatzekoa da errazago agertuko zaizkigula termino horiek euskal idazleen testuetan erdaratik itzulitakoetan baino.

11 Terminoen bilaketa hau Euskaltzaindiak bere *Euskararen Gramatika* argitaratu baino lehenago egin zen.



Sinonimoen Hiztegian (UZEI d.g.). 400etik gorako denbora-adberbioren zerrenda bat lortu dugu horrela. Hurrengo pausoa adberbio horien erabilera-datuak erauztea izan da. Terminotako batzuk hasieratik bazter utzi ditugu, polisemikoak izanik eta kopuru handiak espero genituenez guri interesatzen zaigun erabilerarekin zein datozen bat eta zein ez ebatzea nekeza izango zela aurreikusita. Honako hauek, hain zuzen: *agudo, anitzetan, ardura, artean, arin, askotan, atzera, atzoko, aurrena, aurreneko, aurrerago, aurretik, azkar, batzuetan, behin betiko, betiko, biharko, egun, etziko, gaurko, gehienetan, gero, geroko, gerorako, gutxitan, laster, lehen, lehen-lehena, lehenago, lehenengo, mantso, orduan, ordutik, ostera, sekulako, zenbaitetan*. Ikusten denez, batzuk denbora zein espazioa adierazteko balio duten adberbioak dira (*artean, aurretik, aurrerago...*); beste batzuk adberbio zein izenlagunak izan daitezke (*atzoko, betiko, biharko, etziko, gaurko...*); beste batzuk postposizio-sintagma handiagoen parte izan litezke (*anitzetan, askotan, batzuetan, gehienetan...*); eta beste batzuk, azkenik, polisemikoak dira (*ardura, arin, egun, goiz, ostera...*).

Behin gure lehen zerrendako osagaien erabilera-datuak lortuta, beste zenbait termino ere bazter utzi behar izan ditugu, aurrez susmatu gabeko polisemiak edo bestelako esanahiak topatu baititugu haietan. Hona hemen bigarren bueltan gure zerrendatik kendu ditugun terminoak eta horretarako arrazoiak:

- *aurrez*: batzuetan espazioa adierazten du («begiak altxatu eta aurrez pertsona bat ikusi zuen», Irigoien 2009, 25), eta beste askotan *aurrez aurre* eta *aurrez aurreko* esamoldeen parte da.
- *behin*: esamolde gehiegitan ageri da eta zailegia egiten da eskuz garbitzea (*noizik behin, behin batean, behin betiko...*).
- *berriz*: batzuetan denbora-adberbioa da; beste askotan, aurkaritzako lokailua.
- *gaur*: forma konposatu askotan ageri da (*gaur den egunean, gaur egun, gaur egunean...*).
- *geroz*: askotariko erabilerak ageri dira (*orduz geroz, geroz eta ...-ago, 1716az geroz, harrez geroz...*).

- *hain sarri*: emaitza gehienak ez datoz bat hiztegieta jasotzen den *hain sarri=berehala* (zub.) adierarekin («ordurako ez zituzten hain sarri aipatzen», Montoia 2002, 184). Eta kasu bakanen batean, zaila da ebaztea zein den esanahia: «hain sarri ez irabaztea ez da arazo larria gorabeherak izaten dituenarentzat» (Echenoz 2011, 1) esaldian, adibidez, zaila da jakitea *berehala ez irabaztea* ala *hain maiz ez irabaztea* adierazi nahi izan duen itzultzaileak.
- *ja*: askotariko adierak ditu («ja-ja-ja»; «ja-ta akabatu behar genitizkek», Muñoz 2007, 208; «ja, imajina dezaket», Gorrotxategi 2015, 5...).

Osagaien garbiketa eginda, 391 denbora-adberbioko zerrenda geratu zaigu. Hona hemen:

1. aida batean	100. bienbitartean	199. iaz	295. orain hurrena
2. alde zurretik	101. biga bostetan	200. inoiz edo behin	296. orain hurrengo
3. aldi batean	102. bihar	201. inoiz edo berriz	297. orain hurrengoan
4. aldi baterako	103. bihar edo etzi	202. inoiz edo beste	298. orainago
5. aldi batez	104. biharamunago	203. inoiz gutxitan	299. oraindano
6. aldi berean	105. bihardanik	204. inoizka	300. oraindainokoa
7. aldi oro	106. bihar-etzi	205. jada	301. oraindanik
8. aldi orotan	107. bitartean	206. jadaneko	302. oraindik
9. aldi oroz	108. bizkitartean	207. jadanik	303. oraindik orain
10. aldian behin	109. derrepente	208. jagoitik	304. oraindino
11. aldian sarri	110. derrepentean	209. jesus batean	305. oraindinokarren
12. aldian-aldian	111. duela gutxi	210. jesusen	306. oraindio
13. aldika	112. dagoeneko	211. kuxian	307. oraindixek
14. aldiro	113. edonoiz	212. lantzean behin	308. orainengo
15. aldiz-aldiz	114. egun batetik bestera	213. lantzean-lantzean	309. oraingo honetan
16. aldizka	115. egun eta gau	214. laster batean	310. oraingoan
17. amen batean	116. egun oroz	215. lehen baino lehen	311. oraingoz

18. antzina	117. egundaino	216. lehen buruan	312. orainik
19. ardurenean	118. egundaino bezala	217. lehenago edo beranduago	313. oraino
20. ardurenik	119. egundainokotan	218. lehenago edo geroago	314. orainokoan
21. arestian	120. egundainotik	219. lehenagotik	315. oraintsu
22. aspaldi	121. egundo	220. lehenbailehen	316. oraintxe
23. aspaldian	122. egunean-egunean	221. lehenbizi	317. orano
24. atoan	123. egunero	222. lehenbizian	318. ordu arte
25. atzorako	124. egunetik biharrera	223. lehenbizikorik	319. ordu ezkeru
26. aurki	125. egunetik egunera	224. lehenbizikoz	320. ordu oroz
27. aurregun	126. egunez egun	225. lehenbizitik	321. ordu txiki
28. aurreko batean	127. egungo egunean	226. lehendabizi	322. orduantsu
29. aurrekoan	128. egunik egun	227. lehendanik	323. orduantxe
30. aurrenean	129. engoitik	228. lehendik	324. ordudanik
31. aurrenekoz	130. eten barik	229. lehenengo eta behin	325. orduero
32. aurrenengo	131. etengabe	230. lehenengotan	326. orduetan eta orduetan
33. aurrenengoz	132. etengabeki	231. lehenengotik	327. ordukotz
34. aurrenetik	133. etzi	232. lehenengoz	328. orduraino
35. aurrenik	134. etzidamu	233. lehengo batean	329. ordurako
36. aurrerakoan	135. etzidanik	234. lehengo egun batean	330. ordurarte
37. aurrerantzean	136. etzikaramu	235. lehengo egunean	331. ordura arte
38. aurretiaz	137. etziko	236. lehengoan	332. ordurik hona
39. aurretxo hartan	138. etzilimo	237. lehenik	333. ordutik aurrera
40. aurreztik	139. etzirako	238. lehenik eta behin	334. ordutik hona
41. aurtemein	140. fite	239. lehen-lehenik	335. ordutik ordura
42. aurtan	141. frixtan	240. lehentxeago	336. orduxerarte
43. azkenean	142. garai batean		337. orduzetik
44. banpez			338. orduz gero

45. bart	143. garaiz	241. lehentxoago	339. orduz geroz
46. bapatean	144. gau berandua/an	242. luza gabe	340. orduz geroztik
47. bat-batean	145. gau betean	243. luzara	341. pitean-pitean
48. bat-batera	146. gau eta egun	244. luzaro	342. santa sekula
49. bat-batez	147. gau eta gauerdi	245. luzaro gabe	343. santa sekulan
50. behiala	148. gau mina/ean	246. luzaroan	344. sarri
51. behin batean	149. gauak gauari	247. luzaroko	345. sarri askotan
52. behin batez	150. gauaz	248. luzarora	346. sarri eta sarri
53. behin betikoz	151. gauero	249. luzarorako	347. sarrienik
54. behin edo behin	152. gauetik biharrera	250. luzarotxo	348. sarriko
55. behin edo berriz	153. gauetik goizera	251. maiz	349. sarriro
56. behin edo beste	154. gauetz	252. maiz aski	350. sarritan
57. behin edo bitan	155. gauetz gau	253. maiz asko	351. sarritxo
58. behin eta behin	156. gaulehen	254. maiz askotan	352. segidan
59. behin eta berriro	157. gaur den egunean	255. maizenean	353. segituan
60. behin eta berriz	158. gaur egun	256. maizenik	354. sekula
61. behin eta betiko	159. gaur egunean	257. maizkara	355. sekula betiko
62. behin eta birritan	160. gaurdaino	258. maiztxo	356. sekula guzti
63. behin hutsik	161. gaurdanik	259. maizxe	357. sekula santa
64. behin-behinean	162. gaur-gaurkoz	260. memento batean	358. sekula santan
65. behin-behingoan	163. gaurgero	261. memento batez	359. sekulakotz
66. behindanik behin	164. gaurgeroz	262. mementoan	360. sekulan
67. behingo batean	165. gaurgoitik	263. mementoko	361. sostean
68. behingo batez	166. gaurko egunean	264. mementoz	362. supituan
69. behingoan	167. gaurko egunez	265. momentu batean	363. supituki
70. behingoaz	168. gaurkoagatik	266. momentu batez	364. tanpez
71. behingotik behingora	169. gaurkoan	267. momentuan	365. tartean-tartean

72. behingotz	170. gaurkoz	268. momentuz	366. tarteka
73. behingoz	171. gaurretik biharrera	269. nahinoiz	367. tarteka-marteka
74. behinola	172. gaurtik aurrera	270. noiz baino noiz	368. tenorez
75. belu	173. gaurtik biharrera	271. noiz edo behin	369. tipuski
76. berandu	174. geroago	272. noiz edo noiz	370. tipustapan
77. beranduan	175. geroan	273. noiz nola	371. tipustapastean
78. berandusko	176. geroenean	274. noizbait	372. tupustean
79. beranduxko	177. geroko batean	275. noizbaiteko batean	373. txitean-pitean
80. berant	178. gerokoan	276. noizbehinka	374. une batetik bestera
81. berbertatik	179. gerokotz	277. noizean behin	375. une oro
82. berehala	180. gerora	278. noizean behinka	376. unean-unean
83. berehalako batean	181. gerotik gerora	279. noizean noiz	377. unetik unera
84. berehalakoan	182. gerotxoago	280. noizetik behin	378. unez une
85. berehalaxe	183. geroxe	281. noizetik noizera	379. urte oroz
86. berriki	184. geroxeago	282. noizgura	380. urteak eta urteak
87. berrikitan	185. geurtz	283. noizik behin	381. urtean-urtean
88. berriro	186. goizik	284. noizik behinean	382. urteetan eta urteetan
89. berriz eta berriz	187. halako batean	285. noizik behinka	383. urtero
90. beste behin	188. harrezkero	286. noizik eta behin	384. urtetik urtera
91. beste orduz	189. harrezkeroztik	287. noizik noizera	385. urtez urte
92. bestorduz	190. hemendik aitzina	288. noiznahi	386. usu
93. betan	191. hemendik aitzinat	289. noiztenka	387. usuan
94. bet-betan	192. hemendik aurrera	290. noiztik behin	388. usuenik
95. beti	193. hemendik goiti	291. orain	389. usuki
96. beti eta beti	194. herenegun	292. orain aspaldi	390. zank
97. betidanik		293. orain baino lehen	391. zankez
98. betiro		294. orain berriki	

99. bien bitartean      195. hitzetik hortzera  
 196. honezkero  
 197. horrezkero  
 198. horrezkeroztik

391 termino hauen erabilerari buruzko datuak eskuz garbitu ditugu ondoren. Kasu batzuetan, aurrez zuzenean bazter utzi ditugun adibideetan bezala, polisemiak eta bestelako arazo batzuk aurkitu ditugu, baina agerraldi kopuruak goiko kasuetan bezain altuak ez izanik eskuz garbitu ahal izan ditugu, terminoa gure zerrendatik zuzenean baztertu behar izan gabe. Ugari izan dira, adibidez, denbora-adberbioetatik bereizi behar izan ditugun izenlagunak: «Donostiara joan zen aldi baterako» (Uribe 2016, 169) / «aldi baterako kontratua onartuko duten pertsona prestuak» (Collins 2008, 404); «egon zaitezte prest etziko» (Mujika 2002, 184) / «etziko buletinean argitaratu nahi ditek» (Epaltza 2005, 34); «luzaroko ez omen da» (Kintana 2015, 3) / «egonaldiak luzaroko kontua beharko du izan» (García Viana 2019, 42).

Baina izan dira bestelakoak ere. Ez dugu hemen eskuzko garbiketa guztien berri jasoko, baina behintzat erakusgarri izan litezkeen zenbait adibide aurkeztuko ditugu (hots, denbora-adberbio izan zitezkeen arren ez diren batzuk):

- *aspaldi ez duela*: «etorri zaio gogora aspaldi ez duela burua tindatu» (Mendiguren Elizegi 2008, 119)...
- *aurrekoan*: «prentsa aurrekoan» (Irigarai 2010, 42), «kapitulu honetan eta aurrekoan» (Amunarriz 2019, 286), «gerra aurrekoan» (Lertxundi 2001, 23), «aurrez aurrekoan» (Arrieta 2012, 121)...
- *aurrenean*: «maiatzaren aurrenean» (Aranbarri 2014, 188), «leku aurrenean eta goienean» (Sarrionandia 2003, 88)...
- *bat-batez*: «pieza jakin bat batez ere» (Elorriaga 2014, 153), «izen bat batez ere» (Etxeberri 2004, 41), «haietariko bat batez ere» (Luzarraga 2005, 304)...

- *behin edo bitan*: «astean behin edo bitan» (Ladron Arana 2016, 107), «urtean behin edo bitan» (Perurena 2004, 110)...
- *lehen buruan*: «lehen kapituluak idatzi baino lehen buruan genuen» (Munarriz 2019, 1), «hara non jarri zaigun orain unibertsitatearen lehen buruan» (Shelley 2013, 87)...
- *lehenengotik*: «bigarrena lehenengotik eratortzen da» (Foucault 2003, 131)...
- *noiz nola*: «ez dut sekula jakiten nondik noiz nola hasi kontatzen» (Agirre 2015, 1)...
- *sarriko*: «bilo sarriko eskuak» (Egia 2007, 8)...
- *sekula betiko*: «Sekula Betiko Lurraldea», James Matthiew Barrieren *Peter Pan* liburuan ugari (Barrie 2004).
- *usuan*: «oinak belar usuan arrastaka» (Faye 2019, 164)...

## 4.2.2. Datuen analisia

### 4.2.2.1. Datu orokorrak

Koloreen eremu semantikoari buruzko aurreko atalean bezala, oraingo honetan ere datuei hala ikuspuntu kuantitatibotik nola kualitatibotik begiratuko diegu. Zehazki, honako alderdi hauei jarriko diegu arreta:

- Lehenik eta behin, aztertuko dugu gure zerrendako denbora-adberbioetako zenbat erabili diren azpicorpus batean eta zenbat bestean.
- Bigarrenik, termino bakoitzaren agerraldi kopuruak konparatuko ditugu.
  - Lehenik, denbora-adberbio guztien agerraldien baturak kalkulatu eta konparatuko ditugu. Gauza bera egingo dugu termino horiek aipatzen dituzten liburu kopuruen baturekin.
  - Ondoren, agerraldi kopuruaren arabera multzokatuko ditugu denbora-adberbioak (1.000 agerralditik beherakoak, 100etik behera dituztenak, 50etik beherakoak eta

30etik beherakoak), eta tarte horietako agerraldien guztizkoak aztertuko ditugu, halako moduz non termino ohikoen eta ezohikoen artean joera aldaketarik ba ote den ikusi ahal izango dugun.

- Hurrengo pausoa, azpicorpus batean bestean baino agerraldi gehiago dituzten denbora-adberbioak zein eta zenbat diren kalkulatuko dugu.
- Azpicorpus batean bestean baino gehiago erabiltzen diren terminoak antzeman eta gero, bi azpicorpusen artean alde nabarmenena duten terminoen nolakotasunari erreparatuko diogu, errepikatzen den patroirik ba ote den argitzeko.
- Alde handia ageri duten terminoetako asko forma markatuak direla ikusiko dugunez, termino horiek bazter utzita agerraldien guztizkoak zein diren aztertuko dugu.
- Hirugarrenik, sinonimoen eta parasinonimoen hamabost multzo osatuko ditugu.
  - Sinonimo multzo horietako bakoitzean, aztertuko dugu multzoa osatzen duten terminoetatik zenbat erabiltzen diren azpicorpus batean eta zenbat bestean.
  - Azkenik, multzo bakoitzaren barruan terminoetako bakoitza zenbat aldiz erabiltzen den aztertuko dugu.

Has gaitezen, bada, lortu ditugun datuak aletzen. Zerrendatu ditugun 391 denbora-adberbioetatik azpicorpus batean eta bestean zenbat erabili diren aztertuta, ikusiko dugu guztira denbora-adberbio gehiago erabili direla testu ez-itzulien azpicorpusean itzulienean baino. Zehazki, testu ez-itzulien azpicorpusean 391 terminoetatik 364 erabili dira, eta testu itzulienean 333. Edo, bestela esanda, 27 dira testu ez-itzulietan erabiltzen ez direnak, eta 58 testu itzulietan erabiltzen ez direnak.

Badira 15 termino ez ditugunak ez azpicorpus batean ez bestean aurkitu. Hau da, gramatikan eta/edo hiztegietan denbora adierazteko adberbio gisa zerrendatzen diren 15 termino ez dira behin ere erabili gure corpusak jasotzen dituen 2001 eta 2019 bitarteko



1.134 literatur lanetan. 4.15. taulan termino horiek bildu ditugu, hiztegietan jasotzen diren edo ez<sup>12</sup> eta, jasotzekotan, marka bereziren bat ezartzen zaien zehaztuta:

**4.15. taula. Bi azpicorpusetako bakar batean ere erabili ez diren denbora-adberbioak, hiztegietan jasota ageri diren eta markarik ezarri zaien adierazita.**

Denbora-adberbioa	Hiztegietan	Marka
aurrenengoz	bai	∅
aurreztik	bai	bizk.
behin hutsik	bai	naf.
behindanik behin	ez	—
bihardanik	bai	∅
etzidanik	ez	—
gau eta gauerdi	bai	∅
gaurretik biharrera	ez	—
maizxe	ez	—
noizetik behin	ez	—
orainengo	bai	∅

12 Euskaltzaindiaren Hiztegiak eta Elhuyarrez ari gara. Hiztegi horietan jasota ez izanik ere gure hautagaien zerrendan agertzeko arrazoia da kontsultatu ditugun gramatiketan edo sinonimoen hiztegiren batean jasotzen direla. Ulertzen dugu gramatikek izaera deskribatzailea dutela eta sinonimoen hiztegiek ere oro har arauarekiko malguago jokatu ohi dutela, beren helburua ahalik eta aldaera gehien proposatzea izanik. Euskaltzaindiaren Hiztegia, haren webguneko aurkezpen testuan berean baieztatzen denez, «hiztegi arauemailea da» (Euskaltzaindia n.d.), eta uste dugu lasai asko baieztatu dezakegula Euskaltzaindiarena eta Elhuyar direla oraindik orain euskara batuaren arauaren erreferente nagusiak hiztun gehienentzat. Horrela, bada, terminoren bat bi hiztegi horietan jasota agertzea arauarekiko hurbiltasunaren seinaleztat hartuko dugu, eta jasota ez agertzea, berriz, nola edo halako desbideratetzat.

<b>orduxerarte</b>	ez	—
<b>sarri eta sarri</b>	ez	—
<b>tipuski</b>	ez	—
<b>zankez</b>	bai	ipar.

15 adberbio horietatik 8 ez dira Euskaltzaindiaren ez Elhuyarren hiztegieta jasotzen: *behindanik behin, etzidanik, gaurretik biharrera, maizxe, noizetik behin, orduxerarte, sarri eta sarri, tipuski*. Horietako hirutan ez onartutako idazkera antzematen da (*etzidanik > etzitik, gaurretik > gaurtik, orduxerarte > orduxera arte*). Hiztegieta jasotzen diren gainontzeko 7en artean, hiruk euskalki marka dute: *aurreztik* (bizk.), *behin hutsik* (naf.) eta *zankez* (ipar.). Ez itzultzaileek ez idazleek erabili ez dituzten 15 hautagaien artean, beraz, 11 arautik urruntzen direla esan genezake.

Testu ez-itzulietan ez baina itzulpenetan bai erabili diren terminoak 12 dira. 4.16. taulan, testu ez-itzulietan ageri ez eta itzulpenetan ageri diren 12 denbora-adberbioak zerrendatzearekin batera, honako informazio hau ere jaso dugu: hiztegieta jasotzen diren edo ez, hiztegieta markarik ezartzen zaien, eta zer agerraldi kopuru ageri duten testu ez-itzulien azpicorpusean eta itzulpenenean.

4.16. taula. Testu itzulietan soilik ageri diren denbora-adberbioen agerraldi kopuruak, hiztegieta jasota ageri diren eta markarik ezarri zaien adierazita.

Denbora-adberbioa	Hiztegieta	Marka	Agerraldiak	
			Ez-itzuliak	Itzuliak
aurtemein	bai	∅	0	1
behin edo berriz	bai	g.er.	0	1
berbertatik	bai	heg.	0	3
frixtan	bai	ipar.	0	2
geroxe	bai	∅	0	1
inoiz edo berriz	bai	∅	0	1
inoiz edo beste	bai	∅	0	3
lehen buruan	bai	∅	0	2
luzarotxo	bai	adkor.	0	1
oraindik	ez	—	0	1
orduxetik	ez	—	0	1
zank	bai	ipar.	0	1
<b>Guztira</b>			<b>0</b>	<b>18</b>

Lehenik eta behin, ikusten da forma hauek agerraldi kopuru oso baxuak dituztela itzulpenen azpicorpusean. Euskal idazleen testuetan behin ere erabili ez diren denbora-

adberbioak ezohikoak dira oro har itzultzaileen luman ere, oso aldi bakanetan erabiltzen baitira. Esan beharra dago, nolahi ere, testu itzulien azpicorpusean behin baino gehiagotan ageri diren formak (*berbertatik, frixtan, inoiz edo beste, lehen buruan*) itzultzaile ezberdinek itzulitako liburuetan sakabanaturik daudela; forma horietako bakar bat ere ez da, izan ere, itzultzaile bakar baten erabilera idiosinkratikoa. Itzultzaileek bakarrik erabiltzen dituzten terminoen izaerari erreparatuta, ikusten dugu 12 terminoetatik hiru euskalki baten markaz seinalatuta daudela hiztegietan (*berbertatik, frixtan* eta *zank*), batek *gutxi erabilia* marka daramala (*behin edo berriz*) eta beste bi ez direla hiztegietan jasotzen (*oraindixek* eta *orduxetik*). Ez da ageri idazkera okerrarengatik edo bestelako arrazoirengatik arautik aldentzen den formarik; hiztegietan jasotzen ez diren *oraindixek* eta *orduxetik*, hain zuzen ere, forma adierazkorrak edo indartuak izateagatik ez dira jasotzen, eta ez idazkera okerrak izateagatik. Itzulpenetan bakarrik erabiltzen diren formen artean, beraz, 4-6 dira estandarretik aldentzen direnak. Nabarmentzekoa da, bestalde, forma indartu eta adierazkorren ugaritasuna multzo honetan: *berbertatik, geroxe, luzarotxo, oraindixek, orduxetik*.

Itzulpenetan ez eta testu ez-itzulietan bai erabiltzen diren formak nabarmen gehiago dira: 43. Bestela esanda, itzultzaileen testuetan behin ere ageri ez diren 58 denbora-adberbioetako 43 euskal idazleen testuetan erabili dira. Ikus dezagun zein diren. 4.17. taulan jaso dugu zein diren testu ez-itzulietan soilik ageri diren denbora-adberbioak, zenbat agerraldi dituzten, hiztegietan jasotzen diren eta markarik ezartzen ote zaien hiztegietan:

**4.17. taula. Testu ez-itzulietan soilik ageri diren denbora-adberbioen agerraldi kopuruak, hiztegietan jasota ageri diren eta markarik ezarri zaien adierazita.**

Denbora-adberbioa	Hiztegietan	Marka	Agerraldiak	
			Ez-itzuliak	Itzuliak
aldiz-aldiz	bai	∅	2	0
ardurenik	bai	∅	4	0

<b>atzorako</b>	ez	—	5	0
<b>aurregun</b>	bai	g.er.	1	0
<b>aurretxo hartan</b>	ez	—	5	0
<b>behin-behingoan</b>	bai	∅	1	0
<b>behingo batez</b>	bai	g.er.	1	0
<b>behingoaz</b>	bai	∅	4	0
<b>behingotik behingora</b>	bai	g.er.	2	0
<b>behingotz</b>	bai	ipar.	5	0
<b>berandusko</b>	ez	—	1	0
<b>biga bostetan</b>	bai	∅	9	0
<b>egundainokotan</b>	bai	ipar.	28	0
<b>egunetik biharrera</b>	bai	∅	8	0
<b>egungo egunean</b>	bai	∅	58	0
<b>etzikaramu</b>	bai	∅	4	0
<b>etzilimo</b>	bai	bizk.	3	0
<b>gauak gauari</b>	bai	ipar.	15	0
<b>gaueetik biharrera</b>	ez	—	1	0
<b>gaulehen</b>	bai	∅	1	0

<b>gaurgeroz</b>	ez	—	2	0
<b>gaurgoitik</b>	Bai	ipar.	1	0
<b>gaurtik biharrera</b>	Bai	∅	1	0
<b>gerokotz</b>	bai	ipar.	24	0
<b>geurtz</b>	bai	zah. edo jas.	4	0
<b>hemendik aitzinat</b>	bai	∅	5	0
<b>horrezkeroztik</b>	ez	—	1	0
<b>jesusean</b>	bai	∅	1	0
<b>maizenean</b>	bai	∅	18	0
<b>nahinoiz</b>	bai	bizk. g.er.	2	0
<b>noiztik behin</b>	ez	—	3	0
<b>orain berriki</b>	bai	∅	3	0
<b>orain hurrengo</b>	bai	∅	1	0
<b>orain hurrengoan</b>	bai	∅	31	0
<b>oraindikarren</b>	bai	bizk.	1	0
<b>oraindio</b>	bai	∅	4	0
<b>orainik</b>	ez	—	48	0
<b>orano</b>	bai	zub.	38	0

<b>pitean-pitean</b>	bai	lgart.	1	0
<b>sarriko</b>	bai	ipar.	8	0
<b>tipustapan</b>	bai	ipar. g.er.	6	0
<b>usuan</b>	bai	batez ere zub.	1	0
<b>usuki</b>	bai	ipar. g.er.	11	0
<b>Guztira</b>			<b>373</b>	<b>0</b>

Azter dezagun lehenik nolakoak diren euskal idazleek bakarrik erabiltzen dituzten formak, eta forma horien agerraldi kopuruei erreparatuko diegu gero. 43 formetatik 13 euskalki-markadunak dira hiztegietan, eta horietatik 10ek iparraldeko marka dute. Badira, gainera, zenbait adberbio hiztegietan markarekin jasotzen ez badira ere hizkera zehatz bateko idazleek erabili dituztenak nagusiki: *biga bostetan* erabili duten idazle gehienak ipar-ekialdekoak dira; *egunetik biharrera* forma erabili duten guztiak iparraldekoak dira bat izan ezik; *maizenean* formarekin gauza bera gertatzen da; *orain hurrengoan* forma erabili duten idazle guztiak hegoaldekoak dira, eta gehienak gipuzkeradunak. Euskalki bati lotuak diren formak, beraz, hiztegietan hala markatuta jaso zein ez, 17 dira 43tik. Bestalde, 6 adberbio *gutxi erabilia* markaz seinalatuta daude; batek *zaharkitua edo jaso* marka du eta beste batek *lagunartekoa*. Horrez gain, 8 forma ez dira hiztegietan jasotzen; horietatik gehienak beste forma hedatuago baten aldaera fonetiko-ortografikoak edo idazkera okerrak dira (*atzorako, berandusko, gaurgeroz, horrezkeroztik, noiztik behin, orainik*). Testu ez-itzulietan erabiltzen diren 43 formetatik 13 bakarrik dira ez-markatuak; gainontzeko 30ak nola edo hala bereizten dira estandarretik. Termino markatuen pisua handiagoa da proportzioan testu ez-itzulietan soilik erabiltzen diren formen artean, itzulpenetan soilik erabiltzen diren formen artean baino. Esan liteke, beraz, itultzaileen erabilera ezohiko edo salbuespenezkoetan ez dela erraza arrazoi eta joera argirik antzematea —sinonimo posibleen artean aukeraketa

apetatsua egitea ez bada—, eta idazleenetan, aldiz, euskalkietako eta arautik desbideratzen diren elementuen aldeko hautuak lasaiago egiteko joera nabari da.

Forma horietako bakoitzaren agerraldi kopuruari erreparatzen badiogu, alde handia ikusten dugu itzulpenetan soilik erabiltzen diren adberbioekin konparatuta. Oraingo honetan, agerraldi kopuru txikiak (1, 2 edo 3 agerraldi, itzulpenetan bezala) ez ezik kopuru handiak ere topatzen ditugu. 22 kasutan 4 aldiz edo gehiagotan erabili da dena delako terminoa testu ez-itzulien azpicorpusean. Eta haietako batzuk oso kopuru altuetan, gainera: *egundainokotan* 28 aldiz, *egungo egunean* 58tan, *gerokotz* 24tan, *orain hurrengoan* 31tan, *orainik* 48tan, *orano* 38tan... Kasu gutxi batzuetan, forma horietako bakoitza erabiltzen duten egile gehienak eskualde berekoak dira. Hala, bada, *maizenean* darabilten idazle gehienak ipar-ekialdekoak dira; *orain hurrengoan* darabiltenak gipuzkoarrak; eta *orano* darabiltenak ipar-ekialdekoak. Beste bi kasutan ez da joera argirik sumatzen (*egungo egunean* eta *usuki*). Eta badira, azkenik, zenbait kasu oso bereziak, non erabilera guztiak edo ia guztiak idazle bakarrarenak diren: *egundainokotan* (28 agerraldietako 26 Xipri Arbelbiderenak dira), *gauak gauari* (15 agerraldietako 13 Itxaro Bordarenak dira), *gerokotz* (25 agerraldietako 24 Piarres Troundayrenak dira), eta *orainik* (48 agerraldietako 39 Pello Salabururenak dira).

Ikusten dugunez, beraz, testu itzulietan agerraldirik izan ez eta testu ez-itzulietan agerraldiak dituzten denbora-adberbioak kontrako egoerakoak baino nabarmen gehiago izateaz gain, haietako hainbat kopuru altu samarretan erabiltzen dira. Eta kopuru altu horien atzean, askotan, egile bakar baten eskua edota hizkera zehatz bateko egileen eskua ikusten da.

Gure zerrendako denbora-adberbioetatik azpicorpus batean eta bestean zenbat erabiltzen diren aztertu dugu; ikus dezagun orain termino horiek zenbat aldiz erabiltzen diren. Lehenengo eta behin, guztizkoei erreparatuko diegu. Hona hemen denbora-adberbio guztien agerraldi guztien batura testu ez-itzulietan eta itzulietan, baita denbora-adberbio horiek guztiak jasotzen dituzten liburu guztien batura ere, 4.18. taulan:



**4.18. taula. Denbora-adberbio guztien agerraldien eta liburuen guztizkoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

	Testu ez-itzuliak	Testu itzuliak
<b>Agerraldiak</b>	315.102	307.842,21
<b>Liburuak</b>	46.131	46.577,60

Kopuruak altuagoak dira testu ez-itzulietan agerraldi kopuruari dagokionez, eta itzulpenetan, ordea, liburuei dagokienez, baina alde nabarmenik gabe. Agerraldi guztien % 50,58 testu ez-itzulien azpicorpusean jaso dira, eta % 49,42 itzulpenenean. Liburuei dagokienez, forma horiek erabili dituzten liburu guztien % 49,76 euskal idazleek idatzitakoak dira, eta % 50,24 euskarara itzultakoak. Laginaren barruan desoreka handiak daude forma batetik bestera, nolahi ere —badira 10.000 agerralditik gora dituzten denbora-adberbioak, adibidez, eta badira agerraldi bakarra dutenak ere—, eta guztizkoek ematen diguten informazioa esanguratasun gutxikoa da ondorioz. Hori dela eta, koloreen eremu semantikoarekin jokatu dugun bezala jokatu dugu hemen ere: agerraldi kopuru oso altuak dituzten zerrendako elementuak bazter utziko ditugu gradualki, barne oreka handiagoko laginetarantz hurbiltzeko.

Hasteko, bi azpicorpusetako batean 1.000 agerraldi edo gehiago dituzten formak kenduko ditugu. 59 denbora-adberbiok betetzen dute baldintza hori; honako hauek, hain zuzen:

- aldez aurretik
- aldi berean
- arestian
- aspaldi
- aspaldian
- bitartean
- dagoeneko
- egunero
- etengabe
- garai batean
- noizbait
- noizean behin
- orain
- oraindik
- oraingoan

- aurki
- aurrerantzean
- azkenean
- bat-batean
- behin eta berriro
- behin eta berriz
- behingoz
- berandu
- berehala
- berriro
- beste behin
- beti
- betidanik
- bien bitartean
- bihar
- gauez
- gaur egun
- geroago
- gerora
- halako batean
- harrezkero
- honezkero
- jada
- jadanik
- lehenbailehen
- lehenbizi
- lehenik
- luzaro
- luzaroan
- maiz
- oraingoz
- oraino
- oraintxe
- orduantxe
- ordura arte
- ordurako
- sarri
- sarritan
- segidan
- segituan
- sekula
- sekulan
- tarteka
- urtero

Ondoren, 100 eta 999 agerraldi artean dituzten formak kenduko ditugu. 107, zehazki:

- aldi batean
- aldi baterako
- aldi batez
- aldi oro
- aldi oroz
- aldian behin
- aldian-aldian
- aldika
- egun oroz
- egundaino
- egundo
- egunetik egunera
- egunez egun
- engoitik
- etzi
- fite
- lehengo egunean
- lehengoan
- lehenik eta behin
- lehentxeago
- maizenik
- mementoan
- momentu batean
- momentu batez

- aldiro
- aldizka
- antzina
- atoa
- aurreko batean
- aurrekoan
- aurrenekoz
- aurrenik
- aurretiaz
- aurten
- bart
- behiala
- behin batean
- behin edo behin
- behin edo bitan
- behingoan
- behinola
- berant
- berehalakoan
- berehalaxe
- berriki
- berrikitan
- bizkitartean
- derrepente
- derrepentean
- duela gutxi
- garaiz
- gau eta egun
- gauaz
- gauero
- gaurdaino
- gaurgero
- gaurkoan
- gaurkoz
- geroan
- geroxeago
- goizik
- harrezkeroztik
- hemendik aurrera
- herenegun
- hitzetik hortzera
- iaz
- inoiz edo behin
- lantzean behin
- laster batean
- lehen-lehenik
- lehenago edo geroago
- lehenagotik
- lehenbizikoz
- lehendabizi
- lehendik
- lehenengo eta behin
- momentuan
- momentuz
- noiz edo noiz
- noizbehinka
- noiznahi
- noiztenka
- oraindik orain
- oraindino
- oraingo honetan
- oraintsu
- ordu arte
- ordu txiki\*
- ordudanik
- ordukotz
- ordutik aurrera
- orduz geroztik
- sarri askotan
- sekula santan
- supituan
- supituki
- tanpez
- tarteka-marteka
- tupustean
- une batetik bestera
- une oro
- urtez urte

- edonoiz
- lehenengoz
- usu
- egun batetik bestera
- lehengo batean

Hurrena, 50 eta 99 agerraldi artean dituztenak kenduko ditugu. Guztira 33 dira:

- amen batean
- egungo egunean
- jagoitik
- ardurenean
- etengabeki
- lehenago edo beranduago
- bapatean
- etzidamu
- lehenengotan
- behin batez
- gau berandu
- luzarorako
- behin betikoz
- gaur egunean
- noizik behin
- behin eta betiko
- gaur-gaurkoz
- ordutik hona
- behin-behinean
- gaurko egunean
- tenorez
- berehalako batean
- gaurtik aurrera
- unean-unean
- bet-betan
- hemendik aitzina
- urte oroz
- betan
- horrezkero
- urteak eta urteak
- bihar edo etzi
- inoizka
- urtetik urtera

Eta azkenik, 30 eta 49 agerraldi artekoak kenduko ditugu. Honako 41 hauek:

- aurrerakoan
- hemendik goiti
- noizetik noizera
- behin edo beste
- inoiz gutxitan
- noizik eta behin
- behin eta birritan
- jadaneko
- orain hurrengoan
- belu
- lehen baino lehen
- oraindaino
- beranduan
- lehenbizian
- orainik
- beti eta beti
- lehenengotik
- orano
- bihar-etzi
- lehentxoago
- orduero

- egun eta gau
- egunear-egunear
- eten barik
- gau min
- gauek goizera
- gaur den egun
- gaurdanik
- luzaro gabe
- luzarora
- memento batean
- memento batez
- mementoz
- noiz edo behin
- noizean behinka
- orduraino
- ordurarte
- orduz gero
- tartean-tartean
- txitean-pitean
- unetik unera

Hala, bada, honako hauek dira geratu diren 30 agerralditik beherako formak:

- aida batean
- aldi orotan
- aldian sarri
- aldiz-aldiz
- ardurenik
- atzorako
- aurregun
- aurrenean
- aurrenengo
- aurrenengoz
- aurrenetik
- aurretxo hartan
- aurreztik
- aurtemein
- banpez
- bat-batera
- gau eta gauerdia
- gauak gauari
- gauek biharrera
- gauez gau
- gaulehen
- gaurgeroz
- gaurgoitik
- gaurko egunez
- gaurkoagatik
- gaurretik biharrera
- gaurtik biharrera
- geroenean
- geroko batean
- gerokoan
- gerokotz
- gerotik gerora
- noizgura
- noizik behinean
- noizik behinka
- noizik noizera
- noiztik behin
- orain aspaldi
- orain baino lehen
- orain berriki
- orain hurrena
- orain hurrengo
- orainago
- oraindainokoan
- oraindanik
- oraindinokarren
- oraindio
- oraindixek

- bat-batez
- behin edo berriz
- behin eta behin
- behin hutsik
- behin-behingoan
- behindanik behin
- behingo batean
- behingo batez
- behingoaz
- behingotik behingora
- behingotz
- berandusko
- beranduxko
- berbertatik
- berriz eta berriz
- beste orduz
- bestorduz
- betiro
- bienbitartean
- biga bostetan
- biharamunago
- bihardanik
- egundaino bezala
- egundainokotan
- egundainotik
- egunetik biharrera
- gerotxoago
- geroxe
- geurtz
- hemendik aitzinat
- horrezkeroztik
- inoiz edo berriz
- inoiz edo beste
- jesus batean
- jesusean
- kuxian
- lantzean-lantzean
- lehen buruan
- lehenbizikorik
- lehenbizitik
- lehendanik
- lehengo egun batean
- luza gabe
- luzara
- luzaroko
- luzarotxo
- maiz aski
- maiz asko
- maiz askotan
- maizenean
- maizkara
- maiztxo
- orainengo
- orainokoan
- ordu ezkerro
- ordu oroz
- orduantsu
- orduetan eta orduetan
- ordurik hona
- ordutik ordura
- orduxerarte
- orduxetik
- orduz geroz
- pitean-pitean
- santa sekula
- santa sekulan
- sarri eta sarri
- sarrienik
- sarriko
- sarriro
- sarritxo
- sekula betiko
- sekula guzti\*
- sekula santa
- sekulakotz
- sostean
- tipuski

- egunik egun
- etzidanik
- etzikaramu
- etziko
- etzilimo
- etzirako
- frixtan
- gau betean
- maizxe
- mementoko
- nahinoiz
- noiz baino noiz
- noiz nola
- noizbaiteko batean
- noizean noiz
- noizetik behin
- tipustapan
- tipustapastean
- unez une
- urtean-urtean
- urteetan eta urteetan
- usuan
- usuenik
- usuki
- zank
- zankez

Jarraian, tarte bakoitzerako guztizkoak jaso ditugu bi taulatan. 4.19. taulan, agerraldien guztizkoak jaso ditugu, eta azpicorpus bakoitzak zer ehuneko betetzen duen. 4.20. taulan berdin jokatu dugu, baina liburu kopuruei buruzko informazioa jasota.

**4.19. taula. Denbora-adberbioen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan, eta terminoak agerraldi kopuruaren araberako tartetean sailkatuta.**

<b>Agerraldiak</b>								
	<b>1.000 agerralditik beherakoak</b>		<b>100 agerralditik beherakoak</b>		<b>50 agerralditik beherakoak</b>		<b>30 agerralditik beherakoak</b>	
	<b>Abs.</b>	<b>%</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>
<b>Ez-itzuliak</b>	40.880	% 55,71	4.558	% 59,21	2.554	% 58,76	1.116	% 60,11
<b>Itzuliak</b>	32.502,60	% 44,29	3.140,28	% 40,79	1.792,44	% 41,24	740,61	% 39,89

**4.20. taula. Denbora-adberbioak zenbat liburutan ageri diren testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan, eta terminoen agerraldi kopuruaren arabera tartetan sailkatuta.**

Liburuak								
	1.000 agerralditik beherakoak		100 agerralditik beherakoak		50 agerralditik beherakoak		30 agerralditik beherakoak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
<b>Ez-itzuliak</b>	17.392	% 49,60	2.825	% 52,60	1.646	% 52,33	755755	% 53,51
<b>Itzuliak</b>	17.675,20	% 50,40	2.545,60	% 47,40	1.499,20	% 47,67	656	% 46,49

Datu hauetan ikusten dugunez, gure zerrendako denbora-adberbio guztien agerraldi guztien batura sistematikoki handiagoa da testu ez-itzulien azpicorpusean testu itzulienean baino. Beraz, kontua ez da bakarrik, gorago ikusi dugun bezala, denbora-adberbioetako gehiago erabiltzen direla testu ez-itzulietan; denbora-adberbio horiek, gainera, gehiagotan erabiltzen dira. Pentsa liteke, noski, itzulpenetan ez eta testu ez-itzulietan bai erabiltzen diren forma horien ondoriozkoa dela guztizko agerraldien arteko aldea. Eta bistan da datu horrek baduela eragina. Baina ez da arrazoi bakarra. Hau da, testu ez-itzulietan soilik erabiltzen diren 43 adberbioek 373 agerraldi batzen dituzte guztira (gorago 4.17. taulan jaso ditugu datu horiek), denak 100 agerralditik beherako tartean kokatu beharrekoak. Eta testu itzulietan soilik erabiltzen diren 12 adberbioek 18 agerraldi batzen dituzte guztira (gorago 4.16. taulan jasota daude datuok). Tartekako agerraldiak jasotzen dituen 4.19. taulako 100 agerralditik beherako datuei testu ez-itzulietan soilik erabiltzen diren terminoen kopuruak kenduko bagenizkie ere, diferentzia testu ez-itzulien aldekoa izango litzateke, eta gauza bera gertatuko litzateke 50etik beherako eta 30etik beherako tartetan ere. Esan bezala, 0 agerraldi dituzten terminoak itzulpenetan gehiago izateak lagundu egiten du guztizko agerraldi kopurua testu ez-itzulietan handiagoa izaten, baina ez da faktore bakarra. Bi azpicorpusetan erabiltzen diren formen agerraldien batura ere handiagoa da testu ez-itzulienean.



4.19. taulako datuetatik beste irakurketa interesgarri bat ere egin daiteke. Zenbat eta gutxiago erabiliak izan formak, orduan eta handiagoa da bi azpicorpusen arteko aldea. Hau da, adberbio ia guztiak (1.000 agerraldi baino gehiago dituztenak kenduta geratzen direnak) aintzat hartzen ditugunean, agerraldien banaketa honako hau da: ez-itzulietan % 55,71 / itzulietan % 44,29. Baina gutxiago erabiltzen diren (hots, ezohikoagoak diren) adberbiotara hurbildu ahala, bi azpicorpusen arteko aldea gradualki handitzen da, 30etik beherako agerraldien tartean honela geratzeraino: ez-itzulietan % 60,11 / itzulietan % 39,89. Denbora-adberbio hedatuenean edo ohikoenean erabileran, beraz, orekatuago ageri zaizkigu bi corpusak —nahiz eta argi geratzen den gehiagotan erabiltzen direla testu ez-itzulietan—, eta adberbio ezohiko edo salbuespenezkoen erabileran are handiagoa da aldea.

Azkenik, liburu kopuruen datuei erreparatzen badiegu (4.20. taula) ikusiko dugu joera errepikatu egiten dela: zenbat eta ezohikoagoak edo gutxiago erabiliak izan terminoak, orduan eta alde nabarmenagoz nagusitzen dira testu ez-itzulien azpicorpusen. Dena den, aldea txikiagoa da liburu kopuruetan agerraldi kopuruetan baino. Esate baterako, 1.000tik behera agerraldi dituzten adberbioen % 55,71 testu ez-itzulietan erabili dira, baina adberbio horiek ageri dituzten liburu guztien % 49,60tan biltzen dira agerraldi horiek; eta, kontrara, agerraldi guztien % 44,29 itzulpenetan gertatu dira, baina liburuen % 50,40tan jasotzen dira. Bestela esanda, testu ez-itzulietako agerraldiak gehiago dira baina luma gutxiagotan jasota ageri dira proportzioan, eta itzulpenetako agerraldiak gutxiago dira baina liburuetan hedatuago ageri dira.

Datuei ikuspuntu kuantitatibo batetik begiratzeko beste modu bat da aztertzea zenbat terminotan gertatzen den agerraldi kopuruak handiagoak izatea azpicorpus batean eta zenbat terminotan gertatzen den kontrakoa; hau da, zenbat termino erabili dituzten gehiagotan idazleek itzultzaileek baino, eta alderantziz. Hala, bada, 247 denbora-adberbio dira idazleek itzultzaileek baino gehiagotan erabili dituztenak. Itzultzaileek idazleek baino gehiagotan erabili dituzten terminoak, berriz, 129 dira. Eta 15 kasutan agerraldi kopurua berdina da bi azpicorpusetan (zero, alegia). Gehiago dira, beraz, idazleek gehiagotan erabiltzen dituzten formak kontrara baino: ia bi aldiz gehiago, hain zuzen. Datuok bat datoz aurreko irakurketekin.

Gatozen orain datuei ikuspuntu kualitatibo batetik begiratzera, eta azter ditzagun desoreka kasu nabarmenenak joera argien bila. Horretarako, lehenengo eta behin, agerraldi kopuruan alde handia ageri duten terminoak zenbat eta zein diren ikusiko dugu; zehazki, azpicorpus baten eta bestearen agerraldi kopuruen arteko erlazioa bitik gorakoa duten terminoetan jarriko dugu arreta. Jarraian, 4.21. taulan, testu ez-itzulietan duten agerraldi kopurua testu itzulietakoa baino gutxienez bi aldiz handiagoa duten denbora-adberbioak jaso ditugu. Zehazki, honako datu hauek jaso ditugu: azpicorpus bateko eta besteko agerraldi kopuruak, agerraldi horiek zenbat liburutan gertatzen diren, agerraldi kopuruen arteko erlazioa zenbatekoa den (testu ez-itzulietako agerraldi kopurua / testu itzulietako agerraldi kopurua), eta ea hiztegietan markaren bat ezartzen zaien.

**4.21. taula. Testu ez-itzulietan testu itzulietan baino gutxienez bi aldiz agerraldi gehiago dituzten denbora-adberbioen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan erabili diren.**

	Hiztegietako marka	Testu ez-itzuliak		Testu itzuliak		Erlazioa (agerrald.)
		Agerrald.	Liburuak	Agerrald. <sup>13</sup>	Liburuak	
<b>aida batean</b>		7	7	2,34	2	2,99
<b>aldi oroz</b>	ipar.	101	33	37,44	8	2,70
<b>aldian sarri</b>		9	6	1,17	1	7,69
<b>aldika</b>		309	125	135,72	62	2,28
<b>aldiz-aldiz</b>		2	1	0	0	—
<b>ardurenean</b>	ipar.	82	25	3,51	2	23,36
<b>ardurenik</b>		4	4	0	0	—
<b>aspaldian</b>		1623	469	606,06	196	2,68
<b>atoan</b>	bizk. lgart.	315	95	36,27	19	8,68

13 Itzulpenetako agerraldi kopurua faktore zuzentzailea aplikatuta (1,17) adierazi dugu, eta zifra horren arabera kalkulatu dugu halaber bi agerraldi kopuruen arteko erlazioa, orain arte bezala bolumen orekatuak konparatzea komeni dela uste baitugu. Liburu kopuruen datuak, ordea, faktore zuzentzailea aplikatu gabe adierazi ditugu, haiek taulan jasotzearen helburua ez baita bi azpicorpusen arteko konparazioa egitea, ezpada agerraldi horiek guztiak zenbat lumaren eskutik iritsi zaizkigun adieraztea. Liburu kopuruaren datua, berehala ikusiko dugun bezala, informazio-iturri nominatibo gisa erabiliko dugu.

atzorako	-	5	4	0	0	—
aurreko batean		119	84	25,74	22	4,62
aurrekoan		451	231	157,95	81	2,86
aurrenetik		6	3	2,34	2	2,56
aurretxo hartan		5	2	0	0	—
aurten		703	287	246,87	105	2,85
banpez	ipar.	28	7	8,19	3	3,42
bat-batez	g. er.	10	4	3,51	3	2,85
behin edo behin		248	101	100,62	59	2,46
behin edo beste		49	28	12,87	9	3,81
behin eta behin	ipar.	4	4	1,17	1	3,42
beingoaz		4	4	0	0	—
behingotik behingora	g. er.	2	2	0	0	—
behingotz	ipar.	5	3	0	0	—
belu	bizk	34	22	11,7	3	2,91
berant	ip. eta naf.	298	78	78,39	18	3,80
beste orduz		17	11	2,34	2	7,26
betan	ipar.	58	24	14,04	5	4,13
bienbitartean		4	1	1,17	1	3,42
biga bostetan		9	7	0	0	—
bihar edo etzi		77	66	33,93	24	2,27
bihar-etzi	bizk.	36	30	3,51	2	10,26
derrepente	heg. beh.	133	63	51,48	15	2,58
derrepentean	heg. beh.	144	88	16,38	10	8,79
edonoiz		131	73	53,82	39	2,43
egun batetik bestera		275	171	117	76	2,35
egun oroz	ipar.	103	35	31,59	9	3,26
egundaino		302	103	98,28	49	3,07
egundainokotan	ipar.	28	10	0	0	—

<b>egundainotik</b>		25	10	8,19	2	3,05
<b>egunetik biharrera</b>		8	7	0	0	—
<b>egungo egunean</b>		58	22	0	0	—
<b>eten barik</b>	bizk.	43	26	1,17	1	36,75
<b>etzidamu</b>		51	44	10,53	9	4,84
<b>etzikaramu</b>		4	3	0	0	—
<b>etzilimo</b>	bizk.	3	3	0	0	—
<b>etzirako</b>		21	20	7,02	6	2,99
<b>fite</b>	ip. eta naf.	421	105	45,63	14	9,23
<b>gauak gauari</b>	ipar.	15	10	0	0	—
<b>gauez gau</b>		28	22	10,53	6	2,66
<b>gaur egunean</b>		92	43	24,57	16	3,74
<b>gaurdanik</b>		36	27	17,55	12	2,05
<b>gaur-gaurkoz</b>	g. er.	85	47	33,93	20	2,51
<b>gaurgeroz</b>		2	2	0	0	—
<b>gaurkoagatik</b>		24	19	7,02	6	3,42
<b>gaurkoan</b>		422	144	56,16	38	7,51
<b>geroan</b>		163	93	72,54	41	2,25
<b>geroko batean</b>		10	9	2,34	2	4,27
<b>gerokotz</b>	ipar.	25	3	0	0	—
<b>gerotik gerora</b>		16	12	5,85	5	2,74
<b>geurtz</b>	zah.edo jas.	4	3	0	0	—
<b>goizik</b>		249	90	90,09	48	2,76
<b>hemendik aitzina</b>		69	42	11,7	7	5,90
<b>hemendik aitzinat</b>		5	3	0	0	—
<b>hemendik goiti</b>	ip. eta naf.	44	26	18,72	4	2,35
<b>hitzetik hortzera</b>		285	123	121,68	64	2,34
<b>horrezkero</b>		83	30	19,89	13	4,17
<b>jadaneko</b>	ipar.	44	24	12,87	5	3,42

<b>jagoitik</b>	ipar. zah.	65	23	2,34	2	27,78
<b>jesus batean</b>		6	6	2,34	1	2,56
<b>lantzean behin</b>		393	131	171,99	47	2,29
<b>lehen baino lehen</b>		31	24	2,34	2	13,25
<b>lehenbizian</b>		35	18	11,7	8	2,99
<b>lehendanik</b>	jas.	9	9	3,51	3	2,56
<b>lehenengotik</b>		38	28	8,19	6	4,64
<b>lehengo batean</b>		148	77	59,67	35	2,48
<b>lehengoan</b>		631	213	140,4	78	4,49
<b>luzara</b>	ipar.	13	11	4,68	3	2,78
<b>maizenean</b>		18	12	0	0	—
<b>maizkara</b>		8	3	1,17	1	6,84
<b>maiztxo</b>	adier.	19	10	2,34	2	8,12
<b>memento batean</b>		35	11	4,68	3	7,48
<b>memento batez</b>		42	20	7,02	4	5,98
<b>mementoan</b>		218	48	36,27	16	6,01
<b>mementoko</b>		29	15	8,19	1	3,54
<b>momentu batean</b>		198	100	70,2	37	2,82
<b>momentu batez</b>		188	85	67,86	30	2,77
<b>momentuan</b>		753	301	310,05	118	2,43
<b>momentuz</b>		513	167	203,58	75	2,52
<b>nahinoiz</b>	bizk. g. er.	2	2	0	0	—
<b>noiz nola</b>		20	9	4,68	4	4,27
<b>noizean behinka</b>		32	14	4,68	4	6,84
<b>noizik behinean</b>		3	2	1,17	1	2,56
<b>noiznahi</b>		977	216	328,77	135	2,97
<b>noiztenka</b>	ipar.	322	58	62,01	6	5,19
<b>noiztik behin</b>		3	1	0	0	—
<b>orain berriki</b>		3	2	0	0	—

<b>orain hurrengoan</b>		31	14	0	0	—
<b>oraindik</b>		26	16	11,7	9	2,22
<b>oraindino</b>	bizk.	250	58	114,66	9	2,18
<b>oraindikarren</b>	bizk.	1	1	0	0	—
<b>oraindio</b>		4	3	0	0	—
<b>orainik</b>		48	8	0	0	—
<b>oraino</b>	ipar.	3854	214	652,86	62	5,90
<b>orainokoan</b>	ipar.	24	19	1,17	1	20,51
<b>orano</b>	zub.	38	8	0	0	—
<b>ordu txiki</b>		367	217	136,89	83	2,68
<b>ordukotz</b>	ipar.	128	30	5,85	4	21,88
<b>orduz geroz</b>		13	3	4,68	2	2,78
<b>santa sekulan</b>		19	10	8,19	2	2,32
<b>sarriko</b>	ipar.	6	5	0	0	—
<b>segidan</b>		1922	446	912,6	234	2,11
<b>sekula santa</b>		10	5	3,51	2	2,85
<b>sekulakotz</b>	ipar.	24	15	5,85	2	4,10
<b>sekulan</b>		1320	134	322,92	42	4,09
<b>tanpez</b>	ipar.	150	47	69,03	15	2,17
<b>tartean-tartean</b>		41	29	5,85	5	7,01
<b>tenorez</b>		66	38	9,36	7	7,05
<b>tipustapan</b>	ipar. g. er.	6	4	0	0	—
<b>tipustapastea</b>	ipar.	7	5	1,17	1	5,98
<b>unean-unean</b>		50	37	18,72	15	2,67
<b>urte oroz</b>	ipar.	55	23	3,51	2	15,67
<b>usu</b>		715	175	154,44	40	4,63
<b>usuenik</b>		22	14	3,51	2	6,27
<b>usuki</b>	ipar.	11	6	0	0	—

Orain, 4.22. taulan, itzulpenetako agerraldi kopurua testu ez-itzulietakoa baino gutxienez bi aldiz handiagoa duten denbora-adberbioak jaso ditugu. Aurrekoan bezala, agerraldi kopuruak, liburu kopuruak eta bi azpicorpusetako agerraldien arteko erlazioa (testu itzulietako agerraldi kopurua / testu ez-itzulietako agerraldi kopurua) adierazi dugu.

**4.22. taula. Testu itzulietan testu ez-itzulietan baino gutxienez bi aldiz agerraldi gehiago dituzten denbora-adberbioen agerraldi kopuruak eta zenbat liburutan erabili diren.**

	Hiztegiko marka	Testu ez-itzuliak		Testu itzuliak		Erlazioa (agerrald.)
		Agerrald.	Liburuak	Agerrald.	Liburuak	
aurrenean		1	1	5,85	4	5,85
behin edo bitan		41	34	118,17	54	2,88
behin eta betiko	heg.	25	21	73,71	35	2,95
bebingo batean		4	3	17,55	7	4,39
beranduan		16	11	36,27	15	2,27
beranduxko	adier.	1	1	5,85	4	5,85
berbertatik	heg.	0	0	3,51	3	—
berehalaxe	adier.	325	90	896,22	122	2,76
betiro	g. er.	1	1	19,89	6	19,89
bien bitartean		510	201	1093,95	186	2,15
etengabeki		33	20	83,07	11	2,52
frixtan	ipar.	0	0	2,34	2	—
gau beranduan		31	25	78,39	46	2,53
gaur den egunean		21	9	47,97	20	2,28
inoiz edo beste		0	0	3,51	3	—
kuxian	ipar.	1	1	3,51	1	3,51
lehen buruan		0	0	2,34	2	—
lehenbizi		617	185	1547,91	191	2,51
lehenbizikoz		157	80	348,66	82	2,22

<b>lehenago egun batean</b>		2	2	4,68	4	2,34
<b>luzaro</b>		542	245	1124,37	221	2,07
<b>maiz asko</b>		6	5	29,25	9	4,88
<b>noizetik noizera</b>		16	12	36,27	13	2,27
<b>noizgura</b>	bizk.	1	1	2,34	2	2,34
<b>noizik behinka</b>		1	1	16,38	3	16,38
<b>oraindaino</b>		22	16	44,46	22	2,02
<b>ordu oroz</b>	ipar.	3	2	8,19	6	2,73
<b>orduero</b>		14	12	32,76	17	2,34
<b>orduetan eta orduetan</b>		3	3	11,7	8	3,90
<b>ordutik ordura</b>		6	6	19,89	13	3,32
<b>sekula guzti</b>	g. er.	7	7	14,04	7	2,01
<b>sostean</b>	g. er.	2	2	15,21	2	7,61

Ikusten denez, eta orain arteko datuekin bat espero izatekoa zen bezala, alde handiz agerraldi gehiago dituzten formak ugariagoak dira euskal idazleen testuetan itzultzaileenetan baino. 124 denbora-adberbiok bi aldiz agerraldi gehiago edo hortik gora dituzte testu ez-itzulietan itzulietan baino; itzulpenetan proportzio horretan gehiago diren denbora-adberbioak, aldiz, 32 dira.

Behin desoreka handienak ageri dituzten denbora-adberbioak zein diren identifikatuta, bi alderdiri jarriko diegu arreta. Batetik, denbora-adberbioen izaerari erreparatuko diogu, eta bi azpicorpusen arteko erabilera-alde handia esplikatu lezakeen tasun bereziren bat ote duten aintzat hartuko dugu. Bestetik, dena delako forma horren erabilerak zenbat lumatetik eta noren lumatik iristen zaizkigun aztertuko dugu, banaketa uniforme den edo ez egiaztatzeko. Bi informazio mota horiek gurutzatuta (terminoak bereizgarriren bat ba ote duen eta zenbat/noren eskuek erabili duten termino hori), zenbait joera orokor ondorioztatuko ditugu.

Lehenengo eta behin, aipatzekoa da testu ez-itzulietan nabarmentzen diren formen artean ugari direla hiztegiatan euskalkiren baten markaz seinalatuta daudenak. Iparraldeko marka daramate, adibidez, gure zerrendako *aldi oroz*, *ardurenean*, *banpez*, *behin eta behin*,



*behingotz, betan, egun oroz, egundainokotan, gauak gauari, gerokotz, jadaneko, jagoitik, luzara, noiztenka, oraino, orainokoan, orano (zub.), ordukotz, sarriko, sekulakotz, tanpez, tipustapan, tipustapastean, urte oroz eta usuki* formek; iparraldekoa eta nafarrerakoa *berant, fite* eta *hemendik goiti* formek; bizkaierakoa *atoan, belu, bihar-etzi, eten barik, etzilimo, nahinoiz, oraindino* eta *oraindinokarren* formek; eta hegoaldekoa *derrepente* eta *derrepentean* formek. Horietako gehienetan, espero izatekoa den bezala, dagokien euskalkidun idazleak daude erabilera gehienetan atzean. Itzulitako testuetan, ordea, halakoan agerraldi kopuruak nabarmen gutxiago dira, eta erabilera, gainera, ez dago hain estuki lotua itzultzailearen euskalkiari. Bestela esanda, testu ez-itzulietan euskalki bateko termino baten erabilera euskalki horretako idazleen eskutik iristen da nagusiki, eta itzulpenen azpicorpusean banaketa ez da hain argia: zenbait formaren kasuan nagusiki euskalkiari dagokion eskualdeko itzultzaileek erabili badute ere dena delako forma, beste kasu batzuetan askotariko jatorrietako itzultzaileek erabili dute. Ikus ditzagun adibide esanguratsuenetako batzuk:

- *Aldi oroz* terminoa (ipar.) testu ez-itzulietan erabili den 101 aldietatik 95 Itxaro Borda, Gexan Lantziri, Xipri Arbelbide, Piarres Trounaday, Angel Aintziburu/Jean Baptiste Etxarren, Piarres Aintziart, Aurelia Arkotxa, Kadet Otsibar, Pierre Mestrot, Filipe Bidart, Daniel Landart, Nora Arbelbide eta Piarres Xarriton iparraldeko idazleen testuetan erabili da, eta gainontzeko 6 agerraldiak beste eskualde batzuetako idazleen luman ageri dira: Ana Urkizu, Txema Garcia-Viana eta Koldo Izagirre. Itzulpenetan 32 aldiz erabili da, 8 liburutan. Agerraldi horietako 21 Jean Baptiste Orpustan baxenabartar itzultzailearenak dira. Gainontzeko 11ak Koldo Izagirre, Xabier Olarra, Lander Garro/Zigor Garro eta Nagore Tolosa gipuzkoar itzultzaileenak dira.
- *Ardurenean* (ipar.) formak testu ez-itzulietan dituen 82 agerraldietako 62 ipar-ekialdeko 11 idazleren liburuetan jasotzen dira: Joseph Camino, Angel Aintziburu, Angel Aintziburu/Jean Baptiste Etxarren, Piarres Trounaday, Itxaro Borda, Joanes Arrossagaray, Xipri Arbelbide, Antton Luku, Joxemiel Bidador, Michel Oronoz eta Pantzoa Irigarai. 14 agerraldi J. E. Urrutia «Capeau»ren<sup>14</sup> liburu batekoak dira. Eta

---

14 J. E. Urrutia «Capeau»k lurreta du jaiolekua, baina haren literatur lanek ekialdeko euskararen ukitu nabarmena izaten dute.

gainontzeko 6 agerraldiak Gotzon Garate, Juanra Madariaga, Kirmen Uribe eta Arrate Mardaras bizkaieradunen eskutik iritsi zaizkigu. Itzulpenen azpicorpusari dagokionez, 3 aldiz erabili da, eta hirurak Luis Berrizbeitia itzultzaile abadiñarraren lumatik ateratakoak dira.

- *Egun oroz* (ipar.) formak testu ez-itzulien azpicorpusean dituen 101 agerraldietatik 76 Xipri Arbelbide, Piarres Trounaday, Mixel Thikoipe, Menane Oxandabaratz, Itxaro Borda, Bea Salaberri, Joanes Arrossagaray, Katixa Dolhare-Zaldunbide eta Joseph Camino iparraldeko idazleen liburuetaoak dira. 7 J. E. Urrutia «Capeau»renak dira, 6 Mikel Peruarena idazle hernaniarraren *Su zelaia*k nobelakoak eta bat Joxan Oiz donostiarraren *Beñat Dardo* nobelakoa<sup>15</sup>. Gainontzeko 11 agerraldiak Miel Anjel Elustondo, Joxe Azurmendi, Jokin Urain eta Kepa Altonagarenak dira. Testu itzulietan 27 aldiz erabili da. Horietatik 19 Jean Baptiste Orpustan baxenabartarrarenak dira, eta 2 Piarres Xarriton lapurtarrarenak; gainontzeko 6ak Xabier Alegria, Oskar Arana, Koldo Izagirre, Xabier Artola, Jexuxmari Zalakain eta Gerardo Markuletarenak dira.
- *Jagoitik* (ipar. zah.) formak testu ez-itzulietan dituen 65 erabileretatik 35 Itxaro Bordarenak dira, 9 ipar-ekialdeko beste idazle batzuenak (Patziku Perurena, Joxemiel Bidador, Aurelia Arkotxa eta Piarres Aintziart), 13 Joxan Oizen *Beñat Dardo* lanekoak, eta gainontzeko 8ak Gotzon Barandiaran, Edorta Jimenez, Joxe Azurmendi eta Xabier Mendigurenenak. Itzulpenetan 2 adiz erabili da: behin Iñigo Roque portugaletetarraren eskutik eta beste behin Joxe Austin Arrieta donostiarraren eskutik.
- *Luzara* (ipar.) forma 13 aldiz erabili da testu ez-itzulien azpicorpusean. 13 agerraldi horietatik 11 iparraldeko idazleenak dira (Pantzoa Irigarai, Piarres Trounaday, Xipri Arbelbide, Michel Oronoz, Gexan Lantziri, Xabier Soubelet, Antton Luku, Daniel Landart, Itziar Madina). Beste biak Sonia Gonzalezena eta Ana Urkizarena dira. Itzulpenetan 4 aldiz erabili da: Jean Baptiste Orpustan baxenabartarrak bitan erabili

---

15 Mikel Peruarena hernaniarraren *Su zelaia*k nobela korala Ipar Euskal Herrian kokatuta dago, Lehen Mundu Gerran, eta toki eta garai hartako euskarara hurbildu nahian idatzi zuen Peruarenak, orduko *Eskualduna* egunkariko euskarak «bustita» (Susaeta 2014). Joxan Oiz donostiarraren *Beñat Dardo*, bestalde, Bernat Etxepareren biografia fikzionatu bat da, eta haren hizkerara hurbiltzeko ahalegin nabaria egiten du nobelan egileak.

du, eta beste bi agerraldiak Joxan Elozegi irundarraren eta Oskar Arana aramaioarrarenak dira.

- *Noiztenka* (ipar.) formak testu ez-itzulietan dituen 322 agerraldietatik 305 iparraldeko egileenak dira: Itxaro Borda, Emile Larre, Angel Aintziburu/Jean Baptiste Etxarren, Xipri Arbelbide, Joseph Camino, Michel Oronoz, Antton Luku, Gexan Lantziri, Katixa Dolhare-Zaldunbide, Aurelia Arkotxa, Piarres Aintziart, Menane Oxandabaratz, Pantzoa Irigarai, Piarres Trounday, Daniel Landart, Xabier Soubelet, Lucien Etxezaharreta, Pierre Mestrot, Angel Aintziburu, Nora Arbelbide, Bea Salaberri, Filipe Bidart, Mixel Thikoipe, Itziar Madina, Eneko Bidegain, Ramuntxo Etxeberri. Gainontzeko 17ak Xabier Amuriza, Joxe Azurmendi, Txillardegi, Karlos Linazasoro, Koldo Izagirre, Jose Angel Irigaray, Markos Zapiain eta Juan Gorostidirenak eta askoren artean idatzitako lan batekoak (*Adiskide maitea*) dira. Itzulpenetan 53 aldiz erabili da. Horietatik 50 Jean Baptiste Orpustan, Elena Touyarou eta Marzel Etxehandi iparraldeko itzultzaileenak dira, eta gainontzeko 3ak Xabier Amuriza eta Luis Berrizbeitiarenak.
- *Orainokoan* (ipar.) formak testu ez-itzulietan dituen 24 agerraldietatik 18 iparraldeko egileenak dira (Antton Luku, Itxaro Borda, Xipri Arbelbide, Piarres Trounday, Menane Oxandabaratz, Gexan Lantziri eta Daniel Landart); gainontzeko 6ak Bernardo Atxaga, Aitor Zuberogoitia, Koldo Izagirre, Joxe Azurmendi eta Patxi Zubizarretarenak dira. Itzulpenetan behin baino ez da ageri, Juan Garziaren eskutik.
- *Orano* (zub.) forma 38 aldiz erabili da testu ez-itzulien azpicorpusean. 38 agerraldi horietatik 36 ipar-ekialdeko idazleenak dira: Kadet Otsibar, Joxemiel Bidador, Menane

Oxandabaratz, Xipri Arbelbide eta Txomin Peillen. Beste agerraldi bat Txillardegiren *Labartzari agur* liburuan jasotzen da, eta herri kantu bateko («Hanitxen gisa parthitü nintzan») bertso-lerro bat da. Eta beste bat Joxan Oizen *Beñat Dardo* nobelan ageri da. Itzulpenetan ez du inork ere erabili.

- *Ordukotz* (ipar.) formak testu ez-itzulietan dituen 128 agerraldietatik 108 iparraldeko egileenak dira: Emile Larre, Joseph Camino, Angel Aintziburu, Piarres Trounday, Xipri Arbelbide, Mixel Thikoipe, Piarres Aintziart, Bea Salaberri, Angel Aintziburu/Jean Baptiste Etxarren, Menane Oxandabaratz, Joanes Arrossagaray, Aurelia Arkotxa eta Piarres Xarriton. Gainontzeko 20ak Patziku Perurena, Koldo Zuazo, Aitor Zuberogoitia, Mikel Taberna, Miel Anjel Elustondo eta Ramon Saizarbitoriarenak dira. Itzulpenetako 5 agerraldiak iparraldeko itzultzaileenak dira: Jean Baptiste Orpustan, Piarres Xarriton eta Marzel Etxehandi.
- *Atoan* forma (bizk.) darabilten idazleen artean, bestalde, 32 mendebaldeko euskara edo tarteko hizkera (Zuazo 2015) hitz egiten den lekuren batekoak dira<sup>16</sup>: Jon Arretxe, Gotzon Barandiaran, Xabier Amuriza, Kepa Larrea, Juanra Madariaga, Edorta Jimenez, Gotzon Hermosilla, Sonia Gonzalez, Peru Magdalena, Lutxo Egia, Jose Inazio Basterretxea, Irati Elorrieta, Miren Agur Meabe, Eneko Barberena, Patxi Iturregi, Rafa Ugalde, Koldo Zuazo, Kirmen Uribe, Kepa Altonaga, Unai Villena, Iñaki Frieria, Joseba Sarrionandia, Andoni Urzelai, Jon Sarasua, Aitor Zuberogoitia, Mikel Ayllon, Joseba Azkarraga, Asel Luzarraga, Pedro Alberdi, Joxe Belmonte, Iñaki Irasizabal, Mila Salterain. Euskal Herriko beste eskualde batzuetakoak diren idazleak, berriz, 12 dira: Iñigo Aranbarri, Fernando Morillo, Laura Mintegi, Karlos Linazasoro, Xabier Montoia,

---

16 Euskalkien banaketarako Koldo Zuazoren sailkapena (2015) hartu dugu kontuan, eta idazleak beren jaioterria aintzat hartuta banatu ditugu oro har. Jabetzen gara, noski, kasu batzuk oso bereziak eta zailak direla sailkatzen: euskalkirik gabeko jaioterria dutelako (Katixa Agirre, Joseba Lozano, Laura Mintegi, Xabier Montoia,...), jaioterria bat izanik beren bizitzaren parte handi bat beste eskualde batean eman dutelako edo bizitzako bestelako inguruabarrengatik beren jaioterrikoa ez den euskalkiren batekin harreman estua dutelako (Ekaitz Goienetxea, Mikel Hernandez Abaitua, Pello Lizarralde, Gerardo Markuleta, Laura Mintegi, Karlos del Olmo...), beren sormen-lanetan helburu literario zehatz batez jaioterrikoa ez den euskalki bat edo batzuk erabili dituztelako (Xabier Montoia, Joxan Oiz, Mikel Peruarena, J.E. Urrutia «Capeau»...). Bestalde, tarteko eskualdeetako idazleak ere zailak dira kokatzen. Uxue Alberdi elgoibartarra mendebaldeko euskalkiduntzat jo behar dugu ala erdialdekotzat? Eta Jokin Urain mendaroarra? Hemen zerrendatzen ditugun adibideak salbuespentzat hartu beharreko kasu bakanak dira, nolahi ere, eta uste dugu ezen idazleren bat sailkatzean huts egin bagenu ere kopuruak handi samarrak direla huts horrek ondorio orokorretan eragin nabarmenik izateko.

Txema Garcia-Viana, Maddi Zubeldia, Idurre Eskisabel / Lorea Agirre, Joxe Azurmendi, Juan Gorostidi, Pello Zabala eta Jon Maia. Garazi Goia segurarrak eta Goizalde Landabaso bilbotarrak lau eskutara idatzitako 1362 *km euri* liburuko bi agerraldiak sailkatu ezinik geratzen zaizkigu. Bestetik, testu itzulien azpicorpusean 19 liburutan 31 aldiz guztira erabiltzen da forma hau. Erabilera horien atzean, mendebaldeko euskalkian edo tarteko eremu batean koka genitzakeen 8 itzultzaile ditugu (Karlos del Olmo, Jon Agirre, Irati Elorrieta, Unai Elorriaga, Julen Gabiria, Ana Morales, Oskar Arana eta Uxue Alberdi), eta beste eskualde batzuetako 7 (Koldo Izagirre, Itziar Otegi, Eider Rodriguez, Lander Garro / Zigor Garro, Jexuxmari Zalakain, J.M. Olaizola «Txiliku» / Joxe Mari Berasategi, Mikel Garmendia).

- *Belu* (bizk.) formak testu ez-itzulietan dituen 34 agerraldietako 21 Koldo Zuazo, Amaia Iturbide, Iñaki Friera, Lutxo Egia, Asel Luzarraga eta Juanra Madariaga bizkaitar idazleenak dira. Beste 12 Txillardegi, Koldo Izagirre, Joxe Azurmendi, Mikel Hernandez Abaitua, Eider Rodriguez eta Joxe Austin Arrietarenak dira, eta beste bat sailkatu ezinik geratzen zaigu, Garazi Goiak eta Goizalde Landabasok lau eskutara idatzitako liburukoa baita. Itzulpenetan 10 aldiz erabili da: Josu Naberan bizkaitarrak behin erabili du, eta gainontzeko 9 agerraldiak Koldo Izagirre eta Eider Rodriguez gipuzkoarrei dagozkie.
- *Eten barik* (bizk.) formak 38 agerraldi ditu testu ez-itzulietan. Horietatik 33 mendebaldeko hizkeradun Jon Arretxe, Asel Luzarraga, Gotzon Barandiaran, Aitor Zuberogoitia, Josu Penades, Xabier Amuriza, Peru Magdalena, Unai Villena eta Sonia Gonzalez-enak dira. Gainontzeko 5ak Ignazio Aiestaran, Xabier Montoia eta Joan Mari Irigoien-enak dira. Itzulpenetan agerraldi bakarra du, eta Koldo Izagirre gipuzkoararen testu batekoa da.
- *Lantzean behin* (bizk.) formak testu ez-itzulietan dituen 393 agerraldietatik 259 mendebaldeko 27 idazleren artean banatzen dira: Asel Luzarraga, Unai Elorriaga, Joseba Sarrionandia, Sonia Gonzalez, Jon Arretxe, Josu Penades, Markos Zapiain, Kirmen Uribe, Xabier Amuriza, Aitor Zuberogoitia, Edorta Jimenez, Urtzi Urrutikoetxea, Alaine Agirre, Lutxo Egia, Mikel Ayllon, Patxi Iturregi, Koldo Zuazo,

Pedro Alberdi, Juanra Madariaga, Julian Peña, Mila Salterain, Jokin Urain, Miren Agur Meabe, Karlos Gorrindo, Rafa Ugalde, Uxue Alberdi eta Gotzon Barandiaran. Beste 128 agerraldi mendebaldekotzat jo ezin diren 41 idazleren artean banatzen dira: Harkaitz Cano, Joxemari Urteaga, Itxaso Araque, Joan Mari Irigoien, Joxemiel Bidador, Oier Santos, Xabier Montoia, Mikel Hernandez Abaitua, Txomin Peillen, Ramon Saizarbitoria, Josu Landa, Joxe Azurmendi, Koldo Izagirre, Ur Apalategi, Txema Garcia-Viana, Anjel Lertxundi, Fernando Morillo, Aritz Mutiozabal, Iñaki Arranz, Karmele Jaio, Yoseba Peña, Iban Zaldúa, Pablo Sastre, Juan Luis Zabala, Aritz Gorrotxategi, Markel Ormazabal, Xabier Mendiguren Elizegi, Mikel Antza, Xabier Gantzarain, Joseba Lozano, Garbiñe Ubeda, Katixa Agirre, Lander Garro, Migel Angel Mintegi, Iñigo Aranbarri, Oier Guillan, Joxe Manuel Odriozola, Itxaso Martin, Ruben Sanchez Bakaikoa, Iñaki Soto / Mikel Soto eta Iñaki Heras. Eta gainontzeko 4 agerraldiak, azkenik, Garazi Goiak eta Goizalde Landabasok sinatzen duten liburukoak dira. Itzulpenen azpicorpusari dagokionez, 147 aldiz erabiltzen da. Agerraldi horietako 99 mendebaldeko euskalkia hitz egiten den eremuan jaiotako itzultzaileei dagozkie: Karlos del Olmo, Itziar Laka, Luis Berrizbeitia, Unai Elorriaga, Uxue Alberdi, Iñigo Roque, Txerra Rodriguez, Alberto Martinez de la Cuadra, Iñigo Errasti, Oskar Arana, Eskarne Mujika, Irati Elorrieta, Alberto Gabikagojeaskoa, Urtzi Urrutikoetxea, Haritz Monreal, Josu Naberan, Gerardo Markuleta, Zorion Zamakola, Javi Cillero eta Zuriñe Goti. 43 agerraldi beste eremu batzuetako itzultzaileen testuetan biltzen dira: Ibon Uribarri, Koldo Izagirre, Joxe Austin Arrieta, Harkaitz Cano, Fernando Rey, Hedoi Etxarte, Patxi Ezkiaga, Jesus Mari Olaizola «Txiliku» / Joxe Mari Berasategi, Juan Mari Agirreurreta, Miel Anjel Elustondo, Anton Garikano eta Itziar Diez de Ultzurrun. Eta 5 agerraldi, azkenik, Garazi Arrula tafallarrak eta Iñigo Roque portugaletetarrak lau eskutara sinatutako itzulpen bati dagozkio.

- *Oraindino* (bizk.) formak testu ez-itzulietan dituen 242 agerraldietatik 197 mendebaldeko 17 idazleren lumatik iritsi zaizkigu: Edorta Jimenez, Xabier Amuriza, Ekaitz Goienetxea, Sonia Gonzalez, Jose Inazio Basterretxea, Rafa Ugalde, Lutxo Egia, Asel Luzarraga, Jon Arretxe, Begoña Bilbao, Miren Agur Meabe, Joseba Sarrionandia, Urtzi Urrutikoetxea, Jurgi Kintana, Mila Salterain, Joxe Belmonte eta Karlos Gorrindo.

Mendebaldekoak ez diren idazleek 41 aldiz erabili dute; honako idazle hauek, zehazki: Iñigo Aranbarri, Xabier Montoia, Josu Landa, Laura Mintegi, Aingeru Epaltza, Joseba Lozano, Pako Aristi, Pablo Sastre, Joxemiel Bidador, Eider Rodriguez, Koldo Izagirre eta Xabier Artola. Gainontzeko 4 agerraldiak askoren artean idatzitako liburu batekoak dira. Itzulpenetan, bestalde, 98 aldiz erabili da. Horietako 10 mendebaldeko itzultzaileenak dira: Karlos del Olmo, Alberto Gabikagojeaskoa eta Amaia Astobiza. Gainontzekoak Koldo Izagirreri (70 agerraldi) eta Iñaki Mendigureni (18 agerraldi) dagozkio.

Bildu ditzagun datuok taula batean, argiago ikusteko. 4.23. taulan ipar-ekialdeko marka duten terminoen agerraldien banaketa jaso dugu: zenbat agerraldi dagozkien ipar-ekialdeko idazleei eta zenbat bestelakoei testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.

**4.23. taula. Ipar-ekialdeko terminoen agerraldien banaketa idazleen eta itzultzaileen jatorriaren arabera, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

	Testu ez-itzuliak				Testu itzuliak			
	Ipar-ekialdeko idazleen agerraldiak		Bestelakoen agerraldiak		Ipar-ekialdeko itzultzaileen agerraldiak		Bestelakoen agerraldiak	
	Absol.	%	Absol.	%	Absol.	%	Absol.	%
<b>aldi oroz</b>	95	% 94,06	6	% 5,94	21	% 65,63	11	% 34,37
<b>ardurenean</b>	76	% 92,68	6	% 7,32	0	% 0	3	% 100
<b>egun oroz</b>	90	% 89,11	11	% 10,89	21	% 77,78	6	% 22,22
<b>jagoitik</b>	57	% 87,69	8	% 12,31	0	% 0	2	% 100
<b>luzara</b>	11	% 84,62	2	% 15,38	2	% 50	2	% 50
<b>noiztenka</b>	305	% 94,72	17	% 5,28	50	% 94,34	3	% 5,66
<b>orainokoan</b>	18	% 75	6	% 25	0	% 0	1	% 100
<b>orano</b>	37	% 97,37	1	% 2,63	0	% 0	0	% 0
<b>ordukotz</b>	108	% 84,38	20	% 15,62	5	% 100	0	% 0

4.24. taulan gauza bera egin dugu bizkaierako marka duten terminoekin:

**4.24. taula. Bizkaierako terminoen agerraldien banaketa idazleen eta itzultzaileen jatorriaren arabera, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

	Testu ez-itzuliak				Testu itzuliak			
	Bizkaieradun idazleen agerraldiak		Bestelakoen agerraldiak		Bizkaieradun itzultzaileen agerraldiak		Bestelakoen agerraldiak	
	Absol.	%	Absol.	%	Absol.	%	Absol.	%
<b>atoan</b>	32	% 72,73	12	% 27,27	8	% 53,34	7	% 46,66
<b>belu</b>	21	% 63,64	12	% 36,36	1	% 10	9	% 90
<b>eten barik</b>	33	% 86,84	5	% 13,16	0	% 0	1	% 100
<b>lantzean behin</b>	259	% 66,93	128	% 33,07	99	% 69,72	43	% 30,28
<b>oraindino</b>	197	% 82,77	41	% 17,23	10	% 10,20	88	% 89,80

Badira beste zenbait forma, bestalde, hiztegietan euskalki markarik gabe jasota egon arren erabileran banaketa geografiko nahiko markatua ageri dutenak. Banaketa geografiko hori, oraintxe euskalki markadun terminoetan ikusi dugun bezalaxe, testu ez-itzulien azpicorpusean da bereziki markatua; testu itzulien azpicorpusean, aldiz, itzultzaileen jatorrietan aniztasun handixeagoa igartzen da. Hona hemen zenbait adibide:

- *Behin edo beste* formak ez du markarik hiztegietan. Hala ere, testu ez-itzulien corpusean erabili den 49 aldietako 41etan, atzean dagoen idazlea iparraldekoa edo nafarra da: Xabier Soubelet, Joseph Camino, Juanjo Olasagarre, Jon Alonso, Patziku Perurena, Ur Apalategi, Gexan Lantziri, Xabier Zabaltza, Jokin Muñoz, Emile Larre, Eneko Bidegain, Pello Salaburu eta Xipri Arbelbide. Gainontzeko 8 agerraldiak Eneko



Aizpurua, Joxemari Urteaga, Pello Lizarralde, Jokin Apalategi, Jokin Ansorena eta Gotzon Garaterenak dira. Itzulpenetan 9 aldiz erabili da, banaketa homogeneous ez dela itzultzaileen jatorriari dagokionez: Matias Mugica nafarrak 3 aldiz erabili du, Pello Lizarralde zumarragar iruindartuak 2 aldiz, Josu Zabaleta legazpiarrak 4, Iñaki Usabiaga zaldibiarrek behin, eta azken agerraldia lau itzultzailek (Nagore Tolosa, Naroa Zubillaga, Aiora Jaka, Itziar Otegi) sinatzen duten testu bati dagokio.

- *Beste orduz* forma testu ez-itzulietan erabili den 17 aldietatik 15 Pantzoa Irigarai, Daniel Landart, Emile Larre, Itxaro Borda, Xipri Arbelbide, Txomin Peillen eta Gexan Lantziri iparraldeko idazleen liburuetakoa dira; beste agerraldi bat Joxemiel Bidador nafarrarena da, eta bestea Patxi Zubizarretarena. Itzulpenetan 2 aldiz erabili da, eta bietan itzultzaile bizkaitarrek egindako itzulpenetan: Luis Berrizbeitia eta Iñigo Errasti.
- *Biga bostetan* formak testu ez-itzulietan dituen 9 agerraldietako 4 iparraldeko Itxaro Borda, Bea Salaberri eta Xipri Arbelbide idazleenak dira; beste 3 Jose Angel Irigaray eta Joxemiel Bidador nafarrenak; eta gainontzeko biak Xabier Montoiaren eta Txillardegiren liburu banatan jasotzen den herri kanta baten aipu batekoak dira («Hanitxen gisa parthitü nintzan»). Itzulpenetan ez da behin ere erabili.
- *Egundainotik* formak jatorriko testuetan dituen 25 agerraldietako 24 iparraldeko idazleenak dira (Piarres Xarriton, Emile Larra, Menane Oxandabaratz, Michel Oronoz, Katixa Dolhare-Zaldunbide, Joanes Arrossagaray, Angel Aintziburu/Jean Baptiste Etxarren eta Mixel Thikoipe) eta bat Joxemiel Bidador nafarrarena. Itzulpenetan 7 agerraldietako 6 Piarres Xarriton lapurtarrarenak dira, eta bat Koldo Izagirre gipuzkoarrarena.
- *Egunetik biharrera* formak 8 agerraldi ditu testu ez-itzulietan. Horietatik 7 iparraldeko idazleenak dira (Xipri Arbelbide, Menane Oxandabaratz, Eneko Bidegain eta Piarres Xarriton) eta bestea Gotzon Barandiaran larrabetzuarrarena. Itzulpenetan ez da behin ere erabili.
- *Hemendik aitzina* formak testu ez-itzulietan dituen 69 agerraldietatik 57 Aingeru Epaltza, Antton Luku, Angel Aintziburu, Aurelia Arkotxa, Daniel Landart, Itxaro Borda,

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren, Mixel Thikoipe, Ramuntxo Etxeberri, Menane Oxandabartz, Jon Alonso, Ernesto Prat, Gexan Lantziri eta Luis Garde ipar-ekialdeko idazleenak dira; 7 agerraldi Xabier Montoiaren *Blackout* eta *Elektrika* nobeletan ageri dira<sup>17</sup>; eta gainontzeko 5ak Joan Mari Irigoien, Hasier Etxeberria eta Txema Garcia-Viana idazlearenak dira. Itzulpenetan 10 aldiz erabili da: 8 aldiz ipar-ekialdeko itzultzaileen testuetan (Santi Leoné, Elena Touyarou, Fernando Rey eta Martxel Etxehandi) eta behin Koldo Izagirreren itzulpen batean. Bestalde, *hemendik aitzinat* forma 5 aldiz erabili da testu ez-itzulien corpusean eta behin ere ez itzulpenetan. Testu ez-itzulietako 5 agerraldiak ipar-ekialdeko idazleenak dira: Pello Salaburu, Xipri Arbelbide eta Xabier Soubelet.

- *Lehenbizikorik* forma 16 aldiz erabili da testu ez-itzulien azpicorpusean eta 22 aldiz itzulpenenean. Testu ez-itzulietako 16 agerraldietatik 15 ipar-ekialdeko egileenak dira (Xipri Arbelbide, Eneko Bidegain, Piarres Xarriton, Patziku Perurena, Piarres Trounday eta Txomin Peillen), eta bat Txillardegirena. Itzulpenetako 22ak iparraldeko bi itzultzailearenak dira: Piarres Xarriton eta Jean Baptiste Orpustan.
- *Maizenean* forma 18 aldiz erabili da testu ez-itzulietan. Agerraldi horietako 17 ipar-ekialdeko Emile Larre, Itxaro Borda, Patziku Perurena, Michel Oronoz eta Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren idazleenak dira, eta Gotzon Garaterena bat. Itzulpenetan ez da behin ere erabili.
- *Noizean behinka* formak testu ez-itzulien azpicorpusean dituen 32 agerraldietako 28 ipar-ekialdeko Xipri Arbelbide, Mailuix Legorburu, Menane Oxandabartz eta Aingeru Epaltza idazleen liburuetan jasotzen dira. Gainontzeko 4ak, Aitor Zuberogoitia, Hasier Etxeberria eta Julen Gabiriaren liburu banari eta askoren artean idatzitako beste bati dagozkie. Itzulpenetan, 3 agerraldi ipar-ekialdeko 3 itzultzailearen lanei dagozkie (Juanjo Olasagarre, Piarres Xarriton eta Santi Leoné) eta beste bat Jesus Mari Mendizabal ormaiztegiar itzultzaileari.

---

17 Xabier Montoiaren *Hezur gabeko hilak*, *Blackout* eta *Elektrika* nobelek "Hilen bizimodua" izeneko trilogia osatzen dute. Hiruretan protagonista Jean Etxegoien da, ipar euskal herritarra, eta hiru nobeletan bai narratzailearen ahotsak bai pertsonaienenak ekialdeko euskararen ukitu oso nabarmena dute.

- *Tenorez* formak testu ez-itzulietan dituen 66 agerraldietatik 54 ipar-ekialdeko idazleenak dira: Ramuntxo Etxeberria, Aingeru Epaltza, Pierre Mestrot, Xabier Soubelet, Itxaro Borda, Xipri Arbelbide, Pello Salaburu, Mikel Taberna, Antton Luku, Xamar, Katixa Dolhare-Zaldunbide, Eneko Bidegain eta Jon Alonso. Beste 3 agerraldi Joxan Oizen *Beñat Dardo* nobelakoak dira. Gainontzeko 9ak beste jatorri batzuetako idazleenak dira: Josu Penades, Rafa Egiguren, Gotzon Garate, Markos Zapiain eta Xabier Artola. Itzulpenetan ez da banaketa argirik ikusten: 8 agerraldien atzean iparraldeko itzultzaile bat (Marzel Etxehandi), tarteko eremuko bi (Karlos Zabala irundarra eta Pasai Donibaneko Juan Mari Agirreurreta), bi gipuzkoar (Imanol Unzurrunzaga zarauztarra eta Juan Garzia legazpiarra) eta bizkaitar bat (Iñigo Roque) ageri dira.
- *Urte oroz* formak testu ez-itzulietan dituen 55 agerraldietatik 52 iparraldeko Xipri Arbelbide, Daniel Landart, Itxaro Borda, Menane Oxandabaratz, Bea Salaberri, Joanes Arrosagaray, Piarres Trounday, Joseph Camino eta Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren idazleenak dira. Gainontzeko 3ak J.E. Urrutia «Capeau» eta Koldo Izagirrerenak dira. Itzulpenetan, 3 agerraldiak iparraldeko bi itzultzailearenak dira: Jean Baptiste Orpustan eta Piarres Xarriton.
- *Orain hurrengoan* formak testu ez-itzulietan dituen 31 agerraldietako 27 erdialdeko euskalkidun idazleenak dira (Iñigo Aranbarri, Xabier Artola, Migel Angel Mintegi, Juan Luis Zabala, Luis Elberdin, Iñaki Iñurrieta, Koldo Izagirre) eta 3 tarteko eremu bateko idazleenak (Jokin Urain, Uxue Alberdi). Horiei muga-mugako idazle baten erabilera bat gehitu behar zaie: Iñaki Iñurrieta soraluzetarra. Itzulpenetan ez da behin ere erabili.

Datu hauetatik guztietatik, zenbait ondorio atera ditzakegu. Lehenengo eta behin, bi azpicorpusen artean agerraldi kopuruari dagokionez alde handia ageri duten formetan, baldin eta forma horiek euskalki bati badagozkio, desoreka testu ez-itzulien azpicorpusaren aldekoa izaten da. Testu ez-itzulietan itzulietan baino nabarmen gehiago erabiltzen diren formetako asko euskalkiren bati dagozkio: testu ez-itzulietan itzulietan baino nabarmen gehiago agertzen diren terminoetatik —4.21. taulan jasotakoak, hots, testu ez-itzulietako

agerraldi kopurua itzulietakoa halako bi edo handiagoa dutenak—, 38 euskalkietakotzat jotzen dira hiztegiatan. Kontrakoa gutxiagotan gertatzen da, hots, itzulpenetan testu ez-itzulietan baino nabarmen gehiago erabiltzen diren formen artean 6 baino ez dira euskalki bati dagozkionak.

Bestalde, badirudi horrelako desorekak iparraldekoak diren formen artean direla ugarienak, bizkaierako formen artean bigarrenik, eta beste euskalkietan ez dela ia halakorik gertatzen. Fenomeno hau bi modutan esplika liteke. Batetik, Euskaltzaindiaren Hiztegiari iparraldekoak identifikaizten diren sarrerak ugariagoak dira beste euskalkietakotzat jotzen direnak baino: 2.231 sarrerak daramate iparraldeko euskararen marka, 828 sarrerak bizkaierarenak, eta 152k baino ez gipuzkerarenak, esate baterako. Bestetik, iparraldeko idazleak proportzioan iparraldeko itzultzaileak baino gehiago izateak ere esplika lezake datu hau. Izan ere, testu ez-itzulien atzean dauden 303 euskal idazleetatik 34 dira Iparraldekoak (idazle guztien % 11,22, beraz), eta itzulpenak sinatzen dituzten 186 itzultzaileen artean, ordea, 4 baino ez dira Iparraldekoak (% 2,15). Iparraldeko euskalkietako hitzak idazleen testuetan itzultzaileenetan baino ugariagoak izatea ezin zaio, beraz, testua itzulia izateari edo ez izateari besterik gabe egotzi. Argi dago bi azpicorpusen osaerak eta, zehazki, testu batzuen eta besteen egileen jatorriak zeresana duela auzi honetan. Iparraldeko idazleen eta itzultzaileen antzeko proportzioa luketen bi azpicorpusekin berretsi beharko litzateke testu ez-itzulietan antzeman dugun iparraldeko terminoen erabilera nabarmen handiagoa.

Nolanahi ere, eta azken ideia horri lotuta, ohargarria da testu ez-itzulietan euskalki bateko formak erabiltzen direnean euskalki hori hitz egiten den eremuko idazleek erabiltzen dituztela nagusiki, baina joera hori ez dela hain argia testu itzulietan. Izan ere, itzultzaileek halako formak erabiltzen dituztenean ez dute sistematikoki beren euskalkiari dagozkion formetara jotzen; itzultzaileek gutxiagotan erabiltzen dituzte euskalkietako formak, baina erabiltzen dituztenean edozein euskalkitakoak aukeratzeko joera handiagoa ageri dute. Arestian aipagai izan ditugun adibideetan, esate baterako, *egun oroz*, *noiztenka*, *ordukotz* eta *hemendik aitzina* formen atzean forma horiei dagokien euskalkiko itzultzaileen eskua ikusten bada ere, gainontzeko adibideetan dena delako euskalkiari dagozkion itzultzaileak eta ez dagozkionak antzeko kopuruetan dabilta, eta batzuetan are gehiago dira beste euskalki

bateko itzultzaileak euskalki horri dagozkionak baino (*ardurenean, jagoitik, orainokoan, belu, eten barik, oraindino* eta *beste orduz* formetan, adibidez).

Azkenik, datu horietan idazleen eta itzultzaileen generoari lotutako joera baten zantzuak ere ikusi ditugu. Euskalkietakotzat jotzekoak diren termino horiek nork idatzitako/itzulitako liburuetan erabiltzen diren aztertzean, emakumezkoak proportzioan gutxiago direla ikusi dugu. Hau da, hiztegietan ipar-ekialdekotzat jotzen diren terminoak (*aldi oroz, ardurenean, egun oroz, jagoitik, luzara, noitzenka, orainokoan, orano* eta *ordukotz*) erabiltzen dituzten idazleen % 80,14 gizonetzkoak dira, eta % 19,86 emakumezkoak. Gogoan izan behar dugu testu ez-itzulien azpicorpusaren osaeran zenbatu ditugun 303 idazleetatik % 73,60 direla gizonak eta % 26,40 emakumeak. Emakume idazleak, beraz, gutxiago dira gizonak baino, baina ipar-ekialdeko hitzak erabiltzen dituzten emakumeak are gutxiago dira proportzioan. Itzultzaileen artean are nabarmenagoa da kontua: ipar-ekialdeko terminoak erabili dituzten itzultzaileen % 6,45 bakarrik dira emakumeak (itzultzaile guztien % 30,65 izanik emakumezkoak). Azken datu muturreko horrek azalpen erraza du hala ere. Izan ere, itzultzaileen artean iparraldeko emakumezko bakar bat dago (Elena Touyarou). Nafarrak, hala ere, badira zenbait: Amaia Apalauza Ollo, Garazi Arrula Ruiz, Irati Bereau, Itziar Diez de Ultzurrun... Eta nolana ere, bizkaierako terminoak aztertuz gero antzeko joera ikusten da. Arestian aipatu ditugun bizkaierako terminoak (*atoan, belu, eten barik, lantzean behin* eta *oraindino*) erabili dituzten idazleen artean % 20 dira emakumezkoak (eta emakumeen proportzioa idazle guztien artean % 26,40 da), eta itzultzaileen artean % 22,95 (eta emakumeen proportzioa itzultzaile guztien artean % 30,65 da). Badirudi, beraz, emakumeak gizonak baino uzkurrago ageri direla euskalkietako terminoak erabiltzeko orduan, eta hizkera estandarrago baten alde egiten dutela. Ondorio hau, nolana ere, termino-lagin txiki batetik atera dugu, eta azterketa xeheagoetarako pizgarrizat baino ezin da hartu une honetan.

Euskalkiak alde batera utzita, ohargarria da, bestalde, testu ez-itzulietan itzulpenetan baino gehiago erabiltzen diren formen artean hainbat direla hiztegietan forma ezegokitzat edo ez gomendatutzat jotzen direnak, behe mailako erregistroari dagozkionak edo hiztegietan jasotzen ez diren idazkerak. Zehazki, honako hauek: *atzorako, berandusko, bestorduz, bienbitartean, derrepente, derrepentean, etzirako, gaurgeroz, horrezkeroztik, noiztik behin, orainik, orano, ordurarte* eta *sekulan*. Euskaltzaindiaren 20. arauak *atzoko* eta

*etziko* hobesten ditu *atzorako* eta *etzirako* formen aldean. *Berandusko* ez da hiztegietan jasotzen; bai, ordea, *beranduxko* forma. Gauza bera gertatzen da *bienbitartean* / *bien bitartean*, *gaurgero/gaurgeroz*, *horrezkeroztik/horrezkero* (edo *harrezkeroztik*), *noiztik behin* / *noizik behin*, *orainik/oraindik* eta *orano/oraino* bikoteekin. *Bestorduz*, *ordurarte* eta *sekulan* formei ez erabiltzeko gomendio-oharra gehitzen die Euskaltzaindiaren Hiztegiak. Eta *derrepente* eta *derrepentean* formak behe mailakotzat jotzen ditu. 4.25. taulan, forma horiek zein diren, haien agerraldi kopuruak, eta zenbat liburutuan erabili diren jaso dugu.

**4.25. taula. Denbora-adberbio ez gomendatuen eta hiztegietan jasotzen ez direnen agerraldi kopuruak.**

	Testu ez-itzuliak		Testu itzuliak	
	Agerraldiak	Liburuak	Agerraldiak	Liburuak
<b>atzorako</b>	5	4	0	0
<b>bapatean</b>	48	19	85,41	8
<b>berandusko</b>	1	1	0	0
<b>bestorduz</b>	9	5	4,68	3
<b>bienbitartean</b>	4	1	1,17	1
<b>derrepente</b>	133	63	51,48	15
<b>derrepentean</b>	144	88	16,38	10

<b>etzirako</b>	21	20	7,02	6
<b>gaurgeroz</b>	2	2	0	0
<b>horrezkeroztik</b>	1	1	0	0
<b>noiztik behin</b>	3	1	0	0
<b>orainik</b>	48	8	0	0
<b>orano</b>	38	8	0	0
<b>ordurarte</b>	30	18	29,25	11
<b>sekulan</b>	1320	134	322,92	42

Kasu bakar batean dira ugariagoak agerraldiak testu itzulietan ez-itzulietan baino: *bapatean* idazkera ez onartua 85,41 aldiz erabili da testu itzulietan (73 agerraldi, faktore zuzentzailea aplikatu gabe), eta 48 aldiz testu ez-itzulietan. Erabilera horien atzean zenbat esku dauden aztertzen badugu, ordea, ikusiko dugu itzulpenetako 73 agerraldietako 49 Anton Garikanorenak direla eta beste 21 Jean Baptiste Orpustanenak; gainontzeko 3ak beste itzultzaile biren testuetan ageri dira (Marzel Etxehandi eta Xabier Olarra<sup>18</sup>). Testu ez-itzulietako 48 agerraldiak, aldiz, 14 idazleren testuetan ageri dira: Aurelia Arkotxa, Pierre Mestrot, Eneko Bidegain, Patziku Perurena, Pablo Sudupe, Xabier Soubelet, Xamar, Aitor Zuberogoitia<sup>19</sup>, Lucien Etxezaharreta, Markos Zapiain, Xipri Arbelbide, Joseph Camino, Pantzoa Irigarai eta Manu Lopez Gaseni. Esanguratsua iruditzen zaigu, bide batez, 48 agerraldi horietako 33 iparraldeko idazleen testuetakoak izatea.

18 Xabier Olarrak behin erabiltzen du *bapatean* forma, James Joyceren *Ulises* nobelaren itzulpenean (2015); idazkera okerrean berariaz erabili ere, itxura guztien arabera, pasarte osoan arautik kanpoko idazkera antzematen baita: «Baleike, ordea, bapatean itz batek ekartzea gogora, eta agertzea aurrean inguruabar ezberdiñetan, ikuspen edo amets batean, edo panderoak eta arpak zentzumenak gozaten dizkiotenean edo iñularreko zillarrezko lasaitasun ozkirrian edo oturuntzan, gauerdian, ardoz bete-beteta dagoanean».

19 Aitor Zuberogoiaren *Bidegorriak hizkuntzentzat* (2005) liburuko agerraldia bere testuan txertatzen duen *Anaitasuna* aldizkariko 1976ko artikulu baten aipu baten barruan kokatzen da.

Arautik nola edo hala desbideratzen diren formak, beraz, nabarmen gehiago erabiltzen dira euskal idazleen testuetan euskal itzultzaileenetan baino: haietako guztiek batek izan ezik agerraldi gehiago dituzte testu ez-itzulien azpicorpusean itzulpenenean baino.

Badira zenbait forma, bestalde, zeinetan idazle/itzultzaile bakar baten eskua nagusitzen den: agerraldi guztiak edo gehienak idazle edo itzultzaile bakar bati zor zaizkio. Testu ez-itzulien azpicorpusean, badira zazpi forma aipagarri:

- *Aurretxo hartan* forma ez da askotan erabili gure corpusean. Testu ez-itzulien azpicorpusean 5 aldiz baino ez da erabili, eta testu itzulienean behin ere ez. Baina testu ez-itzulietako agerraldi guztiak Patziku Perurenarenak dira.
- *Egundainokotan* iparraldeko formak testu ez-itzulietan dituen 28 agerraldietatik 26 Xipri Arbelbiderenak dira (8 liburu ezberdinetan); beste biak Antton Lukuren eta Emile Larrereren agerraldi bana dira. Itzulpenetan ez da behin ere erabiltzen.
- *Gauak gauari* iparraldeko forma testu ez-itzulietan erabiltzen den 15 aldietako 13 Itxaro Bordaren 8 testuri dagozkie. Gainontzeko biak Xipri Arbelbiderena eta Lucien Etxezaharretarena dira. Itzulpenetan ez da ageri.
- *Gerokotz* iparraldeko formak testu ez-itzulien azpicorpusean dituen 25 agerraldietako 24 Piarres Troundayrenak dira eta bat Emile Larrerena.
- *Maizkara* terminoa 8 aldiz erabiltzen da testu ez-itzulien azpicorpusean: 7 aldiz Pello Salaburuk sinatutako bi liburutan, eta behin Salaburuk eta Juan Ignacio Pérezek batera sinatutako beste batean. Itzulpenetan behin erabili da, Juan Garziaren testu batean.
- *Orainik* formak testu ez-itzulietan dituen 48 agerraldietako 39 Pello Salabururenak dira. Gainontzekoak beste 5 idazleren testuetan ageri dira, eta horietako 3 Xalbadorren bertso famatuaren aipuak edo aipuaren aldaerak dira («txistuak jo dituzute bainan / maite zaituztet orainik») Alberto Irazu eta Andoni Egañaren testu banatan, eta «txalo egin didazue bainan / gorroto zaituztet orainik» Xabier Etxeberriaren beste batean.



- *Santa sekulan*: Testu ez-itzulietako 19 agerraldietatik 14 Patziku Perurenarenak dira. Gainontzeko 5ak beste horrenbeste idazlerenak dira. Itzulpenetako 7 agerraldiak, bestetik, 2 itzultzailearen lumatik iritsi dira: Elena Touyarou eta Karlos del Olmo.

Itzulpenetan, bestetik, bitan nabari dira erabilera pertsonal markatuak:

- *Etengabeki* forma, zeinak «gutxi erabilia» marka daraman Euskaltzaindiaren Hiztegian, 71 aldiz erabili da testu itzulietan; bada, 71 horietako 58 erabilaldi Xabier Kintanarenak dira. Gainontzeko 13 agerraldiak 9 itzultzaile ezberdini dagozkie. Testu ez-itzulietan 33 agerraldi ditu, 10 idazle ezberdinen 20 liburutan.
- *Noizik behinka* formak itzulpenetan dituen 14 agerraldietatik 13 Karlos Zabalarenak dira. Testu ez-itzulietan Ramon Saizarbitoriak baino ez du erabili behin.

Eta bada, azkenik, kasu bat zeinetan idazle bakar baten eskua nabarmentzen den testu ez-itzulien azpicorpusean eta itzultzaile bakar baten eskua testu itzulien azpicorpusean:

- *Banpez* (ipar.) forma 28 aldiz erabili da testu ez-itzulien azpicorpusean, 7 liburutan; bada, agerraldi guztiak Itxaro Bordarenak dira. Itzulpenetan, aldiz, 7 aldiz erabili da 3 liburutan, eta erabilera guztiak Iñigo Roque itzultzailearenak dira.

Luma bakar batean kontzentratzen diren terminoen analisiak, beraz, erabilera pertsonalak testu ez-itzulietan ugariagoak direla erakusten digu. Hau da, termino zehatz bat erabiltzeagatik bereizten direnak idazleak izaten dira itzultzaileak baino sarriago. Kopuruak ez dira bereziki nabarmenak, baina bide ematen digute baieztatzeko itzultzaile baino idazle gehiago ausartzen direla erabilera idiosinkratikoak egiten.

Datuen orain arteko analisiak behin baino gehiagotan erakutsi digu bi azpicorpusen arteko hainbat desorekaren atzean estandarretik urruntzen edo desbideratzen diren erabilerak (forma nola edo hala markatuak) daudela: izan euskalki zehatz bati egozten zaizkion formak, izan idazkera okerrak, ez gomendatuak edo hiztegieta ez jasotakoak. Puntu honetara helduta, forma markatuak ez direnetan bi azpicorpusen arteko oreka nolakoa den aztertzea interesgarria izan daitekeela uste dugu. Hau da, baldin eta alde nabarmenenak

forma markatuetan gertatzen badira, nolakoa da bi azpicorpusen arteko erlazioa gainontzeko forma ez-markatueta? Hiztegien arabera neutroak diren formen erabilera ere testu ez-itzulien azpicorpusa gailenduko da? Hau da, euskalkietako terminoak, termino ez gomendatuak eta egile zehatzen erabilera idiosintratikoak bazter utzita, nolakoa da idazleen eta itzultzaileen jokaera forma neutroak edo markatu gabeak erabiltzen dituztenean? Galdera horri erantzun nahian, forma markatuak gure zerrendatik kendu eta forma ez-markatuen agerraldi kopuruen guztizkoak aztertuko ditugu, kopuru handieneko agerraldiak gradualki kenduz, aurreko aztergaiekin egin bezala. Hauek dira gure zerrendatik kenduko ditugun forma markatuak:

- Hiztegieta euskalki baten marka dutenak: *aldi oroz* (ipar.), *ardurenean* (ipar.), *ardurenik* (ipar.), *atoan* (bizk. Igart.), *banpez* (ipar.), *behin betikoz* (ipar. eta naf.), *behin eta betiko* (heg.), *behingotz* (ipar.), *belu* (bizk.), *berant* (ipar. eta naf.), *berbertatik* (heg.), *betan* (ipar.), *bet-betan* (ipar.), *biharamunago* (ipar.), *bihar-etzi* (bizk.), *bizkitartean* (batez ere ipar. / zah.), *derrepente* (heg. beh.), *derrepentean* (heg. beh.), *egun oroz* (ipar.), *egundaino bezala* (ipar.), *egundainokotan* (ipar.), *egunean-egunean* (bizk.), *egunetik biharrera* (ipar.), *engoitik* (ipar.), *eten barik* (bizk.), *etzilimo* (bizk.), *fite* (ipar. eta naf.), *frixtan* (ipar.), *gauak gauari* (ipar.), *gaurgoitik* (ipar.), *gerokotz* (ipar.), *hemendik goiti* (ipar. eta GN), *jadaneko* (ipar.), *jagoitik* (ipar. zah.), *kuxian* (ipar.), *lantzean behin* (bizk.), *lantzean-lantzean* (bizk.), *lehenengotan* (bizk.), *luzara* (ipar.), *nahinoiz* (bizk. g.er.), *noizgura* (bizk.), *noizik eta behin* (gip.), *noiztenka* (ipar.), *oraindino* (bizk.), *oraindinokarren* (bizk.), *oraino* (ipar.), *orainokoan* (ipar.), *orano* (zub.), *ordukotz* (ipar.), *sarriko* (ipar.), *sekulakotz* (ipar.), *supituan* (ipar. Zah.), *supituki* (ipar. Zah.), *tanpez* (ipar.), *tipustapan* (ipar. g.er.), *tipustapastean* (ipar. g.er.), *tupustean* (ipar.), *urtean-urtean* (bizk.), *usuan* (batez ere zub.), *usuki* (ipar. g.er.), *zank* (ipar.), *zankez* (ipar.).
- Hiztegieta euskalki baten marka ez badute ere, forma horiek erabili dituzten egile gehienak eskualde zehatz batekoak direla nabarmena den kasuak: *behin edo beste*, *beste orduz*, *biga-bostetan*, *egundainotik*, *gauetz gau*, *geroan*, *hemendik aitzina*, *hemendik aitzinat*, *lehenbizikorik*, *maizenean*, *noizean behinka*, *tenorez*, *urte oroz*.

- Hiztegietan bestelako markaren bat (adkor., beh., g.er., jas., lgart., zah.) dutenak: *aldi batez* (g. er.), *atoan* (bizk. Lgart.), *aurregun* (g. er.), *aurretxo hartan* (adkor.), *bat-batez* (g.er.), *behin edo berriz* (g.er.), *behin eta berriz* (g.er.), *bebingo batez* (g.er.), *behingotik behingora* (g.er.), *betiro* (g.er.), *bizkitartean* (batez ere ipar. / zah.), *derrepente* (heg. Beh.), *derrepentean* (heg. Beh.), *etengabeki* (g.er.), *geurtz* (zah. edo jas.), *jagoitik* (ipar. Zah.), *lehendanik* (jas.), *maiztxo* (adkor.), *nahinoiz* (bizk. g.er.), *pitean-pitean* (lgart.), *sostean* (g.er.), *supituan* (ipar. Zah.), *supituki* (ipar. Zah.), *txitean-pitean* (lgart.), *usuki* (ipar. g.er.).
- Hiztegietan ez erabiltzeko gomendatzen direnak edo jasotzen ez direnak: *atzorako*, *bapatean*, *berandusko*, *bestorduz*, *bienbitartean*, *etzirako*, *gaurgeroz*, *horrezkeroztik*, *noiztik behin*, *ordurarte*, *sekulan*.
- Egile bakar baten erabilera pertsonalak<sup>20</sup>: *aurretxo hartan* (Patziku Perurena), *banpez* (Itxaro Borda / Iñigo Roque), *egundainokotan* (Xipri Arbelbide), *etengabeki* (Xabier Kintana), *gauak gauari* (Itxaro Borda), *gerokotz* (Piarres Trounaday), *maizkara* (Pello Salaburu), *noizik behinka* (Karlos Zabala), *orainik* (Pello Salaburu), *santa sekulan* (Patziku Perurena).

Guztira 108 termino kenduko ditugu, beraz.

Esan berri dugun moduan, gorago denbora-adberbio guztien agerraldi kopuruekin jokatu dugun bezalaxe jokatu dugu orain. Lehenengo, guztizkoetan jarriko dugu arreta: forma ez-markatuon agerraldi kopuru guztiak batu eta bi azpicorpusetako emaitzak konparatuko ditugu. Ondoren, agerraldi kopuru oso altuak dituzten zerrendako elementuak bazter utziko ditugu gradualki, barne oreka handiagoko laginetarantz hurbiltzeko: 1000 agerralditik beherako formen agerraldien guztizkoak kalkulatuko ditugu, 100 agerralditik beherakoenak ondoren, 50etik beherakoenak hurrena eta 30etik beherakoenak azkenik.

---

20 Multzo honetan 5 agerraldi edo gehiago dituztenak bakarrik kontuan hartu ditugu. Izan ere, egile bakar baten erabilerak diren forma guztiak bazter uztea erabakiko bagenu, agerraldi bakarra duten forma guztiak edota bi agerraldi dituztenen artean ia guztiak kendu beharko genituzke. Eta garbiketa hau egitean bilatzen dugun xedea izanik desorekaren bat sorrarazten duten forma markatuak bazter uztea, estatistikoki esanguratsuak direnak —agerraldi kopuru gutxieneko bat dutenak— kenduko ditugu. Esanguratasunaren muga nonbait jarri behar, eta eten-lerroa 5 agerralditan ezartzea erabaki dugu arbitrarioki.

Hona hemen, lehenik, forma markatuak bazter utzita geratzen diren 283 denbora-adberbioen agerraldien eta liburuen guztizkoak, 4.26. taulan jasota:

**4.26. taula. Denbora-adberbio ez-markatu guztien agerraldien eta liburuen guztizkoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

	<b>Testu ez-itzuliak</b>	<b>Testu itzuliak</b>
<b>Agerraldiak</b>	301.204	300.987,18
<b>Liburuak</b>	42.849	44.371,20

Denbora-adberbio ez-markatuak bakarrik kontuan hartuta, beraz, forma horien agerraldi guztien % 50,02 testu ez-itzulien azpicorpusari dagokio, eta % 49,98 itzulpenenari. Bi azpicorpusen arteko aldea, beraz, ezdeusa da. Agerraldi horiek guztiak zenbat liburutan jaso diren aintzat hartzen badugu, aldiz, itzulpenen azpicorpusa gailentzen da, aldea berriro oso txikia bada ere: liburuen % 49,13 euskal idazleek idatzitakoak dira eta % 50,87 beste hizkuntza batzuetatik euskarara itzulitakoak. Hau da, agerraldi kopuru ia berbera liburu apur bat gehiagotan sakabanatuta ikusten dugu itzulpenen azpicorpusen, eta liburu apur bat gutxiagotan kontzentratuta testu ez-itzulienean.

Gogora dezagun zein ziren guztizkoak forma markatuak ere kontuan hartuta. Ekar dezagun hona berriro 4.18. taula:

**4.18. taula. Denbora-adberbio guztien agerraldien eta liburuen guztizkoak, testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

	<b>Testu ez-itzuliak</b>	<b>Testu itzuliak</b>
<b>Agerraldiak</b>	315.102	307.842,21
<b>Liburuak</b>	46.131	46.577,60

Agerraldi kopuruari dagokionez, beraz, azpicorpusen arteko aldea zertxobait handiagoa da forma guztiak kontuan hartzen badira (% 50,58 ez-itzulietan eta % 49,42 itzulietan), forma ez-markatuak bakarrik kontuan hartuta baino (% 50,02 ez-itzulietan eta % 49,98 itzulietan). Bi azpicorpusen arteko aldeak oso txikiak dira bi tauletan, baina testu ez-itzulien azpicorpusaren aldera zertxobait makurtuagoa da forma guztiak kontuan hartzen direnean, forma ez-markatuak soilik kontuan hartzen direnean baino. Berretsita geratzen da, beraz, debora-adberbio guzti-guztiak kontuan hartuta bi azpicorpusen artean igartzen den alde txikia forma markatuek eragindakoa dela neurri batean, halakoak bazter uztean are txikiagoa baita bi azpicorpusen arteko aldea.

Azter dezagun orain zer gertatzen den agerraldi kopuru oso handiak edukitzeagatik laginaren homogeneotasuna galarazten duten formak progresiboki bazter uzten ditugunean. 4.27. taulan, denbora-adberbio ez-markatuen artean 1.000 agerraldi baino gutxiago dituzten formak, 100 agerralditik beherakoak, 50etik beherakoak eta 30etik beherakoak jaso ditugu.

**4.27. taula. Denbora-adberbio ez-markatuen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan, eta terminoak agerraldi kopuruaren arabeko tartetean sailkatuta.**

<b>Agerraldiak</b>								
	<b>1.000 agerralditik beherakoak</b>		<b>100 agerralditik beherakoak</b>		<b>50 agerralditik beherakoak</b>		<b>30 agerralditik beherakoak</b>	
	<b>Abs.</b>	<b>%</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>	<b>Abs.</b>	<b>%</b>
<b>Ez-itzuliak</b>	34.587	% 54,19	2.859	% 55,58	1.542	% 52,57	618	% 53,08
<b>Itzuliak</b>	29.233,62	% 45,81	2.285,01	% 44,42	1.391,13	% 47,43	546,39	% 46,92

Denbora-adberbio ez-markatuak soilik kontuan hartzen ditugunean ere, tarte guztietan agerraldi kopuruak handiagoak dira testu ez-itzulietan, markatuak zein ez-markatuak kontuan hartzean gertatu den bezalaxe. Ekar dezagun gogora denbora-adberbio guztiak (markatuak zein ez-markatuak) kontuan hartzen dituen 4.19. taula:

**4.19. taula. Denbora-adberbioen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, zenbaki absolututan eta ehunekotan, eta terminoak agerraldi kopuruaren arabera tartetean sailkatuta.**

Agerraldiak								
	1.000 agerralditik beherakoak		100 agerralditik beherakoak		50 agerralditik beherakoak		30 agerralditik beherakoak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
<b>Ez-itzuliak</b>	40.880	% 55,71	4.558	% 59,21	2.554	% 58,76	1.116	% 60,11
<b>Itzuliak</b>	32.502,60	% 44,29	3.140,28	% 40,79	1.792,44	% 41,24	740,61	% 39,89

Denbora-adberbio guzti-guztiak kontuan hartzean, progresio bat igartzen zen agerraldi gutxienerako tartetara hurbildu ahala: zenbat eta ezohikoagoak edo gutxiago erabiliak izan denbora-adberbioak, orduan eta handiagoa zen testu ez-itzulietako eta itzulpenetako kopuruaren arteko aldea. Ez da hala gertatzen, ordea, forma ez-markatuak soilik aintzat hartzen ditugunean; denbora-adberbio ez-markatuak soilik zenbatzean, ez da progresio

argirik ikusten agerraldi gutxieneko tartetara hurbiltzean. Hain zuzen ere, pentsa liteke forma markatuak ezohikoak edo salbuespenezkoak direla eta ondorioz agerraldi gutxieneko tartetean pilatuko direla, eta beraz logikoa da halako formak gure kalkulatik desagerrarazten ditugunean testu ez-itzulietako kopuruak agerraldi gutxieneko tartetean ez handitzea. Bestela esanda, forma markatugabeak soilik kontuan hartzean agerraldi gutxieneko tartetean bi azpicorpusen arteko aldea ez handitzeak berretsi egiten du aldea handitzen denean forma markatu horien eraginez handitzen dela.

Laburbilduz, denbora-adberbio guzti-guztiak eta soilik denbora-adberbio ez-markatuak konparatzeak berretsi digu forma markatuek zeresana dutela testu itzulietako eta ez-itzulietako agerraldien arteko aldean, baina ez dutela osoro esplikatzen. Hau da, egia bada ere forma markatuak analisitik desagerrarazten ditugunean bi azpicorpusetako agerraldi kopuruak hurbildu egiten direla, testu ez-itzulietakoa beti da handiagoa.

#### **4.2.2.2. Denbora-adberbioak sinonimo eta parasinonimo multzoetan**

Datuen analisisa bukatzeko, interesgarria iruditu zaigu forma hauek sinonimo eta parasinonimo multzoetan biltzea eta haien erabilerak konparatzea azpicorpus batean eta bestean. Denbora-adberbioei buruzko atal honen hasieran aipatu dugunez, 391 denbora-adberbio hauen erabilera alderatuz testu itzulietako eta ez-itzulietako lexikoaren aberastasuna eta aniztasuna konparatu nahi genituen. Koloreen eremu semantikoa aztertu ondoren, kulturalki ez hain markatua izango zen eremu baten bila erabaki genuen denbora-adberbioen multzoa aztertzea. Hiztunak bere burua eta kontakizuna denboraren lerroan kokatzeko erabilgarri dituen askotariko formen artean, euskal idazleek eta euskal itzultzaileek horietatik zein eta zenbat erabiltzen dituzten neurtu eta konparatu nahi izan dugu atal honetan. Bada, azken pauso honetan, sinonimoen eta parasinonimoen azterketaren bitartez, are gehiago zedarritu nahi dugu aztergaia, eta konparatu nahi dugu nola egiten duten hautaketa batzuek eta besteek aukera ahalik eta berdintsuenen artean; hau da, adiera

berdina edo ia berdina duten hitz guztien artean, neurri berean erabiltzen dira aukerok testu ez-itzulien azpicorpusean eta testu itzulienean?

Horrela, bada, denbora-adberbioen gure zerrenda hartu, eta Adorez (Bostak bat Kultur Elkartea d.g.), Elhuyar (Elhuyar Fundazioa d.g.), Euskaltzaindiaren Hiztegia (Euskaltzaindia d.g.) eta UZEIren Sinonimoen Hiztegia (UZEI d.g.) baliatuta, 391 formen artean elkarren sinonimo edo parasinonimo direnak multzotan bildu ditugu. Konparazioa esanguratsua izan dadin, gutxienez sei terminoz osatutako multzoak bakarrik hartu ditugu kontuan (bost terminoz edo gutxiagoz osatutako multzoak bazter utzi ditugu). Bestalde, denbora-adberbioetako batzuk polisemikoak dira. *Usu* terminoak, adibidez, maiztasuna zein azkartasuna adieraz dezake. Halako forma polisemikoak beren agerraldi bakoitzean zein adierarekin erabili diren ebaztea nekeza eta batzuetan baita ezinezkoa litzatekeela aurreikusita, sinonimo multzoetatik kanpo uztea erabaki dugu. Irizpide horiek oinarri hartuta, hauek dira, hortaz, osatu ditugun sinonimo eta parasinonimo multzoak:

- *aida batean, amen batean, atoan, aurki, berehala, berehalako batean, berehalakoan, berehalaxe, egunetik biharrera, gauetik biharrera, gauetik goizera, jesus batean, jesusean, kuxian, laster batean, luza gabe, luzaro gabe, sarriko, une batetik bestera*
- *aldi oro, aldi orotan, aldi oroz, aldiro, beti, beti eta beti, betiro, egun eta gau, egun oroz, egunean-egunean, egunero, eten barik, etengabe, etengabeki, gau eta egun, ordu oroz, orduero, une oro, unez une*
- *aldian behin, aldian-aldian, aldika, aldiz-aldiz, aldizka, behin edo behin, behin edo berriz, behin edo beste, behin edo bitan, behingotik behingora, inoiz edo behin, inoiz edo berriz, inoiz edo beste, inoiz gutxitan, inoizka, lantzean behin, lantzean-lantzean, noiz edo behin, noiz edo noiz, noizbehinka, noizean behin, noizean behinka, noizean noiz, noizetik behin, noizetik noizera, noizik behin, noizik behinean, noizik behinka, noizik eta behin, noizik noizera, tartean-tartean, tarteka, tarteka-marteka, unean-unean*
- *aldian sarri, behin eta behin, behin eta berriro, behin eta berriz, behin eta birritan, berriz eta berriz, biga bostetan, maiz, maiz aski, maiz asko, maiz askotan, maizkara,*



*maiztxo, maizxe, pitean-pitean, sarri askotan, sarri eta sarri, sarriro, sarritan, sarritxo, txitean-pitean, usuan, usuki*

- *ardurenean, ardurenik, maizenean, maizenik, sarrienik, usuenik*
- *antzina, aspaldi, aspaldian, behiala, behin batean, behin batez, behingo batez, behinola, beste orduz, bestorduz, garai batean, orain aspaldi*
- *arestian, aurtemein, berriki, berrikitan, duela gutxi, lehentxeago, lehentxoago, orain berriki, oraindik orain, orainengo, oraintsu*
- *aurrenean, aurrenekoz, aurrenetik, aurrenik, behindanik behin, lehenbizi, lehenbizian, lehenbizikorik, lehenbizikoz, lehen buruan, lehendabizi, lehenengo eta behin, lehenik eta behin, lehen-lehenik*
- *banpez, bapatean, bat-batean, bat-batera, bat-batez, berbertatik, bet-betan, derrepente, derrepentean, frixtan, sostean, supituan, supituki, tanpez, tipuski, tipustapan, tipustapastean, tupustean, zank, zankez*
- *belu, berandu, beranduan, berandusko, beranduxko, berant*
- *gau berandu, gau betean, gau eta gauerdia, gauak gauari, gauetz gau, ordu txiki*
- *harrezkero, harrezkeroztik, hemendik aitzina, hemendik aitzinat, hemendik aurrera, hemendik goiti, honezkero, horrezkero, horrezkeroztik, ordu ezkero, ordudanik, ordurik hona, ordutik aurrera, ordutik hona, orduzetik, orduz gero, orduz geroz, orduz geroztik*
- *luzara, luzaro, luzaroan, luzaroko, luzarora, luzarorako, luzarotxo, orduetan eta orduetan, urteak eta urteak, urteetan eta urteetan*
- *oraindik, oraindino, oraindinokarren, oraindio, oraindik, orainik*
- *santa sekula, santa sekulan, sekula betiko, sekula guzti, sekula santa, sekula santan, sekulakotz, sekulan*


Sinonimo eta parasinonimo multzo bakoitzean, bi alderdiri erreparatuko diegu: multzo bakoitzeko terminoetatik zenbat eta zein erabiltzen diren azpicorpus bakoitzean, batetik, eta

terminoetako bakoitza zenbat aldiz erabili den, bestetik. Agerraldi kopuruak barra-diagrama baten bitartez adieraziko ditugu. Multzo batzuetan termino zehatz batek bere sinonimoek baino agerraldi kopuru askoz handiagoa duenez, horrelakoetan bi grafiko eskainiko ditugu: multzoko termino guztiak jasoko ditugu batean, eta agerraldi kopuru desorekatzailea duen terminoa ez beste guztiak bestean.

#### 4.2.2.2.1. *Aida batean* eta haren sinonimoak


*aida batean, amen batean, atoan, aurki, berehala, berehalako batean, berehalakoan, berehalaxe, egunetik biharrera, gauetik biharrera, gauetik goizera, jesus batean, jesusean, kuxian, laster batean, luza gabe, luzaro gabe, sarriko, une batetik bestera*

Multzoa osatzen duten 19 formatatik guztiak erabiltzen dira bi azpicorpusetan. Horien artean, *berehala* eta *aurki* beste forma guztiak baino askoz ere maiztasun handiagoz erabiltzen dira, eta biak ala biak nahiko modu orekatuan: *berehala* 12.014 aldiz testu ez-itzulietan eta 12.056,85 itzulietan, eta *aurki* 1.561 ez-itzulietan eta 1.759,68 itzulietan. 4.11. irudian forma guztiak jaso ditugu:



4.11. irudia. *Aida batean* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.

Agerraldi kopuru altuenak dituzten bi terminoak, *berehala* eta *aurki*, bazter uzten baditugu, gainontzeko 17 formen artetik 14tan oreka da nagusi. Hiru salbuespen daude: bizkaierako *atoan* adberbioa nabarmen gehiago erabiltzen da testu ez-itzulietan (ez-itzuliek 315 / itzuliek 36,27), eta *berehalakoan* (ez-itzuliek 520 / itzuliek 636,48) eta batez ere *berehalaxe* forma indartua (ez-itzuliek 325 / itzuliek 896,22) gehiago erabiltzen dira testu itzulietan. 4.12. irudian ikusiko dugu:




**4.12. irudia. Aida batean eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, *berehala* eta *aurki* kenduta.**

Oro har, beraz, multzo honetako sinonimoen artean oreka da nagusi, bai erabiltzen diren sinonimoei begiratuta, eta baita sinonimo horiek zenbat aldiz erabiltzen diren aztertuta ere. Multzoa osatzen duten 19 sinonimoen artean hirutan baino ez dugu aurkitu desorekaren bat, eta desoreka horiek bi azpicorpusetan banatuta gertatzen dira: forma batean (*atoan*) testu ez-itzulietako erabilera gailentzen da, eta bi formatan (*berehalakoan* eta *berekhalaxe*) itzulpenetako.

#### 4.2.2.2. Aldi oro eta haren sinonimoak


*aldi oro, aldi orotan, aldi oroz, aldiro, beti, beti eta beti, betiro, egun eta gau, egun oroz, egunean-egunean, egunero, eten barik, etengabe, etengabeki, gau eta egun, ordu oroz, orduero, une oro, unez une*

Multzo hau osatzen duten 19 sinonimo eta parasinimoetako guztiak bi azpicorpusetan erabiltzen dira. *Beti* forma gailendu egiten da argi eta garbi bi azpicorpusetan (ez-itzuliak 31.750 / itzuliak 27.304,29), eta bigarren erabilienak *egunero* (ez-itzuliak 4.140 / itzuliak 3.046,68) eta *etengabe* (ez-itzuliak 3.177 / itzuliak 5.048,55) dira. *Beti* eta *egunero* testu ez-itzulietan gehiago erabiltzen dira testu itzulietan baino, eta *etengabe* alderantziz. Hona hemen, 4.13. irudian, forma guztien agerraldiak:



4.13. irudia. *Aldi oro* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.

Agerraldi kopuru handiak dituzten *beti*, *egunero* eta *etengabe* formak bazter utziko ditugu orain, gainontzeko formak xehetasun handiagoz ikusteko, 4.14. irudian:



**4.14. irudia. Aldi oro eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, *beti*, *egunero* eta *etengabe* kenduta.**

Ikusten denez, testu ez-itzulietako erabilerak hiru kasutan dira nabarmen handiagoak: horietatik bi *oro* zenbatzaileak osatutakoak dira (*aldi oroz* eta *egun oroz*), eta bestea bizkaierako *eten barik* da. *Oro* zenbatzaileak osatutako beste kasuetan (*aldi oro*, *aldi orotan*, *ordu oroz*, *une oro*), hala ere, erabilera paretsua edo itzulpenetan handiagoa da. Testu itzulietako erabilera lau kasutan nabarmentzen da, bestalde: oraintxe aipatutako *une oro* eta *aldi oro*, gehi *gau eta egun* eta *etengabeki* formetan, hain zuzen.


Gorabehera batzuk badira, beraz, baina txikiak dira eta bi azpicorpusetan ageri dira. Multzoari bere osotasunean erreparatuta, oreka da nagusi.

#### 4.2.2.2.3. *Aldian behin* eta haren sinonimoak

*aldian behin, aldian-aldian, aldika, aldiz-aldiz, aldizka, behin edo behin, behin edo berriz, behin edo beste, behin edo bitan, behingotik behingora, inoiz edo behin, inoiz edo berriz, inoiz edo beste, inoiz gutxitan, inoizka, lantzean behin, lantzean-lantzean, noiz edo behin, noiz edo noiz, noizbehinka, noizean behin, noizean behinka, noizean noiz, noizetik behin, noizetik noizera, noizik behin, noizik behinean, noizik behinka, noizik eta behin, noizik noizera, tartean-tartean, tarteka, tarteka-marteka, unean-unean*

Hau dugu guztien artean multzorik handiena: 34 sinonimo eta parasinonimo biltzen ditu guztira. Bada, 34 forma horietako 3 (*behin edo berriz, inoiz edo berriz, inoiz edo beste*) ez dira behin ere erabiltzen testu ez-itzulien azpicorpusean, 2 (*aldiz-aldiz, behingotik behingora*) ez dira erabiltzen itzulpenenean, eta bada forma bat ez azpicorpus batean ez bestean erabiltzen ez dena (*noizetik behin*). Azpicorpusetako batean behin ere erabiltzen ez diren formak, nolana ere, oso kopuru baxuetan erabiltzen dira beste azpicorpusean: *behin edo berriz* eta *inoiz edo berriz* 1,17 aldiz erabiltzen dira itzulpenetan, eta *inoiz edo beste* 3,51 aldiz; *aldiz-aldiz* eta *behingotik behingora* formek 2 agerraldi dituzte testu ez-itzulietan.


4.15. irudian jaso ditugu *aldian behin* eta haren sinonimo guztien datuak:



4.15. irudia. *Aldian behin* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.

Agerraldi kopuru handiena duen forman (*tarteka*) testu ez-itzulietako erabilera nabarmentzen da: 2.330 agerraldi testu ez-itzulietan eta 1.752,66 testu itzulietan. Eta bigarren forma erabilienean, aldiz, itzulpenetako erabilera gailentzen da: *noizean behin* formak 1.273 agerraldi ditu testu ez-itzulietan eta 1.460,16 itzulpenetan. Utz ditzagun orain bi forma horiek kanpoan, 1.000 agerralditik beherako adberbioen erkaketa xeheago ikusteko.

4.16. irudian jaso ditugu datuak:



**4.16. irudia. Aldian behin eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, tarteka eta noizean behin kenduta.**

Oraingo honetan, aurreko multzoetan ez bezala, testu ez-itzulietako erabilera behin baino sarriago gailentzen direla ikusten da. Testu ez-itzulietako agerraldi kopuruak nabarmen handiagoak dira *aldika*, *behin edo behin*, *lantzean behin*, *noiz edo noiz* eta *noizbehinka* formetan; *behin edo bitan* forma gehiago erabiltzen da itzulpenetan; eta gainontzekoetan agerraldi kopuruak antzekoak dira bi azpicorpusetan. Oro har, testu ez-itzulietako erabilera gailentzen diren kasuak erabilera maila ertain bati dagozkio: hau da, testu ez-itzulien azpicorpusean 200 agerraldi baino gehiago dituzten formak dira. Erabilera txikiagoa denean (200 agerralditik behera), oreka handiagoa nabari da bi azpicorpusen artean. Esan liteke, beraz, multzo hau osatzen duten 34 sinonimo eta parasinonimoak oro har gehiagotan erabiltzen direla testu ez-itzulietan, baina maiztasun-erabilera handiago hori forma erabilienetan biltzen dela: *aldika*, *behin edo behin*, *lantzean behin*, *noiz edo noiz*, *noizbehinka* eta *tarteka*. Zabalkunde gutxixeago duten formak, berriz, antzeko kopuruetan erabiltzen dira testu mota batzuetan eta besteetan.




#### 4.2.2.2.4. *Aldian sarri* eta haren sinonimoak

*aldian sarri, behin eta behin, behin eta berriro, behin eta berriz, behin eta birritan, berriz eta berriz, biga bostetan, maiz, maiz aski, maiz asko, maiz askotan, maizkara, maiztxo, maizxe, pitean-pitean, sarri askotan, sarri eta sarri, sarriro, sarritan, sarritxo, txitean-pitean, usuan, usuki*

Multzo honetako 23 formetatik 4 ez dira behin ere erabiltzen testu itzulietan (*biga bostetan, pitean-pitean, usuan* eta *usuki*) eta 2 ez dira erabiltzen ez azpicorpus batean ez bestean (*maizxe* eta *sarri eta sarri*). Testu ez-itzulietan soilik erabiltzen diren 4 formetatik 2 behin baino ez dira erabiltzen testu ez-itzulietan (*pitean-pitean* eta *usuan*); *biga bostetan* 9 aldiz erabiltzen da testu ez-itzulietan (gehienak ipar-ekialdeko idazleak dira, gorago aipatu dugunez), eta Euskaltzaindiaren Hiztegian iparraldeko marka duen *usuki* formak 11 agerraldi ditu.


Hona hemen, 4.17. irudian bilduta, *aldian sarri* eta haren sinonimoen agerraldiak:



**4.17. irudia. Aldian sarri eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**


Formarik erabilieneren artean (bi azpicorpusetako batean 1.000 agerralditik gora dituztenetan) gorabeheraren bat antzematen da, baina gorabehera horiek ez dira beti azpicorpus beraren aldera: *behin eta berriro* gehiago erabiltzen da euskal idazleen testuetan, eta *maiz* eta *sarritan* itzulpenetan; *behin eta berriz* forman ere testu itzuliak gailentzen dira, baina alde txikiagoarekin.

Ikus dezagun orain nolakoa den bi azpicorpusen arteko aldea 1.000 agerralditik gorako lau forma horiek kenduta. 4.18. irudian, *aldian sarri* terminoaren eta haren sinonimoen agerraldiak jaso ditugu, *behin eta berriro*, *behin eta berriz*, *maiz* eta *sarritan* formak kenduta:



**4.18. irudia. Aldian sarri eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, behin eta berrero, behin eta berriz, maiz eta sarri kenduta.**

*Sarri askotan* formak agerraldi gehiago ditu testu ez-itzulien azpicorpusean. Gainontzeko sinonimo eta parasinonimoak gutxiagotan erabiltzen dira oro har, eta erabilera-maiztasun baxu horren barruan desoreka handirik ez dagoela dirudien arren, fokua gainontzeko forma horietan jarriz gero balantza testu ez-itzulien aldera makurtzen dela ikusiko dugu. Hona hemen, bada, 4.19. irudian, *sarri askotan* forma kenduta 50 agerralditik beherako formen datuak:



**4.19. irudia. Aldian sarri eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, behin eta berriz, behin eta berriz, maiz, sarri eta sarri askotan kenduta.**


Grafikoan ikusten denez, *behin eta birritan*, *berriz eta berriz* eta *maiz asko* formetan itzulpenetako agerraldi kopuruak gailentzen dira; *aldian sarri*, *behin eta behin*, *biga bostetan*, *maiz aski*, *maiz askotan*, *maizkara*, *maiztxo*, *pitean-pitean*, *sarriro*, *txitean-pitean*, *usuan* eta *usuki* formetan, aldiz, handiagoa da testu ez-itzulietako agerraldi kopurua. Aldeak oro har ez dira handiak, baina esanguratsua da nolana ere forma gehiagotan dela handiagoa testu ez-itzulietako erabilera itzulpenetakoa baino.

Laburbilduz, multzo honetan agerraldi kopuru handiak dituzten forma erabilienetan agerraldi kopuru zertxobait handiagoak ikusten dira itzulpenetan testu ez-itzulietan baino, eta agerraldi kopuru txikiagoak dituzten formetan kopuru handiagoak ikusten dira testu ez-itzulietan itzulpenetan baino.

#### 4.2.2.2.5. *Ardurenean* eta haren sinonimoak

*ardurenean, ardurenik, maizenean, maizenik, sarrienik, usuenik*

Multzo txiki hau osatzen duten sei sinonimoetatik guztiak erabiltzen dira testu ez-itzulien azpicorpusean; itzulpenen azpicorpusean, ordea, lau baino ez dira erabiltzen. *Ardurenik* eta *maizenean* formek ez dute agerraldirik euskal itzultzaileen testuetan. Eta itzulpenetan erabiltzen diren lau formek (*ardurenean, maizenik, sarrienik, usuenik*) agerraldi gutxiago dituzte testu itzulietan testu ez-itzulietan baino. 4.20. irudian, *ardurenean* eta haren sinonimoen agerraldiak jaso ditugu:



4.20. irudia. *Ardurenean* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.


Multzo honetan, beraz, testu ez-itzulien azpicorpuseko erabilera gailentzen da, bai erabiltzen diren sinonimo kopuruari dagokionez, bai sinonimoetako bakoitzaren agerraldi kopuruari dagokionez<sup>21</sup>.

21 Multzo honetan, termino guztietan testu ez-itzulietako erabilera itzulpenetakoa baino handiagoa izatea deigarria bada ere, are deigarriagoa gerta daiteke pentsatzea forma guztien batura —logikoa denez—

#### 4.2.2.2.6. *Antzina* eta haren sinonimoak

*antzina, aspaldi, aspaldian, behiala, behin batean, behin batez, behingo batez, behinola, beste orduz, bestorduz, garai batean, orain aspaldi*


12 sinonimok eta parasinonimok osatzen dute talde hau. Bada, testu ez-itzulien azpicorpusean termino guztiak erabiltzen dira, eta itzulpenenean 11. *Behingo batez* forma ez da erabiltzen testu itzulietan; dena den, testu ez-itzulietan behin baino ez da erabiltzen. Forma bakoitzaren agerraldi kopuruari erreparatzen badiogu ikusiko dugu gehien erabiltzen diren hiru formetan (*aspaldi, aspaldian* eta *garai batean*) testu ez-itzulietako agerraldi kopuruak handiagoak direla itzulpenetakoak baino. 4.21. irudian jaso ditugu datuak:



4.21. irudia. *Antzina* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.

nabarmen handiagoa dela testu ez-itzulitakoetan itzulitakoetan baino. Esan nahi al du horrek erdaretan gutxiago erabiltzen direla euskarazko *ardurenean, ardurenik, maizenean* eta abarren ordainak eta beraz itzultzaileek gutxiagotan jo behar izaten dutela forma horietara? Azalpena beste bat delakoan gaude: gorago aipatu dugun bezala, zenbait denbora-adberbio gure azterketatik kanpo utzi ditugu, corpusean egindako terminoen bilaketetan eskuzko garbiketa nekezegia egitea ekarri luketelakoan, eta horietako bat da, hain zuzen, *gehienetan* forma. Gure susmoa da, beraz, itzultzaileek gehiagotan jotzen dutela *gehienetan* formara idazleek baino; idazleek, aldiz, sinonimo gehiagoren artean banatzen dituzte beren hautuak.

*Aspaldi, aspaldian* eta *garai batean* bazter utziko ditugu orain, 4.22. irudian, gainerakoak xehetasun handiagoz ikusi ahal izateko:



**4.22. irudia. Antzina eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, *aspaldi, aspaldian* eta *garai batean* kenduta.**

Ikusten denez, bi azpicorpusetako agerraldi kopuruak paretsuak dira forma gehienetan. Salbuespen bakarrak *behiala* eta *behinola* formak dira: lehenengoan testu ez-itzulien azpicorpusa gailentzen da eta bigarreanean itzulpenena.

Multzo honetan, beraz, oreka da nagusi.


#### 4.2.2.2.7. *Arestian* eta haren sinonimoak

*arestian, aurtemein, berriki, berrikitan, duela gutxi, lehentxeago, lehentxoago, orain berriki, oraindik orain, orainengo, oraintsu*

Multzo hau 11 terminok osatzen dute. Horietako bat ez da ez azpicorpus batean ez bestean erabiltzen: *orainengo*. Beste batek (*aurtemein*) ez du agerraldirik testu ez-itzulien azpicorpusean, eta agerraldi bat (1,17 agerraldi, faktore zuzentzailea aplikatuta) itzulpenetan.

Beste batek (*orain berriki*), azkenik, ez du agerraldirik itzulpenetan, eta 3 agerraldi ditu testu ez-itzulietan. Idazleek eta itzultzaileek eskura dituzten sinonimoen artean egiaz zenbat erabiltzen dituzten aztertuta, bi azpicorpusen artean alde handirik ez dagoela ikusten dugu.

Forma horietako bakoitza zenbat aldiz erabiltzen den aztertzen badugu, bestalde, ez da lerratze nabarmenik ageri. Ikus ditzagun datuak 4.23. irudian:



**4.23. irudia. Arestian eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

Bada gorabeheraren bat, baina, esan bezala, erabilera kopuruak ez dira sistematikoki azpicorpus batean gailentzen. *Arestian* eta *oraintsu* formak gehiago erabiltzen dira testu ez-itzulietan, eta *lehentxeago* itzulpenetan. Gainontzeko formetan aldeak oso txikiak dira.

Sinonimo multzo honetan, beraz, oreka da nagusi.


#### 4.2.2.2.8. Aurrenean eta haren sinonimoak

*aurrenean, aurrenekoz, aurrenetik, aurrenik, behindanik behin, lehenbizi, lehenbizian, lehenbizikorik, lehenbizikoz, lehen buruan, lehendabizi, lehenengo eta behin, lehenik eta behin, lehen-lehenik*



Multzo hau osatzen duten 14 sinonimoetatik bat ez da ez azpicorpus batean ez bestean erabiltzen: *behindanik behin*. Horrez gain, *lehen buruan* forma 2,34 aldiz erabiltzen da itzulpenetan eta behin ere ez testu ez-itzulietan. Gainontzeko denbora-adberbio guztiak bi azpicorpusetan erabiltzen dira. Erabiltzen diren formei dagokienez ez dago ia alderik, beraz.

Forma horietako bakoitzaren agerraldi kopuruari erreparatuta, ordea, itzulpenen azpicorpuseko erabilera zertxobait gailentzen dela ikusten dugu. Hona hemen datuak 4.24. irudian:



**4.24. irudia. Aurrenean eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

Ikusten denez, *lehenbizi*, *lehenbizikoz* eta *lehenik eta behin* formetan nabarmen handiagoa da itzulpenetako agerraldi kopurua testu ez-itzulietakoa baino. Testu ez-itzulien azpicorpusa *lehenbizian*, *lehendabizi* eta *lehen-lehenik* formetan bakarrik gailentzen zaio itzulpenen azpicorpusari, eta alde txikiagoarekin. Gainontzeko formetan itzulpenetako erabilera da nagusi.


Multzo honetan, beraz, testu itzulietako erabilera-kopuruak handiagoak dira oro har testu ez-itzulietakoak baino.

#### 4.2.2.2.9. Banpez eta haren sinonimoak


*banpez, bapatean, bat-batean, bat-batera, bat-batez, berbertatik, bet-betan, derrepente, derrepentean, frixtan, sostean, supituan, supituki, tanpez, tipuski, tipustapan, tipustapastean, tupustean, zank, zankez*

Multzo hau 20 terminok osatzen dute. Bada, 20 horietatik bi (*tipuski* eta *zankez*) ez dira ez azpicorpus batean ez bestean erabiltzen; hiru (*berbertatik, frixtan* eta *zank*) testu itzulien azpicorpusean bakarrik erabiltzen dira, eta bat (*tipustapan*) testu ez-itzulien azpicorpusean bakarrik erabiltzen da. Erabiltzen diren forma kopuruari dagokionez, hortaz, aberastasun handiagoa dago testu itzulietan. Aldea, nolahi ere, ez da oso handia.

Termino bakoitzaren agerraldi kopuruari dagokionez, *bat-batean* nabarmentzen da argi eta garbi bi azpicorpusetan. 4.25. irudian, multzoko sinonimo eta parasinonimo guztien agerraldiak jaso ditugu:



4.25. irudia. *Banpez* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.



4.26. irudia. *Banpez* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, *bat-batean* kenduta.

Agerraldi kopuru handienak dituen forman (*tupustean*), itzulpenetako erabilera gailentzen da. Agerraldi kopuru erdi mailakoak —100 eta 200 agerraldi artean— dituzten formen artean, aldiz, testu ez-itzulietako kopuruak handiagoak dira: *derrepente*, *derrepentean*, *supituan*, *supituki*, *tanpez*. Eta agerraldi kopuru txikiak dituzten formen artean denetarik ikusten da; aldeak, nolahi ere, txikiak dira azken horien artean.


Multzo honetan, beraz, sinonimoetako gehiago erabiltzen dira testu itzulietan testu ez-itzulietan baino. Baina erabilera sinonimo guztien artean nola banatzen den aztertzen badugu, dibertsifikazio handiagoa ikusten dugu testu ez-itzulietan. Hau da, testu itzulietako agerraldiak termino gutxi batzuetan kontzentratuta ageri dira, eta testu ez-itzulietakoak termino gehiagotan barreiatuta. Hain zuzen ere, itzultzaileek bat-batekotasunaren kontzeptua adierazi behar izan duten aldi guztien % 95,33an *bat-batean* eta *tupustean* formen alde egin dute, eta beste sinonimo guztien baturak agerraldien gainontzeko % 4,67 osatzen du bakarrik. Euskal idazleen testuetan, aldiz, *bat-batean* eta *tupustean* formek agerraldi guztien % 89,16 biltzen dituzte, eta gainontzeko sinonimoen artean agerraldi guztien % 10,84 osatzen dute.

#### 4.2.2.2.10. *Belu* eta haren sinonimoak

*belu, berandu, beranduan, berandusko, beranduxko, berant*


Sei sinonimok osatutako multzo txiki baten aurrean gaude berriro ere. Itzulpenetan sei formatatik bat ez da erabiltzen (*berandusko*). Testu ez-itzulietan denak erabiltzen dira; itzulpenetan ageri ez den *berandusko*, nolana ere, behin baino ez da erabiltzen testu ez-itzulien azpicorpusean. Erabiltzen diren sinonimoei dagokienez, beraz, ez dago alde handirik bi azpicorpusetan.

Sinonimoen agerraldi kopuruei erreparatzen badiegu, bestalde, testu ez-itzulietako erabilera bi sinonimotan nabarmen gailentzen dela ikusten dugu: *berandu* eta *berant*. 4.27. irudiak *belu* eta haren sinonimo guztien agerraldi kopuruak jasotzen ditu:



**4.27. irudia. *Belu* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

*Berandu* forma bazter utzita, 300 agerralditik beherako sinonimoetan jarriko dugu orain fokua 4.28. irudian:



**4.28. irudia. *Belu* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, *berandu* kenduta.**

Aurreratu bezala, *berandu* eta *berant* formatan ikusten den testu ez-itzulietako erabilera handiagoa bazter utzita, gainontzeko terminoetan ez da joera aipagarrikerik ikusten. *Berandu* eta haren sinonimoen multzoa aztertzetik, beraz, erraz ondoriozta daiteke testu ez-itzulien azpicorpuseko agerraldiak bi formatan kontzentratuago ageri direla, eta itzulpenetako erabilera, aldiz, modu orekatuagoan banatzen dela aukeran diren sinonimoen artean<sup>22</sup>.


#### 4.2.2.2.11. *Gau beranduan* eta haren sinonimoak

*gau beranduan, gau betean, gau eta gauerdi, gauak gauari, gaez gau, ordu txiki*

<sup>22</sup> Multzo honetan, nolana ere, deigarria da sinonimo guztien batura nabarmen handiagoa dela testu ez-itzulietan itzulpenetan baino: 3.580 ez-itzulietan eta 2.323,62 itzulietan. Hau da, euskal idazleen liburuetan gehiagotan adierazi nahi izan da orotara *berandu* adiera aukeran diren sinonimo guztien bitartez, euskarara itzulitako liburuetan baino. Eta oraingoan, gorago aipatu dugun *gehienetan, ardurenean* eta abarren kasuan ez bezala, ez dago eskuzko garbiketa neketsuen aitzakian bazter utzi behar izan dugun formarik.

Sei elementuk osatzen dute sinonimo multzo hau, eta horietatik bost erabiltzen dira bai testu ez-itzulien azpicorpusean bai itzulpenenean. Forma bera da bi azpicorpusetan erabiltzen ez dena: *gau eta gauerdia*.

Hona hemen *gau beranduan* eta haren sinonimoen agerraldi kopuruak biltzen dituen 4.29. irudia:



**4.29. irudia. Gau beranduan eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

Ikusten denez, erabiltzen diren bost formen artean agerraldi gehien dituen *ordu txiki\** da (*ordu txikitan, ordu txikietan, ordu txikiak arte, ordu txikitara arte...*), eta nabarmen gehiago erabiltzen da testu ez-itzulietan itzulpenetan baino. Gainontzekoen artean, ez da gorabehera nabarmenik: *gau beranduan* eta *gau betean* gehiago erabiltzen dira testu itzulietan, eta *gauak gauari* eta *gauetz gau* testu ez-itzulietan.


Multzo honi dagokionez, beraz, testu ez-itzulietako erabilera forma bakar batean kontzentratuta ageri da (*ordu txiki\**), eta itzulpenetan egin diren aukerak, aldiz, modu orekatuagoan banatzen dira hautagai diren sinonimoen artean.

#### **4.2.2.2.12. Harrezkero eta haren sinonimoak**

*harrezkero, harrezkeroztik, hemendik aitzina, hemendik aitzinat, hemendik aurrera, hemendik goiti, honezkero, horrezkero, horrezkeroztik, ordu ezkero, ordudanik, ordurik hona, ordutik aurrera, ordutik hona, orduzetik, orduz gero, orduz geroz, orduz geroztik*

Multzo hau 18 formak osatzen dute. Forma horietatik guztietatik bat ez da erabiltzen testu ez-itzulien azpicorpusean (*orduxetik*) eta bi itzulpenenean (*hemendik aitzinat* eta *horrezkeroztik*).


Agerraldi kopuruei dagokienez, bi azpicorpusetan gehien erabiltzen diren aldaerak *harrezkero*, *hemendik aurrera* eta *honezkero* dira, 4.30. irudian ikusten denez, eta hiruretan erabilera handiagoa da testu ez-itzulietan:



**4.30. irudia. Harrezkero eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

Hiru horiek kenduta 400 agerralditik behera dituzten formetan jartzen badugu arreta, gorabeherak ikusten ditugu, baina oro har gehiago dira testu ez-itzulietan gehiagotan erabiltzen diren formak, itzulpenetan gehiagotan erabiltzen direnak baino. Ikus dezagun 4.31. irudia:





**4.31. irudia. Harrezkeroren sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, harrezkero, hemendik aurrera eta honezkero kenduta.**

Ikusten denez, *harrezkeroztik* eta *ordutik aurrera* formetan itzulpenetako erabilera gailentzen da; *hemendik aitzina*, *hemendik goiti*, *horrezkero*, *ordudanik* eta *orduz geroztik* formetan, aldiz, testu ez-itzulietako erabilera itzulpenetakoa baino handiagoa da.

Multzo honetan, beraz, aukeran diren sinonimoetako gehiago erabiltzen dira testu ez-itzulietan eta gainera gehiagotan erabiltzen dira<sup>23</sup>.


#### 4.2.2.2.13. Luzara eta haren sinonimoak

*luzara, luzaro, luzaroan, luzaroko, luzarora, luzarorako, luzarotxo, orduetan eta orduetan, urteak eta urteak, urteetan eta urteetan*

<sup>23</sup> Multzo honetan ere sinonimo eta parasinonimo guztien agerraldien batura handiagoa da testu ez-itzulietan itzulpenetan baino: 4.311 ez-itzulietan eta 3.252,6 itzulietan. Balirudike, beraz, euskal idazleek beren testuetan kontzeptu hau adierazteko joera handiagoa dutela euskarara itzuli diren erdal idazleek baino. Kontuan hartu behar da, dena den, hauen guztien sinonimo den *ordutik* forma bilaketatik kanpo utzi dugula hasieratik, anbiguotasun kasu asko sortzen baititu: «goizeko lehen ordutik atea joka» (Agirre 2018, 165), «jauzi egiten du ordutik ordura» (Goikoetxea 2014, 70)... Ezin dugu jakin, beraz, zein litzatekeen sinonimo guztien agerraldien batura bi azpicorpusetan *ordutik* forma ere kontuan hartu izan bagenu.


Hamar elementuk osatzen dute multzo hau, eta horietatik bat ez da behin ere erabiltzen testu ez-itzulien azpicorpusean: *luzarotxo*. Itzulpenen azpicorpusean termino guztiak ageri dira.

Agerraldi kopuruari dagokionez, bi azpicorpusetan gehien erabiltzen diren formak *luzaro* eta *luzaroan* dira, eta bi formak nabarmen gehiago erabiltzen dira testu itzulietan. 4.32. irudian multzo honetako elementu guztien agerraldi kopuruak jaso ditugu:



**4.32. irudia. Luzara eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

Gehien erabilitako bi forma horiek bazter utzi eta erabilera urriagoa duten formetan jartzen badugu arreta, testu ez-itzulietako erabilera oro har gailendu egiten dela ikusten dugu. 4.33. irudian jaso ditugu datuak:



**4.33. irudia. Luzara eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, luzaro eta luzaroan kenduta.**

Ikusten denez, *orduetan eta orduetan* terminoan izan ezik, gainontzeko guztietan handiagoa da testu ez-itzulien azpicorpuseko erabilera.

Multzo honetan, beraz, badirudi euskal idazleen hautuak modu orekatuagoan banatzen direla aukeran diren formen artean, eta itzultzaileenak *luzaro* eta *luzaroan* formetan kontzentratuagoak ageri direla.


#### 4.2.2.2.14. *Oraindik* eta haren sinonimoak

*oraindik, oraindino, oraindinokarren, oraindio, oraindixek, orainik*

Sei sinonimok osatzen duten multzo honetan, testu ez-itzulien azpicorpusean bost forma erabiltzen dira eta forma bat ez da erabiltzen (*oraindixek*). Itzulpenen azpicorpusean, ordea, sei aukera posibleetatik hiru baino ez dira erabiltzen: *oraindik, oraindino* eta *oraindixek*. Gainontzekoak (*oraindinokarren, oraindio* eta *orainik*) ez dira behin ere erabiltzen


itzulitako testuetan. Datuak esanguratsuak dira: aberastasun handiago ikusten da testu ez-itzulien azpicorpusean. Ohargarria da itzulpenen azpicorpusean erabiltzen ez diren formetako bat euskalki markaduna dela (*oraindik*), eta beste biak (*oraindio* eta *orainik*) ez direla jasotzen Euskaltzaindiaren Hiztegian. Hau da, itzultzaileek forma estandarrenen alde egiten dutela ikusten da beste behin ere multzo honen bitartez.

Agerraldi kopuruak berretsi egiten du ideia hori. Hona hemen datu guztiak biltzen dituen 4.34. irudia:



**4.34. irudia. *Oraindik* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

4.35. irudiak, bestalde, *oraindik* forma kanpoan utzi eta 250 agerralditik beherako formen datuak jasotzen ditu:



**4.35. irudia. *Ora*ndiken sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, *ora*ndik kenduta.**


Ikusten denez, itzultzaileen testuetan desoreka handiagoa dago forma erabiliaren (*ora*ndik) eta gainerakoen artean; itzultzaileek forma estandarrenaren alde egiten dute beren hautuen % 99,44an (azpicorpus honetako forma guztien agerraldi guztien % 99,44 *ora*ndik formari dagokio). Idazleen testuetan ere forma erabiliena *ora*ndik bada ere, beste formek proportzioan pisu handiagoa hartzen dute: testu ez-itzulien azpicorpuseko forma guztien agerraldi guztien % 98,25 dagokio *ora*ndik formari.

#### **4.2.2.2.15. *Santa sekula* eta haren sinonimoak**

*santa sekula, santa sekulan, sekula betiko, sekula guzti\*, sekula santa, sekula santan, sekulakotz, sekulan*

Multzo hau zortzi sinonimok eta parasinonimok osatzen dute, eta guztiak erabiltzen dira bai azpicorpus batean bai bestean. Agerraldi kopuruari dagokionez, Euskaltzaindiak ez


erabiltzeko gomendatzen duen *sekulan* aldaera da bi azpicorpusetan gehien erabiltzen dena<sup>24</sup>. Aipatzekoa da, nolana ere, askoz agerraldi kopuru handiagoa duela testu ez-itzulietan itzulietan baino (ez-itzuliek 1.320 / itzuliek 322,92). 4.36. irudian jaso ditugu datuak:



**4.36. irudia. *Santa sekula* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan.**

*Sekulan* forma alde batera utzi eta 200 agerralditik beherako formetan jartzen badugu arreta, hauek dira datuak, 4.37. irudian jasota:

24 Kontuan hartu behar da *sekula* forma zuzena bazter utzi dugula hasieratik, polisemikoa izanik eskuzko garbiketa neketsua ekarriko lukeelako.



4.37. irudia. *Santa sekula* eta sinonimoen agerraldiak testu ez-itzulietan eta testu itzulietan, *sekulan* kenduta.

*Sekula santan* forman gailendu egiten da testu ez-itzulietako erabilera. Gainontzekoetan, ez da joera argirik nabari.

Oraingo multzo honetan, beraz, badirudi hautua kontzentratuagoa eta desorekatuagoa dela idazleen testuetan eta orekatuagoa eta sakabanatuagoa itzultzaileenetan. Hain zuzen ere, testu ez-itzulietan, bi forma erabilienez (*sekulan* eta *sekula santan*) forma guztien agerraldi guztien % 95,08 biltzen dute; itzulpenetan, aldiz, bi forma horietan forma guztien % 89,09 biltzen dituzte.

Multzoak banan-banan aztertuta, sinonimo multzo guztiei buruzko ondorio orokor batzuk ateratzen saiatuko gara. Datuak, ikusi dugunez, gorabeheratsuak dira, eta ez da multzo guztietan sistematikoki errepikatzen den joerarik, baina gailentzen diren zenbait ezaugarri antzematen dira. Analisiaren aurreko faseetako datuekin bat, aukeran diren sinonimoen artean gehiago erabiltzen dira eskuarki testu ez-itzulietan, baina oso alde

txikiarekin. Testu ez-itzulietan sinonimo gehiago biltzen dituzten multzoak sei dira: *aldian sarri*, *ardurenean*, *antzina*, *belu*, *harrezkero* eta *oraindik* multzoak. Itzulpenetan sinonimo gehiago biltzen dituzten multzoak, berriz, lau dira: *aldian behin*, *aurrenean*, *banpez* eta *luzara*. Eta gainontzeko bost multzoetan, azkenik, sinonimo kopuru bera erabiltzen da testu ez-itzulietan eta itzulietan: *aida batean*, *aldi oro*, *arestian*, *gau beranduan* eta *santa sekula*.

Azpicorpus batean eta bestean erabiltzen den sinonimo kopuruaren datuaz harago, agerraldiak multzo bakoitzaren barruan nola banatzen diren aztertzen badugu, ikusiko dugu testu ez-itzulietan agerraldiak sinonimoen artean banatuago ageri direla, eta itzulpenetan, aldiz, sinonimo gutxiagotan kontzentratuta. Hala, *aldian behin*, *aldian sarri*, *ardurenean*, *banpez*, *harrezkero*, *luzara* eta *oraindik* multzoetan sinonimoen arteko erabilera orekatuagoa egiten da testu ez-itzulien azpicorpusean, eta sinonimo gutxiagotan kontzentratua, aldiz, itzulpenen azpicorpusean.

Bi ondorio horietan —testu ez-itzulietan sinonimo gehixeago erabiltzea eta agerraldiak sinonimoen artean orekatuago banatuta egotea, alegia— zerikusia izango du ziurrenik forma markatuak (euskalkietakoak edo idazkera ez arautuak) testu ez-itzulien azpicorpusean oro har ugariagoak eta erabiliagoak izateak, analisisian lehenago ikusi dugun bezala. Horri gehitu behar zaizkio egile bakar baten hautu pertsonalak, oro har idazleen artean gehiagotan gertatzen baitira itzultzaileen artean baino.

### 4.2.3. Laburbilduz

Atal honetan denbora adierazteko adberbioen erabilera-maiztasuna aztertu dugu, testu itzulietako eta ez-itzulietako lexiko-aberastasuna konparatzeko asmoz. Horretarako, hiztegiak eta gramatikak arakatu ditugu denbora adierazteko forma adverbialen bila, eta 391 terminoko zerrenda bat osatuta haietatik zein eta zenbat aldiz erabiltzen den aztertu dugu. Bada, koloreen eremu semantikoan ez bezala, oraingo honetan adierazle ia guztiek testu ez-itzulietan aberastasun handiagoa dagoela erakutsi dute. Batetik, aukeran diren adberbio guztien artean testu ez-itzulietan adberbio gehiago erabiltzen dira testu itzulietan baino. Agerraldi kopuru guztizkoari dagokionez, ez da alde handirik bi azpicorpusen artean: testu ez-



itzulietan itzulietan baino zertxobait handiagoa da. Baina termino erabilienak bazter utzi eta termino ezohikoak soilik kontuan hartzen ditugunean, handitu egiten da bi azpicorpusen arteko aldea, testu ez-itzulienaren aldera. Hau da, badirudi termino ohikoenen artean erabilera antzekoa dela bi azpicorpusetan, eta termino ezohikoak edo salbuespenezkoak direla idazleek itzultzaileek baino gehiagotan erabiltzen dituztenak.

Hain zuzen ere, testu ez-itzulietan soilik erabiltzen diren formen artean estandarretik urruntzen diren hainbat termino aurkitu ditugu: euskalkietakotzat jotzen diren terminoak, hiztegieta baztertzekotzat jotzen diren idazkerak edo zuzenean hiztegieta jasotzen ez direnak. Badirudi, beraz, forma nola edo hala markatu horiei zor zaiela neurri batean bi azpicorpusen arteko aldea. Itzultzaileek termino estandaragoak erabiltzera jotzen dute, eta idazleak gehiagotan ausartzen dira arautik desbideratzen diren formak erabiltzen.

Sinonimo multzoen azterketak ere berretsi digu forma markatuek testu ez-itzulietan duten pisua. Sinonimo multzoen azterketatik, aurreko datuengatik espero izatekoa zen bezala, testu ez-itzulietan sinonimo gehixeago erabiltzen direla ondorioztatu dugu, eta orobat agerraldiak modu orekatuagoan banatzen direla sinonimoen artean testu ez-itzulietan itzulietan baino. Testu itzulietan agerraldiak sinonimo-aukera txikiago batean kontzentraturik ageri dira, hain zuzen ere forma markatuak erabiltzeko joera txikiagoa delako itzultzaileen artean.

Denbora-adberbioen erabilera azpicorpus bakoitzaren barruko lumen artean nola banatzen den aintzat hartzen badugu, ordea, bestelakoa da emaitza. Agerraldien eta liburuen arteko erlazioa aztertuta, ikusten da agerraldiak liburu gehiagotan sakabanatuago ageri direla itzulpenetan testu ez-itzulietan baino. Hau da, testu ez-itzulietan oro har denbora-adberbio gehiago erabiltzen dira, bai eta maiztasun handiagoz erabili ere, baina liburu gutxiagotan kontzentratuta; itzulpenetan, aldiz, termino gutxiago eta gutxiagotan erabiltzen dira, baina liburu gehiagoren artean hedatuta ageri dira. Horri gehitu behar zaio erabilera oso pertsonalak idazleen artean aurkitu ditugula nagusiki. Hau da, termino ezohiko baten agerraldi guztiak edo kopuru handi bat esku bakar batean kontzentratuta ikusi dugun kasu gehienetan, idazle batena zen esku hori eta ez itzultzaile batena.

Idazleen eta itzultzaileen erabilera pertsonalei eta ez hain pertsonalei lotuta, azkenik, badira zantzuak pentsatzeko norberaren euskalkiarekiko lotura estuagoa dela idazleengan itzultzaileengan baino. Hau da, euskalkietakotzat jotzen diren formak erabiltzen direnean, testu ez-itzulietan agerraldi gehienak euskalki horretako idazleei dagozkie. Itzulpenetan erabiltzen direnean, ordea, euskalkietako formak oro har gutxiago ageri badira ere, jatorri askotarikoagoetakoak izaten dira dena delako forma erabiltzen duten itzultzaileak. Bestela esanda, idazleek nork berea erabiltzen dute normalean; itzultzaileek ez dute beren jatorria hainbeste markatzen, eta eurenak ez diren euskalkiak aiseago erabiltzen dituzte proportzioan.

### **4.3. Kolokazioak: emozioak eta sentimenduak adierazteko erabili diren [izen+ adjektibo] konbinazioak**

Aurreko bi ataletan lexiko-aniztasuna eta zehaztasunerako edo ñabardurarako joera aztertu ditugu nagusiki. Horrez gain, koloreak izendatzeko baliabideen bitartez lexiko-sorkuntzaren auzira ere hurbildu gara. Izan ere, [izena + *kolore*] egitura aztertzeak testu itzuliak ezohiko elementu lexikaletarako sarbide direla ikusteko bidea eman digu. Azken ideia horretan sakontzeko, kolokazioak aztertzea erabaki dugu, hots, elkarren ondoan gutxieneko maiztasun batez erabiltzen diren unitate lexikalen multzoak (gure kasuan, bikoteak). Zehazki, emozioak eta sentimenduak adierazteko izenek gure bi azpicorpusetan maiztasun gutxieneko batez ondoan zer adjektibo hartzen duten ikertuko dugu: izen bakoitzak zenbat adjektibo

ezberdin hartzen dituen ondoan, eta zer maiztasunekin ageri den konbinazio bakoitza azpicorpus batean eta bestean. Datuok aztertuta, azpicorpus bakoitzeko testuen joera berritzaileez eta kontserbadoreez gogoeta egin ahalko dugula uste dugu, eta, hala, argitu ahal izango dugu, adibidez, zer neurritan jotzen duten idazleek eta itzultzaileek ohiko konbinazioak erabiltzera eta zer neurritan konbinazio ezohiko eta berritzaileak proposatzera, edo, bestela esanda, zenbateraino laguntzen duten testu mota batzuek eta besteek xede-hizkuntzako ohiturak finkatzen edo, aitzitik, ohituraz ezarritakoa hausten. Hain zuzen ere, marko teorikoari eta aurrekariei buruzko atalean azaldu dugunez, kolokazioena aztergai inportantea da testu itzulietako hizkera ezaugarritzea xede duten ikertzaileen artean. Marco Borillo honela azaltzen du gaiak izan lezakeen garrantzia:

(Even experienced) translators may yield to the powerful influence exerted by the source text either by relaying source-text untypical collocations as also untypical in the target text, or even by introducing untypical collocations where this might have seemed unwarranted by the source text, i.e. as cases of interference. There seem to be good reasons, then, to study deviations from typical collocation in literary translation.

(Marco Borillo 2013: 168)

Zenbait arrazoik eraman gaituzte aztergai gisa emozioak eta sentimenduak adierazteko izenak eta haien ondoan ageri diren adjektiboak aukeratzera. Lehenengo eta behin, hitzonen gramatika-kategoriak datuen bilaketa eta erauzketa erraztuko zigula aurreikusten genuen. Beste konbinazio batzuekin konparatuta —[izena + aditza] edo [adberbioa + aditza] adibidez—, [izena + adjektiboa] konbinazioa euskaraz finko samarra da elkarrenganako kokaguneari dagokionez, eta beraz datuen erauzketan elkarrengandik urrun egoteagatik edo alderantzizko hurrenkeran kokatuta egoteagatik termino gutxi ihes egingo zigutela aurreikusi genuen. Beste alde batetik, emozioena eta sentimenduena semantikoki erraz samar mugatzeko moduko multzo bat da, eta beraz eskuzko erauzketa egitea erraztuko zigun. Horrez gain, emozioena eta sentimenduena aztergai ditugun literatur testuetan maiztasun nahikotxo agertuko den eremu semantiko bat zela aurreikusi genuen. Azkenik, aukera honen bitartez

lortuko genuen multzoak bolumen egokia izango zuela kalkulatu genuen: esanguratasun nahikoa eta era berean termino kopuru maneagarria.

Jabetzen gara, bestalde, kolokazioen azterketan literatur testuak erabiltzeak baduela alde negatiborik ere, Bosquek (2004: LXX-LXXI) ondo azaltzen duen bezala literaturagileek beren estiloa nabarmentzeko ahaleginean ohiko erabileratik urruntzen diren hitz-konbinazioak egin ohi baitituzte. Nolanahi ere dela, gure azken xedea ez da euskarazko kolokazioak identifikatzea eta zerrendatzea, baizik eta kolokazio izan litezkeen hitz multzo ohikoenen bitartez testu itzulietako eta ez itzulietako lexiko mailako joera berritzaileak eta kontserbadoreak konparatzea, eta alde horretatik probaleku interesgarria izan daitekeela uste dugu.

### **4.3.1. Kolokazio kontzeptuaz eta terminoaz**

Gure ikerlanean *kolokazio* terminoa erabiliko dugu, nahiz eta konturatzen garen balizko kolokazioak erauzteko erabiliko dugun prozedurak baduela zer hobetu eta ondorioz aztergai izango ditugun hitz-konbinazio guztiek ez dutela zertan zalantzarik gabe kolokaziotzat jotzekoak izan. Hori dela eta, gure erabakia ulertzen laguntzeko bi hitz esan nahi ditugu *kolokazio* kontzeptuaz, terminoaz eta zehazki Itzulpen Ikasketen arloko ikerlanetan hartaz egin den erabileraz.

Kolokazioaren kontzeptuak muga lausoak ditu, eta modu ezberdin samarretan ulertzen eta definitzen dute hizkuntzalariek. Gaur egun jada klasikotzat jo daiteke Corpas Pastorren definizioa, zeinean erabilerak ezarritako murrizketa kombinatorioa jotzen den gakotzat: «[Las colocaciones] son sintagmas completamente libres, generados a partir de reglas, pero que, al mismo tiempo, presentan cierto grado de restricción combinatoria determinada por el uso (cierta fijación interna)» (1996: 53).

Nolanahi ere, kontzeptua ulertzeko eta, beraz, kolokaziotzat jo daitezkeenak antzemateko askotariko moduak daude, esan bezala. Ignacio Bosquek bere *Redes. Diccionario combinatorio del español contemporáneo* hiztegiko hitzaurrean honela laburbiltzen du auzia:

Simplificando un poco las cosas, parece que se dibujan dos grandes corrientes en el estudio de estas unidades: en una de ellas, quizás mayoritaria, el concepto de colocación está guiado fundamentalmente por la frecuencia de coaparición de dos unidades léxicas; en la otra —minoritaria pero acaso más interesante desde el punto de vista conceptual—, las colocaciones son el resultado de dar forma léxica a ciertas relaciones semánticas que se pueden describir formalmente.

(Bosque 2004: CLIII)

Kolokazioa kontzeptualki ulertzeko modu ezberdinek eragina dute, noski, kolokazioak erauzteko orduan ikertzaile batzuek eta besteek baliatzen dituzten prozeduretan. Corpus batean balizko kolokazioak bilatu eta erauzteko modurik sinpleena agerpen-maiztasun gordina (*raw frequency*) erabiltzea da, hau da, elkarren ondoan gutxieneko maiztasun batez agertzen diren hitz bikoteak edo hirukoteak aukeratzea. Zenbait ikertzailek, ordea, Bosquek aipatutako bigarren ildotik, kolokazio-sendotasuna (*collocational strength*) edo bi osagaien arteko asoziazio-indarra darabilte hitz bikote edo hirukote bat kolokaziotzat jo daitekeen edo ez ebazteko, eta horretarako kalkulu estatistiko konplexuagoak erabiltzen dituzte, hala nola behatutako eta espero izandako maiztasunen arteko erlazioa neurtzea (Marco Borillo 2023: 20).

Gure ikerlanean, Bosquek bereizitako bi joeretako lehenengoaren irizpidearekin bat, erabilera-maiztasun handi samarrak izateagatik kolokaziotzat katalogatzeko modukoak izan litezkeen hitz konbinazioak hartuko ditugu kontuan. Erauzketa-prozedura sinpleenaz baliatuko gara, alegia. Izan ere, gure helburua hemen ez da zalantzarik gabe kolokaziotzat jo daitezkeen hitz-konbinazioak identifikatzea eta zerrendatzea, ezpada konbinazio lexikoak osatzeko orduan testu batzuetan eta besteetan nabari diren joera errotuak eta berritzaileak deskribatzea. Bestela esanda, hitz-konbinazioen azterketa, izan konbinazio horiek kolokazioak zentzu hertsian zein ez, testu itzulietako eta ez-itzulietako ohitura lexikoak aztertzekeo baliabide bat baino ez dira gure ikerlanean.

Gure ikerlanean zehar *kolokazio* terminoa erabiltzeari buruzko zalantzak izan ditugu, eta haren ordeaz beste terminoren bat erabiltzeko aukera ere aintzat hartu dugu behin baino

gehiagotan: Corpas Pastorrek (2017: 30) jasotzen dituen *collocational network*, *lexical bundle*, *cluster* edo *recurrent word combination* terminoen bidetik, adibidez, edo Elhuyarren Dabilena corpusean (Elhuyar Fundazioa d.g.b) mintzagai duten *ohiko konbinazio*, bestela. Azkenean, Itzulpen Ikasketen arloan gaiaz arduratu diren ikertzaileek, bi osagaien arteko lotura dena dela ere, *kolokazio* terminoa erabili dutela aintzat hartuta, guk ere gure lanean termino horri eustea erabaki dugu, gure ikerlanaren gaia haienarekin errazago harremanetan jartzeko.

### 4.3.2. Multzoaren osaera

Itzulpengintza-arloan kolokazioen erabilera aztertu nahian egin diren ikerlanetan bi joera nagusi antzematen dira metodologiari dagokionez: batzuek hiztegietatik edo bestelako kontsulta-testuetatik kolokazio gisa jadanik jasota dauden hitz-konbinazioak aukeratu, eta corpusean zer erabilera duten aztertu dute (Kenny, 2001; Corpas Pastor, 2017); beste batzuek, aldiz, corpusetatik kolokazioak erauzteko prozedurak probatu eta proposatu dituzte (Danielsson, 2003; Baroni eta Bernardini, 2003; Bernardini, 2007; Marco Borillo, 2013). Azken horien artean, gorago aurreratu dugun bezala, gehienek agerpen-maiztasun gordina erabili dute kolokazio posibletzat jo dituztenak erauzteko; hau da, aztergai duten corpusean agerraldi kopuru gutxienerako bat duten hitz-konbinazioak identifikatu eta zerrendatu, eta horiek jo dituzte kolokaziotzat. Hain zuzen ere, agerpen-maiztasuna irizpide hartuta, kolokazio ohikoak, errotuak edo finkatuak (*typical*), batetik, eta kolokazio ezohikoak edo ez finkatuak (*untypical*), bestetik, bereizi izan dituzte ikertzaileek. Euskaraz kolokazioen hiztegirik izan ez, eta bigarren bidetik jo dugu guk ere: erabilera-maiztasun handi samarrak izategatik kolokaziotzat katalogatzeko modukoak izan litezkeen hitz multzoak —bigramak, zehazki— bilatu ditugu gure bi azpicorpusetan.

Horrela, bada, lehen pauso batean bi azpicorpusetan ageri diren [izen + adjektibo] konbinazio guztiak erauzi, eta agerraldi kopuruaren arabera iragazi ditugu, halako moduz non X aldiz baino gehiagotan errepikatzen diren [izen + adjektibo] konbinazio guztiak zerrendatu ahal izan ditugun. Gutxienerako agerraldi kopurua 3koa izatea ezarri dugu, arbitrarioki, eta

hala, lehen erauzketa horretan 73.264 konbinazio ezberdineko zerrenda bat lortu dugu. Zerrenda hartan eskuzko hautaketa bat egin dugu emozio edo sentimendu bat adierazten duten izenen zerrenda osatzeko<sup>25</sup>. Behin emozioen eta sentimenduen eremu semantikoa osatuta, bigarren garbiketa bat egin dugu adjektiboan izaerari erreparatuta: adjektibo erreferentzialak bazter utzi ditugu, eta kalifikatzaileak bakarrik hartu ditugu kontuan. Horrela, adibidez, *kezka* izenaren ondoan 3 aldiz edo gehiagotan ageri diren *artistiko*, *ekonomiko*, *erlijioso*, *estetiko*, *etiko*, *filosofiko* eta *linguistiko* adjektiboak ez ditugu kontuan hartu; bai, *ordea*, *astun*, *bitxi*, *sakon*, *samin* edo *txoro* adjektiboak. Bestalde, erauzketan lortu ditugun zenbait hitz, adjektibo kategoriarean sailkatu daitezkeen arren, ez datoz bat kolokazioak aztertzeke gure helburuekin, eta bazter utzi ditugu horiek ere: *antzeko*, *apur*, *bakar*, *bako*, *bakoitz*, *berbera*, *gabeko*, *gehiegi*, *gisako*, *poxi*... Garbiketa egitearekin batera, agerraldi kopuruari dagokion irizpidea ere zertxobait gehiago doitzeko aprobetxatu dugu: hitz-konbinazio bat kontuan hartzeko, hiru agerraldiak bi azpicorpusetako batean izan behar dituela erabaki dugu, eta ez bi azpicorpusetako agerraldiak batuta. Hau da, azpicorpusetako batean behin eta bestean bi aldiz agertuta ez dugu aintzat hartu, batura hiru izanagatik; bi azpicorpusetako batean agertu behar du gutxienez hiru aldiz. Horrez gain, baldintza horien pean gutxienez bi adjektibo ezberdinekin konbinatzen diren izenak bakarrik hartu ditugu kontuan. Izan ere, gure helburuetako bat izanik kolokazioen bitartez testu itzulien eta ez-itzulien artean lexiko-aniztasuna konparatzea, eta horretarako, besteak beste, aztertzea zenbat adjektibo gehiagori lotzen zaion izen bakoitza azpicorpus batean eta bestean, ezinbestekoa iruditu zaigu bi azpicorpusetako batean behintzat bi adjektibo ezberdinen ondoan agertzea dena delako izena. Izan ere, izen jakin bat bi corpusetan adjektibo bakar bati lotuta ageri bada, ezin izango dugu ondorioztatu zer azpicorpusetan dagoen joera handiagoa izen hori adjektibo gehiagorekin edo gutxiagorekin lotzeko.

Behin irizpide horiek ezarrita (izen eta adjektibo konbinazio bera hiru aldiz agertzea gutxienez azpicorpusetako batean, adjektiboa kalifikatzailea izatea eta izena gutxienez bi adjektibo ezberdinekin konbinatuta agertzea), beste eskuzko garbiketa bat ere egin behar izan dugu, emaitzetako batzuk testuinguru zehatz batzuetan ez zirelako egiaz adjektibo

25 Eremu semantiko bat zedarritzean mugak lausoak izaten dira askotan, eta jabetzen gara, ondorioz, lortutako zerrenda gure pertzepzio subjektiboaren emaitza dela nagusiki. Nolanahi ere, aurrerago ikusiko dugun bezala hain handiak izanik esku artean erabiliko ditugun kopuruak, ez dugu uste izen gutxi batzuen gorabeherak datuen analisisan eta interpretazioan eragin handia izan dezakeenik.



kalifikatzaileak: *berri* («gazteari adorea berriz ihesi joango zaion susmoa hartu du Errazkinek»), *bete* («zure desira bete da»), *burutu* («nire desira burutu baino lehenago»), *hil* («bazirudien gizonak barneko desira hil eta erauzi nahi zuela»), *laztan* («larruazal guztia ferekatzea eta bata besteari musuak eta maitasun laztanak oparitzea baino ez da»), *nagusi* («garai hartan, nekazaritza-interesak nagusiki, nahiz eta inoiz ez erabat»), *sor* («zenbatgarrenak harridura sor dezake hainbatengan»)...

Garbiketa horiek eginda, kolokazio posibleen gure zerrenda zehaztuta geratu da. Hala, emozioak eta sentimenduak adierazten dituzten 90 izeneko zerrenda bat lortu dugu. Honako hauek, hain zuzen:

1. adore	31. gorputzaldi	61. nahimen
2. amodio	32. gorroto	62. nazka
3. amorrazio	33. gozamen	63. neke
4. amorru	34. grina	64. nostalgia
5. atsegin	35. gupida	65. oinaze
6. atsekabe	36. gutizia	66. ondoez
7. ausardia	37. harridura	67. pairamen
8. baretasun	38. herra	68. pasio
9. beldur	39. higuin	69. patxada
10. damu	40. ilusio	70. pena
11. depresio	41. inbidia	71. plazer
12. desengainu	42. inpresio	72. poz
13. desilusio	43. interes	73. poztasun
14. desio	44. irudipen	74. samin
15. desira	45. itxaropen	75. sentimen
16. dezepzio	46. izu	76. sentimendu
17. disgustu	47. kemen	77. sentipen
18. emozio	48. kezka	78. sentsazio

19. errabia	49. kolera	79. sinpatia
20. errezelo	50. konfiantza	80. sufrikario
21. erruki	51. kontsolamendu	81. sufrimendu
22. esperantza	52. larritasun	82. susto
23. estimazio	53. lasaitasun	83. trenpu
24. estimu	54. lilura	84. tristezia
25. estutasun	55. lotsa	85. tristura
26. etsipen	56. maitasun	86. urduritasun
27. euforia	57. malenkonia	87. zirrara
28. ezinegon	58. min	88. zorion
29. ezinikusi	59. miresmen	89. zoriontasun
30. goibeltasun	60. nahigabe	90. zoritxar

90 izen horiek 139 adjektiborekin konbinatzen dira. Hona hemen 139 adjektiboak:

1. ageriko	48. eznatural	95. menderaezin
2. ahul	49. ezti	96. merezigabe
3. aldakor	50. faltsu	97. mikatz
4. alfer	51. fin	98. mingarri
5. amaiezin	52. gaindiezin	99. mingots
6. amankomun	53. gaitz	100. miragarri
7. apal	54. gaixto/gaizto	101. moderatu
8. aringarri	55. galant	102. mugagabe
9. arraro	56. garrantzitsu	103. nagusi
10. arrazional	57. gazi-gozo	104. natural
11. arrotz	58. goibel	105. negatibo

12.	aseezin	59.	gordin	106.	neurrigabe
13.	aske	60.	goren	107.	noble
14.	astun	61.	gorri	108.	on
15.	atabiko	62.	goxo	109.	onbera
16.	atsegin	63.	gozakaitz	110.	orokor
17.	atsegingarri	64.	ha(u)ndi	111.	osasungarri
18.	basati	65.	harrigarri	112.	paregabe
19.	beharrezko	66.	heldu	113.	partzial
20.	beldurgarri	67.	higuigarri	114.	perfektu
21.	benetako	68.	hobe	115.	positibo
22.	berekoi	69.	huts	116.	pozgarri
23.	berezi	70.	hutsal	117.	sakon
24.	berreskuraezin	71.	ideal	118.	samin
25.	berri	72.	iheskor	119.	samur
26.	bihozbera	73.	indartsu	120.	sarkor
27.	biribil	74.	infinitu	121.	soil
28.	bitxi	75.	inkontziente	122.	sor
29.	bortitz	76.	inozo	123.	suhar
30.	desatsegin	77.	intimo	124.	sutsu
31.	deseroso	78.	iraunkor	125.	tonto
32.	dohakabe	79.	irrazional	126.	txar
33.	eder	80.	itogarri	127.	txiki
34.	egiazko	81.	itzel	128.	txoro
35.	erabateko	82.	izigarri	129.	uher
36.	eraginkor	83.	jasanezin	130.	unibertsal
37.	erdiragarri	84.	jasangaitz	131.	ustel

38. ero	85. komun	132. xalo
39. erreal	86. konplexu	133. xume
40. errudun	87. kontraesankor	134. zahar
41. etsi	88. kroniko	135. zentzugabe
42. eutsiezin	89. lasaigarri	136. zital
43. ezagun	90. latz	137. zoli
44. ezezagun	91. lazgarri	138. zoragarri
45. ezinezko	92. lizun	139. zoriontsu
46. ezkor	93. lotsagabe	
47. ezkutu	94. maltzur	

90 izen eta 139 adjektibo horiekin 723 konbinazio ezberdin sortzen dira guztira.

Izenetako bakoitzak zenbat adjektibo hartzen dituen aztertuta, ikusiko dugu 90 izenetatik 46 bi, hiru edo lau adjektiborekin baino ez direla konbinatzen. 22 izenek 5 eta 10 adjektibo artean hartzen dituzte ondoan. 12 izenek 11 eta 20 adjektibo hartzen dituzte ondoan. 6 izenek, 21 eta 30 adjektibo artean. Eta lau dira 30etik gora adjektibo ezberdinekin konbinatzen diren izenak. Ondoan adjektibo gehien hartzen dituen izena *sentimendu* da: 52 adjektibo ezberdinen ondoan ageri da corpusean. Hona hemen 5 adjektibo edo gehiagorekin konbinatzen diren izenen zerrenda, eta zenbat adjektiborekin konbinatzen den bakoitza:

**4.28. taula. Ondoan 5 adjektibo edo gehiago hartzen dituzten izenak eta zenbat adjektibo hartzen dituzten.**

izena	adj. kopurua	izena	adj. kopurua	izena	adj. kopurua
ezonegon	5	erruki	8	kezka	14
harridura	5	ilusio	8	plazer	15
konfiantza	5	inpresio	8	desira	16
pena	5	irudipen	8	itxaropen	17
susto	5	esperantza	9	interes	20
etsipen	6	gozamen	9	poz	20
izu	6	tristura	9	atsegin	22
lasaitasun	6	desio	10	beldur	25
lotsa	6	emozio	10	sentsazio	26
nahigabe	6	nahimen	10	grina	28
atsekabe	7	amodio	11	sentipen	30
lilura	7	gorroto	11	maitasun	34
neke	7	zorion	11	min	37
pasio	7	oinaze	12	sentimendu	52
amorr	8	zirrara	13		

### 4.3.3. Datuen analisia

Gure aztergaia deskribatuta, has gaitezen orain bi azpicorpusetako datuak konparatzen. Honako alderdi hauei erreparatuko diegu:

- Lehenengo, kolokazioen hautaketa aztertuko dugu:
  - Hasteko, erauzi ditugun kolokazioetatik azpicorpus batean eta bestean zenbat erabiltzen diren aztertuko dugu, aniztasun lexikala konparatzeko.
  - Ondoren, izenen eta adjektiboen arteko konbinatoria aztertuko dugu; hau da, azpicorpus bakoitzean zenbat izen eta zenbat adjektibo erabiltzen diren zenbatu, eta datu hori azpicorpus bakoitzean egiaz erabiltzen diren konbinazio guztien kopuruarekin harremanetan jarriko dugu. Konbinatoriaren azterketa honen bitartez, azpicorpus bakoitzean erabilera konbinazio gutxiagotan finkatua edo, aitzitik, konbinazio gehiagotan barreiatua ote den —eta, beraz, kolokazio ezohikoetara itxiagoa edo irekiagoa den— ikusiko dugu.
- Bigarrenik, agerraldi kopuruak aztertzeari ekingo diogu:
  - Hasteko, agerraldien guztizkoak konparatuko ditugu.
  - Ondoren, agerraldi kopuruak tarteetan banatu, eta tarte bakoitzean zenbat kolokazio biltzen diren konparatuko dugu.
  - Agerraldi kopuruaren analisisan sakontzeko, agerraldi kopuru txikienak eta handienak dituzten kolokazioetan jarriko dugu arreta, ezohiko kolokazioen (agerraldi kopuru txikienak dituztenen) eta ohiko kolokazioen (agerraldi kopurua handienak dituztenen) artean alderik ba ote den ikusi nahian.
- Azken pausoan, kolokazio zehatz batzuen analisi kualitatiboa egingo dugu: bi azpicorpusen artean agerraldi kopuruari dagokionez alde handia ageri duten kolokazioetan jarriko dugu arreta, desoreka hori esplika lezaketen kolokazioen bereizgarrien bila.

Lehenengo eta behin, beraz, erauzi ditugun kolokazioetatik azpicorpus batean eta bestean zenbat erabiltzen diren aztertuko dugu. Bada, identifikatu ditugun 723 kolokazioen artetik kolokazio gehiago erabiltzen dira itzulpenetan testu ez-itzulietan baino: testu ez-itzulietan 585 kolokazio jasotzen dira guztira, eta testu itzulietan 650. Hau da, gehiago dira itzulpenetan agertu eta euskal idazleek behin ere erabiltzen ez dituzten kolokazioak (138 kolokazio), euskal idazleen testuetan agertu eta itzultzaileek behin ere erabiltzen ez dituztenak baino (73 kolokazio): 1,89 aldiz gehiago, hain zuzen.

Hauek dira, zehazki, itzulpenetan soilik ageri diren kolokazioak:

1.	adore berezi	47.	grina faltsu	93.	nahimen soil
2.	adore etsi	48.	grina menderaezin	94.	nahimen txar
3.	amorrazio eder	49.	grina suhar	95.	neke itzel
4.	atsegin alfer	50.	gupida samur	96.	plazer arrotz
5.	atsegin basati	51.	gutizia berri	97.	plazer berreskuraezin
6.	atsegin bitxi	52.	harridura ageriko	98.	plazer bitxi
7.	atsegin eder	53.	higuin berezi	99.	plazer mugagabe
8.	atsegin ezezagun	54.	higuin bortitz	100.	plazer sakon
9.	atsegin ezti	55.	ilusio partzial	101.	plazer soil
10.	atsegin faltsu	56.	ilusio soil	102.	poz benetako
11.	atsegin iraunkor	57.	interes amankomun	103.	poz harrigarri
12.	atsegin neurrigabe	58.	interes erreal	104.	poz mingots
13.	atsegin orokor	59.	interes iraunkor	105.	poz zoragarri
14.	atsegin samur	60.	interes sutsu	106.	poztasun basati
15.	atsegin zoragarri	61.	irudipen hutsal	107.	poztasun xalo
16.	atsekabe latz	62.	irudipen orokor	108.	sentimen goren
17.	atsekabe mingarri	63.	itxaropen alfer	109.	sentimendu basati
18.	atsekabe mingots	64.	itxaropen bitxi	110.	sentimendu bihozbera

19.	ausardia harrigarri	65.	itxaropen on	111.	sentimendu erreal
20.	baretasun bitxi	66.	itxaropen pozgarri	112.	sentimendu ezezagun
21.	baretasun erabateko	67.	izu huts	113.	sentimendu ezti
22.	beldur eder	68.	kezka egiazko	114.	sentimendu faltsu
23.	beldur menderaezin	69.	kezka orokor	115.	sentimendu goren
24.	beldur sor	70.	konfiantza berezi	116.	sentimendu latz
25.	depresio orokor	71.	konfiantza mugagabe	117.	sentimendu mingarri
26.	desio arrazional	72.	kontsolamendu xume	118.	sentimendu suhar
27.	desio eraginkor	73.	larritasun mingarri	119.	sentipen atsegingarri
28.	desio nagusi	74.	lilura ero	120.	sentipen gaizto
29.	desira berezi	75.	maitasun benetako	121.	sentipen jasanezin
30.	desira mingarri	76.	maitasun dohakabe	122.	sentipen natural
31.	desira sutsu	77.	maitasun goren	123.	sentipen suhar
32.	emozio konplexu	78.	maitasun ideal	124.	sentsazio fin
33.	emozio mingarri	79.	maitasun natural	125.	sufrikario handi
34.	erruki harrigarri	80.	maitasun onbera	126.	sufrimendu sakon
35.	erruki on	81.	min alfer	127.	tristura berezi
36.	erruki sakon	82.	min erdiragarri	128.	tristura goibel
37.	erruki samur	83.	miresmen sutsu	129.	zirrara gaizto
38.	estimatu txiki	84.	nahigabe bitxi	130.	zirrara iheskor
39.	etsipen gaizto	85.	nahigabe samin	131.	zirrara miragarri
40.	etsipen goibel	86.	nahigabe txiki	132.	zorion apal
41.	ezinikusi bortitz	87.	nahigabe zahar	133.	zorion berezi
42.	gorroto basati	88.	nahimen arrazional	134.	zorion iraunkor
43.	gorroto bortitz	89.	nahimen aske	135.	zoriontasun bitxi
44.	gorroto erabateko	90.	nahimen indartsu	136.	zoriontasun huts



- |                    |                   |                        |
|--------------------|-------------------|------------------------|
| 45. gorroto sor    | 91. nahimen komun | 137. zorientasun sakon |
| 46. gozamen berezi | 92. nahimen on    | 138. zoritxar txiki    |

Eta hauek testu ez-itzulietan bai baina itzulpenetan erabili ez direnak:

- |                        |                          |                            |
|------------------------|--------------------------|----------------------------|
| 1. amodio aske         | 25. gutizia huts         | 49. neke amaiezin          |
| 2. amorrazio huts      | 26. harridura sor        | 50. pairamen berri         |
| 3. amorru itzel        | 27. herra berezi         | 51. pasio huts             |
| 4. atsekabe infinitu   | 28. herra samin          | 52. pena gaitz             |
| 5. beldur izigarri     | 29. ilusio txiki         | 53. poz biribil            |
| 6. damu zahar          | 30. inbidia galant       | 54. sentimendu goibel      |
| 7. depresio latz       | 31. interes apal         | 55. sentimendu higuigarri  |
| 8. desio ezkutu        | 32. irudipen beldurgarri | 56. sentimendu intimo      |
| 9. desio lizun         | 33. izu atabiko          | 57. sentimendu mingots     |
| 10. dezepzio txiki     | 34. kemen berezi         | 58. sentimendu neurrigabe  |
| 11. emozio moderatu    | 35. kezka samin          | 59. sentimendu uher        |
| 12. errabia handi      | 36. kezka zahar          | 60. sentimendu zahar       |
| 13. esperantza alfer   | 37. lotsa sakon          | 61. sentipen kontraesankor |
| 14. euforia ero        | 38. maitasun beharrezko  | 62. sentipen zahar         |
| 15. ezinegon nagusi    | 39. maitasun heldu       | 63. sentsazio deseroso     |
| 16. ezinikusi zahar    | 40. maitasun perfektu    | 64. sentsazio gazi-gozo    |
| 17. gorputzaldi arraro | 41. min astun            | 65. sentsazio huts         |
| 18. gorputzaldi hobe   | 42. min gaitz            | 66. sentsazio lasaigarri   |
| 19. gorroto latz       | 43. min gordin           |                            |
| 20. gozamen merezigabe | 44. min sarkor           |                            |

- |                        |                     |                        |
|------------------------|---------------------|------------------------|
| 21. gozamen txiki      | 45. min zahar       | 67. sentsazio mikatz   |
| 22. grina ezkutu       | 46. min zital       | 68. sentsazio tonto    |
| 23. grina eznatural    | 47. min zoli        | 69. susto itzel        |
| 24. grina inkontziente | 48. miresmen berezi | 70. susto txiki        |
|                        |                     | 71. tristezia astun    |
|                        |                     | 72. tristura mingots   |
|                        |                     | 73. urduritasun arraro |

Lehen datu horietatik erraz ondoriozta daiteke aniztasun handiagoa ikusten dela kolokazioei dagokienez itzulpenetan testu ez-itzulietan baino. Itzultzaileen testuen bitartez kolokazio ezberdin gehiago iristen dira euskal irakurleengana testu ez-itzulien bitartez baino.

Azter dezagun orain nolakoa den izenen eta adjektiboen arteko konbinatoria azpicorpus batean eta bestean. Azaldu berri dugun bezala, testu ez-itzulietan 723 kolokazioetatik 585 erabiltzen dira guztira, eta itzulpenetan 650. Izenen erabilerari dagokionez, gure zerrendako 90 izenak erabiltzen dira bi azpicorpusetan; ez dago bi azpicorpusetako batean ageri ez den izenik. Adjektiboetara dagokienez, ordea, aldeak daude. Gogora dezagun kolokazio posibletzat identifikatu ditugun 723 konbinazioetan 139 adjektibo biltzen direla guztira. Bada, 139 adjektibo horietatik, 124 erabiltzen dira testu ez-itzulien azpicorpusetan. Hau da, 15 ez dira behin ere erabiltzen testu ez-itzulietako kolokazioetan. Honako hauek, hain zuzen:

- |                   |                |                 |
|-------------------|----------------|-----------------|
| 1. ageriko        | 6. bihozbera   | 11. iheskor     |
| 2. amankomun      | 7. dohakabe    | 12. menderaezin |
| 3. arrazional     | 8. eraginkor   | 13. miragarri   |
| 4. atsegingarri   | 9. erdiragarri | 14. partzial    |
| 5. berreskuraezin | 10. ideal      | 15. pozgarri    |

Bestetik, itzulpenetan 119 adjektibo erabiltzen dira 139 adjektibo erabilgarrien artetik.

Behin ere erabiltzen ez diren adjektiboak 20 dira:

- |                |                  |              |
|----------------|------------------|--------------|
| 1. amaiezin    | 8. heldu         | 15. mikatz   |
| 2. beharrezko  | 9. higuigarri    | 16. moderatu |
| 3. beldurgarri | 10. hobe         | 17. tonto    |
| 4. biribil     | 11. inkontziente | 18. uher     |
| 5. eznatural   | 12. izigarri     | 19. zital    |
| 6. gaitz       | 13. lasaigarri   | 20. zoli     |
| 7. gordin      | 14. merezigabe   |              |

Bestela esanda, testu ez-itzulien azpicorpusean, 90 izen eta 124 adjektibo konbinatuta 585 kolokazio sortzen dira. Testu itzulien azpicorpusean, berriz, 90 izen eta 119 adjektibo konbinatuta 650 kolokazio sortzen dira. Hau da, izen kopuru berarekin eta adjektibo gutxiagorekin kolokazio gehiago sortzen eta erabiltzen dira itzultako testuetan. Testu ez-itzulietan, aldiz, kolokazio kopurua txikiagoa da. Erabilera finkatuagoa da testu ez-itzulietan, eta barreiatuagoa edo dibertsifikatuagoa itzulpenetan. Bestela esanda, lexiko konbinatoriari dagokionez joera ireki eta berritzaileagoak antzeman daitezke testu itzulietan, eta kontserbadoreagoak testu ez-itzulietan.

Bestalde, aztertzen badugu zenbat izen konbinatzen diren adjektibo gehiagorekin azpicorpus batean eta bestean, zera ikusten dugu: itzulpenetan testu ez-itzulietan baino adjektibo gehiagorekin konbinatzen diren izenak 40 dira; testu ez-itzulietan itzulpenetan baino adjektibo gehiagorekin konbinatzen diren izenak 22 dira, eta bi azpicorpusetan adjektibo kopuru berarekin konbinatzen diren izenak 28 dira. Hau da, dibertsifikaziorako joera handiagoa ikusten dugu berriro ere testu itzulien azpicorpusean.

Errepara diezaiegun orain agerraldi kopuruei. Ikus dezagun, bada, kolokazio horiek guztiak zenbat aldiz erabili diren azpicorpus batean eta zenbat bestean. 723 kolokazioak 6.269 aldiz erabili dira testu ez-itzulien azpicorpusean; itzulpenen azpicorpusean 7.765 aldiz faktore zuzentzailea aplikatu gabe, eta 9.085,05 faktore zuzentzailea aplikatuta. Kolokaziook

gehiagotan erabiltzen dira itzulpenetan testu ez-itzulietan baino, beraz. Datu hori bat dator, noski, azpicorpus batean eta bestean egiaz erabiltzen den kolokazio kopuruaren datuarekin. Hau da, testu ez-itzulietan 585 kolokazio 6.269 aldiz ageri dira, eta itzulpenetan 650 kolokazio 7.765 aldiz. Proporzioa, nolana ere, altuagoa da testu itzulietan. Izan ere, testu ez-itzulietako 585 kolokazioetako bakoitza 10,71 aldiz erabiltzen da batez beste ( $6.269/585 = 10,71$ ), eta itzulpenetako 650 kolokazioetako bakoitza 11,94 aldiz ( $7.765/650 = 11,94$ ).

Gutzizko kopuruetatik harago, noski, interesgarria da aztertzea nola banatzen edo kontzentratzen diren agerraldi kopuru horiek 723 kolokazioetan. 4.29. taulan agerraldi kopuruak tartetean bildu, eta tarte bakoitzean zenbat kolokazio dauden adierazi dugu: 1 eta 10 agerraldi artean dituzten kolokazioak zenbat diren, zenbat 11 eta 20 artean dituztenak eta abar.

**4.29. taula. Kolokazio kopuruak testu ez-itzulietan eta itzulietan, agerraldi kopuruaren arabeko tartetean sailkatuta.**

Agerraldi-tarteak	Kolokazio kopurua	
	Testu ez-itzuliak	Testu itzuliak
0	138	73
1-10	480	530
11-20	46	52
21-30	24	21
31-40	13	11
41-50	1	8
51-60	4	8


61-70	3	2
71-80	1	4
81-90	1	0
91-100	0	1
101-200	10	7
201-300	1	3
301-400	0	2
400etik gora	1	1

Datuek erakusten dutenez, agerraldi kopuru txikiak dituzten kolokazioak (1-10 eta 11-20 agerraldi bitartean) gehiago dira itzulpenetan (530 kolokazio 1-10 aldiz erabiltzen dira, eta 52 kolokazio 11-20 aldiz) testu ez-itzulietan baino (480 kolokazio 1-10 aldiz erabiltzen dira, eta 46 kolokazio 11-20 aldiz). Agerraldi kopuruak gora egiten duenean, eboluzio gorabeheratsua eta ez lineala ikusten da. Nolanahi ere, tartetik tartera gorabeheraren bat badago ere, bi azpicorpusen arteko aldeak nabarmen txikiagoak dira, eta oro har esan daiteke 20 agerralditik gora dituzten kolokazioak kopuru nahiko antzekoetan erabiltzen direla testu ez-itzulietan eta itzulpenetan.

Beraz, gutxi erabilitako kolokazioak edo kolokazio ezohikoak gehiago dira testu itzulietan euskal idazleen sormen-lanetan baino, edo, bestela esanda, erabilera-maiztasun txikiagoak izateagatik kolokazioaren ideiatik gehien urruntzen diren hitz-konbinazioak ugariagoak dira itzulpenetan. Hau da, kolokaziotzat joak izateko bezain finkatuak ez dauden hitz-konbinazioak erabiltzea ohikoagoa da itzulpenetan. Alde horretatik, itzulpenak nola edo hala kolokazio berrietara irekiagoak daudela ondoriozta liteke. Bestalde, agerraldi kopuru handi samarrak izateagatik kolokazioaren definizioarekin aiseago bat egiten duten hitz-


konbinazioak antzeko kopuruetan daude presente testu itzuli zein ez-itzulietan, gorabeherak gorabehera. Eta alde horretatik esan liteke jadanik finkatutako kolokazioen erabileran ez dela alde handirik ikusten idazleen eta itzultzaileen ekoizpenen artean.

Agerraldi kopuruaren analisia bukatzeko, jar diezaiegun arreta bi muturretan dauden kolokazioei: agerraldi kopuru handienak dituztenak eta agerraldi kopuru txikienak dituztenak. Agerraldi kopuru handienak dituzten kolokazioen banaketa ikusteko, bi irudi dakartzagu. 4.38 irudian, bi azpicorpusetako kopuruak batuta guztira 50 agerraldi baino gehiago dituzten kolokazioen agerraldi kopuruak jaso ditugu. Hona hemen:



**4.38. irudia. Guztira 50 agerraldi baino gehiago dituzten kolokazioen agerraldi kopuruak.**

4.39. irudian, bi azpicorpusetako erabilerak batuta 100 agerraldi baino gehiago dituzten kolokazioak jaso ditugu, azken muturreko kolokazioen erabilera kopuruak xehetasun handiagoz ikusi ahal izateko:



**4.39. irudia. Guztira 100 agerraldi baino gehiago dituzten kolokazioen agerraldi kopuruak.**

4.38. eta 4.39. irudiek eskaintzen diguten informaziotik ezin da ondorioztatu ezberdintasun esanguratsurik dagoenik bi azpicorpusen artean. Agerraldi kopuruaren eboluzioa gorabeheratsua da; batzuetan testu ez-itzulietako kopuruak nagusitzen dira eta beste batzuetan itzulpenetakoak, eta kopuru handienetara iritsi arte ez da joera argirik ikusten. Egia da agerraldi kopuru handienak dituzten kolokazioetan itzulpenetako kopuruak sistematikoki handiagoak direla (*poza handi* 132 ez-itzul./238 itzul.; *beldur handi* 181 ez-itzul./210 itzul.; *neke handi* 148 ez-itzul./256 itzul.; *interes handi* 251 ez-itzul./311 itzul.; *atsegin handi* 163 ez-itzul./403 itzul., *min handi* 417 ez-itzul./351 itzul.), baina *handi* adjektiboaren bitartez sortutako kolokazioak dira denak, eta ez oso esanguratsuak, ondorioz.

*Handi* adjektiboa adjektibo dimentsional bat da, eta, beraz, adjektibo-kategoriako ordezkari oinarrizkoenetako bat; lau oinarrizko motetako bat (*core type*), hain zuzen (Ynduráin, 2015). Oinarrizko izaera horrek berekin dakar hainbat eta hainbat izenen ondoan erabili ohi dela. Eta ezin konta ahala izenen ondoan agertze hori ez dator bat kolokazio batean espero izatekoa den «erabilerak ezarritako murrizketa konbinatorioarekin» (Corpas Pastor, 1996). Hau da, *handi* adjektiboa ia edozein izeni lotuta ager daiteke (eta agertu ohi da), eta ez erabilerak ezarri dituen konbinazio murriztu batzuetan soilik. Alde horretatik, beraz, *handi* adjektiboa barne hartzen duten hitz-konbinazioen agerraldi kopuru handiak ez zaizkigu interesgarriak iruditzen, kolokazioaren definiziotik urruntzen diren heinean. Alde horretatik, eta Bosquerekin bat (2004), berretsi egiten da erabilera-maiztasun handiek ez dakartela ezinbestean hitz-konbinazio bat kolokazioa izatea.


Azter ditzagun orain agerraldi kopuru txikiak dituzten kolokazioak: erabilera gutxiagokoak izateagatik ezohikoagotzat jo genitzakeenak, alegia. 4.30. taulan, 3 eta 10 agerraldi artean dituzten kolokazioen datuak jaso ditugu. Kolokazio asko dira (503, zehazki); gehiegi 4.38. eta 4.39. irudien antzeko irudi batean jasotzeko. Eta beraz agerraldi kopuruaren araberrako tartetean multzokatuta adieraziko ditugu datuak. 4.30. taulan honako informazio hau jaso dugu: bi azpicorpusetako agerraldiak batuta guztizko agerraldi kopuru zehatz bat duten kolokazioen artean zenbat kolokaziok dituzten agerraldi gehiago testu ez-itzulietan itzulietan baino, zenbatek dituzten agerraldi gehiago testu itzulietan ez-itzulietan baino, eta zenbat kolokaziotan berdina den agerraldi kopurua bi azpicorpusetan. Hona hemen 4.30. taula:



**4.30. taula. 10 agerraldi edo gutxiago dituzten kolokazioen artean zenbat kolokaziok dituzten agerraldi gehiago azpicorpus batean bestean baino.**

Agerraldi kopurua guztira (bi azpicorpusetako agerraldiak batuta)	Kolokazio kopuruak			
	Testu ez-itzulietan itzulietan baino agerraldi gehiago	Testu itzulietan ez-itzulietan baino agerraldi gehiago	Testu ez-itzulietan eta itzulietan agerraldi kopuru berdinak	Guztira
3	38	83	0	121
4	40	62	0	102
5	35	69	0	104
6	17	30	12	59
7	16	23	0	39
8	13	9	8	30
9	10	19	0	29
10	7	9	1	17

Bestalde, 4.40. irudian adierazi dugu zenbat diren agerraldi kopuru zehatz bat (hiru agerraldi, lau agerraldi...) dituzten kolokazioak. Hona hemen 4.40. irudia.



**4.40. irudia. 10 agerraldi edo gutxiago dituzten kolokazio kopuruak, agerraldi kopuruaren arabeko tartetan sailkatuta.**

Ikusten denez, agerraldi kopuru txikiak dituzten kolokazioen artean, agerraldi kopuruak altuagoak dira oro har testu itzulien azpicorpusean testu ez-itzulien baino, eta bi azpicorpusean arteko aldea txikituz doa kolokazioak ohikoagoak edo erabiliagoak bihurtu ahala (hau da, haien agerraldi kopuruak handiagoak izaten hasten direnean). Datu horiek berretsi egiten dute berriro ere orain arte antzeman dugun joera: zenbat eta ezohikoagoak (gutxi erabiliak) izan kolokazioak, hainbat eta handiagoa da itzulpenetako eta testu ez-itzulietako erabileren arteko aldea. Itzulpenetan ezohiko kolokazioak ugariagoak dira (4.29. taulan adierazi bezala), eta gainera kolokazio ezohiko horiek gehiagotan erabiltzen dira (4.30. taulan eta 4.40. irudian adierazi bezala).

Kolokazio kopuruaren eta agerraldi kopuruaren analisia eginda, beste bi alderdiri erreparatu nahi diegu orain: batetik, erabileran bi azpicorpusean artean alde nabarmena ageri duten zenbait kasu aipagarri aurkeztuko ditugu; bestetik, hizkuntzaren zuzentasunari eta erregistroei lotuta bi azpicorpusean artean topatu ditugun zenbait ezberdintasunez jardungo dugu.

Bi azpicorpusen artean agerraldi kopuruari dagokionez alde handia ageri duten kasu zehatzak aztertzen hasita, bereizi beharrekoak iruditzen zaizkigu egile bakar bati zor zaizkion erabilera-maiztasun handiak eta azpicorpus batean hainbat egileren artean hedatuta daudenak. *Beldur osasungarri* kolokazioaren kasu zehatzean, egia bada ere agerraldi kopurua nabarmen handiagoa ageri duela testu ez-itzulien azpicorpusean (14 agerraldi testu ez-itzulietan eta bakarra itzulpenetan), agerraldi guztiak liburu bakar bati dagozkio: Pako Aristiren *Independentziaren paperak* (2012). Kasu zehatz hau ez da, beraz, testu idatzietako edo itzulpenetako joeren adierazle, ezpada egile zehatz baten estiloaren erakusgarri edota literatur lan zehatz baten testuinguruan bakarrik kokatzen den erabilera salbuespenezkoa.

Alde handia ageri duten kasuetako hainbat, bestalde, *handi* adjektiboaren bitartez sortutako kolokazioei dagozkie: *atsegin ha(u)ndi* (ez-itzul. 163/itzul. 403), *atsekabe handi* (ez-itzul. 27 /itzul. 77), *erruki handi* (ez-itzul. 11/itzul. 25), *ilusio handi* (ez-itzul. 86 /itzul. 34), *nahigabe handi* (ez-itzul. 30//itzul. 71)... Gorago agerraldi kopuru handienak dituzten kolokazioei buruz hitz egitean azaldu dugun bezala, horrelakoak ez zaizkigu adierazgarriak iruditzen kolokazioaren kontzeptuaren ikuspuntutik eta beraz ez diegu arreta gehiago eskainiko.

Askoz interesgarriagoak iruditzen zaizkigu beste zenbait kasu. *Errezelo txar* kolokazioa, adibidez, 19 aldiz ageri da euskaraz sortutako testuetan, eta 3 aldiz euskarara itzultitakoetan. Testu ez-itzulietako 19 agerraldiak 7 idazle ezberdinen 11 libururi dagozkie; itzulpenetako 3ak bi itzultzaile ezberdinek itzultitako bi liburutan aurkitu ditugu.

*Gorputzaldi txar* kolokazioaren kasuan ere balantzak testu ez-itzulien azpicorpusaren alde egiten du: 30 aldiz erabiltzen da euskaraz sortutako testuetan, eta 10 itzultitakoetan. Testu ez-itzulietan 21 liburutan agertzen da, 14 idazleren eskutik; itzulpenetan, 7 liburutan, 6 itzultzailearen eskutik.

Badira beste bi kasu interesgarri, kontrara, zeinetan itzulpenetako datuak gailentzen diren: *grina txar* eta *lotsa on*. Lehenengoa 9 aldiz erabili da testu ez-itzulietan eta 50 aldiz itzulpenetan (14 itzultzailearen 15 liburu ezberdinetan); bigarrena, 2 aldiz testu ez-itzulietan eta 41 aldiz itzulpenetan (20 itzultzailearen 33 liburutan).

Bereziki interesgarriak iruditzen zaizkigu lau kasu horiek, lauretan aldeak nabarmenak izateaz gain, tradizioan ondo errotutako erabilerak direlako laurak. *Lotsa on* kolokazioak azpisarrera bat du Euskaltzaindiaren Hiztegian, eta *errezelo txar*, *gorputzaldi txar* eta *grina txar* kolokazioak Orotariko Euskal Hiztegian jasota daude, adibide batean baino gehiagotan. Testu itzulien kasuan, sorburu-testuan itzultzailea euskarazko kolokazio zehatz horiek erabiltzera bultzatu duen ezer ez balego, halako erabilerak itzulpenetan nekezago aurkitu beharko genituzkeela pentsa liteke, baina ikusten dugunez haietako bi (*grina txar* eta *lotsa on*) nabarmen gehiago erabili dira itzulpenetan, euskaraz sortutako testuetan baino.

Badira, bestalde, adjektiboen banaketa markatuen kasuak. *Sentsazio* izenari, adibidez, gehiagotan lotzen zaizkio *arraro* eta *berezi* adjektiboak testu ez-itzulietan (*sentsazio arraro*, ez-itzul. 35/itzul. 10; *sentsazio berezi*, ez-itzul. 26/itzul. 10); itzulpenetan, berriz, *bitxi* lotzen zaio gehiagotan (ez-itzul. 24/itzul. 40). Berriki aipatu dugun *grina* izenaren kasuan ere, orekatuagoa ikusten da *grina gaizto* kolokazioaren erabilera (ez-itzul. 22/itzul. 33) *grina txar* kolokazioarena baino (ez-itzul. 9/itzul. 50). Eta aipagarriak dira orobat *zirrara* izenak azpicorpus batean eta bestean gehien hartzen dituen adjektiboak: testu ez-itzulien azpicorpusean *zirrarak bereziak* izaten dira gehienbat (ez-itzul. 55/itzul. 14), eta itzulpenen azpicorpusean *sakonak* (ez-itzul. 7/itzul. 27).

Beste kasu aipagarri bat *trenpu* izenari lotuta dago. *Trenpu* izenaren bitartez sortzen diren bi kolokazioetan agerraldi kopuruak nabarmen handiagoak dira testu ez-itzulien azpicorpusean: *trenpu on* 13 aldiz ageri da testu ez-itzulietan eta 3 aldiz itzulpenetan; *trenpu txar*, aldiz, 17 aldiz testu ez-itzulietan eta behin baino ez itzulpenetan. Kasu honetan zentzuzkoa dirudi pentsatzeak *trenpu* hitzari berari zor zaiola aldea, eta ez *trenpu* izenaren bitartez sortzen den kolokazio zehatz bati.

Antzeko zerbait gertatzen da *susto* hitzarekin. *Susto* izena daramaten bost kolokazioetatik hirutan, agerraldi kopuruak nabarmen handiagoak dira testu ez-itzulietan itzulpenetan baino: *susto eder* (ez-itzul. 10/itzul. 2), *susto galant* (ez-itzul. 16/itzul. 1) eta *susto handi* (ez-itzul. 14/itzul. 2). Oraingoan ere, kasu hauek ez dira, itxura guztien arabera, kolokazioaren fenomenoaren ikuspuntutik interpretatu beharrekoak, eta lotuagoak dirudite *susto* hitzari berari. Izan ere, gure zerrendan jaso ditugun *susto* hitzaz osatutako kolokazio

guztietan testu ez-itzuliak gailentzen dira: aipatu berri ditugun *susto eder*, *susto galant* eta *susto handi* kolokazioez gain, *susto itzel* (ez-itzul. 5/itzul. 0) eta *susto txiki* (ez-itzul. 6/itzul. 0) ere biltzen ditu gure zerrendak. *Susto* hitza, beraz, 51 aldiz ageri da guztira testu ez-itzulietan eta 5 aldiz itzulpenetan. Begien bistakoa da *susto* hitzari zor zaiola aldea, eta ez *susto* hitzak ondoan hartzen dituen edo ez dituen adjektiboei. Eta interesgarria da kontuan hartzea *susto* hitza herri hizkerakotzat jotzen duela Euskaltzaindiaren Hiztegiak, halakotzat markatuak diren hitzak ugariagoak baitira testu ez-itzulietan itzulpenetan baino, laster azalduko dugun bezala.

Adjektiboetan jartzen badugu arreta, *gazi-gozo* adjektiboaren kasua nabarmengarria da. Hiru izen ezberdini lotzen zaie *gazi-gozo* adjektiboa guztira corpusean: *sentimendu*, *sentipen* eta *sentsazio*. Eta hiruretan erabilera altuagoa da testu ez-itzulietan: *sentimendu gazi-gozo* kolokazioak 12 agerraldi ditu testu ez-itzulietan eta bakarra itzulpenetan; *sentipen gazi-gozo* kolokazioak, 9 testu ez-itzulietan eta 2 itzulpenetan; eta *sentsazio gazi-gozo* kolokazioak, 11 testu ez-itzulietan eta bakar bat ere ez itzulpenetan.

Aipatzekoa da, bestalde, agerraldi kopurua itzulpenetan nabarmen handiagoa den kasuetako hainbatetan, *huts* dela kolokazio horietako adjektiboa: *atsegin huts* (ez-itzul. 7/itzul. 26), *grina huts* (ez-itzul. 2/itzul. 10), *ilusio huts* (ez-itzul. 15/itzul. 28), *irudipen huts* (ez-itzul. 22/itzul. 39), *lilura huts* (ez-itzul. 2/itzul. 14), *maitasun huts* (ez-itzul. 4/itzul. 23). Honen azalpen posible bat itzulpenetako sorburu hizkuntzen interferentziaren bat izan liteke. Begirada azkar bat botata, adibide horietako askotan sorburu hizkuntzak ingelesa, frantsesa, gaztelania eta italiara direla ikusi dugu. *Huts* horiek, beraz, ingelesezko *just*, frantsesezko *pur(e)*, *seul(e)(ment)*, gaztelaniazko *puro/a*, *simple(mente)* eta italierazko *puro*, *semplice* terminoen ordainak izan litezke.

Gorago aipatu dugunez, analisiaren amaiera honetan arauarekiko eta estandarrarekiko errespetuari lotutako auziak aipatuko ditugu. Izan ere, koloreen eta denbora-adberbioen azterketatik ondorioztatu dugunarekin bat, gure kolokazio-zerrendan ere arautik urruntzen den aldaeraren bat ageri denean, gehien-gehienetan testu ez-itzulien azpicorpusean gertatzen dela ikusi dugu. Azter ditzagun, adibidez, *handi* zuzenaren ordeztatu *haundi* aldaera ez onartua erabiltzen duten kasu guztiak:

Kolokazioak	Agerraldiak	
	Testu ez-itzuliak	Testu itzuliak
atsegin haundi	11	1
beldur haundi	8	0
estimua haundi	4	0
interes haundi	7	0
kezka haundi	8	0
min haundi	11	2
neke haundi	6	0
pena haundi	9	0
plazer haundi	10	1
poz haundi	5	0
<b>Guztira</b>	<b>79</b>	<b>4</b>

Argi ikusten da idazkera ez onartua askoz ere ugariagoa dela idazleen testuetan itzultzaileenetan baino. Alde hain handiarekin ez bada ere, testu ez-itzulietan itzulpenetan baino gehiago erabiltzen dira *konfidantza* eta *sentimentu* idazkera ez onartuak ere. *Konfidantza* 3 aldiz erabiltzen da testu ez-itzulietan bi idazleren eskutik, eta behin itzulpenetan; *sentimentu* 3 aldiz erabiltzen da testu ez-itzulietan bi idazleren eskutik, eta behin ere ez itzulpenetan.

Aldaera ortografiko eta fonetiko adierazkorretan ere presentzia handiagoa aurkitzen dugu idazleen testuetan: *min gaixto* 4 aldiz ageri da testu ez-itzulien azpicorpusean, eta behin ere ez itzulpenetan.

Aldaera dialektalei dagokienez ere, testu ez-itzulietako erabilerak gailentzen dira. Euskaltzaindiaren Hiztegian iparraldeko marka daraman *izigarri* adjektiboa 3 aldiz erabiltzen da testu ez-itzulietan hiru idazleren eskutik, eta behin ere ez itzulpenetan. Hegoaldeko marka duen *dezepzio* hitza ere gehiagotan erabiltzen da euskal idazleen testuetan itzulpenetan baino: *dezepzio handi* (ez-itzul. 10/itzul. 4) eta *dezepzio txiki* (ez-itzul. 6/itzul. 0). Hegoaldeko eta herri mailako markak dituen *susto* izenaz lehenago hitz egin dugu: 51 aldiz erabiltzen da testu ez-itzulietan, eta 5 aldiz itzulpenetan. Eta behe mailako marka duen *disgustu* izenak, azkenik, agerraldi gehiago ditu testu ez-itzulietan itzulpenetan baino: *disgustu eder* (ez-itzul. 5/itzul. 2) eta *disgustu handi* (ez-itzul. 14/itzul. 6).

Adibideak gutxi dira eta kopuruak txikiak, baina joera argia da: arautik desbideratzeari dagokionez —izan arau hori zuzentasunari lotua, izan dialekto markarik gabeko estandarrari lotua—, euskal idazleak gehiagotan aldentzen dira arautik.

#### 4.3.4. Laburbilduz

Atal honetan kolokazioen erabilera konparatu nahi izan dugu literatur testu itzulietan eta ez-itzulietan: emozioak eta sentimenduak adierazteko izenak eta ondoan maiztasun gutxienerako batez hartzen dituzten adjektiboak zein eta zenbat diren, eta zenbat eta nola erabiltzen diren testu mota batean eta bestean. Datuen analitik ondorioztatu ahal izan dugunez, bi azpicorpusen portaeren artean aurkitu ditugun aldeak ez dira oso handiak, baina antzeman ahal izan ditugun joerak sistematikoki berretsita geratu dira datuei ikuspuntu batetik zein bestetik begiratuta.

Lehenengo eta behin, argi ikusten da testu itzulietan ugariagoak eta askotarikoagoak direla erabiltzen diren kolokazioak. Itzulpenetako hizkeran aniztasun handiagoa nabari da erabiltzen diren kolokazioei dagokienez: batetik, identifikatu ditugun kolokazio guztien artean kolokazio gehiago erabiltzen dira guztira itzulpenetan testu ez-itzulietan baino; bestetik,

izenen eta adjektiboen konbinatoriari erreparatuta, itzulpenetan osagai gutxiagorekin kolokazio gehiago sortzen direla ikusi dugu. Kolokazio ugariago horien erabilera, gainera, handiagoa da itzulpenetan: kolokazio guztien agerraldien guztizkoa handiagoa da euskaratutako testuetan testu ez-itzulietan baino, eta azpicorpus bakoitzeko kolokazio kopuruaren eta kolokazio horien guztizko agerraldien arteko proportzioa ere handiagoa da itzulpenetan. Testu ez-itzulietan, beraz, kolokazioen erabilera kontzentratuagoa da: kolokazio gutxiago eta gutxiagotan erabiltzen dira. Beste modu batean esanda, erabilera finkatuagoa da, eta beharbada —interpretazioan harago egiten ausartuko gara— baita kontserbadoreagoa ere, berrikuntzetara itzultzaileen testuetan baino gutxiago zabaltzen den heinean.

Kolokazio horien banaketa aztertuta, bestalde, beste ondorio interesgarri bat atera dugu: agerraldi kopuru ez oso muturrekoak dituzten kolokazioetan, ez dago ia alderik azpicorpus baten eta bestearen erabileren artean. Baina agerraldi kopuru oso altu eta bereziki oso baxuetara hurbildu ahala, bi azpicorpusen arteko aldea handitzen hasten da, testu itzulietako erabilerak gailentzen direlarik. Agerraldi kopuru oso altuen kasuak ez dira oso adierazgarriak, denak *handi* adjektibo arruntaren bitartez sortutako kolokazioak baitira eta beraz ez baitigute informazio esanguratsurik eskaintzen. Agerraldi gutxi dituzten kolokazioetan, ordea, itzulpenak gailendu egiten zaizkie testu ez-itzuliei. Hau da, gutxi erabiliak diren kolokazioak eta beraz ezohikotzat edo ez errotutzat jo daitezkeenak ugariagoak dira eta gehiago erabiltzen dira testu itzulietan. Itzulpenen azpicorpusean jarrera berritzaileagoa ikusten dugu berriro ere.

Nolanahi ere dela, ez dugu ahaztu behar eremu semantiko zehatz bat (emozioak eta sentimenduak) eta gramatika kategoria zehatz batzuetako unitateek (izenak eta adjektiboak) osatutako kolokazioak izan ditugula aztergai, eta bi faktore horiek ziurrenik eragina izango dutela emaitzetan. Beste modu batean esanda, beharbada emaitza hauen *errua* emozioena eta sentimenduen da. Hau da, gure corpuseko testu itzulien sorburu-testuak askotariko jatorri eta garaietakoak dira, eta literatur korrante, gustu eta tematika ezberdinek eragina izango zuten, noski, gure corpuseko testuetan emozioei eta sentimenduei ematen zaien lekuan eta pisan. Edo agian aztergai izan ditugun kolokazioak [izena + adjektiboa] izateak ere izango zuen zerikusirik, euskaraz izenak adjektibatzeke joera gutxiago dagoelako beste



hizkuntza batzuetan baino, edo gaur egungo literatura arloko sormen lanetan izenak adjektibatzeko joera txikiagoa dagoelako literaturaren historiako beste garai batzuetan baino. Zalantza horiek argi uzten dute interesgarria eta oso komenigarria litzatekeela etorkizunean kolokazioen edo ustezko kolokazioen arlo honetan beste kolokazio mota batzuk ere aztertzea: beste eremu semantiko batzuk, batetik, eta beste kategoria gramatikal batzuk, bestetik.

Kolokazioaren gaira hurbiltzeko metodologiari dagokionez, bestalde, argi geratu zaigu agerraldi kopuru handia ez dela nahikoa unitate lexiko biren edo gehiagoren arteko harremana kolokaziotzat jotzeko. Zentzu onak esaten digu gure zerrendako *amorrugorri*, *gorputzaldi arraro* edo *trenpu on* konbinazioak kolokaziotzat jo litezkeela zalantza handirik gabe, nahiz eta gure corpusean 10, 4 eta 16 aldiz baino ez diren erabiltzen guztira, hurrenez hurren. Agerraldi kopuru handiagoak dituzten beste asko, aldiz, nekez hartuko genituzke kolokaziotzat, hala nola *sentimendu berri* (33 agerraldi) edo *erruki handi* (62 agerraldi). Kolokazioak identifikatzeko metodologian asko dugu oraindik ikasteko eta hobetzeko, beraz.

Azkenik, tesi honetako beste atal batzuetan ikusten ari garenarekin bat, oraingo aztergai honetan ere zantzu agerikoak aurkitu ditugu esateko euskal itzultzaileen testuetan arauarekiko errespetu eta otzantasun handiagoa nabari dela, bai erabileraren zuzentasunari dagokionez (ortografia zuzena, kasu), bai aldaera geografikoen bateratzeari dagokionez (euskalkietako aldaerak ez erabiltzeko joera). Horrez gain, erregistro mailan ere estandarizaziorako joera ere antzematen da, arautik aldentzen diren muturretako zenbait erabilera (behe mailakotzat eta herri mailakotzat jotzen direnak, esate baterako) gutxiagotan baliatzen baitituzte itzultzaileek; idazleak, aldiz, libreago eta malguago aritzen dira beren testuetan, batzuetan baita arau-hausle ere.



---

# 5

## Ondorioak

---

Tesi honen bitartez euskarara egindako literatur itzulpenetako hizkera euskaraz sortutako literatur lanetako hizkeratik bereizten den aztertu nahi izan dugu. Zehazki lexikoaren arloa jorratu dugu, eta hiru alderditan jarri dugu arreta: lexiko-aberastasuna, zehaztasunerako eta ñabardurarako joera, eta lexiko-ohiturei lotutako joera berritzaileak eta kontserbadoreak. Horretarako euskarara itzultako literatur testuen eta euskaraz sortutako literatur testuen corpus konparagarri bat erabili dugu probaleku gisa. Corpus horretan hiru multzo aztertu ditugu: koloreak izendatzeko terminoen eremu semantikoa, denbora adierazteko adberbioak, eta emozioak eta sentimenduak adierazteko [izen + adjektibo] motako kolokazioak. Hiru multzoetako bakoitza osatzen duten terminoetatik testu itzulien eta ez-itzulien azpicorpusetan zein eta zenbat erabili diren neurtu eta konparatu dugu, baita termino bakoitza zenbat aldiz eta zenbat liburutan erabili den ere. Datu horien guztien analisisa eginda, zenbait ondorio orokor plazaratzeko moduan gaude orain.

Lexiko-aniztasunari dagokionez, eta hiru multzoetako emaitzak asko sinplifikatuta, ondorio kontraesankorrak lortu ditugula irudi lezake lehen itxura batean: koloreen eremu semantikoan aniztasun handiagoa ikusten da oro har itzulpenetan; denbora-adberbioen multzoan testu ez-itzulietan nabari da aniztasun handiagoa; eta kolokazioen multzoan, itzulpenetan berriro. Emaitza itxuraz gorabeheratsu horiek, nolana ere, testu itzulien eta ez-itzulien joera argi samar batzuekin bat egiten dute gure iritziz, laster azalduko dugunez.

Lehenengo, multzo bakoitzetik erauzi ditugun ondorio nagusiak aletuko ditugu, eta ondoren multzo bakoitzeko ondorio kontraesankor horiek gure ustez lotzen eta esplikitzen dituzten zehar-lerroak aurkeztuko ditugu.

Koloreen eremu semantikoan adierazle ia guztiek itzulpenetan lexiko-aniztasun handiagoa dagoela erakusten dute. Koloreak izendatzeko termino gehiago ageri dira testu itzulietan ez-itzulietan baino, bai [izena + *kolore*] egituren bitartez sortutako kolore-izendapenen azpimultzoan, bai kolore-konbinazioenean, eta oinarritzko kolore-izenen artean pareko kopuruak topatu ditugu bi azpicorpusetan. Termino horiek guztiak, gainera, gehiagotan erabiltzen dira guztira testu itzulietan, eta testu itzulietan ez-itzulietan baino agerraldi kopuru handiagoa duten terminoak gehiago dira alderantziz baino.

Horrez gain, kolore-izen erabilienean eta gutxien erabiltzen direnen arteko aldea txikiagoa da itzulpenetan, hau da, itzultzaileek modu orekatuagoan jotzen dute termino bat edo bestea erabiltzera. Testu ez-itzulietan, ordea, agerraldiak termino gutxiagotan kontzentratzen dira, eta gutxien erabiltzen diren terminoek agerraldi nabarmen gutxiago dituzte. Beren hautuetan errepikakorragoak ageri dira idazleak, alegia.

Azpicorpus batean eta bestean gailentzen diren termino motei dagokienez, ñabardurak zehazten dituzten kolore-izendapenak testu itzulien azpicorpusean ugariagoak direla ikusi dugu. Hala, ñabardura adierazteko atzizkiren batez (*-ska, -kara, -zta...*) sortu diren kolore-izenak ugariagoak dira itzulpenetan, baita bi kolore-izen elkartuta sortzen diren kolore-ñabartzeak ere (*gris nabar, hori arre...*)

Bestalde, testu ez-itzulietan hizkera estandarretik urruntzen diren kolore-izen gehiago eta gehiagotan erabiltzeko joera ikusten da. Izan ere, testu ez-itzulietan itzulietan baino

agerraldi nabarmen gehiago dituzten terminoetako asko hiztegietan euskalki-markarekin jasotzen diren formak dira (*laru, beilegi, gorrail...*), edo hiztegietan gomendatutako idazkeraz bestekoa dutenak (*urdinskara, beltzezka...*), bestela.

Lexiko-sorkuntzari dagokionez, amaitzeko, berrikuntzei irekiagoa ageri da testu itzulien azpicorpusa: ugariagoak dira itzulpenetan mailegu eta kalkoen bitartez iritsitako kolore-izendapenak (*kaki, arrosa txikle...*), batetik, eta [izena + *kolore*] egituraren bitartez sortutakoak (*mertxika kolore, alberjina kolore...*), bestetik.

Denbora-adberbioen multzoan, esan bezala, hiztegiak eta gramatikak arakatuta bildu ditugun adberbio guztien artetik gehiago erabiltzen dira testu ez-itzulien corpusean itzulienean baino. Adberbio horien agerpen-maiztasuna ere handiagoa da testu ez-itzulietan oro har. Baina kolore-izenetan ikusi bezala, denbora-adberbioen multzo honetan ere euskalki batekoak izateagatik (*behingotz, oraindikarren...*) edo Euskaltzaindiaren Hiztegian jaso gabeak izateagatik (*berandusko, orainik...*) estandarretik urruntzen diren terminoak ugariagoak dira testu ez-itzulietan, eta neurri batean forma markatu horien presentziak esplikatzen du denbora-adberbioak testu ez-itzulietan itzulietan baino askotarikoagoak izatea eta maiztasun-tarte batzuetan behintzat ugariagoak izatea. Izan ere, corpusean agerraldi gehien dituzten terminoetan, hots, oso erabiliak direnetan, ez da ia alderik nabari bi azpicorpusen artean, eta agerraldi gutxi dituzten formetan gailentzen dira testu ez-itzulietako kopuruak; forma markatuetan, hain zuzen ere.

Horrez gain, ohargarria da agerraldi kopuruen eta agerraldi horiek biltzen dituzten liburu kopuruen arteko erlazioan ere aldeak antzeman ditugula. Denbora-adberbioak testu ez-itzulietan oro har itzulpenetan baino maiztasun handiagoz erabiltzen badira ere (hots, agerraldi gehiago badituzte ere), proportzioan liburu gutxiagotan banatuta erabiltzen dira. Bestela esanda, testu ez-itzulietako agerraldiak gehiago dira baina luma gutxiagotan jasota ageri dira proportzioan, eta itzulpenetako agerraldiak gutxiago dira baina liburuetan hedatuago ageri dira. Horri gehitu behar zaio testu ez-itzulietan idazle zehatzen erabilera markatuak ere antzeman ditugula. Izan ere, agerraldi kopuruan testu ez-itzulien eta itzulien artean alde handiak neurtu dizkiegun denbora-adberbioetako batzuetan luma bakar bati zor

zaizkio agerraldi horietako gehienak, hau da, idazle bakar batenak dira agerraldi ia guztiak. Bestalde, itzultzaile bakar baten lumari zor izatea aldea oso kasu gutxitan antzeman dugu.

Kolokazioetan, azkenik, aniztasun handiagoa ikusi dugu itzulpenetan, eta ohitura finkoagoak, berriz, testu ez-itzulietan. Izan ere, emozioak eta izenak adierazten dituzten izenek eta ondoan hartzen dituzten adjektiboek osatutako konbinazio ezberdin gehiago zenbatu ditugu testu itzulietan ez-itzulietan baino. Baina, horrez gain, izen kopuru berari testu ez-itzulietan adjektibo gehiago lotzen zaizkio, eta gutxiago itzulpenetan. Hau da, konbinatoria aztertuta ikusi dugu testu ez-itzulietan adjektibo gehiago erabilita konbinazio gutxiago direla emaitza, eta itzulpenetan, aldiz, adjektibo gutxiago baliatuta konbinazio ezberdin gehiago osatu direla. Testu ez-itzulietako konbinatoria murrizagoak, kolokazioez ari garela, erabilera finkatuago baten berri ematen digu. Itzulpenetan, aldiz, non konbinatoria handiagoa den, eta emaitza beraz askotarikoagoa, kolokazioak sortzeko jarrera irekiagoa ikusten da, ohiko konbinazio errotuak erabiltzetik harago doana.

Agerraldi kopuruei buruzko datuek ere joera horren berri ematen digute. Bi azpicorpusen arteko aldea handiagoa da agerraldi gutxiko kolokazioetan, testu itzulien aldera. Hau da, agerraldi gutxi izateagatik ezohikotzat edo ez errotutzat jo daitezkeen konbinazioak maiztasun handiagoz erabiltzen dira itzulpenetan testu ez-itzulietan baino. Testu ez-itzulietan erabilera finkatuak errepikatzeko joera kontserbadoreagoa ikusten da, beraz. Itzulpenak, aldiz, konbinazio berriak ekartzeko sarbide inportanteagoak dira euskal idazleen testuak baino.

Laburbilduz, aniztasun lexikoa testu itzulietan da handiagoa batzuetan eta testu ez-itzulietan beste batzuetan, aztergai dugun multzoaren arabera. Multzo horien izaerari erreparatzen badiogu, alabaina, testu mota batek eta besteak aniztasun lexikalaren ekarpen hori modu ezberdinetan egiten dutela ikusten dugu. Testu itzulietan ñabardura eta zehaztasuna gaineratzen duten terminoen bitartez egiten da nagusiki ekarpen hori. Hau da, oinarrizko esanahiari xehetasunak gehituz eta horrela esanahia zabalduz. Hala, itzulpenetan ugariagoak dira kolore-izenen multzoan mailegu eta kalkoen bitartez esanahia zehazten duten terminoak (*arrosa txikle, kaki, oliba berde...*), [izena + kolore] egituraren bitartez ingurune elementuen izenak erabiliz sortzen diren kolore-izendapenak (*esne kolore, ikatz*

*kolore, kakao kolore...*), ñabardurak adierazten dituzten atzizkien bitartez eraturako terminoak (*arrosakara, morexka, zurizta...* kolore-izenetan, eta *geroxe, luzarotxo...* denbora-adberbioetan), eta oinarritzko bi kolore-izen elkartuz sortzen diren ñabardura kromatikoak (*gris nabar, okre hori, zuri arre...*). Hor, noski, zeresan handia dute sorburu-testuek, haiek eraginda gertatzen delako errealitateari ohiko ikuspuntutik begiratu beharrean begirada zabaltzea eta ingurunea izendatzeko modu berri eta zehatzagoak bilatu behar izatea.

Testu ez-itzulietan, ordea, sinonimiaren ondorioz da aberatsagoa lexikoa. Hau da, esanahi bera adierazteko aukeran diren unitate lexikalen artetik aukera gehiago erabiltzen dituzte euskal idazleek itzultzaileek baino. Horixe erakusten du, hain zuzen, denbora-adberbioen erabileraren analisiak. Idazleek kontatera denboran kokatzeko eskura dituzten esanahi bereko termino guztien artean termino gehiago baliatzen dituzte. Eta argi geratu da, bestalde, testu ez-itzulietan igarri dugun sinonimo-aberastasun hori aldaera diatopikoen erabilerari zor zaiola neurri handi batean, baita erregistro mailako aldaeren eta arautik desbideratzen diren bestelako aldaeren erabilerari ere. Izan ere, idazleen testuetan aberastasun handiagoa ikusi dugu euskalkietakotzat jotzen diren terminoetan, erregistroetan (bereziki behe mailakoetan) eta arauaz besteko idazkera duten terminoetan.

Testu mota bakoitzak, beraz, bere indargunea du lexiko-aberastasuna sortzeari dagokionez. Esan liteke itzulpenek semantikoki aberasten dutela euskara, esanahi mailako ñabardurez eta zehaztasunez hornitzen duten heinean. Testu ez-itzuliek ez dute esanahia zabaltzen, baina adierazleen ugaritasunaren bitartez —sinonimoen bitartez— egiten dute ekarpena.

Tesi honen hasieran, marko teorikoaz eta aurrekariez aritu garenean, lexiko-aberastasunaren inguruan egin diren ikerlanetan emaitzak gorabeheratsuak izan direla esan dugu. Oro har datu multzo oso handiak eta gordinak erabili izan direnean (type/token ratioa eta elementu lexikalen eta gramatikalen arteko ratioa, nagusiki), itzulpenetan aberastasun lexikal txikiagoa dagoela erakutsi dute datuek (Laviosa 1997, 1998 eta 2002; Xiao, He eta Yue 2010). Baina kopuru gordinak bazter utzi eta termino multzo txikiagoak xehe aztertu direnean, bestelakoak izan dira ondorioak. Jantunenek (2001 eta 2004) ez zuen pobrezia lexikorik antzeman finlandierazko testu itzulietan maila-adberbioen edo adberbio

graduatzailen sinonimo multzo bat ikertu zuenean. Koloreak izendatzeko terminoen eremu semantikoan, ordea, Olohanek (2004) aberastasun handiagoa topatu zuen ingelesezko testu ez-itzulietan, baina kontrako joera *-ish* atzizkiaren bidez sortutako adjektiboetan (Olohan 2003).

Gure azterlanean koloreen eremu semantikoaren azterketak alde bat egiten du Olohanen emaitzekin. Haren ikerlanean *-ish* atzizkiaren bidez sortutako kolore-izendapen berriak itzulpenetan gehiago ziren bezalaxe, gurean ere kolore-izendapen berriak sortzeko baliabideei dagokienez oparotasun handiagoa antzeman dugu testu itzulietan: [izena + *kolore*] egituraren bidez sortutako kolore-izendapenetan; *-kara*, *-ska*, *-zta* eta antzeko atzizkien bidez sortutakoetan; eta oinarritzko bi kolore-izen elkartuz sortutako konbinazioetan. Oinarritzko kolore-izenen erabileran, berriz, pareko kopuruak topatu ditugu bi azpicorpusetan, Olohanek ez bezala, hark aberastasun handiagoa ondorioztatu baitzuen testu ez-itzulietan. Denbora-adberbioen erabileran, azkenik, gure testu ez-itzulietako aberastasun handiagoa bat dator Olohanek koloreen azterketan lortutako ondorioekin, baina ez Jantunenek adberbio graduatzailen azterketatik ondorioztatutakoarekin, hark antzeko erabilera antzeman baitzuen bi azpicorpusetan.

Gorabehera hauek guztiek iradokitzen dute, gure ustez, *aberastasun lexiko* terminoa etiketa oso zabala dela, eta lexikoa aberasteko askotariko moduak dauden bezalaxe, corpus bateko edo testu mota bateko aberastasun lexikala neurtzeko hurbilpen modu ugari daudela, zeri erreparatzen zaion. Aberastasun hori zehaztasun semantikoa neurtuz egin daiteke, edo sinonimo erabatekoen arteko aniztasuna kalkulaturaz, edo aldaera estandarren eta diatopikoen arteko oreka neurtuz, edo proposamen lexikal berriak egiteko ahalmena aztertuz... Askok eta askotarikoak dira auziari begiratzeko moduak, eta aniztasun horren araberakoak dira, horrenbestez, lortzen diren emaitzak. Testu mota batzuetan edo besteetan lexiko aberatsagoa dagoen baieztatzen saiatzea baino egokiagoa da, gure iritzi apalean, ebaztea zer alderditan edo zer baliabide nagusiren bitartez den testu mota bat bestea baino aberatsagoa lexikoari dagokionez.

Alde horretatik, gu ez gara ausartuko ebazten euskarazko testu itzulien eta ez-itzulien artean zein diren lexiko mailan aberatsagoak, halakorik egitea orokorkeria litzatekeela uste



baitugu. Aitzitik, nahiago dugu joerez eta ekarpen zehatzez mintzatu. Gure ustez, testu mota batzuek eta besteek bi modu nagusi ezberdinetan egiten diote ekarpena euskararen lexiko-ondareari: testu itzuliek oro har semantikoki zabaltzen dute lexikoa, zehaztasun eta ñabardura semantikoen bitartez, eta horretarako lexiko-sorkuntzan, maileguetan, kalkoetan eta eratorpenean dute indargune nagusia; eta testu ez-itzuliek sinonimiaren bitartez egiten dute ekarpena, hizkera maila ezberdinetako aldaeren ugaritasuna baliabide nagusi hartuta.

Bestalde, gure ikerlanean zehar argi ikusi dugu azterketa zenbaki hutsetan oinarritzeak erredukzionismo arriskutsura eraman gaitzakeela datuak interpretatzeko orduan, eta irakurketa kuantitatiboari analisi kualitatiboa gehitzea behar-beharrezkoa dela aztergaiari buruzko informazio bete-betekoa ondorioztatu ahal izateko.

Gaiari lexiko-sorkuntzaren ikuspuntutik begiratuta, itzulpenetan oro har jarrera ireki eta berritzaileagoak ikusi ditugu. Alde batetik, esanahi berriak sortzeko prozeduretan oparotasun handiagoa aurkitu dugu itzulpenetan, hala [izena + *kolore*] egituradun kolore-izendapenen bitartez, nola kalko eta maileguen bidez, atzizkiak erabiliz edo elkarketaren ondorioz. Bestetik, kolokazioak testu itzulien azpicorpusean ugariagoak izateak erakusten digu itzulpenak hitz konbinazio berri eta ezohikoen sarbide garrantzitsua direla. Izan ere, testu itzulietan kolokazio ezberdin gehiago aurkitu ditugu, eta gainera agerraldi gutxi izateagatik ezohikotzat edo berritzailetzat jo daitezkeen kolokazioak ere ugariago erabiltzen dira itzulpenetan. Pentsatzekoa da horretan itzulpenen atzeko sorburu-testuek zeresan handia izango dutela, eta beste hizkuntzetan ohikoak diren kolokazioak gurera ekartzearen ondorioz direla askotarikoagoak kolokazioak itzulpenetan testu ez-itzulietan baino. Testu ez-itzulietan, aldiz, erabilera errotuak errepikatu eta finkatzeko joera ikusten da, eta orobat ezohiko erabilerak gutxiagotan baliatzekoa, eta alde horretatik euskal idazleen testuetan jarrera kontserbadoreagoa nabari dela esan genezake.

Auzi honen inguruan lortu ditugun datuek kontraste nabarmena egiten dute gai honetaz aritu diren beste ikerlanen emaitzekin. Lexiko-sorkuntzari dagokionez, testu ez-itzuliek oro har sortzaileagoak direla ondorioztatua zuten bai Olohanek (2003 eta 2004), bai Williamsek (2005). Lehenak *-ish* bidez sortutako ingelesezko adjektiboak testu ez-itzulietan ugariagoak eta ezohikoagoak zirela ikusi zuen. Bigarrenak frantsesezko eta ingelesezko

testuetan *coinage* edo hitz berriak bilatu zituenean haietako gehiago aurkitu zituen testu ez-itzulietan bi hizkuntzetan. Gurean, aldiz, lexiko berria sortzeko ahalmen handiagoa ikusi dugu testu itzulietan, oraintsu azaldu dugun bezala.

Kolokazioen erabileran ere joera berritzaileagoak topatu ditugu euskarara egindako itzulpenetan euskaraz sortutako testuetan baino, aurrekari izan ditugun ikerlanetan ez bezala. Bernardinik (2007) italiararako itzultzaileek kolokazioak italiarazko kolokazio errotuetara hurbiltzeko berariazko ahalegina egiten zutela ikusi zuen, eta ondorioz kolokazio tipikoak maiztasun handiagoz ageri zirela itzulpenetan testu ez-itzulietan baino. Hau da, kontserbadoreagoak ageri ziren itzultzaileak idazleak baino. Antzeko datuak lortu zituen Dayrellek (2004, 2007) portugueserako ere: kolokazioak aniztasun gutxiagokoak ziren eta adibide gutxiagotan kontzentratuta ageri ziren itzulpenetan. Euskararako, esan bezala, konbinatoria aberatsagoa eta berritzaileagoa topatu dugu itzulpenetan.

Beraz, bai testuetan unitate lexikal berriak txertatzeari dagokionez, bai unitate horien arteko konbinazio berriak sortzeari dagokionez, euskarak aztertu diren beste hizkuntzen kontrako emaitzak eman ditu gure ikerlanean: euskarazko testugintzan itzulpenek oparagoa jokatzen dute oro har. Hau da, lexiko-berrikuntzak euskarara neurri handiagoan iristen dira kanpotik —itzulpenen bitartez—, bertoko idazleek sortutako testuetatik baino. Badirudi, beraz, kanpoko eraginen aurrean euskarak iragazkorrago jokatzen duela Olohanek, Williamsek, Bernardinik eta Dayrellek aztertutako ingelesak, frantsesak, italiarrek eta portugesak baino. Euskara hizkuntza gutxitua izateak zerikusia izan lezake horretan, gure irudiko. Euskararen estandarizazioak oraindik bide laburra egingo izateak eta diglosiak giza komunikazioaren arlo guztiak hartuta izateak berekin dakar gure eredu linguistikoa oraindik hizkuntza hegemonikoena bezain errotua, finkoa eta egonkorra ez izatea, eta beharbada horregatik iristen dira kanpoko berrikuntzak itzulpenen bitartez aiseago euskarara beste hizkuntza sendoago batzuetara baino.

Idazleek eta itzultzaileek egiten duten euskalkien erabilera, bestalde, gure ikerlana alderik alde zeharkatu duen gaia da. Tesi honen sarreran aurreratu dugun bezala, idazleek eta itzultzaileek euskalkien aurrean duten jarrera aztertzea gure lehen helburuetan sartzen ez bazen ere, datuak biltzen hasi eta enkontrura atera zaigu gaia. Aztergai izan ditugun hiru

multzoetan ikusi dugu euskalkietakotzat jotzen diren terminoak ugariagoak direla testu ez-itzulietan itzulietan baino. Koloreak izendatzeko terminoen artean, agerraldi kopuruetan testu ez-itzuliek nabarmentzen diren kasuetako askoren atzean euskalkiren bateko kolore-izenen bat dago: *baltz, beilegi, laru, xuri...* Denbora-adberbioetan ere nabarmenagoa da euskalki-markadun terminoek (*ardurenean, atoan, berant, derrepentean, orano...*) konparazioan duten eragina, bi azpicorpusen arteko desorekaren arrazoi nagusietako bat direnez. Eta kolokazioei buruzko atalean, gutxiago bada ere, izan da testu ez-itzulien alderako desorekaren bat eragin duen euskalki-markadun hitzen bat ere (*izigarri, dezepzio, susto*). Hizkuntzaren aldaera estandarren eta aldaera diatopikoen artean, beraz, estandarren aldeko hautua nabarmenagoa da euskal itzultzaileengan idazleengan baino.

